

**IKERLANAK IV**

**EUSKAL ESKOLAREN IRAGANAZ  
HISTORIA BATEN BILA**  
EHIHren Proiektua (1990)

*Joseba Intxausti*



**EUSKO JAURLARITZA**  
KULTURA SAILA



**GOBIERNO VASCO**  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Lehen Argitalpena: 1991ko abendua.  
1º Edición: diciembre 1991  
Ale kopurua, 1.000 ale.  
Tirada, 1.000 ejemplares.

© EUSKAL HERRIKO ELKARTEKO ADMINISTRAZIOA/ADMINISTRACION DE LA COMUNIDAD  
AUTONOMA DE EUSKADI  
KULTURA SAILA/DPTO. DE CULTURA

Argitaratzailea/Edita: IRARGI. Centro de Patrimonio Documental de Euskadi  
Palacio Rekalde. Apdo. 220. Bergara

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Impel Comunicación. Aizkorri, 24.Legazpi.  
Inprimatzailea/Imprime: Gráficas Legazpi. Zumárraga.



**AURKIBIDEA**

<i>Hitzaurrea</i> .....	13
<i>Sarrera-oharrak</i> .....	19
<i>Gertakarien ustegabeko etorrian</i> .....	27
<b>LEHEN PARTEA</b>	
<b><i>Proiektuaren nondik norakoak</i></b> .....	31
<b>1. Aukeratu den egitekoa</b> .....	32
1.1. "Historia"-rik behar ote? .....	32
1.2. "Euskal Herriko Ikastolaren Historia (EHIH)" Proiektua .....	35
1.3. "Ikastolaren Artxibategi Nagusia (IAN)" .....	36
1.4. Eskolaren Erakustokia .....	39
<b>2. Errealitate idatzira lehen hurbilketa (1989-1991)</b> .....	43
2.1. Artxiboekiko lehen inkesta (1989) .....	44
2.1.1. Inkestaren helburuak	
2.1.2. Galde-sortaren edukinak	
— Oinarrizko datuak	
— Harreman-datuak	
— Langai historikoak	
2.1.3. Inkestaren emaitzak	
— Araba	
— Bizkaia	
— Gipuzkoa	
— Iparraldea	
— Nafarroa	
— Euskal Herria, oro har	
2.2. "Etxepare" zundaketa (1990) .....	58
2.2.1. Hautaturiko ikastolak	
2.2.2. Emaitzak	
2.3. "Leizarraga" Programa (1991) .....	63
2.3.1. Egitarauaren edukina	
2.3.2. Emaitzak	
<b>3. Idazkitan, eta bestetan, bilkizun ditugunak</b> .....	67
3.1. Idazkien bilketa, bere orokorrean .....	68
3.2. "Ikastola-biografiak" .....	69

3.3. Agiri mintzatuen sorkuntza .....	70
3.4. Ikastolaren ikonografia eta ikusentzunezkoak .....	71
<b>4. Ahozko Historiaren zeregin eta baliabideak .....</b>	<b>75</b>
4.1. AHren arazo eta albisteak .....	76
4.1.1. Ahozko Historiaren historiaz	
- Nazioarteko oihartzunak	
- Estatu espainolean	
- Frantzian	
- Euskal Herrian	
4.1.2. Zer da Ahozko Historia	
— Kontzeptua eta iker-barruti usuenak	
— Filosofia eta lan-moduak	
— Laburbilduta	
4.2. EHIHrako lan-proposamenak .....	90
4.2.1. Oharkizun orokorrak	
— Ahozko Historia, EHIHren barnean	
— AH eta idazkien bilketa	
— Ahots-artxiboa eta ondoko ikerkizunak	
— Gerorako, aztertzeke, geratzen zaizkigunak...	
4.2.2. Lan-proposamenaren egitaraua	
— Lehentasunak: hautatu diren lan-eremuak	
— Egindako hautapenen arrazoiak	
4.3. Ondoriobidezko proposamenak .....	104

## BIGARREN PARTEA

### *“EHIH” Proiekturako lan-idazkiak*

<b>I. Idazkien bilketa-gidoi orokorra .....</b>	<b>111</b>
1. Lehen oharrak .....	112
1.1. Gidoi orokorra eta gidoi bereziak .....	112
1.2. Harremanak, norekin? .....	113
2. Zer da bilatzen duguna? .....	114
2.0. Erakunde orokorrak .....	114
2.0.1. Erakunde orokor propioak	
2.0.2. Erakunde edo talde lagungarriak	
2.0.3. Estatuaren Erakunde ofizialak	

2.1. Ikastolaren barneko agiriak .....	116
2.1.1. Eraikuntza	
2.1.2. Oinarrizko antolamendua	
2.1.3. Ikastolaren ekonomia eta administrazioa	
2.1.4. Ikastolaren lan-egiturak	
2.1.5. Ikastolakideen arteko harremanak	
2.1.6. Ikastolaren pedagogia eta didaktika	
2.1.7. Ikas-eginkizun libreak, ospakizunak, aisia	
2.2. Ikastolarekiko kanpoko idazkiak .....	122
2.2.1. Norbanakoen eskuetakoak	
2.2.2. Erakunde eta Elkarte ez-ofizialetakoak	
2.2.3. Erakunde ofizialetakoak	
2.3. Eranskina: Bilaketa-oroigarria .....	125
2.3.1. Bila-eremuak	
2.3.2. Ikastola-barnetikoak (adibideak)	
2.3.3. Erakunde publikoetatikoak (adibideak)	
3. <i>Non</i> aurki daiteke bilatzen duguna? .....	127
3.1. Irakas-erakundeetan .....	127
3.1.1. Ikastetxeetako artxiboa	
3.1.2. Eskualdeko ikastola-artxiboa	
3.1.3. Herrialdeko Ikastola-Elkartea	
3.1.4. Euskal Herriko Ikastolen-Elkartea	
3.1.5. Bestelako Erakundeetan	
3.2. Inguruko norbanako laguntzaileen artean .....	128
3.3. Erakunde eta Elkarte sozialetan .....	130
3.4. Erakunde Publikoetan .....	131
4. <i>Zertarako</i> eta <i>nola</i> egingo da agiri-bilketa? .....	132
4.1. <i>Zer</i> eta <i>zertarako</i> da bilketa hau, EHIH Proiektuan? .....	132
4.2. <i>Zer</i> da eta <i>nola</i> egingo da idazki-bilketa? .....	133
<b>II. Idazkien bilketa: 1. "Leizarraga" Programa (1991).</b> .....	137
1. "Leizarraga" Programaren unea .....	138
2. Programaren helburuak .....	138
2.1. "Leizarraga", EHIHren testuinguruan .....	138
2.2. Programaren bila-eremuak .....	139
2.2.1. Galtzori berezian daudenak	

	— Egoeraren arrazoiak	
	— Aukeraren arrazoiak	
	2.2.2. Biltzar, Junta eta Batzordeen aktak	
	2.2.3. Norbanakoen eskuetan dauden agiriak.	
	2.2.4. Tokiko Erakundeetan dauden agiriak (ik.4.4. ere)	
3.	Lan-antolamendua	144
3.1.	Lanaren epeak eta datak	145
3.1.1.	Erregeenetatik Bazkoetara	
3.1.2.	Bazkoetatik uda artekoa	
3.1.3.	Uda-udazkena	
3.2.	Lanaren erritmoak, eremu ezberdinetan	145
3.2.1.	Lehen bilaketa jarraitua	
3.2.2.	Zuzendaritzari berriematea	
3.2.3.	Apur galduen bilketa	
3.2.4.	Azken balantzea eta berriematea	
3.2.5.	Artxibaketa: prozedurak eta lana	
3.3.	Lankideen profilak	149
3.3.1.	Galtzorian daudenen bilaketariak	
3.3.2.	Akten biltzaileak	
3.3.3.	Norbanakoen etxeetako bilaketariak	
3.3.4.	Erakundeekiko harreman-arduradunak	
3.4.	Lan-eskualdeak eta lankidego-sarea	152
3.4.1.	Zuzendaritza/Idazkaritzen betekizunak	
3.4.2.	Eskualde-arduradunak	
3.4.3.	Herri-arduradunak, Ikastola-arduradunak	
3.4.4.	Eskualdekatze praktikoa	
3.5.	Lankideak eta Programaren zuzendaritza	158
3.6.	Bildutakoarekiko erantzukizunak	159
4.	Azken oharrak	159
4.1.	Elkartekoak ez diren ikastolak	159
4.2.	Programaren irizpide ekonomikoak	160
4.3.	Memoriak eta aldizkariak	161
5.	Lan-fitxak	161
5.1.	Ikastola bakoitzeko albiste-arduraduna	162
5.2.	Ikastola bakoitzeko informatzaileen fitxa	163
5.3.	Ikastola bakoitzaren kronograma historikoa	166
5.4.	Ikastolen eskualde-kronograma	169
5.5.	Akta-albisteen fitxa	172

5.6. Ikastola bakoitzarekiko argitalpenen fitxa .....	177
<b>III. Ahozko Historiarako lanbide-arauak .....</b>	<b>179</b>
1. AHko iker-programen araubideak .....	180
1.1. Orientabide orokorrak .....	180
1.2. Ahozko Historia ebaluatzeko araubideak .....	183
1.2.1. Programaren/Proiektuaren araubideak .....	
1.2.2. Araubide etikoak/Legalak .....	
1.2.3. Zintei/Transkribapenei dagozkien araubideak .....	
1.2.4. Elkarrizketaren edukinari buruzko araua .....	
1.2.5. Elkarrizketa egiteko araubideak .....	
1.2.6. Ikertzaile independente/ez-afiliatuen arauak .....	
1.2.7. Irakasle eta ikaslearentzako araubideak .....	
2. Gurearekiko aplikagarritasuna .....	193
<b>IV. Erakusgaien bilaketa-gidoi orokorra .....</b>	<b>197</b>
1. Bilketa-alor orokorrak .....	199
2. Bilketa erizpideak .....	199
3. Bilketa-gidoia .....	200

#### AZKEN HITZAK

#### *Oroimena, iraganaren betekizun denean*

1. Historia: oraingo geroaren iraganak .....	206
2. Ikastolak ere historia bat .....	209

#### ERANSKINAK

#### **HARREMAN-HELBIDEAK eta BIBLIOGRAFIA**

1. Harreman-helbideak .....	213
1.1. Nazioarteko harremanak .....	214
1.1.1. Nazioarteko erakundeak .....	
1.1.2. Nazioarteko aldizkariak .....	

1.2. Euskal Herriko harremanak .....	221
1.2.1. Erakundeak	
1.2.2. Euskal ikertzaileak	
2. Lehen bibliografia lagungarria .....	225
2.1. Erbesteko argitalpenak .....	226
2.1.1. Aldizkariak	
2.1.2. Liburu-artikuluak	
2.2. Euskal Herriko bibliografia (AH) .....	229
2.2.1. Aldizkariak	
2.2.2. Liburu-artikuluak	

### Erabili den zenbait laburdura

AH	Ahozko Historia
CEMS	Centre d'Étude des Mouvements Sociaux (Parise)
CNRS	Centre National de la Recherche Scientifique (Parise)
EHIE	Euskal Herriko Ikastolen Elkarte (Bilbo)
EHIH	Euskal Herriko Ikastolaren Historia (Donostia)
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea
EITB	Euskal Irrati-Telebista
ETB	Euskal Telebista
EUTG	Estudios Universitarios y Técnicos de Gipuzkoa (Donostia)
HABE	Helduen Alfabetatze-Berreuskalduntzerako Erakunde
HISTORGA	Historia Oral de Galicia (Santiago de Compostela)
HyFO	<i>Historia y Fuente Oral</i> (Barcelona)
IAN	Ikastolaren Artxibategi Nagusia
IHTP	Institut d'Histoire du Temps Présent (Parise)
IJOH	<i>International Journal of Oral History</i> (Londres)
IME	Institut Municipal d'Educació (Barcelona)
IMH	Institut Municipal d'Història (Barcelona)
ISA	International Sociological Association



OH	<i>Oral History</i>
OHA	<i>Oral History Association (elkartea eta aldizkaria)</i>
OHR	<i>Oral History Review</i>
OHRO	<i>Oral History Research Office (N.Y.)</i>
RIEV	<i>Revista Internacional de Estudios Vascos (Donostia)</i>

# HITZAURREA

Lehen hitzaurrea da, hitzaren lehenengo hitza eta bere garrantzia aztertzea. Hitzaurrea hitzen arteko erlazioak aztertzea da. Hitzaurrea hitzen arteko erlazioak aztertzea da. Hitzaurrea hitzen arteko erlazioak aztertzea da.

Lehen hitzaurrea da, hitzaren lehenengo hitza eta bere garrantzia aztertzea. Hitzaurrea hitzen arteko erlazioak aztertzea da. Hitzaurrea hitzen arteko erlazioak aztertzea da.

Lehen hitzaurrea da, hitzaren lehenengo hitza eta bere garrantzia aztertzea. Hitzaurrea hitzen arteko erlazioak aztertzea da. Hitzaurrea hitzen arteko erlazioak aztertzea da.

Lehen hitzaurrea da, hitzaren lehenengo hitza eta bere garrantzia aztertzea. Hitzaurrea hitzen arteko erlazioak aztertzea da. Hitzaurrea hitzen arteko erlazioak aztertzea da. Hitzaurrea hitzen arteko erlazioak aztertzea da.

Lehen hitzaurrea da, hitzaren lehenengo hitza eta bere garrantzia aztertzea. Hitzaurrea hitzen arteko erlazioak aztertzea da. Hitzaurrea hitzen arteko erlazioak aztertzea da.

Zein da artxiboei eta Ondare Dokumentalari buruzko bilduma batean ahozko informazioa biltzeari buruzko liburu bat agertzeko arrazoia? Bilduma honen lehen zenbakitik, Artxiboen arloari soilik lotzeak garrantzia azpimarratu genuen, bera bait da gizarte zientzien multzoa aberasteko asmotan erabil dezakegun bakarra, Zentro honek duen dedikazio profesional eta espezializatuarena hain zuzen.

Ikuspegi honetatik, guztiz logikoa da geure buruari lehen begiratuan artxibistikaren eremu zientifikotik edo, behinik behin, artxibariaren soslai profesional klasikoa definitzen duten zereginen multzorik kanpo geratuko litza-tekeen obra honen zergaiari galdegitea.

Baina errealitatea guztiz bestelakoa da, eta berehala ekingo diot horrelakorik esateko ditudan arrazoi desberdinak xehekatzeari.

Nabaria da, artxibistika hertsiki behar zaion eremu zientifikoa zehatz-mehatz interpretatuz gero, dokumentu idatziari dagokiona derrigorrezkoa dela, beronen euskarria edozein izanik ere; baina egia da halaber, interpretazio hau ez dela, hurretan ere, artxibistika guztiak zentzu berean eta aho batez gain hartzen duena (dakigun bezala, oraintxe bertan bere izaera, helburuak, etab. birdefinitzeko lanetan murgilduta dagoelarik), unibertso zientifikoa, "artxiboen mundua" ez zaiela hurbiletik ere lotzen hain muga estuei. Estuak, ez aztergai duen gaiagatik -izan ere, nekez aurki daiteke antzinako dokumentazioak eta gaur egun sortutakoak osatzen duten multzoa baino gauza harrapagaitz, eskerga eta, nolabait eta kontzeptu desberdinengatik eskuragaitzagarik-, kontzeptualki estuak baizik.

Giza harreman eta iharduereen testigantza idatziek osatzen duten doku-

mentazioaren sedimentazio gordailu diren artxiboak daudenetik, testigantza idatzi hauexek sortzen dituen komunitatearen ahozko tradizio guztia ez bada ere, horren zati handi bat arian-arian galtzen hasten dela esan daiteke. Eta horrek garrantzi eta balio kultural, historiko edo antropologiko itzela du Euskadiren historian.

Ez da mende asko euskal gizartean bere sumindura guztiarekin planteatu zela ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko gatazka, idatzi gabeko ohiturazko zuzenbidearen eta zuzenbide kodetu, idatzi eta arruntaren artekoari hertsiki loturik.

Dudarik gabe, euskal gizartearen zati bat gatazka honetatik at geratu zen eta bere bizitzako iharduerarik gehienak -"beste alderdiak" utzi zion heinean bederen- ahozko tradizio soilean oinarrituako ohiturazko arau ugari-aren arabera zuzendu zituen, bere hizkuntza izanik arau horietarik lehena.

Nabarmena da bestalde, gure hizkuntza ez zela berandu arte hizkuntza "idatzia" izan. Eta egia esan, bada gaur egun antzinako tradizioek -beti ere ahozkoari loturik- oraindik ere bizirik dirauten zonarik. Guzti hau aparteko elementu bilakatzen da, ezinbestean iraun erazi beharreko lehen mailako kultur bereizgarri.

Gehienetan azterketa antropologikora, mentalitateen historiala, gure historiako erakunde juridiko zibilik errotuenak aztertzeraz mugatzen diren bereizgarri hauek, beste ikuspegi arras desberdinetatik aztertzen hasiak dira.

Neure erizpidearen arabera, hauxe da printzipioa: ahozko tradizioa ez da idatzi aurreko eboluzioaldi bati propio zaion egintza kulturala, geure historiaren beraren elementu nabarmen eta egungoa baizik, oraina eta, jakina, iragana ere "dokumentatzeko" bide ematen duen beste osagai bat. Gaur bertan, zenbait ahozko tradiziok bizirik dirau oraindik eta berriak ere sortzen ari dira. Giza harremanak, historia bera -horien metaketa baino ez delarik-, euskarri ugariaren gainean eraikita daude, idatzizkoak ez direlarik kasu guztietan nabarmen eta garrantzitsuenak. Sorkuntza prozesu orotan, "historia egiterakoan", ahozko, idatzizko, ikusmenezko, eta bestelako elementuak biltzen dira. Beti izan da horrela, eta horretaz jabetzeko eta behar bezala baloratzeko gauza izatea da, seguraski, gure arbaso hurbilengandik bereizten gaituena.

Eta ikuspegi honetatik, artxibariok badugu zer esanik... bai eta zer eginik ere. Gure lana, besterik gabe, bizi dugun gizartearen aztarrenak iraun eraztea ahalbidetuko duten testigantzak bildu eta beren hurbileko ira-

gana aztertzean datza. Gauza oro ulertzeko ikuspegi serio batetik, bilketa honek sentsibiltate kaleidoskopikoa suposatzen du idatzizko zein idatzi gabeko material mota ororen aurrean, gizarte guztiek sortzen bait dute era honetako aztarnarik. azken batean, idatzizkoa eta ahozkoa elkarren osagarri dira.

Artxibo Zerbitzuen erabiltzaileek gero eta sentsibiltate handiagoa azaltzen dute egoera berri honen aurrean. Ez dute aski beste garai bateko dokumentuekin, kontakizun pribatuak, gutun intimoak... jada ez ditu asetzen. Non dago benetako dokumentua, ezein interesen eraginik ez duena? Inon ez, noski.

Hori dela eta, norbanako, erakunde, entitate eta abarren memoria globala iraun erazteko proiektu sorta baten pizkundea gertatzen ari da. gurea bezalako alfabetatu ondoko gizarte batek, alfabetatu ondoko artxibo fondoak sorteraziko ditu: dokumentu idatzien sedimentazioa, argazkiak, disketteak, bideoak,... dokumentu idatzia, ikusmenezkoa, ahozkoa?

Guzti horren emaitzak sendotu egingo ditu artxibo fondoak, berauen tratamenduak, lanbidearen erizpide zientifiko orokorrei jarraituko diren arren, prestakuntza espezializatuagoa eskatuko duelarik, konplexuagoa alegia.

Izan ere, lanbidea nabarmenki korapilatu da urte gutxitan, gero eta premiazko eta bananduagoak diren erronka berriei erantzun behar die. Besteak beste, ahozko iturriak biltzea da horietariko bat.

Ikuspegi profesional garbizale batetik, lan hau berez Artxibo Zerbitzue-na baino dokumentalistena eta Dokumentazio Zentro espezializatuena dela esango digute. Gogarmen soila eginez gero, nekez ezezta daitekeen argudio baten aurrean gaudela dirudi. Alabaina, esan beharra dago, orobat, erahorretako informazio iturria (hain zuzen, bere jatorrizko izaerari dagokionez tradiziozko artxiboko dokumentua bera bezain ordeztzina) erraztasun handiz bihurtzen dela artxibo fondo, dokumentu serie baten zati. Zer egin genezake guzti horrekin?

Galdera guzti hauen gainean argi izpi bat isurtzeko asmotan dator ondorengo azterlana, Joseba Intxaustik bikaintasunez burututako ikerketaren emaitza. Ez noa orain ere gorespenik egitera, obraren kalitate bikaina horretarako aski da eta. Ikastolen Federakunzak Euskadin egungo ikastola sarea sortzeko prozesuaren memoria iraun erazteak, erdi Artxibo erdi Dokumentazio Zentro (honelako zenbat dago honez gero...? izango litzatekeen eta ikastetxe hauek sortutako dokumentazio guztia bildu eta zentra-

lizatuko lukeen Zentro misto baten sorkuntza planteatu erazi du. Proiektua handiguru da eta dokumentu klasikoekin batera ahozko informazio kopuru handia bildu beharra planteatzen du. Diseinu globala behar du ezinbestean, argitaratzen dugun liburua delarik horren emaitza. Diseinu horrek proposamena dakar, benetan alernatiba berritzailea, zentzuz planteaturiko erizpide artxibistikoak eta soilik Artxibotarako den Zerbitzu bati berariak propio zaizkionak baino helburu zabalagoak bateratuz, arrazoi honexegatik azterlan bilduma honetan leku aproposa aurkitzen duena. Irakurlearen esku dago proposamena zuzena ala okerrekoa den erabakitzea.

Amaitzekotan: ahozko tradizioaren emaitzazko fondoetarako erariatzko artxibistikarik izateko inolako asmorik gabe, guztiz garrantzitsutat jotzen dut gure prestakuntzarik klasikoaren ondasuna urratsez urrats aberas-tea eta gure zeregin profesionalaren oinarriak artxibarien kolektibo profesiona-la gogoetak egitera bultzatzeko, berauek zalantzak planteatzko ba-liagarri diren disziplinar-teko ekarpen mota ororekin sakontzea, hitz bitan esanda, lanbidearen oinarria zabaltzea eta, gure lanean biltzen diren profesiona-riekiko begirunerik handienaz, gure bezeroei, hots, Artxibo Zer-bitzuen erabiltzaileei eskaini behar dizkiegun soluzioak banantzea, hori bait da gure lan guztiaren helburu nagusia.

F. Borja de Aginagalde  
Donostia, 1991ko azaroa

## SARRERA-OHARRAK

Zer egin dezake erakunde edo talde sozial batek bere iraganaren oroimena etorkizunerako gorde nahi duenean? Gisa horretako galdera bati nola erantzun jakiteko idatzi da liburu hau.

1989ko martxoan Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak (EHIE) itaun bera egin zion bere buruari: Azken mende-laurden honetako ikastolen ibilerak dagoeneko ez ote zuen behar "historia" idatzi bat ere? *Jakin* Taldea arduratu zen galderari erantzunen bat bilatzeko eginkizunaz, eta berorren barruan niri suertatu zitzaidan lan horri ekitea.

Handik hona, Proiektu izatera iritsi arte, hasierako asmoak egindako bidea deskribatzen da liburu honetan. Bienbitartean, nahiko genukeen "historia" urrun geratu zaigu, sortu nahiago izan ditugun "oroit egiturei" tartean lehentasuna eman diegulako (artxibategia, erakustokia, etab.). Izan ere, "Euskal Herriko Ikastolaren Historia" ez da orain liburu bat, egin-nahi handiagoko beste zerbait baino. Eta antolamenduaren aldetik, EHIEtik bertatik bideratuta dago Proiektua.

Proiektu honek, lehenik, batez ere bildu egin nahi du Ikastolaren Historia, gorde gero, eta, azkenik, aztertu. Gure kasuan, eginkizun guzti hori Euskal Herri osoa bezain zabala da, milaka eta milioika paper eta ekintza bezain ugaria, herritarren ahots ezberdin guztiak bezain elkarren osagarria.

EHIHren Proiektua hitz bakar baten muga hertsietara ekarri nahi balitz, hauxe izango litzateke egitasmoa: *artxibategia*. Ez derrigorrez eta bakarrik leku jakin bateko biltegia, gertakari sozial hedatu baten oroimenari eman nahi diogun edozein motatako bilpuntu tekniko baliagarria baizik.



Berehalako orrialde hauetan Proiektuaren lerro nagusiak emango dira, eta testu honek bi irakurle-molde ezberdin du gogotan: a) Etor litezkeen ikertzaileak, noski, eta, aldiberean, b) gisa ezberdinetan EHIHren lankideak izan litezkeen herritarrak.

Egia esan, ez dugu ikertzaile haiei ezer teoriko handirik irakasteko asmorik izan, eta gehienetan, lehendik ere ongi baino hobeto ezagutzen dituztenak irakurri beharko dira hemen. Hala ere, enkarguz —eta behar sozial bati erantzuteko, beraz— burutu den liburu honek ikertzaileengana ere hurbildu nahi du, Ikastolaren iker-eremu hain zabalean, lana bere osoan nola eraman litekeen proposatzeko. Proiektu honek osotasunari begiratu nahi dio batez ere, eta ikertzaileentzat ere osotasun hori eskuragarri izan dadin baldintza hobeak sortu nahiko lituzke.

Izan ere, noiz jakin ahal izango da, adibidez, Euskal Herri osoko Ikastolagintzaren oinarri ekonomikoak nola segurtatu diren? Eta adibide soil batzuekin jarraituz: Zer dakigu, orokorkeria batzuk aparte, zer izan den Ikastolaren pedagogia, baina beti ere Euskal Herri osoan? Edo gutxiago aipatu ohi den beste alde bat: Zer dakigu jaso diren arkitektur eraikuntza berriez? Zerbait hoberik ekarri ote diote tradizioz zetorren eskola-arkitekturari? Zer dakigu irakasleen prestakuntza profesionalaz? Eta abar.

EHIHren egitekoa, ba, horixe da: ikastetxeen eta inguruko erakunde guztien albisteekin “puzzle” sakabanatua guztien ikergune batera ekartzea, berriz ere, itzul-gurpila osatuz, nonahiko albisteak nornahiren eskutara eramateko.

Liburu honetan aurkeztuko den Proiektua —duen bere gorputz honetan— handik eta hemendik jasotako iradokizun anitzen emaitza da. Haste-ko, eskerronez beteta sentitzen naiz inguruan izan ditudan liburu eta autoreekin: eskura etorri zaizkidan liburu eder batzuk gabe ez nuen jakingo lanari nondik ekin, eta gutxiago nola ekar, dagoen puntura. Erbesteko bibliografiarekin batera, bereziki zordun natzairen etxeakoak gogoratuko ditut izendatuki: J.C. Jiménez de Aberasturi, Marga Otegi, G. Arrien eta M. Zalbide.

Eta idazlanekikoen ondoan, ikustaldiak. Z. Mendizabal-ekin batera egindako bizpahiru bidaiatan informazio ederrik franko jaso nuen. Barcelonako Institut Municipal d'Història-ko adiskideak laguntza ona eman zigten, eta han beti esku onez eraman gintuen Cristina Borderías-i eskerrik bihozkorrenak. Ahozko Historiarako baliozko argiak aurkitu genituen hiri

hartan eta Madrileko bi Unibertsitateetan, kasu honetan Maitane Ostolazaren laguntzarekin.

Horiek horrela, eskerrak zor dizkiegu Parisen lagundu ziguten Héléne Handalian gidariari, D. Voldman ikertzaileari eta Anne-Marie Pathé liburu-zainari: Institut d'Histoire du Temps Présent-en gure ahozko historilariak altxor bibliografiko interesgarria aurki dezakete. Irakurketen ondoan, beraz, ikustaldiek eman dute berena. Beste horietako bat izan zen, batez ere hezkuntz munduaren artxibategi eta erakustokitarako eredugarria den Barcelona-ko Institut Municipal d'Educació.

Beste molde bateko ikustaldiak ere egin ditugu Proiektuaren arduradunok, gure landa-lana egiteko edo. Proiektuaren Programa bereziek eskatu dituzten ikastetxeen ikustaldiak, alegia. Etxe bakoitzak jarri du berea: liburuan deskribatzen da zer topatu dugun. Ikastetxe hauetako artxibo-esperekiek ere argitu dituzte gure gogoetak. Eskerrik asko, premiazkoak genituen orduak eman dizkigutenei.

\* \* \*

Lan honek, gainera, bestelako laguntza intelektualik ere izan du: kritikariena. Proiektuak dituen xede eta erantzukizun sozialengatik, kritikaren egitekoa testuaren sorkuntza unera aitzinatu nahi izan dugu, argitara aurrera. Zortzi-hamar lagunek eman ahal izan dizkigute beren iritziak eta argibide osagarri eta zuzengarriak.

J. Agirreazkuenaga-ri ohar bibliografiko jakingarriak zor dizkiogu, L. Oihartzabal-i bezala; eta J. Azurmendi-ri geroko lan-antolakuntzarako baliagarri izango diren oharra. G. Arrien-ekin zorretan gara AHko galde-sortei buruzko iradokiengatik, eta orobat kronologiarekiko bere oharpenengatik, gure AHn lehenatasunak ezartzeko balioko bait du.

J.C. Jiménez de Aberasturi-k arretaz jarraitu du gure lana, eta eskuza-balki eskaini hainbat ideia eta zeregin: bibliografiako xehetasunetan, kronologia landu baten premia larria gogoratuz, Proiektu osoari bere lekukoetan testuinguru soziala nondik nora hedatu beharko geniokeen adieraztean, ahots-artxiboaz oharkizunak egitean eta erbestealdiko ikastolaren proto-historia gogoratzean.

Paulí Dávila, berriz, beste arazo batez arduratu da: Artxiboaren bilketalana beti ere geroko ikerkuntzaren begirapuntuetatik behatu premiaz. Agirreazkuenagarekin batera, euskal bibliografia osatu beharra gogoratu digu. Gu saiatu gara gure aldetik zertxobait egiten, baina emango dugunetik

harago joaterik ez dugu izan orain. Dávila-ri ohar bibliografikoak ere zor dizkiogu, eta beraren bidez ezagutu ahal izan dugu bere lekuan aipatuko dugun Salamanca-ko Eskola-Erakusketa.

Paulo Iztueta-k, lehenengo gure zirriborroan hutsune nabaria ohararazi digu, ezagututa ere, zegokion lekuan jaso gabe baztertua: Ikastola-inguruan bizirik egon izan diren lantalde parekideen historia (talde pedagogiko, argitaletxe, etab.). Zinez gure eskerrak merezi ditu ohar osagarri horrek.

Mikel Zalbide-ri ere eskerrak, bere oharretan hartu duen lanagatik. Gure lanaren "logika" mugatuagatik kanpora utzita geneukan mundu ofizialaren bilketa-alorra gogorarazi digu: Hezkuntz Administrazio Publikoarena. Ikastolaren jaiotzatik bertatik hor metaturiko paperketa ofiziala itzela da, eta historia estatistiko baterako guztiz bazterrezina.

Kritikari eta lagun hauengandik lanak ez zuen jaso osoko emendakinik, bere lehenengo zirriborro hartan; ohar osagarriak, eta zuzengarriak, berriz, ahalegindu gara azken testu honetara biltzen. Horregatik, guztiei eskerrak eman nahi dizkiet.

Eskerrak esker, bestalde giza legezkoa da nire autore-erantzukizuna aitortzea ere: testuaren azken erantzulea autorea da, eta neuri dagozkit argitalpen ondoko zigor kritikoak ere.

\* \* \*

Liburu hau, adierazi dugun bezala, bi irakurlego-motari begira idatzi da: ikertzaile edo ikertzailegaiantzat, alde batetik, eta gure lankidegai herritarrentzat bestetik. Bikoiztasun horrek bere baldintzak ezarri ditu, noski, idazketan. Ikertzailegaiantzat sarrera gisako lana izanik ere (eta ez areago), liburuan erregistro jaso landu samarra zaindu nahi izan da, eta baliteke hautapen "akademiko" horrek idazkera gehiegi zaildu izatea gure zenbait lankide herritarrentzat.

Eta alderantziz. Batez ere herrietako lankideentzat mintzatzean, testua urrundu egin da ikertzaileen zuzeneko interesetatik. Beti dira neketsuak horrelako bi helburuen arteko oreka hauek. Baina idazlan honek, halabeharrez eta enkarguz, bere osoan lanerako tresna bilakatu behar zuen, eta horretarako egin den ahalegina ikertzaileentzat berentzat ere interesgarria izango ote den gaude. Poztuko ginateke, zinez, hala balitz.

Eta gatozen beste puntu batera: errepikapenak. Liburuan zehar, ikusiko denez, zenbait ideia errepikatu egingo da, agian irakurketa jarraitu baterako testua inoiz aspergarri bihurtzeraino. Barka biezagu irakurle saiatu eta

nekatuak, izan ere liburuaren kapitulu bakoitzak (eta batzuetan baita pasarteren batek ere) beregain lagundu behar bait die lankideei hartzeko dituzten zereginetan, eta, berorien mesedetan, nahiago izan dugu testu bakoitzaren autarkia hori horrelaxe zaindu.

Azkenik, liburu honetan deskribatuko dugun *EHIH Proiektua* eginkizun irekia da, eta horren ondorioz liburuaren atalak ere bai. Alde batetik, osatzekoak dira, hemen bertan ematen ditugun lerro nagusiak luzatuz; baina beharbada baita asmatzekoa ere hemen iradoki gabekoetatik harago.

Adibide batek lagunduko digu hau argitzen. Bada liburuan “Idazkien bilketa-gidoi orokorra” izenburutzat daraman kapitulu bat, eta ondoren “1. *Leizarraga* Programa” erantsi diogu horri. Azken hau, gidoi orokor haren lehenengo aplikazioa baizik ez da, eta ondoren beste gure lanetan horrelako hainbat etor liteke, bigarrena, hirugarrena nahiz hainbatgarrena.

Gero, gainera, badago besterik: espreski beste baterako utzi ditugun lanak. Adibideak ugari izan litezke: Hemen ez da deus esaten Ikastolaren Artxibategi Nagusiak (IAN) izan beharko lukeen barne-eraketa teknikoaz (hain zuzen E. Gastañazpi-ren eskutik espero duguna), berdin Ahots-Artxiboaren arazoez, Ahozko Historiak beharko duen Plangintzaz edo Eskola-Erakustokiaren moldakuntza teknikoaz; ez dugu garatu oraindik, premiazko xehetasunekin bederen, EHIHren arategi juridiko-praktikoa, eta itxura guztiz (hola sumatzen dugu 1991ko udazken honetan, erantzun sozialen arabera), “Leizarraga” Programa bera ere agirien bilketarena baino areago lehen oinarritzko datu historikoen bilketa izango da, ez askoz gehiago.

Hortaz, aztertu edo egin ez ditugunak nahi adina dira hemen, eta ez bedi sobera harritu gure irakurlea hutsuneok aurkitzean. Eskuartean ditugunak aurreratatu ahala, etorriko dira ondokoak, urtean urteko baliabideen arabera.

Hitzaurre hau bukatzean, ez nituzte ahantzi nahi lankide eta laguntzaile finak. Denborari jarraiki, lehenik *Jakin*-eko adiskideak eta M. Larrea; ondoren, lehen saioaldian EHIEko Z. Mendizabal, eta gero Olatz Izagirre eta Eba Gastañazpi. Elisabet Etxeberria-k egin zigun bigarren partean doan AHko lanbide-arau amerikarren lehen itzulpen-lana. Gastañazpi andereñoari zor diot azken irakurketa arretatsu bat, eta Izagirre andereari hainbat xehetasun ugari buruzko albisteak.

Gure lanetan parte hartzen ari diren lagunek ere esker anitz merezi dute: ikastoletan, herrietan, erakundeetan. Toki eta adiskide askorengana zuzendu ditugu gure galderak. Guztiei eskerrak.

Lan honen hasieran eta segidan EHIE dago: asmoa bertatik sustatu duten arduradun denei nire eskerron beroa. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzekin eraman ahal izan dira aitzina Proiektuaren idazketa eta horretarako kontsultak eta landa-zundaketak. Argitalpen-orduan harrerarik onena izan du lanak "Ilargi"-ren zuzendariarengandik. Eskerrak, beraz, Borja Aginagalde jaunari, argitalpenerako atea horrela ireki dizkigulako.

J.I.

# GERTAKARIEN USTEGABEKO ETORRIAN

Ikastolagintzan gertatutakoak anitz izan dira Euskal Herrian, herrialdeetan, bailaretan, herri, lagunarte eta familietan. Behin batean, adibidez...

**Donostian** [1950etatik hasita]: Elkarrekin joan ginen [Umandi eta Labaien-ek dihardute] Kalbeton kalean Elbire bizi zen etxera; eta han aurkitu genuen emakumea gela txiki batean eta zortzi edo hamar haurrek inguratua. Ikustekoa zen gela hura: han ez zegoen mahairik, aulkirik ere ez haurrak esertzeko, lurrean zeuden guztiak eta horrela hartzen zituzten ikaskizunak.

**Elgoibar-en**, 1962ko maiatzaren 2an, goizeko bederatzietan Itziar Ajuria andereñoa, 29 haur inguruan dituela, eskolara doa, ez ordea "Escuela Nacional"-era, Eskola berria asmatu dute herrian: "Elgoibar-ko Izarra"-ren Ikastolara doaz. Lehen pisu batean dute lekua, eta ondoko etxean loritoak alaitzen du kalea. Bezperan bedeinkatu da egoitza. Ikasleen artean, Hasier eta Ernesto dira hazitxoena, seina urte dute, ikastolaren zain itxaron behar izan dutelako. Itziar andereñoak 1.500 pezetatako soldata du, baina aseguru sozialik ez. Gaurko eskola-egunak aurpegi berria du Elgoibar-en.

**Irun-en**, diru-eske, ikastolaren lehen agerraldia jendaurrean Eguberrietan egin genuen, 1962an eta ondoren Santa Ageda bezperan. Hurrena kurtsorearen bukaerako jaialdia izan zen. La Salle ikastetxean egin genuen — kompetentziaren lurretan, beraz— eta jende asko bildu zuen, guraso eta familiartekoak eta baita herriko abertzaleak ere. Jaialdiak jende asko hunkitu zuen eta propaganda izugarria izan zen ikastolarentzat.

**Gasteiz-en**, aldi honi [1963-1968] "izenik gabekoa" ezizena ere eman geniezaiokeen, izan ere, ikastolak, legez kanpo aritzez gainera, izenik ere ez bait zuen eta, hori, Izaskun Arrue lehenengo 14 haur haiei eskola ematen 1963.ean hasi zenean, horren berri zutenak euskara eta euskal kultura maite zuten banaka batzuk besterik ez zirelako; eta hauen artean ikastola izen arrunta ematen zioten. — Hazia Izaskun Arrueren etxean erein zen eta lau urtez emakume horren babespean joan zen hazten, eta aldi berean "su sakratua"-ari itzali gabe eusteaz arduratu zen. [...]. Oharkabean, gerora oraingo Olabide Ikastola bilakatuko zena prestatzen ari ziren.

**Bermeo-n** "Euskeraren Laguntzaileak" deituriko elkarteak 1966ko urriaren 1.an, Bermeo-ko ikastola izango zena zabaldu du, Fraileen komentuko "Patroien Eskola" deritzon tokian. Hasierako umeak 23 besterik ez ziren, Eufemia Uriarte andereñoaren ardurapean, baina handik hilabete batzuetara ume-kopurua ugaritu egin zen. Komentuko kapera batean aurkitu zen leku berria: 125.000 pta. eralgi behar izan ziren lekua atontzen...

**Azkoiti-an**, 1970eko urtarrilaren 7an, asteazkenez, goizeko 9,30etan ireki zen ikastola. Mari Karmen Zubiaurre andereñoa eta lau haur ziren denak, baina arratsaldean zazpi izan ziren. Martxoan hasi zen lanean Izaskun Alberdi andereñoa, eta ekainean, ikasturtea amaitzean, 54 lagun ziren nexka-mutikoak, 36 m karratutako gela bakarrean. Hola kontatzen du R. Alberdi kronikariak.

**Altsasu-n**, 1970eko uztailaren egun hura ederra izan zen. Laster ziren Sanferminak Nafarroako hainbat herritan. Jesus Atxa Gasteiztik iritsi zen, Jorge Cortés Izal, berriz, Iruñetik. Mahai baten inguruan erabaki zen dena: Jesus San Fermin ikastolaren zuzendaritza hartzera joango zen, eta Nafarroako ikastolagintzari batasun bildu bat ematera... Hurrengo bilera, Sanferminen ondoren, Vista Bella jatetxean egin zen, Ramon Urmeneta ere tartean zela... Jesus-i Ramon-ek emandako albisteek hola zioten: Pentsatzeko, gero, nora zetorren; ez zutela baimenik; berau lortzea ere zaila ikusten zutela, eta ezin ziotela bere jarraipenari buruzko bermerik eman... Hala ere, Jesus-ek baiezkoa eman zuen...

Que el Ayuntamiento en Pleno de esta Villa [**Pasaikoak**, alegia], en sesión celebrada el día diecinueve de Junio actual [1972], con asistencia de diez de los once Concejales que componen la Corporación, más el Alcalde-Presidente, D. Andrés Aramendi Sodupe, adoptó el siguiente acuerdo:



Ofrecimiento de terrenos. -*Interpretando el sentir del vecindario y recogiendo el deseo de las ikastolas de Pasajes de San Juan, Pasajes Ancho y Pasajes de San Pedro, [...] acuerda elevar al Ministerio la solicitud de creación de un Centro escolar especial en bilingüe para 880 alumnos [...]. Para ello el Ayuntamiento ofrece la cesión de una superficie de 5.464 metros cuadrados para cubrir...*

Honelako ehundaka ekinen ondorioz jaio eta eraiki izan da Ikastola Euskal Herri osoan. Guztiaren berri jakin ahal izateko, argibideen bilketa handi eta zabala premiazkoa zelakoan, lan-egitarau bat eratu nahi da gure artean. Liburu honek asmo horretxan albiste zehatza eman nahi du. Proiektuaren langaiak jendarterako eginak dira, eta arazoaz arduratuen artera ekartzeko jartzen dugu liburu hau kalean.

Lehen partean Proiektuaren nondik norakoak marrazten dira, gogoan izan ditugun hautapen, irizpide, helburu eta testuingurua erakutsiz. Bigarrenean, beriz, Proiektuaren lan-idazkiak datoz. Asmoen ondoan, beraz, baita lanerako tresna praktikoagoak ere.

# LEHEN PARTEA

## **“EHIH” PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK**

## 1. Aukeratu den egitekoa

Liburu honen xedea, EHIHren Proiektuan ditugun nondik norakoak, helmuga teorikoak, aurkeztea da lehenik, eta Proiektuko lankideei lan-tresna idatziak eskaintzea ondoren. Gure lanerako lan-gida bat egin nahi izan da hemengo materialekin, lehen pausoetarako lan-gida bat bederen. Bigarren partean daude bilduta langai horiek.

Lanok erabaki instituzional batzuen ondorioz jaio dira, hau da, "Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak" hartutako zenbait erabakiren ondorioz. Erabakiok ezezik erabakien arrazoiak ere ezagutzea komeni da, eta zerbait esan beharko da hemen berorietaz.

### 1.1. "Historia"-rik behar ote?

1989ko martxoaren 1ean Ikastolen Elkarteak bere ikastola bazkideen "Historia" orokor baten idazketa bultzatzea erabaki zuen. Erabakia ez zen, inondik ere, momentuko eta bapateko burutazioa, alderantziz baizik (1989ko apirilaren 18an berretsi zen erabaki hura). Ordurako, "Historia"-ren gogoia, han eta hemen agerian jartzen ari zen, zenbait ikastetxeren zilarrezko ezteiak tarteko zirela. Mende-laurden bat betetako edo belaunaldi oso baten eskola-ahaleginak bildutako ikastetxeok —hala pentsatzen zen— merezi zuten oroigarri iraunkor bat.

Ospakuntza horien kariaz, ikastolak tokian tokiko oroimena eguneratzen hasi ziren. Eskuartean ditudan adibide batzuk gogoratzeko, esate

baterako: San Bartolome (Elgoibar, 1962-1987), Txingudi (Irun, 1962-1987), Jakintza (Donostia, 1963-1988), Olabide (Gasteiz, 1963-1988), Itziarko Ama (Deba, 1963-1988), Orereta (Errenteria, 1963-1988), San Benito (Lazkao, 1963-1988), Deustu (Bilbo, 1963-1988), Salvatore Mitxelena (Zarautz, 1965-1990), Karmelo Etxegarai (Azpeitia, 1965-1990), Herri Ametsa (Herrera-Altza-Bidebieta, 1966-1991), Eleizaldetar Luis (Bermeo, 1966-1991), Landaberri (Lasarte, 1966-1991) eta abar luze samar batek beren oroit liburuxka eskaini dute, egindako bidearen aldarteak eta gorabeherak deskribatuz.

Lekuan lekuko euskaltzaleek eman zioten batasuna ahalegin bakoitzari, izanak berrituz, izenak antzaldatuz, baina betikoari segida emanez. Adibide ugari dugu bazterretan: "Escuela Vasca de Irún" hasiera batean, geroxeago "Escuela de Nuestra Señora del Juncal", "Irun-Hondarribiko Ikastola" ondoren, eta "Txingudi Ikastola" azkenik.

Batzuetan ikastolak elkartu egin dira, izendapen eta nortasun bakar batean; bestetan, heda-beharrez edo etenen ondorioz eraikuntza berriak sortu dira. Euskal ikastolek bide ezberdinak izan dituzte beren hazkuntzan, gizarteko itxaropen, batasun eta gatazken ispilu izan dira. Zerbait bizia eta aldakorra gertatu dira.

Gertakari historiko honen "Historia" ezagutu nahi da. Eta presa dago; Unibertsitateetako tesi eta lanetan behin eta berriz ageri da gaiarekiko interesa eta jakin-mina. Eta denok, lehenbaitlehen, "Ikastolaren Historia" eskuetan izan nahi genuke, liburu eder, zabal eta ongi landu batean... Baina "Historia" hori ez da oraindik egingarria, horrela bederen: zabala, osoa, berehala metodo egokiz landua.

Orain berton horrelakorik egitera goazela adieraztea iruzur handi bat izango litzateke guztiontzat.

Ikastolaren iturririk onenak gure artean ditugu: paper idatziak, historilariaren betiko albiste-iturria. Batez ere azken hamabost urteetarako asko aurki liteke ikastoletako bulegoetan, sailkatu, koantifikatu, irakurri eta balioesteko. Ikastolaren eraikuntzan parte hartu dutenak, gehienak gizon eta emakume gordinak ditugu oraindik, eta badute zer esan eta zer konta. Horiek dira "Historia"-rako beste iturburu bazterrezina. Lekuko hauei zor zaie oraindik hitza.

Baina, iturriak hain ugari eta oparoak izan arren, goizegi da, seguraski, bizi-berria den hortaz historilariak nahiko lukeen "Ikastolaren Historia Orokorra" egin ahal izateko. Goizegi, oraindik ere hurbilegi eta barruan gabilt-

zelako lehenik, eta, bigarren, halako iturri-altxor biziaren aurrean, lan historiografikoari ditugunetatik bestelako baldintzak sortu beharko litzaizkiokeelako.

Hain zuzen, iturri historikoen baldintzak hobetu eta egokitzea da gure EHIHren Proiektuari ezarri diogun zama. Ikastolaren (eta zergatik ez: Euskal Herriko Eskolaren) zinezko Historia egin ahal izateko, ikerlanetarako egiturazko baldintzak hobetu nahi dira, agiri-jabearen abiapuntutik ikertzailearenganainoko zubia eraikiz.

Izan ere, ez da aherentzi behar, ikastolen dokumentu-ondarea, beraiena dela, eta beste herritar askorena. Irakaskuntza publikoan (Estatuarenean, nahiz eskola munizipaletan, adibidez) edo pribatuko eskola-sare batzuetan (Ordena erlijioso jakin baten ikastetxeetan, esate baterako) egingarria da, dekretu edo araubide ezarri batzuen arabera, artxibo nagusi bat eratzea. Gurean, ostera, argi dago oso beste molde batetan eraman beharko dela artxibogintza hori.

Borondate eta sentiera sozialak irabazi beharko ditugu, Ikastolaren Artxibategi Nagusiak zer balio duen esplikatuz eta erakutsiz. Bilketa osoa milaka lagun borondateen eskuetan dago, gure kasuan. Bilketaren metodologia bera, jendearen jarrerak nahitaez baldintzatuko du. Horregatik, agiri-jabe eta lekuko guztien lankidetzat ahalbidera dezake gure Proiektua: borondatez eman edo utziko zaiguna bakarrik izango da artxiba daitekeena. Hori, dokumentu-jabegoak aitortzeak dakarren berezko ondorioa da; baina badago lehenagotik datorren beste arrazoirik ere.

Ikastolagintza, herritarrengandik jaiotako gogo eta ahalegina izan da. Hain zuzen, horixe izan du bere alderik indartsuena: euskaltzalegoak burutu duen eraikuntza da, hortaz. Alde sozial horren ondorioz, protagonista eta eragile izan ditugunengana hurbildu beharra dago, historia horrek bere aurpegi sozio-subjektiboa ere izan duelako: jendearen arrazoi pertsonalek ere esanahi historiko objektiboa dute bilatzen dugun Historiarako. Herritarren subjektibitatea ere, ikastolagintzaren errealitate objektiboa da.

Eta, hori horrela dugula, bizi izandakoaz elkarrizketa sustatu beharra dago: jendearengana joan, eta iraganaz argibideak eta lekukotasunak bilatzea, ezinbestekoa da. Aurkitu nahi den Historiaren izaerak berak, bere sozialtasun eta denbora-hurbiltasunengatik, ez gaitu artxibagintza klasiko-Ofizialen baldintzetan jartzeko, baizik eta arrunt bestelakoetara garamatza.

Dena den, EHIHren Proiektua ez doa, hortaz, 800 edo 1.000 orrialde-

tako liburu mardula egitera, baizik eta ikertzaileentzat, egunen batean hori eta gehiago egin dezaten, egiturazko baldintza berriak sortzera.

## 1.2. "Euskal Herriko Ikastolaren Historia (EHIH)" Proiektua

Gure xede hori Proiektu jakin batean gorpuztu nahi izan dugu: Proiektu hori "Euskal Herriko Ikastolaren Historia" deitu dugu. Izenburuak bizpahiru alde ezberdin azpimarratu nahi ditu:

Lehenik, Proiektuaren eremua Euskal Herri osora zabaltzen dela esan behar da: Hiru Probintziak, noski, eta orobat Nafarroa eta Iparraldea, euskaldunok erbestean ere sortu izan ditugun ikastolak ahantzi gabe. Egia da, ikastolagintzak ez dituela tamaina eta erritmo bera izan Euskal Herriko herrialde guztietan, eta nabariki Gipuzkoan izan duela, konformidadean, garapenik zabalena.

Baina, era berean, egia da beste herrialdeetako ikastolagintzak ez dituela maila bereko laguntza eta babes sozialak ezagutu, eta ondorioz, egindakoak gizarte-baldintza gogorragotan burutu behar izan direla. Bestalde, ez ditugu albo batera utzi nahi euskaldunek eta euskaltzaleek erbestean eratutako euskal ikastetxeak, gehienetan gutxi batzuren bizkar jasotakoak, baina batez ere "Euskal Etxeei" euskaltasuna emateaz gain, berriz aberriatzean hemen ere fruituak eman dituzten ikastetxeak.

Euskara ikasgai eta irakas-tresna bezala eta Euskal Herria bere herri-tasunean aintzakotzat hartuta lanean ihardun diren eskola guztiak besarkatu nahiko lituzte, beraz, Proiektu honek, nonahi eraikiak eta garatuak direla ere.

*Ikastola* aipatzen da, ez *ikastolak*. Asmo guztiz eman dugu horrela. Gure kultur erakunde hau bere osotasunean hartu nahi dugulako. Tokian tokikoak jasoz, noski, baina gertatutakoan gure herritarren edukin- eta xede-batasuna nabarmenduz. Hala ere, horrek ez du esan nahi ikastola bakoitzaren historia maite ez dugunik: hain zuzen, halako edo bestelako herritako ikastola, bere tokikotasuna batere galdu gabe, Euskal Herri osoko garapen zabalago batean lekutzen saiatuko da Proiektua.

Uste dugunez, azpimarratzen dugun ikuspide horrek argitasun heldua-goia emango dio herri bakoitzean gertatutakoari: anekdota izatetik kategoria orokor eta iraunkorrago batera pasako da herriko ikastolaren Historia.

Azkenik, Euskal Herriko Ikastola, denboraren harian ikusi eta aztertu

nahi dugu. Hau da, gertakari geldiezinetan berorren *Historia* irakurriz. Urte batzuetako jardunaldi luze batean bederen, ez diogu Ikastolaren gaurkotar- sun aberatsari helduko, ez dugu soziologia egingo. Proiektuak eginkizun historiografiko bat hartzen du bere gain, beti ere arestian esandakoen ildotik, Historia horretarako baldintzak hobetuz alegia.

Errealitatearen barrunbe historiko hau ezagutzea, zinezko balio eragile bezala ikusten dugu gure herrigintzan. Baina, balio horren aurretik eta hori gabe ere, errealitatearen ulerpen historikoa benetan gizatiarra dela uste dugu, giza izaerari guztiz atxekia, eta denon probetxutan —eta batez ere herritar ahulenen onetan— argitara atera beharko dena. Iraganaren eta gizartearen ulerpen historikoa ez duenak, oso nekez ulertuko du bere buruaren nondik norakoa ere, eta uste baino errazkiago izango da inoren eskumakila.

Ikastolaren hamarkada hauetan bizitzak *aldakortasun* geldiezina izan du, prozesu historikoei dagokien aldakortasuna, erakunde sozial bizi baten funtsezko lege bati erantzunez. Gure herriko premia, antsia eta helmugei beti ere hobeki aurre egiteko asmoz etorri dira aldakuntzok. Eta, inoiz, baita gatazka gogorrei gaina hartzeko ere. Gertakarien joan-etorri honek eman- go digu errealitatearen denbora-sakontasuna.

Historiaren ñabarduren bila goazela, behin eta berriz galdetu diogu, lehenik geure buruari eta gero hainbat teknikariri, zer egin beharko genu- keen aipatu Historia eskuratzeko. Jirabira askoren ondoren, hautakizun bakun batzuetara mugatu zaigu asmoa. Xede nagusia, ikerkuntzarako iturriak bildu, sailkatu eta segurtatzea dela jakinki, hiru kapitulu handitan banatu den oinarrizko lan-eskema proposatzen dugu:

- a) Idazkien bilketa: edozein motatako agiri idatziak.
- b) Lekuko mintzatuen bilketa: testigu historikoen lekukotasunak.
- c) Gauza eta tresnen bilketa: ikastolan sortu edo erabilitakoak.

Lanaren esparruok aipatzearekin esanda dago, gurea ez dela liburu baten idazketa-lana izango, edo nahiago bada, baizik eta batez ere bilketari emango diogula lehentasuna. Aldiberean, albotik ustegabeko erraztasunik sortuko balitz, artikulu eta liburu idazteak ere izango du lekurik; baina indarrik gehienak bilketan emateko asmoa du Proiektuak berak.

### 1.3. "Ikastolaren Artxibategi Nagusia (IAN)"

Ikerkuntza erosoago baten eta agian programatuagoaren bila goazela,

lehenengo pausoa bilduko direnekin Artxibategi Nagusia sortu eta eratzea dela iruditu zaigu. Galduta, sakabanatuta, zoko hezeren batean botata, ordenatu gabe eta beharbada leku eta modu desegokitan utzi edo barreiatuta dabilen dokumentu-ondarea nahitaezkoa da aurkitu, bildu, salbatu, sailkatu, gorde, zaindu eta ikertzaileei eskaintzea.

Artxibo baten egitekoa, bitartekari izatea da: Agiri historikoa sortu eta/edo jaso zuenaren eta ikertzaile interesatuaren artean bitartekaria izatea, esan nahi da. Baina, bitartekaritza hori ongi bete dadin, ezinbestekoa da tartean baldintza batzuk betez lan egitea.

Artxibategiaren sortzaileek, lehen-lehenik dokumentuen jabeen konfidantza irabazi behar dute, eta berauen eskuzabaltasuna sustatu. Biltzaileak dira, baina ez nolana hiko biltzaileak: Inor bortxatu gabe lan egin behar dute, Proiektuaren helburu kultural eta herritarrek argitan jarritz, agiri-jabe bakoitzaren eta guztien lankidetzaren balioa erakutsiz, lana patxara onean eta segidarik galdu gabe egiten saiatuz...

Bilketak ez du izan behar bahikuntza.

Horregatik, edozein kasutan ere, bilketaren ondoko baldintzak zeintzuk izan litezkeen adierazi beharko zaio agiri-jabeari. Bilketa ez da izango eskuz aldatze hutsa, ez da gutxiagorik ere. Bilketaren ondoren hasten da Artxibategiaren benetakoa lana: lana, agiri-jabearen edo agiri-jabe ohiaren eskubideak zaintzen, jasotako dokumentuari egokiena den lekua Artxibategian bilatzen (horrela ondoko probetxuzko erabilgarritasuna segurtatuz), agiriaren iker-erabilpena arautegi onartu baten barnean eskaintzen... Aurrez ezagututako bilketa-ondorako baldintza eta arauak erraztuko dute, gainera, hasierako bilketa bera ere.

Aldez aurretik jakin beharra dago noren eskuetara doan agiri-ondarea, nola gordeko den, nork erabiliko duen, zein segurtasun duen.

Jabeengandik ikertzaileenganaino dagoen bidean, Artxibategiak zer-bitzu tekniko batzuk emango ditu, edozein Artxibategiri dagozkionak: agiriak edozein arriskutatik atera eta zaindu, leku eta era egokietan bildu, jabe-ohiarekiko edo jabearekiko erantzukizunak bete, ikertzaileari lanerako erraztasunak sortu eta eman, langaien erabilgarritasuna begiratu...

Ondare erabilgarria ezin liteke, ordea, nolana hiki eskaini: ikertzaileei emango zaizkien erraztasunekin batera, erabilpen-baldintza batzuk ezarri beharra dago, oraingo eta geroko beste ikertzaileen onetan. Izan ere, munduko artxibo eta aztarnategiak ikertzaile txar eta onak egindako hondamendiz beteta daude, ezin edo ahal eta behar zenean erabilpen-baldintza



egokiak jarri ez zirelako. Esan gabe doa, noski, hemen diogunak ez duela zentsura eta antzeko katramilekin zer ikusirik.

Artxibategi batetik espero den ikerkuntzaren funtsezko baldintzetako bat, agirieta rainoko sarrera guztientzat eta baldintza beretan irekita edukitzea da. Iker-berdintasun sozial honen izenean ere premia zkoa gertatzen da erabilpen-arauak ongi lantzea, jabeen eskubideak babestean, ikertzaileek ere babesturik izan daitezzen.

Bestalde, ikertzaile onenak ere ez ditu sekula agiri baten iker-balioak agortzen, eta beste iker-testuinguru berrietan nahiz lehendik egindakoak birretsi behar direnetarako, agiri-ondarea bere betiko osotasunean eta erabilgarritasunean zaindu behar da, nornahik eta noiznahi berriz behar lezakeenerako.

Irizpide hauek dira Artxibategiaren bitartekaritza garbi eta zuzena ziurtatuko digutenak. Artxibategia, berez, ondasun historiko-dokumental batzuen inguruko emaile-hartzaileen harreman-sare baten bidegurutzeta izan ohi da, eta, horren ondorioz, eskubide eta zerbitzu jakin batzuen bilgunea.

Aipaturiko harremanok itxuroski zaindu ahal izateko, Artxibistikak gaur, zorionez, tresneria tekniko berri eta hobeak ditu. Gisa ezberdinetan gorde, goberna eta eskain liteke egun ondare patrimonial bat. Arrazoi askorengatik, IANek agiri originalak bildu nahi ditu batez ere: Ikastolaren artxibobatasuna lortzeko, guztiona guztion esku jartzeko, daukagun agiritegiak luzarorako segurtasunik izan dezan... Horixe da edozein Artxibategiren ametsa.

Baina originalen bilketa-asmoak ez ditu alde z aurretik jabetasunaren arazoak ukitzen: Oraingo agiri-jabeek proposatuko digute jabetasuna nola gorde edo utzi nahi duten, IANetik zein zerbitzu espero, nahi edo eskatzen duten. Emaileak edo uztailleak hainbeste izango direnez, elkarrizketa zabal baten ondoren tipifikatu beharko dira dohaintza-motak eta ondoko baldintza legal eta praktikokoak.

Esan bezala, Artxibategia agiritegia da batipat, mota guztietako paperrak bilduko dituena. EHIHren Proiektuak, dagoeneko baditu, berehala ikusiko dugunez, bilketarako gidoiak. Liburu honen bigarren parteko lanidazkietan aurkituko du irakurle eta lankidegaiak horren berri. Baina, hori horrela, bada hemen aipatu gabe laga nahi ez genukeen beste zerbait.

Ikastolaren gure historia hurbil honetan, iraganaren lekukoak, paperrtan ezezik, protagonista izan direnetan ere baditugu. Testigu hauen lagu-

narteari etekin onik ateratzeko eta ahalik ongien ateratzeko, eman da zenbait pauso. Ikusiko du irakurleak ondoko orrialdeetan. Hala ere, benetakoa lanari ekin aurreko lan-tresnak egokitu gabe ditugu oraindik. Testigutzatza mintzatuen bilketarako plangintza soziologikoa egiteko dago Proiektuan (1991ko); eraberean, elkarrizketetarako galde-sortak ere, etab. Etorriko dira, horiek ere, teknikari trebatuagoen eskuetatik, IAN deitu duguna aberasteko.

Baina Ikastolaren Artxibategi Nagusiaren ondoan (IAN), bada Proiektuan besterik ere: Ikastolaren Erakustokia, lekuko idatzi eta mintzatuen ondoan *gauza lekukoak* bilduko dituena.

#### 1.4. Eskolaren Erakustokia

Ikastolako gauzak, eskolako altzari, tresna eta sorkari materialak... Ikastolan, edo hobeki jeneralean, eskola-bizitzan hamaikatxo gauza sortu izan da kanpotik, irakas-lanerako eskola-barnea hornitzeko, apaintzeko, didaktika egokiagoak sustatzeko... Eskola tradizionalako ikas-gelatan, adinekook gure garai haietan ere hainbat gauza genuen, eskola-barneari gorputz materiala eman ziona.

Gerraondoko eskoletan altzariek beren kolorea eta zikina zituzten; mahaiek, beren tinta-marra eta tatzak; armairuek, ateak okerrak; klarionak, bere usaina zuen; zurezko luma-kirtenak, tinta zupatu orduko prest zeuden beti inoren erburu-hatz-bihotzerien hatz-tarteak urdin-belzteko... Herriko eskola berean —ikas-gela bakar zabalean— mutiko edo neskato adin ezberdinetakoak bildu ohi ginen.

Eskolak bere aide berezia zuen. Neguan, bagenuen estufa gori-gori bat. Berau zen ikasgelako pertsonariak maitatuena. Barne-dekorazioan, estufaren tximini herdoildua eskolan zehar luze-luze zihoan leihatila hautsiraino. Hurbiltxo zegoena kiskali egiten zen; haraxeago zegoena, ostera, alde bat bero eta bestea hotz bizi zen gehienetan. Urruntxo geratutakoak, berriz, leiho edo ate handi baldarreko zirrikituetatik jasotzen zituen kanpoko haize eta kaskabarren notiziak. Belarrondo bero-kiskaliak eta hozpel-hazkordinak nahasian ibili ohi ziren.

Orain esan ohi den bezala, ikasgelako "klimatologiak" paisaje ugari zuen eskola nazional deitu haietan.

Baina barnetegi hari udaberriak aldatzen zion ingurua. Agian, berrogei

edo ehun metrotara zelaia ageri zen, edo gari-sail berdea, haritzia edo sagastia. Izadi birjina baten altzoan zegoen eskola: txoriek bazituzten beren zuhaitzak, eta zuhaitzetan kabiak, eta kabietan arraultzak eta kumeak. Lehenengo aurkitzen zituena zen guztien jabe isila.

Eskolako altzariak, kanpoko zelaia, Afrikako mapa berdea, maisuaren makila eta bibotea, tintontzi kasik lehortua, eskola-bruxa zikina, madurako erreka eskailuak, lizar-azalezko txilibituak, mahaiepean egin eta jositako pilota... paisaje bat ziren.

Eskola-"kosmos" hura joan zen: ezingo dugu bere osoan bildu eta berreskuratu. Baina, oraindik ere, berpiz liteke beharbada ikasgela-barneko giroa bederen. Gogoan dut, G. Arrien-ek eratauta Bilbon ikusi ahal izan genuen Eskola-Erakusketa (1987): poz-tristuraz beteta ikusi nuen nik bederen. Hantxe zeuden, beren garaian aurrerapen bat izandako binakako ikasmahai haiek, albo batean beren tintontzi zuri puskatuekin. Eta gauza guztien berri ematen ziguten "entziklopediak" ere bai.

Hain hurbila, baina dagoeneko hain urruna dugun mundu haren errealitate materiala ere jaso behar dugu. Horixe da Eskolaren Erakustoki baten betekizuna: Irakaskuntzaren Historia materiala berreraiki behar da gure "histori usnamena" pizteko. Ikastolaren aurreko nahiz alboko eskolek eta ikastolan bertako osagarri materialek elkarren ondoan agertu beharko lukete, deskribapen literario askok baino oroit-indar bortitzagoa izango bait dute.

Eskolako irakas- eta ikaslana hobetzeko erabili izan diren gauza eta tresnak mintzamen aparta dute iragana gogorarazteko. Eta eskola, gero eta gehiago, produkzio-lekua ere izan da: eskola lagunen artean, *gauzak sortu* egin izan dira: esku-lanak, irudiak, marrazkiak, janzkiak, tresnak, koadernoak, etab. Barruko bizitzaren agergarriak dira horiek, noski: pedagogia bat, estilo jakin bat, garaiko gustuak... ispilatzen dituzte.

Horrela, ba, eskola-barnetegia gizartetik eratzen da, eta beronen baitandik.

Eskola-munduaren Erakustoki bat aipatzean ez dugu arkeologia egin nahi dugunik esaten. Inoizko "eskola nazional" haietatik geroko ikastolen barne-espazioetarainoko aldakuntzetan, jarrera sozialen eta jakite- eta praxi didaktikoen joan-etorriak dabilta tartean. Beraz, historia aldakor-bizia.

Aldian aldiko eskola-berezitasun materialak, garaiko hezkuntz ereduak buruz mintzo zaizkigu, eta dokumentu gisa balio anitz dute: historiako

pedagogi aniztasuna erakusten digute, eta aldakortasun erlatiboa, eta elkarren segidan goazen belaunon arteko ulerpena erraz eta kontrasta lezakete. Kronologia baten barneko jarraitasunaren harian, belaunaldi bakoitzaren baldintza, aberastasun eta mugak erakusten dizkigute eskolatan aldatuz joan diren eraikuntza, eserleku, material didaktiko eta nolana-hiko gauzek. Gizarteko nahiak eta diskurtsuak eskolan eta eskolako gauzetan ere izan dute beren hotsa eta oihartzuna.

Eskolako gauza eta tresnak esanahiz beterik daude: kultura, jarrera eta ahalbide sozialen zeinu adierazgarriak dira. Gizarteko kontrol eta garapen-sistemek eskolako barne material horretan ere badute beren agerpidea. Bestalde, gizartean izan eta jakite-trasmisiorako sortuz joan diren teknologiak lehentxeago edo geroxeago eskolaratu egin izan dira, gizarteko aurrerapen edo atzerapenak ispiatuz. Eskola, beraz, gizartekoen lekuko ere bada.

Denok gogoratzen ditugu, lehenengo ikastolei buruz jaiotako zalantzak: Zer espero daiteke —esan zen— haurrak lurrean jostatzen jartzen zituen eskolatik? Ez ote ziren eskolatik ere jaso behar gerorako "modu onak"? Zer zen, gero, ikastolaren espazio libre ordenatugabe hura? Espazio berrerratuak, agian, bizi-jarrera berria zekarren.

Hainbat gauzak aldarazi zuen eskolako barnealdea. Haur eta irakasleen tresneriak, ikasgelako barne-dekorazioak, lan-egitarauen antolamenduak, irakas- eta ikas-prozesuek, esku-, testu- eta irakur-liburuek... Irakaslearen tresnak ere ez dira berdinak: txilina, tintontzi eta luma bereziak, suontzi eta garbiontziak, ikuskaritzaren liburuak, haurren zerrenda-liburua...

Batez ere, ikastolarekin eskola-barneko gauzen sormenak indar handia hartu zuen: Lehenago, erosita kanpotik ekarri ohi zen asko, ikastolan bertan lantzen hasi ziren haur-irakasleak. Ikasgelako hormek aurpegi gazte eta alaiagoa hartu zuten. Eskulanean jolasa eta margoen murmurio bizia zerbait arrunta bilakatu ziren. Kanpoko izadia barrura sartu zen: harriak, landareak, animalia txiki adiskideak, amonaren janzki xaharrak, aitonaren aroztegiko txirbilak eta egurrak, azkenik jostailu didaktiko modernoak ere etorri ziren arte.

Eskolako gauzen mundua antzaldatu egin zen, zalantza, harridura eta agian eztabaidaren bat tartean zela. Ikastola edo eskola Erakustokiak belaun ezberdinon eskola-espazioen eta berorietako gauzen lilura, nekeak, ametsak eta haur-bizipenak biltzeko balio lezake.

EHIHK proposatzen duen Erakustokiak, horrela, pedagogi berrikuntzen bidea erakutsiko du, eta hainbat iturritatik iritsi zitzaigun modernotzea, lehendik genuenarekin kontrastean eta itxarokizun berrien bila.

“Erakusgaien bilketa-gidoi orokorra” deitu txostenean azaltzen ditugu gogoan izan nahi genituzkeen eskola-materialen zerrendak. Bide honetatik zer egin litekeen, besteak beste, arestian aipatutako 1987ko Bilboko Erakusketan ikusi zen, eta orobat, Euskal Herritik kanpo, Barcelonan “Institut Municipal d’Educació” delakoak duen Erakustokian edo Salamanca egin-berria den “Cien años de Escuela en España (1875-1975)” Erakusketan, nahiz (Eba Gastañazpi-k gogorarazten didanez) Rouen-eko “Musée National de l’Éducation Française”-n. Idazkiek, eta irudi hutsek ere, ez duten gomuta-eragina dute, zalantzarik gabe, gauzek eta eskola-liburuek, elkarren ondoan jarrita.

Erakustoki hau sortzea, EHIH Proiektuaren lehenengo egitekoa ez izanik ere, hasieratik bertotik hartu nahi genuke gogoan asmo hau.

Bada, berehala aukeratu den egitekoetatik at geratuko zaigun alor interesgarririk —argazki, marrazki, ikus-entzunezkoek ari gara—, baina horietaz aurrerago esango da behar dena (ik. lehen parte honetako 3. kapituluaren 3.4. pasartea).

## 2.

# ERREALITATE IDATZIRA LEHEN HURBILKETA (1989-1991)

EHH Proiektuak, helburuen bila bere lanari ekiteko, premiazkoa zuen hasieratik bertatik *status quaestionis* bat eskuartean izatea, hau da, ikastoletako paperak nola eta non zeuden jakitea. Jakin-min horrekin, gure errealitate idatzira hurbilketa mailakatu bat egitea egoki ikusi zen.

Lehenengo, inkesta informal eta arrunt ireki bat banatu genuen ikastola guztietara (1989). Ez genuen inolako informazio-osotasun asmorik izan, eta erantzunak ere —horrelakoetan gertatu ohi denaren arabera— ez ziren denak etorri, eta iritsitakoetan ere hainbat argibide-hutsune genuen. Baina lortutakoak bete ditu, oro har, gure lanari eskatzen genizkion xedeak.

Bigarren ekinaldia, 1990ekoa izan da, eta aurreko inkestaren osagarri gertatu da. Proiektuaren arduradunok ibili gara ikastetxez ikastetxe, zeuden paperei begiratu bat ematen. Gaizki esan dut: gainbegiratu hutsa izan zen. Egiteko honen balioa, batez ere gauzak *in situ* ikustearena zen. Inkesta askok baino gehiago ere irakatsi digu ibilaldi honek ikastoletako artxiboez.

Hirugarren saioa, 1991 honetan egiten ari garena da: Ikastoletan bertako artxiboetatik, eta kanpoan leudekeen paperetatik eremu jakin batzuk hobetsi dira, eta horien artxiboratzeak ekar ditzakeen arazoak ezagutu nahi ditugu.

Lanaren hiru une ezberdin horien albiste laburra eskaini nahi diogu orain irakurleari.

### 2.1. Artxiboekiko lehen inkesta (1989)

Proiektua onartu zenean —hau da, "Ikastolaren Historia" bat egitea ge-

rorako utzi, eta artxibagintzari lehenetasuna eman behar zitzaiola erabaki zenean—, arduradunok ez genekien deus ondare dokumentalaren zinezko egoeraz. Osoa zen gure ezjakina, gurea eta ikastola-munduko zuzendari askorena. Norberak bere etxeokaz bazekien zerbait, eta hori zen dena.

Eskastasun larri hau arintzen hasteko, ba, inkesta arin ez formalegi bat egitea deliberatu zen.

### 2.1.1. Inkestaren helburuak

Geroko lanetan sakondu beharko ziratekeen eremu batzuk izan zituen inkestaren galde-sortak gogoan. Ez zegoen dena galdetu eta jakiterik; ez zegoen dena eskatu eta biltzerik. Proiektuaren aurkezpen-modu bat ere bazen inkesta. Hiru alorretan bana litezke galdeketaen xedeak.

Lehenik, dokumentazioaren egoera ezagutu nahi zen: zer dago? Gauzak non daude, nola daude? Ez genuen deskribapen xehe eta guztiz objektiborik bilatzen. Ikastoletako arduradunei ez genien eskatu paperak arakatura erantzuteko. Gutxiagorekin nahikoa genuen: Zegoena ikusi, eta aski zen bapateko ihardespren soila. Erantzunon subjektibotasunarekin kontaktzen genuen aldez aurretik, zeren bide horretatik objektibotasunean galtzen genuena, jendearen balorazio-ispilutzat ere har genezakeen: Nolako ote zen ikastola-arduradun eta sustatzaileen artean dokumentazio historikoa-  
rekiko sentiera?

Dokumentazio-egoera ezagutzearekin batera jendeak ondare harekiko izan zitzakeen jarrera pertsonal eta sozialak ezagutzen hasi nahi genuen. Komeni zitzaigun, gainera, galdera hau jendartera eramatea, sentiera eta jarrerak finkatuz eta eginez joan zitezen. Hasiara hartan, iritzirik ez zegoen tokietan eta lagunen artean, hitz egin ahala, helduz joan dira uste eta jarrerak. Dagoeneko —hilabete batzuk geroago—, ikusi dugu, bestalde, gurekin sortu den elkarrizketak, espero zitekeen bezala, sarritan birbalioztatu egin duela ondare dokumentala lagunen begitan. Inkestako galdeketa, ba, jendearen ezagumendurako balio izan digu, edo, zehazkiago esanda, beste xede hau bete du: ikastola-arduradun eta interesatuen artean gogoeta labur bat bederen piztu, eta zerbait esan nahi zutenek iritzi eta lanerako irizpideren bat aditzera ematea. Eta honek bazuen, gainera, hirugarren helburu nagusiarekin zerikusirik.

Gure artxiboaren eraikuntza, hein handi batetan behintzat, lankidego sozial baten bizkar jarri nahi izan dugu, lehenengo ahalegin bezala.



Beharrezkoa zen, hortaz, harreman-sare zabala eratzea: herriz herriz, bailaraz bailara egiteko lana zen hori. Inkestaren beste egiteko bat, ba, guztiengana iristea zen, gero Proiektuaren lan-antolakuntza hori posible zen ala ez jakiteko, nahiz eta hasierako erantzun teoriko hauek, nahitaez, indar erlatiboa izan.

Hiru xede-mota hauen zerbitzuan moldatu genuen inkestaren edukina, ikusiko denez.

### 2.1.2. Galde-sortaren edukinak

Asmo horiek horrela, hiru eremutan banatu zen inkestaren galdeketa:

1) Ondare dokumentalarekiko oinarrizko argibide eta datuen esparrua; 2) Ondoko lanetarako material historikoak nola zeuden jakiteko esparrua; 3) Harremanetarako xehetasun pertsonalak.

Dagoeneko, inkesta soil eta ireki baten bidez lor zitezkeen argibideak bilduta daude, eta badute beren balio jakin mugatu bat. Lanak ez zuen iker-xede handirik izan; baina, ondokoetan aurrera egiteko, Proiektuaren aurkezpen-modu bat izan zen galdeketa, eta harremanak sustatu zituen, gainera. Hona hiru kapitulutan inkestaren edukina:

#### — Oinarrizko datuak

Eskatu zen lehenengo argibidea, ikastolaren izen ofizial-herritarrena izan zen. Txikikeria badirudi ere, hainbat urtetako aldaketetan hartu, asmatu, utzi nahiz galdutako izenen artean lanean hasteko komeni da izen ofizial finkatu edo ohizko herritarretatik ekitea. Nortasun ofiziala ezagutzea garrantzizkoa da, nahiz eta jakin inoiz izen ofizialik gabe ere ibili izan direla ikastolak. Iker-bilaketan haria ez galtzeko, izen identifikatzaile baten premia are nabariago geratu da ondoko “Leizarraga” Programan ikusi ahal izan ditugunekin.

Oinarrizko datuen barnean, izenarekin batera, nortasun juridikoaz ere galdetu dugu, izan ere, gaur arte bederen, ikastola bezala jo izan diren ikastetxeotan nortasun hori molde ezberdinetan gauzatu bait da: Kooperatiba, Sozietate Anonimo, Kultur Elkarte, etab. Batzuetan, gainera, ikastolaren izen bera ez daraman elkarteren baten esku egon ohi da, edo zinez beste “inoren” eskuetan egon izan da, hau da, legezkoetarako nortasun-aterpe bat, eta bizitzarako praktikan beregaina izanik (honek, batez ere, iragan hamarkadetarako balioko luke).

Oinarrizko datuen itaun-eremu honetan, ikastolaren egungo egoeraren aurreko eskola-elkartze eta zatiketei buruz ere galdetu zen. Ikastolagintza, behin eta berriz, herri berean nahiz eskualdean, ikastetxeak elkartuz eraiki izan da; edota gatazka larrietan, eta etenen baten ondoren, banaketaren baten fruitu izan da; edota, nori daki, herriko eskolara bildu da, erakunde honetako euskararekiko barne-baldintzak aldatu direnean, etab. Ikastolagintzaren bide historikoa deskribatu beharko denerako, prozesu bate-ratzaile edo banatzaileok ezagutzea premiazkoa iruditu zitzaigun, eta horretaz gutxieneko argibide batzuk bilduta edukitzea ere bai.

Datuok beste bi xehetasunekin osatu ziren 1989ko inkestan: ikastolaren egoitza-herria eta, batipat, jaioturtea argitzea eskatu genuen. Esan beharra dago, liburu hau kalera orduko, azken datu honek "Leizarraga" Programaren bidez argituta geratu beharko lukeela Euskal Herri osoko ikastoletarako.

#### — Harreman-datuak

Ikastolekin lehen bilketa-harremanak hasteko, bidezkoa iruditu zitzaigun ikastolagintzaren inguruko gidarien zertzelada batzuk eskatzea. Honixe dagokio, hain zuzen, galdeketaren bigarren itaun-eremua. Lau sailetan banatu genuen berau: Sortzaileak, lehendakariak, zuzendariak, argibide-emaeleak.

Datu-bilaketarako premiazkotzat izan dugu ikastolagintzan protagonista eta eragile izan direnen albisteak jasotzen hastea. Ez, noski, historiari erpinari bakarrik begiratu ihardun behar duelako, baina bai lehen pausoak hortik hasita ematea ikerbiderik emankorrena izan litekeelako (edozein eratan ere, mugatuenean ere milaka lagunen eragile-multzoaz ari gara hemen).

Inkestaren ondorioz jada gure bulegoetan dugu protagonista haiekiko hainbat argibide jakingarri. Proiektuaren ondoko beste Programetan landu beharko da hobeki informazio hau, datuak gehituz ezezik, dauzkagunen erabilgarritasun praktikoa zainduz. Aurrerago esango da honetaz beste zerbait.

#### — Langai historikoak

Ikastoletan, urtetako lanak utzi duen dokumentazioaz berriak biltzen hasteko benetako irrika genuen. Horixe bait zen, izan ere, Proiektu osoaren asmo nagusietako bat. Inkestaren eremu honek ondare dokumentalaren erradiografia eman ziezagukeen. Sortu nahi den IANen atariko galdera zen,

hortaz, langai historikoez ziharduen eremu honetakoa: Zer ote zen artxi-boetara bildu eta beraietan gordetakoa, eta nola ote zeuden langai dokumentalak?

Nahitaez, honelako inkesta baten bidezko argitasunek oso arruntak eta xehetasun handirik gabeak izango ziren, noski. Lau puntutan jaso nahi izan dira puntu honekiko galdekizunak:

- Gordetakoaren lehen ideia bat.
- Artxiboaren egoera.
- Argitara emandakoak.
- Bestelako argibideak.

Oso azaleko galderak egin genituen argitasun hauek biltzeko, artean miaketa handiagoetara pasatzeko asmorik ez zegoelako ere bai. Ikastolen artxiboen historiak eta egoerak guztiz ezberdinak dira, eta ezberdintasun horien berri ere jakin nahi genuen. Gero, "Etxepare" Programarekin ikusi ahal izan direnak 1989ko inkesta honek aurreratu zizkigun, gaingirokiago, noski, baina baita zabalago ere, ikusiko denez, geroko (1990) "Etxepare" Gipuzkoa-Bizkaietako ikastola hautatu batzuetara mugatu bait zen.

### 2.1.3. Inkestaren emaitzak

la bestelakoen salbuespenik gabe, Ikastolen Elkartean dauden ikaste-txeetara bakarrik zabaldu zen inkesta, Araba, Bizkai, Gipuzkoa, Iparralde eta Nafarroan. Ez ditugu jaso ahal izan ikastola guztien erantzunak, baina bai gehiengo handi batenak. Honelako inkestetan erabateko osotasunak zailak gertatu ohi dira, eta, oraingoz azken xehetasun garestietan erre gabe, nahiago izan da ondoko lanetan aurrera egin.

Hona, lurraldeka, eskuratu ahal izan ditugun erantzunak:

#### — Araba

Arabaren 30 ikastola hartu ditugu aintzakotzat, inkesta zabaltzean, baina 24etako albisteak ditugu soilik. Gainerako seienak banan-banan ikustatuz eta egunen batean Aldundiaren laguntzaz ezagutu ahal izango dira (Salesas, Ikasbidea, Barrutia, Aranzabela, Aramaio, Abendaño).

Arabako ikastolagintza hiru bilgune geografiko handitan hedatuta ageri

zaigu: 1) Gasteiz eta inguruko Lautada, alde batetik Araia-raino eta bestetik Legutio-raino zabaltzen dena; 2) Errioxan Ebro-aldean biltzen den multzoa, 3) eta iparraldean, Arabaren beste muturrean, Aiara eta Zuian lekutua dagoena.

Ikastolaren bat duten herriak hauek dira: Amurrio, Artziniega, Aiara, Audio, Areta, Langraitz, Baños, Eltziego, Bastida, Lantziego, Labarka, Oion, Uriona, Gasteiz, Araia, Agurain, Maeztu, Kanpezu eta Legutio.

Hamahiru izan dira beren jaioturtearen berri inkesta-erantzunean eman digutenak. Erantzuleetako gehienak 1975-1980etan sortutakoak dira(12). Ikastola erantzule denak kooperatibak dira, edo izan dira. Berehalako albiste-bilketan berri osatuagorik izango dugulakoan, xehetasunak ordurako uzten ditugu.

Irakaskuntza osoan hizkuntzereduak ofizialki finkatzean, Arabako ikastoletako zenbait, herri-eskolarekin fusionatu zen. Halanola, Artziniega, Areta, Langraitz, Ariznabarra (Gasteiz), Aiala (Dulantzi) eta Araia ikastolak.

Oinarrizko datu soil horien ondoren, harreman-albisteetara gatozela, esan dezagun, erantzuleetako 15ek bakarrik eman dituela eskaturiko berriak. Kasu horietan, beraz, badakigu sortzaile, lehendakari eta zuzendari batzuen berri.

Langai edo dokumentazio historikoaz erantzutean jasotako albisteak, oster, hauek dira: 15ek erantzun digu zerbait, eta ez albiste onekin, zoritxarrez. Erantzule guztietatik bik soilik esaten digu sorrerako dokumentaziorik duenik (Toki Eder-ek eta federatu gabea den Olabide-k); gainerako beste hamahiru erantzuleek, espreski diotenez, ez dute sorrerako dokumentaziorik.

Baina dokumentazio-egoera hori, bestelakorik uste zitekeen arren, ez da nahi adina konpontzen jaioturte ondoko urteetan ere. Lau bakarrik dira geroagoko zerbait dutenik (gaur egun lanerako behar duten dokumentaziotik aparte, alegia), eta hamaikak dioenez, aurreko iragan urteetako artxiborik ez du.

Artxiboen gaur eguneko egoerari buruz ari garela, berriz, bederatzitan badago artxiborik, eta duten hori, oro har, ordenatuta daukate. Seik, oster, gaur eguneko artxibo hori bera ere ez du.

Ikastolaz argitara emandako materialik ez dago Arabako ikastola haue-tan, bi kasutan ezik; berriro ere lehengoekin topo egiten dugu: Toki Eder eta Olabide.

Egia da: Arabako ikastolagintza, kasurik gehienetan, oso apala izan da, eta esan bezala, zazpi bederen elkartu egin dira herri-eskolarekin. Baina, pozik entzungo genukeen artxiboez albiste baikorragorik.

Egoera honek, aldez aurretik, susmatzen genuen beste paper-gordai-luetara garamatza: ikastolagintzan esku zuzena izan zuten sustatzaileen etxeetara, alegia. Arabak izan ditu horrelakoak, ez agian asko, baina bai saiatuak, eta luzaroan saiatuak. Jakin egin beharko da orain, herri-langile bezain paper-gordetzaile on izan ditugun.

#### — Bizkaia

Bizkaian 48 ikastola dira gure inkesta-zerrendan ageri direnak, eta guztiek erantzun digute, beti-beti osorik ez egin arren.

Bizkaiko ikastolak, herrialdearen luze-zabalean, honela banatzen dira: 1) Multzto handi bat Zornotza/Miraballes-tatik Getxo/Muskiz-etaraino doan zirrinda batean bilduta dago, eta 2) Gainerako Jaurerriko eskualdeetan asko bakanago sakabanatuak ageri dira besteak, Bolibar edo Aulesti bezalakoren bat ezik, eskualde-buruetan kokatuak.

Bizkaian ikastolarik duten edo izan duten udalerrriak hauek dira, beti ere inkestari jarraiki: Bilbo, Bermeo, Gernika, Mundaka, Mungia, Zornotza, Artea, Durango, Elorrio, Ermua, Abanto-Zierbena, Balmaseda, Trapaga, Zaratamo, Miraballes, Arrigorriaga, Basauri, Galdakao, Igorre, Aulesti, Bolibar, Lekeitio, Ondarroa, Algorta, Erandio, Leioa, Getxo, Loiu, Sopela.

Zerrendako 48 ikastoletako gehienak kooperatibak dira: 40 kooperatiba; baina badaude bestelako gutxi batzuk: udal-ikastola bi (Mundaka, Sodupe), eta guraso-elkarteren baten beste bat (lehen pribatua, Igorre-n), eta, azkenik, Elizak hiru ikastola ditu zerrendan (bi Bilbon, eta bat Gernikan). "Fusionatuak" diren lehengoek nortasun-berririk ez dugu.

Bizkaiko ikastolen jaioturteei gagozkiela, hona zer esan litekeen, inkestak zazpiren berririk ez duela jaso adierazi ondoren, beti ere inkesta-zerrenda eta erantzun hauetara mugatuz:

— 1961-65.....	9 ikastola
— 1966-70.....	11 ikastola
— 1971-75.....	10 ikastola
— 1976-80.....	8 ikastola
— 1981-85.....	2 ikastola
— Erantzunik gabe.....	8 ikastola

Ikusten denez, frankismoaren barnean burutu zen ikastolagintzarik nagusiena Bizkaian. Gainerako Euskal Herrian bezalatsu, ikastolaren zatiketa eta elkartzerik ez da falta izan herrialde honetan ere: hiru erantzunetan espreski aipatzen da zatiketa, eta hiru kasutan "fusionatu" egin dira ikastola/herri-eskolak.

Harremanetarako ematen zaizkigun datuetara gatozela, bostek ezik, guztiek erantzun zuten, eta 43 ikastetxetarik bildutako albisteak honela laburbil litezke: erantzun duten sei ikastoletako sortzaileen izenik ez zuen jaso inkesta honek, gainerako 37tan bederen baditugu izenak, eta sarritan telefonoak ere. Baina 32 kasutan bakarrik dugu lehendakari izandakoen albisterik, 28tan zuzendarienik.

Agiritegi historikoetara hurbilduz, gogora dezagun sei erantzulek ez digula deus esaten. Beraz, 42 dira honetaz zerbait aditzera eman digutenak Bizkaian. Bost ikastolatan ez dago artxiborik, horrekin zer esan nahi den garbi ez badakigu ere. Artxiboa dutenetan, 15ek deus ordenatu gabe dauka, eta 20 dira azken urteetakoak sailkatuta dituztenak; eta, azkenik, zazpi dira osorik edo ordenatuta omen dituztenak.

Material historikoen artean sorrerakorik badutela diotenak, 13 dira, agian espero zitekeen baino gehiago. Jaioturteetakorik ezer ez daukatenak, aldiz, 28. Ondoko garapen-urteetako artxiboaz zera esaten zaigu: 19k badu besterik ere eta 25ek, aitzitik, ez. Kasu bakoitzean ikusi beharko da, baiezko horietan zer den eta zenbat den dagoena, zeren erantzunak ez bait dira beti elkarrekin ezkongarri. Berriro ere argi dago ikastola-kanpoan ere bilaketak egin-premia, historiako urterik interesgarrienak ezagutu nahi baldin baditugu behintzat.

Bizkaiko ikastolei buruz argitara emandakoez galdetzean, erantzunek hauxe diote: zazpi bakarrik ziren, inkestaren sasoian, zerbait argitara emanda zeukatenak. Handik hona badakigu zertxobait baino gehiago landu dela alde hau, Bermeo eta Sopelan, adibidez.

#### — Gipuzkoa

Gipuzkoan 70 ikastetxe ditugu zerrendan bildutakoak, eta guztietatik bildu da albisterik, eskatu genituen zertzelada denekin izan ez bada ere. Badirudi herrialde honetan dugula dokumentazio-altxorrik aberatsena. Erantzunak nahikoa erraz bildu dira.

Herrialde honetako industriarekin gertatzen den bezalatsu, ikastolak

lurralde osoan daude barreiatuta, eta ibaien arroatan errenka luzean lekutzen dira Eskoriatza edo Zegamatik hasita Donostia, Orio, Zumaia edo Debaraino, kostaldeko huts-tarteak ere hartuz (Mutriku, Zarautz edo Oiartzualdea).

Gipuzkoan, inkesta honetako datuak zerbait osatuz, ikastolarik duten edo izan duten udalerrriak hauek ditugu: Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Oñati, Elgeta, Antzuola; Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba, Mutriku; Donostia, Hernani, Lasarte, Urnieta, Usurbil; Zegama, Segura, Idiazabal, Ormaiztegi, Beasain, Lazkao, Ataun, Zalbibí, Ordizia, Itsasondo, Legorreta; Pasaia, Errearteria, Hondarribia, Irun, Oiartzun; Andoain, Anoeta, Asteasu, Belauntza, Billabona, Ibarra, Irura, Lizartza, Tolosa, Alegi, Amezketá; Azkoitia, Azpeitia, Zestoa; Legazpi, Urretxu, Zumarraga; Zumaia, Getaria, Zarautz eta Orio.

Inkesta honetatik kanpo geratutakoak asko dira, herri-eskolekin elkartutakoak batipat, edo eta jaio bai, baina agian laster hil zirenak. Horrelakoen bilaketak ere bere bidea egin beharko du bere garaian.

Gipuzkoako ikastolek mota guztietako egoera juridikoak izan dituzte. Inkestak dioenez, 30 dira kooperatiba-molderen bat dutenak, 22 kultur elkarte bezala eratutakoak, 10ek sozietate anonimoaren izaera du, 3 dira Elizarenak (Donostiako Mariaren Bihotza, Tolosako Poxpolin, Bergarako Mariaren Lagundiarena), eta bat Patronatu batena izan da herri-eskolara pasa den arte (Elgeta).

Denboraren harian, Gipuzkoako ikastolen sorrerak ondoko kronologia hau du, urte-multzotan sailkatuta (zazpi kasutan inkesta honek ez du eman urterik):

— 1960-1965.....	17 ikastola
— 1966-1970.....	25 ikastola
— 1971-1975.....	9 ikastola
— 1976-1980.....	8 ikastola
— 1981-1990.....	1 ikastola

Inkesta honek osotasun estatistikorik ematerik ez badu ere (izandako ikastola guztiak ez ditu inkestatu, eta inkestatu guztiek ez dute jaioturterik adierazi), *grosso modo* bederen badugu gertatutako sorkuntza-erritmoaren

idea bat hor. Ikus daitekeenez, 1966-70etako bosturtekoa da emankorre-na, aurreko bosturtekoan ezarritako eraikuntzari teilatua emanez, itxura guztiz. Bizkaiko ikastolagintzarekin alderatuz, oro har bosten bat urteren alde daramatza gipuzkoarrak. Hori, bai: Erakunde politiko berriak jaiotzearekin batera seko mozten da mota honetako ikastetxe berrien sorkuntza, Araban eta Bizkaian bezala Gipuzkoan ere.

Elkartze eta zatiketetara etorriz, Gipuzkoako ikastolek gorabehera handiak izan dituzte; eten gatazkatsu gehien hemen ezagutu dira, baina baita nahikoa "fusio" ere (10 bederen horrelaxe aipatzen dira). Hauek eskualde eta herririk euskaldunenetan gertatu dira, batez ere; hau da, herri-eskolak D eredua erosoki gauza zezakeela uste izan den herrietan (Goierri eta Tolosaldeko herri txikietan, eta Zestoa gertatuko litzateke eskualde horietatik kanpoko bakarra).

Harremanen eremuan zintzo erantzun digute inkestatuek 70 ikastoletatik 70ek erantzun bait digute. Bostek ezik, denek eman dute sortzaileen berri, eta zazpik ezik guztiek lehendakari-ohienak ere. Zuzendarien kasuan, bederatzi dira izenik eman gabeak. Hortaz, harremanetarako eremu hau finkatuta geratzen da Gipuzkoan, hutsune txikiren bat edo beste salbu.

Eta nolakoa da Gipuzkoako ikastolen egoera, inkesta honek agertzen digunez? 15etan ez dago artxiborik, eguneroko lanerako paperetatik aparte, eta beste 5ek ez digu deus erantzuten. Beraz, 50 ikastoletan, egon, badago, ba, artxibo-moduren bat. Ordenatuta al daude, ordea, artxibategi hauek? Dauden horietako 10 ordenatu gabe daude, eta 21etan azken urteeetakoa dago ordenaturik. Hortaz, 19 dira sailkatuta dauden ikastola-artxiboak Gipuzkoan. Datu hauekin, ondoko galderena ere erantzun samaturik ere gerta liteke.

Zer da ikastola gipuzkoar hauek beren historiatik gordeta dutena? 70etatik 47 kasutan espreski esaten zaigu sorrerako dokumentaziorik ez dagoela, ustez, ikastolan bertan. 17 bakarrik dira sorrera-urtekorik badutela diotenak (gainerakoek ez dute erantzuten).

Harritzeko ote da horrelako eskastasuna? Jakina denez, sorrera-urteak ez ziren samurrak izan dokumentazioa gorde eta zaintzeko: legez kanpo lan egin beharra, idazkaritza finkoen falta... Baina galde liteke, '60etako agiri-altxorrik handiena ez ote ziguten 1968ko legezko salbuespen-egoera hartako gertakizun eta beldurrek eraman. Han-hemen entzun ditugunetatik pentsa liteke, izan ere, orduko arriskuek hondamendi larriak ekarri zituztela. Eta, nolana ere, ezin dugu ahanzi Gipuzkoako ikastolagintzak, 1968rako,



biderik luzeena eginda zuela bere eraikuntzan. Sorrera-urteak pasata ziren, eta paper idatziak ere idatzita. Zuhurtziak eta ikarak bete-betean harrapatu zituen, beraz.

1989ko inkesta honen aurretik, asko al zen ikastola gipuzkoarrei buruz idatzitakoa? Hemen ez gara ari, noski, ikastolaz oro har idatzitakoez, ikastola bakoitzaz egindakoaz baizik. Inkestak ondoko albisteak ematen dizkigu: 18k dute zerbait argitara emanda. Dena den, gogora dezagun azken urte hauetan zilarrezko ezteiek sustatu dutela hainbat argitalpen berri, eta gehienak 1989tik honakoak direla horrelako ospakizun-lanak.

— Iparraldea

Iparraldean 17 ikastola dira inkestaren barnean ukitu ditugunak. Guztiek erantzun dute, puntu guztietan egin ez badute ere. Erakunde-nortasunaren aldetik, ikastola hauek, guztiak, gurasoen elkarte bezala eraturta daude.

Iparraldeko ikastolarik gehienak Lapurdin lekutu dira. Inkestan ageri zaizkigunetatik hamabi, hain zuzen: Baiona, Angelu, Miarritze, Donibane-Lohizune, Hendaia, Azkaine, Senpere, Arrangoitze, Uztaritze, Beskoitze, Kanbo eta Hazparnen. Nafarroa Beherean, ostera, hiru ikastola ditugu: Donapaleu, Ortaize eta Donibane-Garazin; eta Zuberoan, azkenik, bi: Maule eta Atharratzen.

Ikastola hauen jaioturteak honela banatzen dira, Arrangoitzen sortutako lehenengoaren (1969) ondoren:

— 1970-1975.....	11
— 1976-1980.....	3
— 1981-1985.....	2

Gipuzkoan, 1960-70. urteak baldin badira garapenik handiena erakutsi zutenak, eta Bizkaian 1965-75.ak, Iparraldean 1970-75etan gertatu zen unerik emankorrena.

Harremani dagokien inkestako eremuan hiru ikastolatatik ez dugu albisterik jaso; gainerakoengandik baditugu sortzaile, lehendakari eta zuzendarien izenak.

Langai historikoen alorrean, hau da, ondare dokumentalari dagokion eremuan, lau ikastolak ezik, besteek eman dituzte beren berriak. Iparraldeko ikastola gehienak lehen mailakoak ditugu, eta beren barne-gobernuko bulego eta lan-prozedurak sobera formalizatu gabe izan dituzte. Horren ondorioz, Hegoaldean kasu anitzetan jazo denaren antzera, agiri idatzien

gordetzea eta sailkatzea oso zatizkoa izan da.

Hamazazpi ikastoletatik zazpik du artxiborik; beste bostetan ez omen dago halakorik, eta bosten berririk ez dugu jaso inkestan. Sorrerako dokumentaziorik ez da gorde izan ikastoletan bertan. Lau dira artxiboa ordenatuta dutenak, eta guztietan zaharrenak, Arrangoitzekoak, azken urteak ditu txukunduta.

Iparraldeko ikastolek —bakoitzak bereaz— ez du deus argitara emanda, puntu horri erantzun diotenak esaten dutenez (bostek ez dute erantzun).

#### —Nafarroa

Nafarroan 37 ikastolatako albisteak jaso zituen eskuartean dugun inkesta honek (1989). Bidalitako inkesta guztiak berreskuratu ahal izan ditugu. Ikastetxe bakoitzaren oinarrizko datuetan guztien erantzunak ditugu; baina apenas esaten den ezer ikastola bakoitzaren elkartze edo zatitzeaz (nahiz eta beste iturritatik horrelakorik egon dela jakin). Harremanetarako datuetan, aldiz, hainbat kasutan ez dira unean uneko argitasunak jaso. Eta eskasagoak dira oraindik material historikoei dagozkien berriak.

Herriz herri baldin bagoaz, Nafarroako ikastolak, ezaguna denez, Mendialdeko bailaretan barreiatuta daude gehienak: Sakana-n dugu multzo bat, Irurtzundik Olaztiraino doan errepidearen inguruko herrietan; Lekunberri, Jauntsarats, Leizta eta Goizueta, bakoitza bere bailaran dago, eta Bidasoaldean ikusten da bilduta beste multzo bat. Pirinioko eskualdeetan galduta daude batzuk: Otsagi, Auritz, etab. Dena den, ugari izateak ez du handiak direnik esan nahi. Nafarroako Erdialdean ditugu ikastetxerik handienak: Iruñerrian, Lizarrerrian, Zangotza edo Tafalla ahortzi gabe.

Ikastola nafarren jaioturteek ondoko taula hau eskaintzen digute: gutxi batzuk '60etakoak dira, '70etan gertatu zen ikastolagintza orokorra, eta '80etan Iruñeko birmoldaketa da bakarrik aipagarria izan litekeena:

—1965-1970.....	10
—1971-1975.....	8
—1976-1980.....	14
—1981-1985.....	2
—1986.....	3

1986tik honako aldakuntzei buruz inkesta honek ez digu deus esaten.

Ikastolen sortzaileen albisteak ez dira nahiko liratekeen bezain osoak: 17 iardespentetan ematen da norbaiten berri, gainerakoetan ez da erantzuten edo berriemaileak ez daki ezer. Lehendakariekin ere halatsa gertatzen zaigu. Zuzendariekin, ostera, zera dugu: hamar ikastolatan ez dago zuzendari finko izendaturik, eta 15en berri ematen zaigu erantzunetan. Eta alde zuzpergarri bat: 20 ikastolatatik inkesta-erantzulearen eta, beraz, argibide-emailearen izen-abizenak bildu izan dira.

Inkestaren azken kapitulura etorriz, esan dezagun, Nafarroako material historikoaz zerbait: 13 ikastolatan badago artxiborik, 7k ez du halakorik, eta 17k ez dio erantzuten galderari. Guztiotatik 8 dira, osorik edo partez artxiboa ordenatuta daukatenak.

Sorrera-urteetako agiririk bada 8tan, eta horietan bakarrik; 12tatik espreski esaten zaigu ez dutela deus. Erantzunik gabeak dira gainerakoak. Hala ere, material historiko jakingarririk bai omen da 19 kasutan. Bukatzeko, azpimarra dezagun 15/16 ikastolatatik ez digutela ezer esan material idatzi historikoei buruz, eta 1989an esaten zitzaigunez, Nafarroako ikastola bakar batek zuen zerbait argitara emanda (Bera).

Esandakoak agerian uzten duenaren arabera, hutsunerik franko geratu zitzaigun Nafarroan inkesta horretan. Zorionez, ondoko lanetatik datozkigu, dagoeneko, albiste osagarriak.

—Euskal Herria, oro har

Hona iristean komeni da ohar orokor batzuk egitea. Lehenik, elkartze/zatiketei buruz gehi liteke zerbait. EAEko ikastoletako 20 dira herriko eskolarekin bategin dutenak; pribatu izatetik ikastola izatera pasatakoak, 5 dira. Ikastolaren baten zatiketaren ondorioz jaio dira beste 5. Eta ikastolarteko bateratzearen emaitza dira 32 ikastola (Gipuzkoan 19, Bizkaian 6, Iparraldean 5, Araban 2).

Erantzun ez dutenak edo datu guztiak eman ez dituztenak salbu, espreski erantzun dutenen estatistikak hauek ditugu sortzaile, lehendakari, zuzendari eta argibide-emaileei buruz izendatuki erantzuleek eman bai edo eman ez dizkiguten datuak gogoan hartuz (parentesi artean herrialde bakoitzeko ikastola erantzuleen kopurua):

	Sortzai.	Lehend.	Zuzend.	Arg.-Emaileak
Araba (24)	14	13	13	15
Bizkaia (48)	37	32	13	38
Gipuzkoa (70)	62	62	59	66
Iparraldea (17)	14	13	10	14
Nafarroa (37)	17	14	15	20

Ikastola-kopuruaren arabera, albiste gutxienean oraingoz Nafarroan bildu dugu, eta albiste-portzentaiarik onenak Bizkaian eta Gipuzkoan dauzkagu. Herrialde bakoitzeko ikastola-kopurua begiratu, ondoko lerro bereko zenbakiekin alderatuz ikus dezake behatzaileak lortutako informazio emaitzen arrakasta-neurria. Egunen batean, ikastolaren sustatzaileen nomenklatore osoa eratzeko, lehen pauso apala da hau; oraindik ez osoa, noski.

Inkesta-laukietako langai historikoezikiko orrialdeetara etorri, agiritagien egoerara hurbiltzen gara. Zer adierazten dute erantzunek gai horretaz? 196 ikastoletatik artxiboa dutenak (edo berorren berri eman digutenak) 88 bakarrik dira (Araba 9; Bizkaia 37; Gipuzkoa 48; Iparraldea 7; Nafarroa 13) eta ez daukatela aitortzen dutenak 38 (Araba 6; Bizkaia 5; Gipuzkoa 15; Nafarroa 7). Ikastolen artean, ba, erdiak baino gutxiago dira artxiborik badutela dakigunak (% 44,89). Dena den, zifra horrek nabardura osagarriak beharko lituzke, artxiborik dutenen, edo ez dutenen, eta artxibo horiek ordezkatu nahi duten ikasle-kopuru erlatiboaren arteko *ratio* gogoan hartuz.

Artxibategiak ordenatuta dauzkatena, pentsa daitekeenez, are gutxiago dira, noski: 84 (Araba 8; Bizkaia 27; Gipuzkoa 36; Iparraldea 5; Nafarroa 8); eta, horietatik, erabat ordenatu gabe dituztela, diotenak 63 (Araba 5; Bizkaia 15; Gipuzkoa 24; Iparraldea 7; Nafarroa 12). Baina datu hauei bi ohar orokor egin behar zaizkie, gutxienez: a) Esan zaigunez, sarritan azken urteotako agiriak dira bakarrik ordenatuta daudenak, eta b) Artxibo zenbaiti buruzko berririk ez dugu jaso.

Eta eskastasun horiek, hurrengo sailarekin osatu eta argitu behar dira. "Langai historikoak" deritzan horretan, nahi bada modu oso nolabaitekoan, hurbilketa zirrikagarri bat egin nahi izan da: Ikastoletako artxiboetan, itxura guztiz, sorrera-urteetako agiri gutxi bildu da, eta onenean bildu direnak zatizkako materialak dira gehienetan. Beraz, artxiboak bildu eta elkartu ezezik sortu egin beharko dira, han-hemen sakabanatuta dabiltzanak guztion benetako altxor amankomun oso bat izatera iritsi arte. Sail honetako erantzunak zinez kezkarriak dira, eta gure zabarkeria ala ezina —edo biak batera— salatzen dituzte. Ikus zer esaten zaigun: Sorrera-agirietatik, adibidez, ikastoletako artxiboetan oso urriak dira gordeta daudenak (deus ez dago, Arabako 13 ikastolatan, Bizkaiko 29tan, Gipuzkoako 46tan, Iparraldeko 11tan, Nafarroako 12tan). Tamala da, baina horixe da gure lanen abiapuntua: kalera irten beharra dago geure dokumentazioaren bila, eta beste erakunde babesle, etsai edo administratiboetara ere bai.

## 2.2. "Etxepare" zundaketa (1990)

Aurreko inkestan galde-sorta baten bidez bildutako iritzi subjektiboagoen ondoren bigarren zundaketa honen bitartez osatu nahi izan dira albisteak, bertatik bertarako ezagupide bat landuz. Nolanahi ere, berehalako batean ikastola guztiak ikustatzerik izango ez genuenez, premiazkoa ikusi zen artxiboei gaingiroki bederen behin-behineko begiratu bat ematea.

### 2.2.1. Hautaturiko ikastolak

Horretarako, lagin-moduko hautapena egin zen, ikastola handi eta txikiak gogoan hartuz. Zundaketa hau, Bizkai-Gipuzkoetara mugatu zen, eta bi aukera-molde egin ziren:

- Alde batetik, bizpahiru ziklo dituzten ikastola handiak aukeratu genituen (eskolaurrea, OHO, BBB, UBI...),
- Bestetik, bi herrialdeetako eskualde bana aukeratu ziren (Gipuzkoan Goierri eta Bizkaian, Lea-Artibai), berauetako ikastola guztiak -handi eta txiki- begiratzeko.

Zundaketa honetarako harremanak 40 ikastolarekin izan ditugu: Gipuzkoako 28 eta Bizkaiko 12. Elkarrizketan lehenik egin genuena zera izan zen: Artxibo bakoitzera sarbidea izateko ikastetxeen beren baimena eskatu zen, horrela ondare dokumentalarekiko lehenengo harremanetan sartuz.

Artxiiboak ikustatu ahal izateko emaniko erraztasunak oso estimagarriak izan dira, eta horri esker zundaketa horren helburuak osorik bete ditugu.

1990eko maiatz-uztailetan egin ziren aukeratutako ikustaldiak. Eta bi eratan egin da lan hau: a) Eskualdeetako edo herrialdeko aukeratu guztietan bileraren batera deitu eta bilera eginez, eta/edo b) Geu, EHIHren arduradunak alegia, ikastetxe bakoitzeraino hurbilduz.

Lehenengo bide horrek batez ere IANen asmoak aurrez aurre aurkezteko egokiera eman zigun; Proiektuaren lan-irizpideak jendearen uste edo nahiekin neurtzeko aukera izan zen, eta guztien iritzi ofizialak, bileran eta ondoren, azaltzera bultzatu genituen. Guztiek ez bada ere, askok eman zioten erantzuna gure galderari.

Banakako ikustaldien ondoren, ostera, beste alde praktiko bat landu dugu: Ikastoletako paperak *zer* diren eta *nola* dauden geure begiekin ikusi ahal izan dugu. Errealitatearen aurrez aurreko ezagutza hau eskolamendu argigarria izan da guretzat, bai ardura eta utzikeriak edo ezinak neurtzeko, eta baita ondare dokumentalaz ardura ofiziala dutenak beren egoera eta IANen xedeak nola ikusten dituzten ezagutzeko.

Harreman guztion fruitu bezala, ezagut litezke orain egindako deiak, ikustaldiak eta bilerak, jaso ditugun baimen-erantzunak eta aipatu izan diren kezka eta arazoak.

Esan bezala, zundaketa honek ez zituen ikutu nahi ikastola guztiak; ez zen hori "Etxepare" Programa honen egitekoa. Hain zuzen, banan-banan guztiekikoa egiterik ez zegoelako, erabaki zen lagin zabal eta ordezkagarri baten bidez ekitea. Zundaketaren helburu orokorrak ere ez ziren zientifiko teoriko hutsak, gure geroko lana modu praktiko batean bideratuz joan ahal izateko ahalegina zen bakarrik.

Eskuratu nahi genituen aurrez aurreko argibideak jasotzeko, Gipuzkoako 71 ikastoletatik kopuru zabala hautatu genuen: 28; Bizkaian, berriz, gutxiagorekin geratu ginen: 49etatik, 12. Eskualdeka multzokatuz, Deba Garaian, Goierrin, Urolalde-Kostaldean, Oiartzualdean, Tolosa-Andoainaldean, bakoitzean launa ikastola hautatu ziren, eta Donostian zortzi. Bizkaikoa begiraturaz, zundaketarako hautetsietako hiru ziren Bilbokoak, laurekin ageri zen Lea-Artibai, eta bostekin Nerbioi Behere/Uribe-Butroe eskualdeak.

Dituzten urte eta zikloak gogoan izanik, honela banatzen dira hautatutako ikastola horiek:

	Haurtz.	2 Urte	Eskolaur.	OHO	BBB/UBI	LH
1 Ikastola (G)	•	•	•	•		
10 Ikastola (B2,G8)		•	•	•		
3 Ikastola (B2,G1)		•	•	•	•	
1 Ikastola (G)		•	•	•		•
1 Ikastola (G)			•	•	•	•
10 Ikastola (B3,G7)			•	•	•	
11 Ikastola (B3,G8)			•	•		
3 Ikastola (B2,G1)			•			
<b>40 ikastola, ikustatuak</b>	<b>1</b>	<b>4</b>	<b>8</b>	<b>7</b>	<b>3</b>	<b>2</b>

Guzti hauekin harremanak lortzeko, eskutizketaz gain, talde-bilerak eta banakako ikustaldiak egin ditugu. Bilera hauek, gehienetan, eskualdeka egin dira, eta egun berean edo ondoko asteetan egin zaio ikastola hautatu bakoitzari sartu-irten bat. Batzutan, eskualderen batean bilera bat baino gehiago ere egin da. (Donostialdean edo Bilboaldean, adibidez). Hona bilgunerik nagusienak: Elgoibar, Beasain, Azpeitia, Donostia (Axular), Andoain, Ondarroa, Algorta, etab.

Talde-topaketa hauen xedeak lau puntutan laburtzen genituen (gure artxibo-proiektuaren berri eman, artxibo-paperen egoera ezagutu, IAN bultzatzeko arazorik nagusienak ezagutu eta jendearen jarrerak argitara ekartzea), eta zundaketa-gisa honek eman zezakeen informazioa, ustez bederen, eskura eman digu.

### 2.2.2. Emaitzak

Harreman hauen bidez, lehenik lortu dena zera da: Artxiboak erabili ahal izateko hitzezko edo idatzizko (30) baimena Gure baimen-eske hauek ez zuten berehala-berehalako konpromezu larririk lortu nahi, eta, "Etxepare" Programa osoa bezala, errealitatera hurbiltzeko modu bat zen. Hala ere, balio izan du tokian tokiko ikastola-arduradunek beren eritziak defini zitzaizen. Hona, zerrendatuta, topatu ditugun ardurakizunak:

a) Ondare dokumentalaren jabego-arazoa: hau juridikoki ongi zehaztu gabe, askorentzat ezinezkoa izango litzateke aurrera-pausorik ematea.

b) Tokian tokiko ondarea herrian bertako ondasun bezala sentitzen da, baina baita eskierki Euskal Herri osoaren ondasun bezala ere; zaindu beharrekoa, noski. Artxibo eta lantalde oso eratuak dituzten lekuetan gehiago azpimarratzen da lehenengo sentimendu hura; baina, gehienetan, bigarren balioespen hau nabariagoa da.

c) IANek ekar lezakeen zentralizazioaz ere hitzegin izan da: Badirudi aho batez aitortzen direla Artxibo Nagusi bakar baten abantailak (Guztien zerbitzu orokorra, ondarearekiko erantzukizun soziala hobeki zaintzea, iker-erraztasunak, mota ezberdinetako segurtasunak, guztien arteko informazio-sarea izatea, etab.); baina etor litezkeen arriskuak sahiestu beharra ere iradoki izan da (ondare dokumentalaren urruntasuna, norberak bere nortasun dokumentala galdu-arriskua, jabetasun eta erabilpenak nola zainduko liratekeen, etab.).

d) Topaketa hauek bi kezka praktiko jarri dituzte argitan: 1) Artxiboak, sarritan, gaizki daude (inoiz zokoren batean galduta, maizenik sailkapen eta gordeketa onik gabe, eta gutxi batzutan, txukun eta zainduta); horrek irtenbide orokor hobeagorik beharko luke. 2) IANen proposamenak, ikastola bakoitzari erronka interesgarria jarri dio aurrean: horri esker, ondare dokumentalarekiko ardura berri bat jaio da ikastola anitzetan.

e) Ikastolen erantzun-ezina: Eguneroko lanaren pean ari direnek oso zaila dute beren ikastetxeko bertako artxiboaz arduratzea ere, inoiz edo bestetan betidanik berori zaindu duten kasuetatik aparte. Askorentzat, IANen lankide-eskea ez da erantzuten erraza.

f) Badago zenbait ikastola, leku-arazoengatik eta, artxiboa hartu eta gordeko balitzaio, alde guztietatik arinduta geratuko litzatekeenik.

g) Behin eta berriz gogoratu izan zaigu IANen administrazio arautu bat lehenbaitlehen marraztu beharra (Arautegia), batez ere behin edo beste agiri-multzo erreserbatuak ere izango delako.

h) IAN beharrezkotzat ikusi arren, kezka frango agertu da, ondare dokumentala bere originaletan uzteko. Nahikoa iritzi kontrajarriak ikusi ditugu horretaz, eta, itxura guztiz, aldatuz doaz, gainera, arduradunen jarrerak.

i) EHIHrekiko lankidetzarako prestasun argia agertu da oro har, nahiz eta sarritan horretarako denbora eta lagun liberrik ez izan, berehala behintzat.

j) Behin bakarrik aurkitu dugu (ikastola jakin batean) Proiektuaren kontrako jarrera zuzen eta garbirik. Emandako arrazoiak: atzera begira jardutea denbora-galtze hutsa da.

Oro har, ikastola bakoitzean irizpide, behar eta laguntza-premia ezberdinak suma daitezke IAN artxiboaren eta EHIHren lanetarako. Tipifikazio zehatzagotara pasa gabe ere, nabaria da, honetan, ikastola handi eta txikien arteko aldea; eta berdin, idazkari artxibozain on bat izan duen ikastetxearen eta horrelako tradizioz gabekoaren artekoa.



Talde bileren ondoren ikastoletara egindako ikustaldietan xehetasunik aski bildu eta ikusi ahal izan genuen. Mota honetako datuak ditugu bilduta ikastolaz ikastola:

— “*Ez dugu ezer bota. Dagoen gehiena 1980tik honakoa da (nahiz eta 1972an sortua izan ikastola hau). Egoki gordea dago dena, baina sailkatu gabe. Herrian kontzientzia historikorik badagoenez, beti ere, zehatzago begiratu beharko da artxibo honen erabileran*”. Orotara 58 m-ko apalax, dokumentutan.

— “*Agiriak gordetzeko irizpidea: balio historikoa dutenak, eta egunero funtzionatzeko behar direnak gorde, lauzpabost urtetik behin gainerakoa erre egin da. Inbentarioa eginda dago*”. 30 m. apala, dokumentutan.

— “*1985tik hona gordetzen dugu dokumentazioa (Ikastola hau 1967an jaioa da), baina zenbait alorretan hasieratik bertatik gordetakoak ere badaude*.” (Akta-liburu bat falta zaigu (1982-84). Umeen espediente originalak hasieratik dituzte. 29 m. apala.

— “*Leku falta handia, artxiborik gorde ahal izateko. Dena sakabanatuta, eta zenbait gauza modu txarrean, galtzeko, lapurtzeko edo hondatzeko arriskutan. IANra eramatea bera mesede izan liteke, ondare hau zaintzeko*”. 14 m apala.

— “*Akta-liburuak 1974etik hona (1966an jaiotako ikastetxea). Bost urtetik behien, haurren espedienteak bota egiten ditugu*”. Orotara, 22,5 m apala.

— “*Dokumentazio guztia gordeta du. Dena zaindu da, eta hasieratik bertatik dago. Argazkiak ere gorde izan dira*”. 8,5 m apala.

— “*Ikastola, egoitza ezberdinetan oso sakabanatuta bizi izan da. Horregatik ere, segurua da hainbat gauza galdurik izango direla, eta materialik aski ikastolaren sustatzaile herritarren eskuetan egotea litekeena da*”. 24 m apala.

— “*Ikastola, herriko eskolarekin elkartu zenean, garai hartako lehendakariaren eskuetan geratu zen zegoen dokumentazioa, espedienteak herri eskolara paseaz*”. Kaxa bat agiri.

— “*1987an bulegoaren parte on bat erre zen (1965an sortutako ikastola). Dokumentazioan badago tarteko hutsune franko, akta eta abarretan. Eskutizketaren parte handi bat bota edo erre egin izan da*”. 15 m apalatan.

— “*1967/71 urteetan jaioa. 1979a arteko asko galduta; handik hona, idazkari jakin batek eraman du, eta dena gorde du. Ikastolan bertan sortutako irakas-kanpainak beti gorde dituzte; fakturak, hasiera-hasieratik, aktak ere berdin*”. 50 m apalatan.

Beraz, tamainaz, arretaz, jarraitasunez, etab., Ikastola bakoitzaren dokumentazio-historia ezin da ondokoekin zaku berean sartu. Batzutan, falta den dokumentazioaren aztarnak ikastolatik bertatik ezagutu ahal izaten dira, eta bestetan, kanpoan galdetuz bilatu behar.

1989ko inkestarekin eta “Etxepare” zundaketa honen bidez (1990) ikastolen ondare dokumentalari eman zitzaion begiratu bat. Lehen albis-

teok eskuetan genituela, egoki etor zitekeen ondare horretara, begiratzeko ezezik, biltzeko ere hurbiltzea. Bilketa prestatzeko betekizuna du 1991n bukatzeaz dugun hurrengo "Leizarraga" Programak.

### 2.3. "Leizarraga" Programa (1991)

Lan egitarau honen oinarritzko azalpena, liburu honen bigarren partean doa, *Idazkien bilketa. 1. "Leizarraga" Programa (1991)* izenburupean. Ez da hau, beraz, Programaren zehaztasun guztiak emateko unea. Hala ere, zilegi izan bekigu hemen, asmoaren albiste laburtu bat aurkeztea. Programa hau, "*Idazkien bilketa-gidoi orokorra*" deituriko egitarau teorikoagoaren lan praktikoa bezala ulertu behar da. Hau da, bilketa-gidoia lantzean argi zegoen bertan iradokitako bilaketa-bilketa denak ezin zirela Euskal Herri osoan eta ikastola guztietan aldi berean eratu; hobe zela zerbait mugatugorekin hastea: horretarakoxe pentsatu zen, ba, "Leizarraga" Programa.

#### 2.3.1. Egitarauaren edukina.

"Etxepare" Proposamenak ez bezala, "Leizarraga"k Euskal Herriko ikastola guztietan egin nahi du lan. Orain badiren, eta inoiz izan diren guztietan; eta guztietan gauza berak bildu nahi ditu, edo bilaketa-molde beretik bil litezkeenak.

Ikastolekiko dokumentu-ondarea ezagutu eta lehen bilketa-lana egitea da Programa honen xedea. Horretarako, ondare horren jabetasuna dutenekin elkarrizketa piztea da lehen pausoa, bakoitzaren lankide-gogoia eta jabegoarekiko jarrera ezagutzeko. Lankidegogaiaren ezagumendu honek oraingo eta geroko bilketarako IANren harreman-irizpideak ahalik ongien mugatu eta bilketa-prozedurak arautzea izango ditu helburutzat.

Baina, ezagumenduarekin batera, bilketaren eta albiste-emaileen lantaldearen antolamendua da eratu nahi dena: xedeak denon artean onartuz, lan-prozedurak ikasiz eta norberaren trebakuntza lortuz. Hortaz, Euskal Herri osoko lantaldeen sare bat moldatu nahiko litzateke, eta xede hau (berori lor baledi) bilketa bezain garrantzizkoa izan litekeela uste dugu, EHIH Proiektuaren etorkizunean.

"Leizarraga"ren *bilkizunen artean* bost puntutan adierazi izan dugu bilketa honek bilatzen duena:

1) Lehen-lehenik, *aktak*. Lehen bileretatik hasi eta gaur arte egin diren bileretako akta guztiak bildu nahi dira. Batez ere, Urteko Batzar Nagusienak, Juntanak, Zuzendaritzarenak, eta holakorik egon denetan baita Batzorde Berezienak ere (Ekonomia, Pedagogia, Instituzionala, etab.).

2) Bigarren, *argitalpenak*. "Argitalpen" hitza adiera zabal batean ulertzen dugu: kalean nahiz kalerako ikastolari buruz argitara emandako liburu edo artikulu formalak, alde batetik; baina, era berean, baita ikastola-gizartean aldiro lagunarte jakin batean banatzeko prestatutako txosten formal eta instituzionalak (Aurrekontuak, Arautegia, Urteko Memoriak, etab.).

3) Hirugarren, *galdu-arriskuan daudenak*. Ez dugu esaten non, nola edo zergatik: aski da zerbait gal-zorian aurkitzea, beronen bilketari lehentasuna emateko. Ez dugu, gainera, nolako agiri edo dokumentua izan litekeen mugatzen: arrisku-egoera da, kasu hauetan bilketarako arrazoi bakarra.

4) *Herritar banakoenak*. Ikastolak ikustatu eta inkestak egin ditugunetik badakigu, hainbat agiri eta paper ikastetxetik kanpo dagoela, ikastolagintzan ibilitakoen etxeetan maizenik. Horrelako agiri-multzorik non dagoen jakin nahi dugu, galdu baino lehen.

5) *Erakundeetakoak*. Agiri zehatz eta jakinen bila joan behar da Erakundeetara (Udaletxe, Parrokia, Kultur Elkarte, Guraso-Elkarte, etab). Ikastolaren bizitzan garrantzizkoak izandako erabakien agiriak bilatuko dira bakarrik, oraingoz.

Bilketa-lan honetarako irizpide batzuk ere gogoan hartzekoak dira: Harreman ongi eramanez bakarrik ahalbideratuko dituzte gure bilketak, eta ez da sekula ahanzi behar, agiri-jabeen eskuzabaltasun eta berorien borondate irekirik gabe ezingo dela deus lortu, eta haien eskubideen kontra egiten dena lasterbide txarra dela denontzat. Konfidantzaz eramandako lankidetzatza da guztion artean lortu nahi dena, eta hori elkarren arteko informazio eta errespetoarekin loratuko da, eta ez bestela.

Bilkizunen ondoan EHIHren *lan-antolamendu soziala* da "Leizarraga"n arduratu gaituena. Horretarako, eskualdetan banatu da Euskal Herria, bakoitzean Programa-arduradun bat jarritz, eta ikastola bakoitzari ere albiste-arduradun bat bilatu zaio. Hauei, berriz, informatzaile historikoen eta gaurkoen berri eskatu zaie, ondoko bilaketetarako erraztasunak ere izan ditzagun. Bestalde, orain bertotik zenbait datu zehatz ere eskatu da: batez ere, ikastola bakoitzaren kronologia "genetikoa" bildu nahi izan da, eskualde bakoitzeko kronograma batera iristeko asmoz.

Berriemate guzti hauek erarik elkargarrienean eta premiazko xehetasun mugatu baina zehatz guztiekin bildu ahal izateko, "Leizarraga" Programaren lehen seihilabetekoan lan-fitxa batzuk banatu dira. Irakurleak, lan-fitxa hauek bigarren parteko "*Leizarraga*" Programa (1991) deritzan atalean aurkituko ditu (5. "Lan-fitxak")

Programa ez da, ordea, berriak jaso eta lan-sarea antolatzean amaitzen; hurrengo pauso praktikoa, agiri-paperak bildu ahal izateko behar diren harremanak eta erabaki politikoak hartzea da. Ikastola bakoitzak eta dokumentu-jabeek galdera honi erantzun behar diote: Nola gordeko dut eskuartean dudan ondare dokumental hau? Zein da IAN Proiektuaren aurrean jokabide eta jarrerarik komenigarriena? Zer egingo dut nik?

Gisa berean, IANek bere zerbitzu-eskaintza hobetzen ahalegindu beharko du, ondarearen segurtasuna, erabilgarritasuna, arautegia, irekitasuna, baliabide teknikoak, iker-zerbitzuak, etab, gero eta hobeki zainduz. Ikastoletako artxiboetarako ere zerbitzu lagungarriak izan litezkeenak, noski.

### 2.3.2. Emaitzak

Lerro hauek idaztean, bizpahiru hilabete falta dira “Leizarraga” Programaren baliospena egin ahal izateko. Dagoeneko aurrera liteke emaitzei buruz zerbait, behin-behineko iritzi bezala emanaz. Egitekoari dagokion epea amaitzean jakingo da zerbait seguruago eta osoagorik.

Emaiza oso ezberdinak izango ditugu, ukitu ditugun eskualdeetan. Programaren zuzendaritzatik ez dira era berean gidatu eskualde denak, eta tokian tokiko lankidetzaren gogoak eta ahalak oso baldintzatuko dute, ikusten denez, azken uza. Giza eta gizarte-lankidetzaren balioek eta emanak —lankide bakoitzaren nortasunak eta gogoak— izan dira modu batera edo bestera lana eraman dutenak.

Lankide bezala deitu ditugunetatik gehiengo batek asko luzatu du bere lan-erantzuna ematea, eta behin baino gehiagotan eskas geratu da, gainera. Jendea, aurreko urteetako lanaren ondoren, nekatuta agertu zaigu. Inoiz, proposatzen genien lana ez zaie interesatu, eta bat edo batek alferrikakotzat ere jo du.

Batzuek, beren lan pertsonalak gorabehera, berehala eta oparo erantzun dute, lana laster burutuz. Behin edo bestetan, atzerapenak ez dira izan, inondik ere, zabarkeria eta gogorik eza, momentuko ezina baizik. Batzutan, urtetan ikastolako egitekoak utzita zituenean bat ere eskaini zaigu garai batetako oroimena gurekin batera berritzeko, paper-bilketan ordurik aski emanaz.

Eta denbora faltazko ezinak ere agertu dira, noski. Aipatzen ditugun lanak borondatezkoak ziren, diru-ordainketarik gabekoak. Ari gara, gaur

eguneko testuinguru sozialean horrelako sistema batek zein muga izan ditzakeen ikusten. Ez dute denek bihotz bero bera...

Kasu jakin batean, ikastola-mundua ongi ezagutzen zuen lankide gogotsu eta libre bati zerbait ordaintzerik izan denean, eta berorri ikastolek berek lan egiteko erraztasun zabalenak eman dizkiotenean lortu diren emaitzak handiak eta errazak izan dira. Hori izan duen herrialdeak aurrea hartu die, alde handiarekin gainera, beste guztiei. Lan-prozedura eredugarria gertatu da hau.

Lankideei azken hilabeteetan eskaini diegun fitxa-bidezko lanak badi-rudi lehen informazio-multzo emankorra ekarriko duela, eta oinarritzko xehetasunetan argibiderik franko bilduko duela. Gehienek aitortu dute eskatutakoa ez dela zaila, baina —denborarik eskatzen bait du— batzutan nekeak eta ezinak agertu dira lan-prozedura honetan ere.

Dena den, erantzun sozialaren eskastasunak (halakorik egon denetan) ez zaizkio egotzi behar lankidegoari bakarrik. Zuzendaritzaren lana ere hobe liteke, eta saio autokritiko bat egin beharko dugu Proiektuaren arduradun garenok.

Oro har, "Leizarraga" Programaren azken baliospena egiteko unea ez da oraindik etorri. Bere sasoia datorkionean helduko diogu berorri.

### 3.

## IDAZKITAN, ETA BESTETAN, BILKIZUN DITUGUNAK

“Leizarraga” Programaren bilketa-asmoa, esan bezala, idazki-bilketa zabalago baten barruan lehen pauso gisara ulertzen dugu: Programa honetarakoak ezezik, beste mota askotako paperak ditugu, izan ere, ikastoletan. Bestalde, bada mandatuz sor litekeen idazlanik ere, hau da, ikastolak bere ihardunbidean idatzi gabe utzi dituenak, baina, agian, inori orain idazteko eskatuz gero, albiste-iturri berriak ekar ditzaketen lanak. Eta, azkenik, idazkietatik kanpo geratu diren, eta idatziz ez, baizik mintzatuz grabatu beharko liratekeen solasak. Hiru lan-mota hauetaz esan nahi genuke orain zerbait.

### *3.1. Idazkien bilketa, bere orokorrean*

Irakurleak ikus dezakeenez, liburu honen bigarren partean bada “Idazkien bilketa-gidoi orokorra” deitua. Lortuta edo lortu gabe, baina asmoz bederen lan-idazki horrek osoa izan nahi du, iradokitzen dituen bere bilakizunetan. Hau da, Ikastolak sortu ahal izan dituen paper idatzi guztiak gogoratu nahi dizkio biltzaileari.

Bilketa-gidoi orokor hori lanerako tresna eta lan-oroigarria da aldi berean, zeren eta, unean uneko eginkizunari heltzean, hasieran gidoi orokor horri begiratu bat beti eman beharko baldin bazaio ere (berorixe bait da gida-laguntzarik orokorrena), laneko benetako lan-gidariak xehetasun gehiago beharko ditu, eta, beti ere, gidaritza praktikoagoa eskatzen du (gidoi horretatik haragoko lan-gidoi xehatuagoa, alegia). Eta are gehiago, lankidegoa jende espezialdua ez bada, eta herritar ez adituei beren egitekoak definituta eman nahi baldin bazaizkie.

Hain zuzen, bilketa-gidoi orokorraren luzapen osagarri eta praktikoago bezala datoz, adibidez, ikusita ditugun *"Leizarraga" Programa (1991)* eta batez ere Programa horretako lan-fitxak.

Hortaz, "Leizarraga"ren ondoren etor litezkeen programak ere bilketa-gidoi orokor haren lan-osakuntza izango dira, eta egitarau mugatu hauetako bakoitzerako plangintza berezia egingo da, eta beroni lan-fitxa edo langidoi praktikoa prestatuko zaio.

Egitarau bereziak eta lan-gidoi edo lan-fitxek bi alde zaindu beharko dituzte, a) Metodologia teorikoaren arauak, lehenik, eta b) Bilketa-lanaren antolamendu sozialaren alde praktikoak, bestetik. Nolanahi ere, beti bezala, bi muturretako eskakizun eta baldintzen arteko arrazoizko oreka bat zaindu behar dugu, hobe beharrez alde batetik nahiz bestetik pot egin ez dezagun. Ez dago metodologia absoluturik, ezta metodorik gabeko praxi zientifikorik ere

Ez da ahantzi behar, gainera, bilketarako oraingo hobetsi dugun bidea: lankide herritarrekin eratu nahi izan da lehenengo gure bilketa handi eta larriena. "Leizarraga" programa burutzean jakingo dugu, jakin, noraino hel gaitzkeen ditugun baliabide sozio-ekonomikoekin, hobetsi dugun lankidego herritarren eskutik, zeren eta susma bait liteke ikastolagile ona izandakoa ez dela, beste gabe, gure bilaketa-lanbide honetan nahitaez dokumentu-bilaketari ona izango.

Bestalde, idazkiekiko zereginak ez luke mugatu behar egon badauden paperetara. Idazkien bilketa orokorrak galdetu beharra dauka, ez ote den komeni idazki berrien sorkuntza. Horixe da orain azpimarratu nahiko genukeena.

### 3.2. "Ikastola-biografiak"

Ikastetxe batean edo berorren inguruan bil litezkeen paperez gain, bada inguruetan beti kontalari apartik, bere oroitzapenak idazteko gaitasuna duenik, bizitza osoa ikastolagintzan emandakorik. Informazio-iturri horiek, nolanahi ere, idaz-sormen emankorra izan dezakete, eta gure EHIHK ongi egingo luke, ahalmen eta indarren arabera, harrobi hori hustiatu eta bideratuko balu.

"Ikastola-biografia" idaztean, esaerak izan ditzakeen anbiguitateak aintzakotzat hartuta dihardugu. Ikastola-biografia, hau da: a) Ikastetxe



honen edo haren garapenean bizi izandako gorabeheren historia horretako alde hautatu eta mugaturen baten kontakizuna; b) Edo norbaitek, ikastola hartan bizi izan duen historia pertsonalaren azalpena.

Batean, errealitate objetiboetatik begiratu eta kontatuko litzateke historia hura. Aitzitik, memoria guztiz pertsonalak izan gabe, oroitzapen ikastolan erdigunetuak izango lirateke, bigarren ikuspegi honetatik egindakoak. Enkarguz egindako lanok, ikastola-historiaren alde gizatiarra ekarriko luke, eta informazio bereziki koalifikatuak sor ditzakete, batez ere historia haren alde bereziagoak jasoko diren kasuetan: Arkitekto baten eraikuntz bizipenak, idazkariaren harreman-gune hain bidegurutzagarriaren historia, pedagogi arduradun baten esperientzia, etab.

Orain-oraingoz, lan hauetarako egitarau orokorrik eskaintzen ez badugu ere, bego hemen idazlan-multzo mota honen asmoa, ondoko Programe-tan gogoan izan litekeen sail estimagarria. Gainera, lan-eremu honek beste zabalago eta premiazko alor batera garamatza: lekuko mintzatuenera.

### 3.3. Agiri mintzatuena sorkuntza

Izan ere, aipatu "ikastola-biografia" horien informazio-metaketa, definizioz idatziz egin behar denez, badirudi idatz-ihardunaren baldintzak gehiegi baldintzatuko lukeela, egitekoa idatz-ohiturarik dutenengana murriztuz. Seguraski, kasurik gehienetan baldintza astunegia da hori, uztarpe horretan baliozko hainbat jende lanera erakartzeko. Beste bide lauagoren bat bilatu beharra dago, beraz, oroimen pertsonalak azaltzeko erraztasunik izan dezan.

Jakina denez eta berehala ere azalduko dugunez, lekukoen oroimen aberatsak hustiatzeko errazagoa eta metodologiaren aldetik probaleku onak izan dituen Ahozko Historia izango litzateke, bide horretatik agiri mintzatuena sorkuntzari leku emanez.

Ahozko Historian lan-mota anitz dago non hauta erabakitzeko, eta ondoko orrialdeetan esango da zerbait horretaz; baina aintzina egin aurretik, oharren bat edo beste egin behar da hemen.

Liburu honetan Ahozko Historiaz esango direnak bi atal nagusitan banatu dira: hurrengo kapituluaren deskribatuko dira "Ahozko Historiaren zeregin eta baliabideak", beti ere era oso orokor eta labur batean, eta gero, liburuaren bigarren partearen III. kapituluaren aurkituko du irakurleak "EHIH: Ahozko Historiarako lanbide-arauak" deitua. Kapitulu honetan, ahozko

historilari estatubatuarrek onartuta duten arautegia aurkeztuko da, eta horko araubideek gurean izan dezaketen aplikagarritasunaz egiten da zenbait ohar.

Bai Ahozko Historiaren zeregin eta historiak ari den atal hura, eta lan-metodologiei buruz diharduen bigarren hau, informazio eta argibide orokorrenak emateko dira. AHren hasierako ikuspuntua non dagoen, eta lan horiek bere abiapuntu eta ondoko lanbideak, orokorrean, nondik nora eramán beharko lituzketen jakiten hasteko lagungarri izan nahi dute orrialdeok; baina Ahozko Historiako lanek EHIHn izan beharko luketen lan-gitaraua ez da hor erabaki eta argitzen.

Orain oraingoz bi kapitulu nagusi bederen geratuko lirateke landu gabe: a) EHIHn nahiago izango genukeen AHko bilketa-plan osoa: Euskal Herria gogoan hartuz, eta metodologi-jatortasunak eta Proiektuak horretarako jar ditzakeen baliabideak elkarrekin ezkonduz, zer, nola eta non bil?; b) Bilketa-plan orokorraren aplikazio-arau metodologiko zehatzak (galde-sortak, elkarrizketa-prozedurak, etab.) eta antolamendu-irtenbide sozial praktikokoak erabaki eta deskribatzea (lan-taldea, tokian tokiko laguntza sozialak, etab.).

Ondoko orrialdeetan esango dena, besteak beste, muga horren barnean behar da ulertu.

### *3.4. Ikastolaren ikonografia eta ikus-entzunezkoak*

Liburu honetan bada, beste batzuen artean, mingarri gertatzen zaigun eskasia bat: Ikastolari dagokion ikonografia jasotzen lagunduko ligukeen plangintzaren falta. Guztietara batera eta osorik ezin iritsiak dakarren hutsunea da; baina, ezintasun horregatik ere, zilegi izan bekigu arazoa aipatuta bederen lagatzea.

Argitalpen-lan ikonografikotan ibili denak ongi daki —grabatu, argazki eta abarren bilaketan hainbeste sofritu, eta aurkitzean, hala gozatu duelako ere— zein emankorra eta didaktikoa den, norberarentzat lehenik eta irakurle-ikuslearentzat gero, testu idatziarekin eta hitzezko azalpenekin batera irudizko informazio historiko sistematikoa eskuartean izatea.

Zorionez, azken urteetan, Euskal Herriko Kutxa, Banketxe eta Herri-Erakundeek leku ona eman diete gure Historiak behar genituen bilketa- eta ondoko argitalpen-lanei. Adibiderik erosoena Gipuzkoako edo Nafarroako Kutxen argazki-edizioak ditugu. Bestalde, esan gabe doa, aurreko men-

deetako grabatuen berreskuratzea berehala grina asekaitez bilaka daitekeela nornahirentzat; ikus, bestela, GK-k argitaratu emandako lan eredugarriek berekin duten gozamina. Begira, hona ekar ditzakegun aipatu adibideak:

- *Argazkiak. Fotografías* bildumak, bere bost liburukietan, 1915-1970. urteak hartzen ditu Gipuzkoaren Historia hurbila deskribatuz. Eta ezin dira ahantzi kideko beste monografikoak: *Argazkiak, Irun atzo; Eibarko argazkiak; Argazkiak, Andoain* (DKM/Kutxa, 1986-1990, 1988, 1990).
- *Navarra. Historia y Arte. Tierras y Gentes* bezalakoak zinez begi-gozagarri dira, eta oroimen historikoaren argiztagarri (CAN, 1984).
- Altube, F. (1984 eta 1987): *De Biarritz a San Sebastián* eta *De Bilbao a San Sebastián*. Dibujos, grabados; ilustraciones, opiniones (GK). Galdutako herri-inguru birjinak eta auzo-herrietako hirigintza gerora antzaldatuak ikus daitezke bertan.

Baina, zorionez, irudiaren mundua ez dago lan inprimatuaren muga estuetara zedarritua. Argazkia asmatu eta ahots-grabagailuak zabaldu direnetik, lekukotasun historikoen bilbide berriak eta biziagoak eskura jarri zaizkigu. Horrela, ikerkuntza historikoetarako fototeka, fonoteka, bideoteka, filmoteka eta abar aberatsak ari dira eratzen munduan. Eta baita Euskal Herrian ere.

Gure artean sortu-berri diren bizpahiru honelako biltegi edo erakunde aipatu behar balira, hona adibide batzuk:

- Donostian Kamino Liburutegian bildu den fototeka kasu eredugarria da, Euskal Herriaren eta Euskal Herriko ikonografiarekin nolako altxorra bil litekeen ikusteko: Fotocar eta Foto Marín-en lanek 1915-1970etako urteak hartzen dituzte (420.000 argazki), *La Voz de Guipúzcoa/España*-renek 1892tik honakoak (200.000), Arturo Delgado-renek 1960-1985 urteak (37.000), beste dohaintza txikien artean.
- Hitz mintzatu edo kantatuaren mundura gatzela, berriz, bertsolariekin edo kantari berrien inguruan egindako bilketa-lana garrantzizkoa da, berrikitan gehienbat Euskadi Irratiaren bidez ezagutu ahal izan duguna. Nork ez du maite Mattin, Xalbador, Uztapide, Enbeita eta halako bertsolari handiak oraindik gutartean bizirik entzutea? Antonio Zavala edo Patxi Mujika-k galbidetik salbatutakoa lan eskergaz egina izan da. Bertsolaritzaren edo Kanta Berriaren historia burutzeko ezingo da etorkizunean Mujikaren altxorra ahantzita ibili: 1962tik hona 600 edo 900 ordutako grabaketak...

Teknologia modernoagoetara etorriz, filme-, bideo- eta telebista-lanen artxibo eta biltegiek badute bizitzarik gure artean. Bi erakunde aipatuko ditugu bakarrik: Euskal Telebistaren artxibategia (Durango) eta Euskadiko Filmategia (Donostia).

- Alde askotatik, lehengoaz eta eginez doan oraingo historiaz ETBk metatuko dituen langaiak guztiz garrantzizkoak izango dira, euskararen bizitza sozialaren historia burutu ahal izateko, adibidez.
- Euskadiko Filmategiak, bestalde, 1917tik honako materialak bildu ditu: 400.000ren bat metro filmetan, milioiren bat metro bideotan. Euskal Herri iragana eta, behin baino gehiagotan, desagertua ezagutzeko baliabide estimagarria da, noski, hori ere.

Eta gatozen gurera. Ikastolaren historiak ere sortu du hainbat irudi: argazki, filme, bideo eta abarretan. Bilketa egingarri honetarako egiteke geratzen da gurean, oraindik, beharko den proiektua, eta ez dago, beraz, liburu honen orrialdeetan. Baina badugu egiteko honen garrantziaren kontzientziarik: lerro hauetan horixe da aditzera eman nahi duguna. Ohartuta gaude horretaz, eta nornahik zerbait aurreratu ere egin nahi balu, pozarren bilduko genuke jada, proiektuari itxaroten egon gabe.

#### 4.

### AHOZKO HISTORIAREN ZEREGIN ETA BALIABIDEAK

Historia aztertzeko behar diren oinarrizko baliabideak aztertzen dira. Horien artean, dokumentuak, liburuak, irudiak eta beste materialak sartzen dira. Dokumentuak, batez ere, lehen iturriak dira, eta horiek dira historiaren oinarria. Liburuak, berriz, bigarren iturriak dira, eta horiek dira historiaren oinarria. Irudiak, berriz, hirugarren iturriak dira, eta horiek dira historiaren oinarria.

Historia aztertzeko behar diren baliabideak aztertzen dira. Horien artean, dokumentuak, liburuak, irudiak eta beste materialak sartzen dira. Dokumentuak, batez ere, lehen iturriak dira, eta horiek dira historiaren oinarria. Liburuak, berriz, bigarren iturriak dira, eta horiek dira historiaren oinarria. Irudiak, berriz, hirugarren iturriak dira, eta horiek dira historiaren oinarria.

Historia aztertzeko behar diren baliabideak aztertzen dira. Horien artean, dokumentuak, liburuak, irudiak eta beste materialak sartzen dira. Dokumentuak, batez ere, lehen iturriak dira, eta horiek dira historiaren oinarria. Liburuak, berriz, bigarren iturriak dira, eta horiek dira historiaren oinarria. Irudiak, berriz, hirugarren iturriak dira, eta horiek dira historiaren oinarria.

Honainoko orrialdeetan ondare dokumental idatziari buruz ihardun dugu: beharrezkoa zen, oro har, lehentasun hori. Baina bada tenorea lekuko ez-idatzien munduari ere bide emateko, lanaren denborazko larritasunak beste hartatik eramango badira ere, horrek ez bait du esan nahi, nahitaez, zenbait une eta gaitan zinezko bila-larritasunak testigu solaskideetan ere ez daudenik.

Susmo honi bere bilabidea urratuz joateko, ba, AHIHn historiak dihardugunez, lekukotasun mintzatuei dagokien Ahozko Historia da hemen ikerkizun eta ikerbide bezala proposatzen dena. Ahozko historilarien lanak badu, gutxienik, hamarkada batzuetako bizitza, eta badu metodologia jakin bat (edo batzuk).

Liburu honetan hiru ataletan banatu da Ahozko Historiaren berriematea: a) AHren lehen albisteak, eta EHIHrako lan-proposamenak azaltzen dira berehalako orrialdeotan (lehen partean, alegia); b) AHn beharrezkoak diren arau metodologikoak (bigarren partean); c) Ahozko Historiako harreman-informaziotarako argibideak (azken eranskinetako harreman-helbideetan eta bibliografian).

#### 4.1. AHren arazo eta albisteak

Ondoko lerroetan bildu duguna, batez ere EHIHz arduratuei egin nahi diegun Ahozko Historiaren aurkezpen xume bat da. Badakigu, hemen esango ditugunetatik gehiena adituentzat ezaguna dena. Ez goaz, beraz, jakitunak eskolatzera; baina lankidegai izan daitezkeenentzat hemen zenbait xehetasun bildu eta aurkeztea, EHIHren inguruko elkarrizketa laguntzeko ere izan litekeela uste dugu. AHk gure inguruan behar dituen solaskide eta lankideek, beti ere, honela Proiektuaren nondik norakoak hobeki ulertuz, eta hobetuz, erantzun ahal izango dute.

Bestalde, Proiektua bera mugatu eta berorri aurrera-bideak samurtzeko ere bada hemengo AHrekiko sarrera hau. EHIHren egitasmoaren edukina eta ikerbideak zedarritzen lagunduko du, noski, Ahozko Historiaz gutxieneko albiste batzuk bederen izateak.

##### 4.1.1. Ahozko Historiaren historiak

Bigarren partean AHren arazo metodologikoei heldu aurretik egoki etor lekiguke Historiografiaren adar gazte honen historiak zerbait esatea, Zientziaren aldetik lortutakoen balioaz gain, dagoeneko gizartean izan duen onarpena ere gogoan hartuz.

— Nazioarteko oihartzunak

Amerikarrek "Oral History" deitu izan dute, eta hitz berekin itzuli da espainiera/frantsesetara ere: "Historia Oral/Histoire Orale". Espainiako Unibertsitateetara 1980aren ingurumarian iritsi zen historia egiteko iturri mintzatuez baliatzen den lan-modu hau. Baina, oraindik ere, ez da apenas zabaldu Unibertsitate horietako irakas-ohitura akademikoetara.

Frantzian, ostera, aurreko hamarkadatik dator tradizio historiografiko gaztea, eta hemen ere gauza beretsua esan liteke Unibertsitateetan duen leku akademikoaz; hala ere, horrek ez du esan nahi balio ofizialik aitortu ez zaionik, izan ere CNRSren barruan (LP 301) "Institut d'Histoire du Temps Présent" sortu zenetik (1978), indarrean ageri bait da Frantzian ere Histori adar hau.

Azken berrogei urte eskasetan Ahozko Historiaren (=AH, hemendik aurrera) garapena handia izan da munduan zehar nazioartean: 1920-1945etan lehenengo saioak egin ondoren, 1948az gero izan du bere goraldia, 1960tik aurrera batez ere. Hasieran, Soziologiari lotuta ageri ziren batipat beronen ahaleginak (W. Thomas, F. Znaniecki: *The Polish Peasant in Europe and America*. 1919-1921).


Loraldi hau zenbaterainokoa izan den jakiteko, daturen bat edo beste aurkez daiteke: Estatu Batuetan, 1972an, 122 proiektu handi zeuden onartuta, eta 1973ko abenduan 23.000 lagun ziren jada elkarrizketatuak, 52.000 ordutan (beraz, elkarrizketatu bakoitzari batazbeste bi ordu eta laurden eskas jaso zaio). 1966an, Columbiako Unibertsitateak 50.000 dolar eralgi zituen "Oral History Program"aren barnean. 1978rako, Kanada, EE.BB. eta Mexikoren artean 100.000 ordu zeuden programa hauetan grabatuak. Australia, Israel, Holanda, Italia, Eskandinavia, Britainia Handia, Gales eta abarretan programa zabalak daude bidean. Eta Poloniako esperientzia zahar eta berri hain aberatsak eredugarriak izan dira.

Histori aldizkari klasikoek, edo Soziologi aldizkariak, dagoeneko eskaini dizkiote Ahozko Historiari ale monografikoak: *Annales* (1974, 1980, 1988), *Revista Internacional de Sociología* (1986, fasc. 3), *Quaderni Storici* (1973, n. 35), *Papers* (1979), etab. Eta ez da falta izan, noski, artikulu sakabana-tuetan Ahozko Historiaz arduratu denik: *l'Avenç*, *Debats*, etab.

Barruti berri honi osorik eskainitako aldizkari espezializatuak ere jaio dira Europa eta Amerikako Unibertsitateetan, edo ahozko historilarien Elkartearen eskutik. Ez gara hemen denak biltzen hasiko; ondoren, azken eranskinean emango ditugu batzuk bederen. Talde berezietan, gogora

dezagun tradiziozko handienekoren bat (Thompson-en *Oral History*, Essex, 1971), edo berrikita agertu den hurbilagokoren bat (*Historia y Fuente Oral*, Barcelona, 1989).

Lanok aurrera egin duten neurrian, esan gabe doa, Ahozko Historiaren lan-programek ere gora egin dute, gero eta argiago azaldu bait da "ahotsik gabeko" talde sozialen historia isilduak jaso beharra. Talde horiek, beren oroimen historikotik mintzarazi-nahia nabaria agertu da iker-egitarau horietan. Hastapen haietako datu estatistiko batzuk dakartzagu hona, USAn bizi izandako iker-esperientzia gogoratuz (1948-1972):



#### — Estatu Espainolean

Esan da: errealitate historikora hurbiltzeko AHk eskaintzen dituen tresna eta ikerbideak Estatu Espainolera nahiko berandu iritsi ziren. Egia da, lehendik ere etnografoek edo soziologoek kaleratutako lanak bestean aintzindari gisakotzat eman zitezkeela; baina zenbait kazetari lan ere. Baina AHko lan jatorren bidetik deus gutxi zegoen eginda, eta egindakoa ere ez zen, batzuetan, berehala argitara ahal izan (izan ere, klandestinitateko historiak bait ziren). Frankismoaren ondoren egin da librekiago Espainian AH.

Fraser kazetari ingelesaren elkarrizketek ireki zuten bidea (1979, 1982), lehenik; eta ondoren hasi dira eratzen Unibertsitate eta beste erakundee-tako AHko lantaldeak. Arestian iradoki dugunez, 1980ko hamarkadan jarri behar da AHko mintegi unibertsitarien jaiotza.

Estatu Espainolean, gaur egun (1990) ditugun AHren lantegirik jakinga-



rri eta aberatsenak Unibertsitateetako Aro Garaikideko Histori Departamentuetan eta zenbait dokumentu-artxibategitan biltzen dira, inoiz edo bestetan Fundazio pribaturen baten eskuetan daudela. Ikertzaileek beren kontura, bakarrik, egindako funts handiko lan batzuk ere honelako ikertegietara pasa dira: Fraser-en artxiboa da horietako adibiderik ezagunena (277 zinta grabatu Barcelonako Institut Municipal d'Història-n: Estatuko AHko artxiborik handiena da, itxuraz).

Unibertsitateetan ditugun ikergune ezagunenak Madril eta Barcelona-n daude, bietako bina Unibertsitate estataletan. Estatuan jaio-berria da AHz gaztelaniaz dagoen aldizkari espezializatu bakarra: *Historia y Fuente Oral* (1989. Hemendik aurrera, *HyFO*). Aipatutako Institut d'Història-ko eta Barcelonako Unibertsitatean dabilen talde batuak darama horren ardura, eta oraingoz talde honi aitortzen zaio, Madrileko Unibertsitate-munduan ere, eremu honetako gidaritza.

Ikertegi hauetako AHko Programak (hau da, ikerkizun-alor baten azterketa daramaten iker-egitarauak) ezagunak dira, dagoeneko argitaratutako emandako lanetatik edo bidean direnen albiste-emateetatik. Barcelona-n Vilanova eta Borderias-en argitalpenak dira zabalduenak (II. Errepublikaz, gerrateaz, emakumeaz, gizarteaz, metodologiak eta teoria orokorrak); García-Nieto eta Folguera, berriz, Madrileko Unibertsitateetan (emakumeaz, langile-auzoez, frankismoaren aurkako oposizioaz, gerraosteko eguneroko bizitzaz).

Ezin da hemen aipatu gabe laga *Historga* deituriko Proiektua: Galiziaren Ahozko Historia bildu nahi du *Historga*-k. Proiektu hau, Santiago-ko Histori eta Geografi Fakultateko "Laboratorio de Fuentes Orales" deritzanetik gidatua da, eta Galiziako Xuntatik lagundua. Bi urte pasaxeak ditu *Historga*-k, eta 150 elkarrizketa eginda zituen iazko udaberrian (1990). Bi iker-eremu ukitu nahi izan ditu: Gerra zibila eta berorren ondoko zapalkuntza, eta abertzaletasun galegoaren 1950erainoko historia. Guk, EHIHn egin nahi dugun AHrekin kidetasun interesgarri bat du Proiektu honek: Zuzenean ez da *iker*-proiektua, *bilduma*-proiektua baizik (AHrekin Artxiboa sortzea, alegia), nahiz eta bidebatezko edo zeharbidezko ikerlanen bat ere tartean izan. Aurrerago aipatzen dugun Maïte Franck-en (Frantzia) iker-proiektuaren antzera, baina bestelako arrazoi horregatik (bilduma izateagatik, alegia), EHIHko AH lantzeko Santiago-ko hau ere ezagutu beharko genukeela azpimarratuko dugu orain.

Une honetan Programarik ezagunena, eta handiena "Barcelona: Los Juegos Olímpicos de 1992" deitua da Estatuan, eta hiri hartako IMHko

historilari-taldeak darama aurrera (*HyFO* 2, 153-156). Bi epetan banatu da Programa. Lehenengoan (1989-1990), hiriaren azpiegitura urbanistikoa aztertuko da, eta Joko Olinpikoen eragin ekonomikoa (729.000 milioi pezatatako arazoa omen da berau). Eginda daude 10 elkarrizketa; eta 58 ordutako grabaketak egin dira aipatutako azpiegitura aztertzeko, eta beste 20ren bat beharko da alor berean. Alde ekonomikoarena, 20ren bat elkarrizketetan borobilduko omen da. Lehen epeko eginkizun horiek burutzen, bigarreneko azterkizunei helduko zaie: gaiak, agian hiriaren nazioarteko proiektzioa eta Barcelona-ren bigarren hiriburutasuna izango dira (ik. *HyFO* 2, 161-163).

Garrantzikoa da zera azpimarratzea: Ez Estatu Espainoleko iker-programetan eta ez nazioarteko bibliografian ageri da hezkuntz antolamendu ongi erakundetzatu baten AHrik. Inoiz aipatzen da herri-kulturaren azterketarik (ez da ahantzi behar Etnografiatik zein hurbil egon litekeen hori), baina alfabetatze-kanpainaren batenik; baina hezkuntz antolamendu arautu baten AHrik ez da ageri. Gehienez ere, AHko ikasmaterialen eskolatako erabilpen didaktikoaz aurkeztu ohi da Kongresuetan lanen bat: baina hori, besterik da, guk hemen darabilgun gaitik (nahiz eta gerora gogoan hartzekoa izan hori ere gure EHIIHren zabalkundea eskoletan sustatzeko). Laburtuz, ba: "Euskal Herriko Ikastolaren Historia", ikergaiaren aldetik (Ikastola), benetan berria gertatuko zaigu AHren nazioarteko bibliografian, berehala aipatuko ditugun Frantziako kasua edo Finlandiako Marja Numminen-en lanak gogoan izanik ere.

#### — Frantzian

Eta begira diezaiogun Frantzian topa dezakegunari. Esan dezagun, oro har, Institut d'Histoire du Temps Présent (IHTP) deituaren argitalpenetan ikus daitezkeela Hexagonoan AHz dagoenaren albisteak. Bada, gainera, 1982an argitara emandako *directorium* bat: *L'Histoire Orale en France. Répertoire des chercheurs* du izenburutzat. Zoritxarrez, dakigunez, liburuxka honek ez du urteroko segidarik izan. Argitalpen honen osagarri bezala har litezke Kongresu eta Topaketetako partaide-zerrendak, eta hauek eguneratzeko gaurkoena, Nazioarteko Soziologi Elkarteak, bere "Biografia eta Gizartea" Batzordetik (38. Iker-Batzordea), kaleratu-berri duen *Directory of Members (May 1990)* izango litzateke. Berriz ere, Parise-ren zentralismoari men eginez, albisteak bizkor eta nahiko osorik jakiteko, bi iturri nagusitara jo behar da: 1) Behin eta berriz aipatuko dugun IHTPera,

eta 2) "Biografia eta Gizartea" Iker-Batzordera. Berauen helbideak eranski-  
netan aurkituko ditu irakurleak. Bigarren honen albisteek, gainera, ez dira  
Frantziara mugatzen, eta Soziologi Elkarteari dagokion nazioartekotasuna  
dute.

Frantziako ikertzaileen artean, egoki izango da izen ardatz batzuk  
gogoratzea: F. Bédarida-k IHTPen gidaritza darama; D. Bertaux, ostera,  
batez ere Soziologiatik ari dela, Centre d'Etude des Mouvements Sociaux  
(CEMS) delakoaren arduraduna da, beti ere CNRSen barnean (Maison des  
Sciences de l'Homme); Ph. Lejeune-k oinarritzko lanak eman dizkigu,  
autobiografiari buruz bereziki, eremu honetako arazo teorikoak aztertuz.  
Egia esan, izen sonatu hauekiko harremanak bezain emankorrak gerta  
daitezke, berorien inguruko taldeetako ikertzaile saiatuenak.

Frantziako AHren egoera ezagutzeko premiazkoa gertatzen da Institut  
d'Histoire du Temps Présent ezagutzea. Esan bezala, Erakunde hau  
ofiziala da, CNRSren barneko antolamenduan (LP 301). 1978an sortu  
zuten berau, Lehen Ministrariak eta CNRSek. Beronen xedeak hauek  
izango lirateke: II. Mundu-Gerrateko eta ondoko urteetako Historia lantzea  
(lehen esparru horretan, lehenagoko "Comité d'Histoire de la 2ème Guerre  
Mondiale"ren ordezkotza hartu du IHTPek).

Erakundearen lanen ezaugarriak nabarienak hauek dira, diotenez: 1)  
Lanen disziplinarrekotasuna, 2) Programen nazioartekotasuna, eta 3)  
Lantaldetasuna. Oraingoz landu dituzten edo lantzen ari diren esparru edo  
gaiak, ostera, zerak dira: 1) Bigarren Mundu-Gerratea, 2) Historia ekonomi-  
koa (enpresa-kultura, Frantziako gasaren historia...), 3) Politika, Kultura,  
Gizartea (Algeriako gerra, Mendès France-ren Gobernu...), 4) Nazioarte-  
ko inkestak (deskolonizazioa ...).

Bosgarren esparru bat guri zuzenago dagokiguna du IHTPek: "Ahozko  
Historia eta talde-oroimena". Zerbitzu-laboretegi bat bezala eratuta dago  
hau: Biblioteka, dokumentazioa, mahai-inguruak. Bestalde, ekinbide ber-  
riei koordinazioa eskaintzeko ere bada. Metodologiak landu, lekukotasunak  
bilatu eta bildu, gizartearen orokizunak zaindu, eta historilari eta ekintzaile-  
leen arteko elkarriketa emankor bat sustatu nahi ditu IHTPeko esparru  
honek.

IHTPren argitalpenak bi multzotan banatzen dira: liburu-liburuxkak,  
alde batetik, eta Buletina eta koadernoak, bestetik. Buletina, hiruhilabete-  
karia da, eta berau da, batez ere, Erakundearen barneko lan amankomuna;  
bibliografiaren berri eman ohi du, iker-lan eta iker-gai berrien albisteak

banatzen ditu, eta gogoeta metodologikoak eskaini ohi ditu, Erakundearen albisteak ere zabaltzen dituen bitartean. Buletinaren eranskin batzuk ere agertu ziren lehen urteetan, zenbait gai monografiko jasoz.

*Les Cahiers de l'IHTP* deituetan badago gure lanari dagokion argitalpenik ere: halanola, *Questions à l'histoire orale* (1987). *Opuscles* sailean ere aurki liteke material interesgarririk: "Histoire et Informatique" (1980), "Problèmes de méthode en Histoire Orale" (1981), "L'Histoire Orale en France. Répertoire des chercheurs" (1982), "Actes du IVème Colloque International d'Histoire Orale" (1982), etab. Erakundearen argitalpen handien artean, batez ere Orainaldiaren Historia bildu izan da, II. Mundu-Gerratetik hasi eta gaurdainoko hainbat gai ukituz: Erresistentzia, "Normandie 44", "Plangintzaren krisiak", etab.

Esan bezala, argitalpen hauetaz aparte, beharbada guretzat baliagarriagoak izan litezkeen zerbitzuak daude: Biblioteka, Artxihoak eta dokumentazioa, eta ikertzaileek eskaini dezaketen aholku-laguntza. Bibliotekak 20.000 liburu ditu Orainaldiaren Historiaz: gure aldetik, eranskinean emango den zerrendan ikus daiteke, AHZ jasotzen diren munduko aldizkarietako multzo bat. Artxibategiak, ostera, badu audioteka ere, bertan bildutako entzungarriak aditzeko.

Jende-prestakuntzaren alorrean IHTPk eskaini ditzakeen zerbitzuetakorako egon litezkeen ahalbideez zer esan? Erantzuna hau izan da: Erakundeak ez dauka ofizialki ikaslerik hartzerik, hori arruntki Unibertsitateen bidez egiten da. Ez dago, beraz, ikasle-egonaldirik ezta ikas-burtsarik ere, baina mintegiak erdi-publikoak direnez, joan daiteke holakoetara. Zoritxarrez, une honetan IHTPk AHko mintegirik ez du eratzen (1991).

IHTPk eman dezakeen laguntzetako bat, lagunarteko aholkularitza izan daiteke, lanak aurrera daramatzagun neurrian zerbaitetan beren kritika eta eritziak eskainiz. Erakunde honekikoak xehetasun guztiekin jakiteko, ik. bibliotekan begira litezkeen urteoroko memoriak. Bestalde, dokumentazio-kontsultetarako komeniko da harremanak Anne-Marie Pathé-rekin izatea.

Erakunde ardatz horrekikoen ondoan, hau da guretzat bereziki interesgarria izan litekeen Proiektu bat aipatzeko unea: Frantzian bada "Pour une Histoire orale de l'Éducation en France depuis 1945" deituriko programa bat, Maïte Franck-en ardurapean ari dena. Proiektu horren gai eta zabaltasunagatik gurearekin kidetasun jakingarriak izan ditzake. Ikusteko geratzen da, oraingoz.

— Euskal Herrian

Eta gatozen kanpoan ikusitakoetatik Euskal Herrian ditugunetara. Agirreazkuenaga-k gogorarazten didanaren arabera, euskal Historiografia klasikoa (Isasti eta Larramendi giputzak, esate baterako), Herodoto bere garaian bezalatsu, ahozko informazioetatik horniturikoa da, hein eder batean.

Gure herri-literaturaren ahozko tradizioa inprentaratu denean, XIX-XX. mendeetako lekuko bizi aberats bihurtu zaigu. "Auspoa" bilduma kasik osoaren kasua da hau. Gogoan dut oraindik, Euskal Herriko erdal gizarte-historilari adiskide baten harridura liburu-sorta horren iturri-balioa gogoratu nion batean: Ez zuen ezagutu ere egiten! (erdaldun hutsa zelako, noski). Euskal historiaren euskarazko iturriek (eta ikerlanek ere!) merezi dute aintzakotzat hartuak izatea iker-informazio on baten izenean.

Ahozko literaturarekin batera, komeni da gure Etnografiaren historia luzea ere gogoratzea (*Eusko-Folklore*, 1921), zeren hainbat etnografo eta antropologoren lanek elkarriketen tradizio oparoa bait du gure artean (Ik. albiste-iturri interesgarri bat: ERKOREKA, A (1988): *Euskal antropologoak, etnologoak eta etnografoak gaur*. Donostia: Kriselu). Herritik jasotako langaiok berekin dituzte maiz gure historiaren printzak eta bilaketetarako bide-erakusle ere suerta litezke historilariarentzat.

Dena dela, era berean komenigarria da AHren bideek, herri-literatura soiletik, Antropologiatik eta Etnografiatik zinez bestelakoak izan nahi dutela eta behar dutela gogoratzea, denboraren eta diakroniaren gain sistemati-kotasun eta arautegi batekin harildutako azterketa bait da AHrena.

Hemen ere egin da AHrik. Hertsiki begiratuz, Euskal Herriko AHren lehen pauso bakarrak Franco hil ondoren eman dira, argitalpenen datetan ikus daitekeenez. Agian, gure artean beste eremuetatik AHra gehien hurbildu diren lehenengo lanak kazetaritzatik datozkigu (Ibarzabal, Ugalde, etab.). AHko historilarien lan-prozedura metodologikoetatik urrun geratzen badira ere, ezin uka, bederen, AHn ohi den bilketa-moduetara nahikoa hurbildu direla. Hortik Ahozko Historiarantz jauzia egin-berria da Euskal Herriko historilarien artean ere. Ez da talde handia, baina badago gogoz lanean hasi den historilari-multzo bat. Hemen ere gehienetan azken gerrateko historiaz ari dira aitzindariok (J.C. eta L.M. Jiménez de Aberásturi, Estévez/Otaegi, C. Blasco, Cava/Ruiz Olabuenaga, J. Agirreazkuenaga, G. Arrien, etab.), edo gerraondoko politikaz, inoiz XIX.eraingo jauzi eginez (Etniker, Agirreazkuenaga).

Euskaraz ere bideak urratzen hasi gara, eta berrikitan agertu-berria den Lezo Urreiztietaren biografia kazetaritzatik egindako "bizi-historien" artean lekutu beharko litzateke (UGALDE, M. (1990): *Lezo Urreiztieta (1907-1981). Biografia*. Donostia: Elkar).

Euskal Herrian ezagutu ahal izan dugun AHko Programarik zabalena, eta modu sistematikoan eraman dena, Carlos Blasco Olaetxeak gidatu zuena da, Gerra Zibilarri eskainia: 108 elkarrizketa eta 7 bideo ditu. Transkribapenak eginda daude. Fondo guzti hau Jaurilaritzaren Bergarako Mikrofilmategian kontsulta daiteke, eta berorren parte bat Blasco Olaetxeak berak eman zuen argitara (*Diálogos de guerra. Euskadi 1936*. Donostia, 1983). Hauxe da, seguraski, gure EHIHko asmoen aurreko hurbilena Euskal Herrian.

Gaur egun Euskal Herrian eginez doazen Proiektuetatik, Deustuko Unibertsitatean, M.Jesus Cava-k eta J.I. Ruiz Olabuenaga-k zuzentzen dutena ere gogoratuko dugu, besteak beste. Beronen azterkizunak Gerra Zibila eta garaiko gizarte bizkaitarra dira (egunoroko bizitza, gerratearen oroimena eta traumak, borrokarien arrazoiak, orduko sufrikarioen neurketak). Laburki esanda: "El trabajo se propone como objetivo principal de estudio la reconstrucción de la historia social de la guerra civil". Gure aldetik egin beharko litzaioke segimenduren bat Proiektu honi, izan ere horretarako erraztasunak ere eskaintzen bait dituzte ikertzaile hauek ("la lectura del cuestionario sobre el que dicha investigación va a basarse, proporcionará a toda persona interesada en él, el alcance, contenido y propósitos concretos sobre el que este proyecto se asienta").

Oro har, Euskal Herrian AHn egin diren lanen azalpen ordenatua nahi duenak ikus beza: J.C. JIMENEZ DE ABERASTURI (1989): "La Historia Oral sobre el nacionalismo vasco", in: *HyFO* 1, 157-169.

Gurera itzuliz, EHIHren Proiektuan proposatzen den eremua, gerratea baino iraunaldi luzeagoko errealitatea da, eta hurbilagoa, gainera; bestalde, lurraldez Euskal Herri osoa hartu nahi du EHIHk.

Munduan AHak duen hedapenaz esandako hauen ondoren ordea, normahik galde dezake: Eta zer da eta zertarako balioko digu AHk guk aurrera bultzatu nahi dugun EHIHrako? Ongi etorriko da, ba, horretaz ere zerbait esatea.

#### 4.1.2. Zer da Ahozko Historia

Zientzia gehientsuenetan bezala, Ahozko Historian ere urtetan eztabai-

datu da, eta findu, alor honi legokiokeen esanahi zehatza. Batzuetan, etxebarruan eginda lan hau; bestetan, ondoko jakite-alorretatik izandako eraso eta kritikei erantzun nahirik landu dira kontzeptuak. Hemen ez dugu ahalegin guzti horien azken erroetara iristeko asmorik; baina zertzelada laburren bat bederen eskaini nahi diogu irakurle ez-adituari.

### — Kontzeptua eta iker-barruti usuenak

Euskaraz “ahozko literaturaz” hitz egin den bezala (M. Lekuona), historilariak, orain hamarkada batzuk, “Ahozko Historiak” mintzatzen hasi ziren. Baina izendapen-modu horretaz (*Ahozko Historia*), izan da eztabaidarik aski, eta, egia esan, gaur egun ere ez dago arazoan adostasun teoriko osorik historilarien artean: hainbat historilarik nahiago du “ahozko historiaz” baino, “historiarako ahozko iturriez” edo “iturri mintzatuez” hitz egin. Ikusiko dugu berehala, zergatik dauden zalantza hauek, hain zabaldua den izendapen hori beste gabe onartzeko.

Ahozko Historiak lekuko mintzatuen testigutza ekarri nahi izan du Historiografiara. Hau da, modu sistematikoan bilatu ditu lekuko idatziak diren ohizko dokumentuak osatzeko laguntza eta informazio berriak ekar zitzaketen ahots historikoak.

Gisa honetako *iturri mintzatuek* berebiziko tokia izan zezaketen, beren historia ukatu zaien edo idazkera falta izan duten herrietan. Idazkerarik gabekoak izan dira herri gehienak mendetan zehar, eta Ahozko Historiaren laguntza gertatu da hauentzat iturri historiko estimagarriena: honelako herrietan, Historiako ahotsa *esan* egin da herritarren kontakizun mintzatuetan, eta ez paperetan idatzi. Horrela, askotan, historilaria iturri antropologikoetara hurbildu da, lehenik, ahal izan duenean, kontakizunen artean denboraren kronologia eta alditasunaren sakona bilatuz. Azken hamarkadetan, adibidez, Afrikaren historilariak erabili dituzte bide hauek, kontinente haren koloniaurreko Historia berreraikitzeke: Historiografia horretan garrantzi handia du, ba, Ahozko Historiak. Zentzu beretsuan (aztarna-emaile bezala, batez ere) balio izan dute inoiz, Euskal Herrian ere, Barandiaran-ek jasotako herriko ipuin eta kontakizunek, ondoren trikuharriak non zeudekeen asmatzeko.

Baina AHren baliagarritasun historiografikoa ez da mugatu idazkerarik gabeko herri edo denbora historikoetara bakarrik. Idazkera duten gizarte eta mendeetan ere, iturri mintzatuek ekarpenik aberatsenak eskain ditzakete, analisi eta ulerpen historiko oso baterako. Izan ere, gizakiak betidanik

—gizarterik idatzaleenean ere— bere hitza, pentsamendua eta sentipenak *mintzatuz* ematen ditu: idazketa, beti ere, irtenbide kultu eta eskolatua da, ia beti minoritarioa, eta historiako eta gizarteko parterik txikienaren agerpi-dea (idazkera ezagutu duten herrietan ere, herritar gehienak analfabetuak izan dira atzo-goiza arte, edota lekuko idatzi gutxi utziz iragan dira Historian). Eta askotan boteredunen filtroa izan ohi da, gainera, idatz-ofizioa. Iragan mendeetako mundu idatzia, “ofizialtasunaren” mundua izan da gehienbat, bizitza soziala oro har beste nonbait gertatzen ari zen bitartean.

Esan beharra dago, AHren ahaleginen azter-eremuak gehienetan lekuko idatzi urriak edo deus gutxi zituztenak izan direla: langileria, sindikatu-ten lehen mugimenduak, familia pobreak, emigratu sozialak, erbesterratu politikoak, makiak edo partisauak, emakumearen mundua, herritar apalen bizimoldeak, minoria kulturalak... Hau da, klandestinitatean itota, edo aztarna idatzirik gabeko talde sozialetan nahiz marginazioan bizi izanda-koen lekuko hiztunak bilatu izan ditu.

AHK azterturiko gaiak, sarrienik ohizko “Historian ahantzitakoak” izan ohi dira. Hainbat aldetatik gizarteko eskalan behean aurkitzen diren taldeak, alegia. Langileak edo desagertzeaz dauden ogibideak, emakumeak edo talde soziokultural eta etniko baztertuak (etorkinak, juduak, beltzak, etab.), baina baita lekuan lekuko historiak edo periferietakoak, nazioko edo botere-guneetakoak baino gehiago; ikerlan hauek xede bikoitza, ezagutzekoa eta politikoa, izan ohi dute: kasu hustuak bete eta historiografiaren lur birjinak landu, eta zeharbidez, talde ustez “baztertuen” edo “gutxietsien” kohesio eta atxekimendu-sentimenduak indarberritu. Honela, lanok talde-nortasunen ezagutzan eta eraikuntzan lagundu nahi dute, aldi berean (Michael Pollak: “Pour un inventaire”, in: VARII (1987): *Questions à l'Histoire Orale*. IHTP. 13).

Hein batean, historiografia idatzien (edo isilduen) hutsune eta bidega-bekerien kontra jaio da AH: “historia gabekoen” historia izan nahi du; baina, nolana ere, laster ikusi da, iturri idatzi ugari zituzten eremuetan ere, iturri mintzatuen ekarriaren balioa. Ahozko argibide hauen iturria, beste haien osagarri ezezik beraien bizigarri ere izan litekeela ikusi da laster. Ipar Ameriketako enpresa handietan AHko Programa osoak ari dira lantzen, enpresa-erakileen (enpresari nahiz langile xumeak izan) lekukotasunak jasoz. Enpresen mundu idatziak ez du aski ongi eta osorik ispilatzen unitate sozio-ekonomikoan gertatutakoa, historiak premiazkoa duen “gizatasuna” eta giza bizipenak aski ongi biltzeraino. AHri ere heldu egin diote, beraz, enpresen historia egin ahal izateko, eta gaur egun USAn dagoen AH-ikertegirik handitxoenetako batean (Columbia University, N.Y.) lanaren



parte on bat enpresen historiarako material-bilketa da, enkarguz egina.

Oro har, herritarren talde-protagonismo zabal iraunkorren bat aztertu nahi denean, eta berorrek alde ezberdinetako aurpegi sozialak dituenean, bereziki ongi egoki liteke AH ikerkizun horietara.

“Orainaren Historiara” gatzela (*Histoire du temps présent*), hau da, historiarik hurbilenari heldu nahi zaionean, *iturri mintzatuen* balioa ezinbaztertua da erabat, hain zuzen kasu honetan gertakari hurbil horien egile eta eragileak berak hitz egin dezakeelako. Ofizialtasunetik kanpo, klandestinitatean, ezkutuan edo erdi-ezkutuan bultzatu behar izan diren ekintza eta aldaketen historiarako nahitaezkoa suertatzen da hitz egin dezaketen lekuko horiek bildu eta elkarrizketatzea. Ez, noski, denak, banan-banan; baina, bai, osotasun egoki bat eman dezakeen metodologia baten arabera solaskideak hautatu eta berorien lekukotasunak landuz.

#### — Filosofia eta lan-moduak

Gaur egun, ba, ukaezina gertatzen zaio historilariari (hemen darabilgun zentzu osagarrian behintzat) lekuko mintzatuen balio historiografikoa.

Lehen ere zerbait esan arren, puntu honetara iristean, ongi azpimarratuta uztekoa da hau: EHIHren ikuspidetik, Ahozko Historiak ez du baztertu nahi iturri idatzien gain egiten den lana; baina gure iturri idatzi horien balorazio berrian badago, azpimarratu beharreko eskastasunik. Iturri idatziak ez-askiak dira sarritan, eta berauek gehiengo sozial baten bizitza historikoa (bortxaz isilpean egindako lanaren halabehar makurrez) zatiz eta interesatuki isil eraz edo desitxura dezakete. Arrisku horietatik ihes egiteko, historilari askok AHn ikusi du irtenbide posible bat.

Ahozko Historiak, berak bakarrik, ez du agortu nahi Historiaren egia osoa; badaki muga jakin batzuetan dabilela, eta arazo metodologiko korapilatsuen artean, gainera; baina, jakin, badaki besterik ere: argibide aberatsak, ahots ezezagunak eta harrobi historiko emankorra aurki ditza-keela bizirik paper idatzietatik aparte.

Historiografia jatorrak etorkizunean iturri idatziak, mintzatuak eta irudizkoak ere beharko ditu erabili —eta are gehiago “orainaren historian” gabiltzala—. Horixe da EHIHn erabaki duguna. Gizarte bateko mentalitateak, erlijioa, ideologia politikoak, hizkuntz joerak, migrazioak, langile-auzoak, familiarteko harremanak, etab., etab. ezagutzeko iturri mintzatuak oso aintzakotzat hartzekoak dira, eta horixe da gurean ere egin nahi dena.

Dena den, AHko historilari teoriko gehienentzat bezala, guretzat ere AH batez ere dokumentazio historiko mintzatuaren *bilaketa*, *eraikuntza* (horixe bait da sarritan egiten dena: dokumentua sorterazi) eta *analisi-metodologia* da. Iturri mintzatu sortu-berriok ez dira erabili nahi era isolatu batean, edozein beste iturri-moldetatik lor litezkeen argibideak gogoan izanik baizik. Azken sintesi historiografiko jatorrak dena behar du: Dokumentu idatzi ikertua + dokumentu mintzatu edo filmatu aztertua + guztiarekin lor litekeen errealitate historikoaren ikusera osoa. Horregatik, AHko historilari anitzek nahiago du *ahozko iturri* edo *iturri mintzatuez* hitz egin, Ahozko Historiaz baino, jakinik *Historia*, osotasuna dela, edozein motatako iturrietatik eta guztien bidez mamituko den osotasuna.

AHren azpiko filosofian, Historiografiak arrunt geldiro eskuratu duen komentzimendu bat dago: herritar xumeak, bizitza arruntean dabilen hiritar apalak —beraz, gizarte osoak— du Historiako protagonismoaren eskubide zuzena. Erregeen gудuek edo Gortek, Erret Koroak edo Aita Santuek, Handiki aberatsenek edo jakitun sonatuenek, herrietako alkate edo apaizek baino leku zabalago eta oinarrizkoagoa dute herritar soilek, objektiboki eta batera, Historian: gehienak izan direlako, lehenik, emankorrenak ere bai, eta zigortuenak askotan.

EHIHri ere norabide ireki hauxe eman nahi diogulako, ageriko datu nabarienen ondoan kolektibo zabal eta sufritu baten lekukotasuna jaso nahi dugu. Ikastolen mugimendua, milaka lagun askok osatu duen zerbait da: gurasoek, irakasleek, ikasleek, administrariak, euskaltzaleek, agintariak, eliz gizon-emakumeek, dirudunek, eta abarrek. Talde hauetako bakoitzean gidari ezagunetatik hasita isil-misilean jardundako eguneroko lagun saiatuak ez dira falta. Ikastolaren eraikuntzan laguntza, ahalegin eta izerdi ugari eman da aztarna idatzi handirik utzi gabe. Gure aldetik saiatuko gara —izen-deitura denak bildu ahal izango ez badira ere— lan-mota guztiak gogoan izaten. Ikusi egin behar, batzuetan garestia ere baden AHren metodologiak, ditugun ahalbideekin, noraino eraman gaitzakeen.

Azken buruan, *egin* ditugunak, *gertatu* zaizkigunak (edo direnak), *bizi izan* ditugunak: dena da interesgarria gure lekukotasun historikoak biltzeko.

Elkarrizketen bidez borobilduko diren lanek, inkesta prestatu bat izan ohi dute aurretik, eta solaskide aukeratuaren eta elkarrizketatzailearen arteko elkarrizketan burutzen da lana, dena magnetofonoz grabatuz. Hemen jasotakoa da Artxibora pasako dena, eta, horretarako egokiera datorkeen, ezer argitara aurretik, berorren gain egingo du lan ikertzaileak. Kasu bakoitzean, hipotesi gisara eta alde zuzenetik, erabakita egon ohi da

(ustegabekoetara irekita egonda ere) bilaketa nondik nora eraman nahi den, beti ere iker-eremua eta programa-barneko elkarrizketa guztien arteko elkar-osagarritasuna gogoan izanik, eta, beraz, baita elkarrizketen sarean solaskide bakoitzak bete lezakeen lekua ere.

Galdeketako gaiak mota guztietakoak izan litezke, galdera guztiak denentzat izan beharrik ez egon arren, zeren hemen ere denboraren eta solaskideen ekonomia zaindu behar bait da.

Lan-prozeduraren aldetik pauso hauek aipatu ohi dituzte historilariak:

1. Aztergaiaren hautapena eta barruti-mugapena.
2. Bibliografia beharrezkoena ezagutzea.
3. Inkesta-galdeketaaren prestakuntza.
4. Azterlekuaren eta albiste-emaileen hautapena.

Hori dena prestatu ondoren, lanerako tresna egokiak eskuratu behar dira: magnetofonia, argazki-makina, etab.

Elkarrizketa hauetan bilatu ohi diren gaiak guztiz objetiboak izan ohi dira asko, inoren bizitza pertsonalik ukitzen ez dutenak; baina behin baino gehiagotan norberaren bizitzarekin edo ondoko inorenarekin zerikusirik dutenak ere bai (laudorioaren ondoan salakuntzak ager litezke, edo zinezko salakizunik izan gabe ere, arazo delikatuak izan). Horrelako kasuetarako, alde aurretik arautu ohi dira ikertzailearen eta solaskidearen artean sortutako materialekiko erantzukizunak: artxibo-arduradunak baldintzen jakinaren gainean geratzen dira, ikertzaileari edo dena delakoari materialak utz, ez utz edo nola utz erabakitzeko. Puntu hau ongi zaindu izan da AHko artxiboetan, izan ere lekukotasun ugari eta serioak bildu ahal izateko baldintza bait da biltzaile/elkarrizketatu/ artxibari/ikertzaileen arteko lan-katearen kodea ongi definituta eduki eta errespetatzea. Arazo hauei irtenbide egokiak aurkitzearen bildu ditugu gurera (bigarren partean) Estatu Batuetako ahozko historilariak sorturikoaren haritik datozen eta hemen zerbait egokituta aurkezten ditugun "Ahozko Historiarako lanbide-arauak".

#### — Laburbilduta

Amaitzeko, laburbil dezagun zenbait puntutan irakurleari kapitulu hone-tan adierazi nahi izan dioguna:

AHren metodologia honen definizio eta ezaugarriak ezagutzea komeni da, baita geuk egin nahi dugunaz ohartuta jarduteko ere. Iparrameriketako

“Oral History Association”ek dioenaren arabera, “ahozko argibide historikoen *corpus* bat biltzeko metodoa da [AH], biltzeta hori maizenik zinta magnetikoan egiten dela”. Metodo honek, elkarrizketak nola egin irakatsiko du, solaskideak nola hauta, hizketagaiak nola muga, etab. Dena zuzen joan dadin eta azken buruan errealitatea ahalik jatorren jasotzeko, lanerako baldintzak definitzen ditu AHren metodoak.

Ahozko historiaren *printzipio eta ezaugarriak* behinenak hauek izango lirateke:

1. Kultura eta gizarte bakoitza historia baten jabe da, dio AHk, eta horietako edozeinetan ere ahozko kontatera baten bidez azaldu eta jaso liteke historia. Honekin ez dira ukatu nahi historia idatziaren iturriak.

2. Historiak beti duen dinamika aldakorra, bereziki egoki eta leial jaso liteke ahozko kontakizunetan.

3. Bide honetan, historia pertsonal arruntak bere azalpen-bide irekiago bat aurkitzen du (erlijiotasun herritarrak, adibidez), eta historia tradizionalak izan duen joera “elitista” errazkiago gainditzen (Hierarkiaren historia = Elizaren Historia?, Erret Analeak = Historia? Etab.).

4. Hortaz, historia pertsonalaren egunerokotasunarekin lotuta dauden esperientziek balio berria hartzen dute ahozko historia honetan: janariak, eguneroko ordutegia, etab.

5. Beraz, nornahi da historian esperientzia eta bizitza baten protagonista, eta inkesta-sare batean, metodologia ongi hautatuz gero, bere garaia lekuko jatorra izan liteke berori.

Printzipio eta irizpide hauen gain dagoeneko egin den lana izugarria izan da munduan zehar. Baina, EHIHn ofizio onez lanean hasteko, ongi etorriko zaigu AHn guk baino ofizio hoberik dutenek beren lanari zein baldintza metodologiko, sozial, etiko eta legal jartzen dioten ezagutzea.

#### 4.2. EHIHrako lan-proposamena

Beste tokitan egin izan diren lan hauen argitan, galdetzekoa da gurean ere zerbait egin dezakegun, eta zerbait hori zer izan litekeen. Kezka honixe erantzunez, aurkeztuko ditugu hemen gure lan-asmoak, alde zuzenetik proposamen horien azpian leudekeen irizpideak eta gogoan hartuz.

##### 4.2.1. Oharkizun orokorrak

Eta gatozen gure Proiektuaren testuinguru teorikoetatik —hori ere pre-

miazkoa zelako eman baldin baditugu ere— geure honetan izango ditugun zereginetara. Proposamen hauen atarian ongi etorriko zaigu ahozko bilketa honen betekizuna EHIHren barne osoan kokatzea, berorren mugak non ezartzen diren erakustea, eman nahi diren pausoak zeintzuk izango liratekeen aditzera ematea eta, oro har, EHIHren Ahozko Historiaren asmoak panoramika orokor batean biltzea.

(Aurrera jo aitzinetik, ordea, gure lanetarako baliozkoa izango delakoan, G. Arrien-ek AHari balio ezberdinak ikusten dizkio, segun zein sasoitarako erabili nahi den. Adibidez, dio ikertzaile honek: a) 1943-1966/68. urteetarako guztiz beharrezkoa da Ahozko Historia, ia osorik falta bait da idatzizko lekukorik. b) 1968-1972/75. etarako, dokumentazioa oparagoa izanik ere, AHk osatu beharko ditu hutsuneak, eta c) 1976-1990. etan idatzizkoa eta inprimatua aski ere izan liteke).

Aurrera baino lehen zera esan behar da, ordea: atalburu honek, eta txosten osoak ere, ez ditu ukituko AHk bere bilketan, azterketan eta idazketan dituen bidegurutze bakoitzeko arazo metodologikoak. Izan ere, kapitulu honek AHko Proiektuaren lerro nagusiak aurkeztu nahi bait ditu, eta hori ere, berehala ikusiko ditugun mugen barnean, eta ez harago. Horregatik, adibidez, solaskideen hautespenak, galde-sorten sorkuntzak, elkarrizketaren metodologiak, grabaketen artxibaketak, langaien azterketak eta muntaiak, edota jendaurrerako ondu behar den idazketak dituzten arazo eta korapiloak —aztertu beharko direnetan, noski— ondoko azterlan berezietarako geratzen dira.

#### — Ahozko Historia, EHIHren barnean

Ondoren aurkeztuko ditugun proposamenak EHIHren barruti osoaren parte bat bezala begiratu behar dira, eta beronen xede eta mugen barruan ikusi behar ditugu. Ohar hau garrantzizkoa da, proposatu eta egingo dugunari, bidezkoa ez denik eska ez diezaiogun (ikerlanari eska dakizkiokeen berezko iker-lorpenak, adibidez).

Gogora dezagun, ba, EHIHn hiru esparru osagarri, baina guztiz bereziak eta banatuak, mugatu ditugula: a) *Idazkien bilketa* (nonahi egon litezkeen nolanahiko paper idatziak, alegia: Artxibo Historikorako idazkiak); b) Ikastolan erabili edo sortu diren *gauzen bilketa* (hau da, Ikastolaren Erakustoki Historiko batera eraman litezkeenak), eta orain, azkenik, c) *Ahozko lekukoaren bilketa* (hots, Ahozko Artxibo Historikora joango diren lekuko mintzatuak).

Kapitulu honetan —behin eta berriz diogu— hirugarren esparru honi

heltzea dagokigu; beste biek egingo dute beren gisara bidea. Hala ere, begi bistan dago, haiek eta hau ez direla, elkarren osagarri baizik. Geroko arrisku larrietan estropozo egin aurretik, komeni da puntu hau garbi izatea: EHIHk ez lioke inori, bortxaz eta ahaleginez frogatu nahi AHren ahalmen autarkiko eta beregaina. Inoiz ikertzaileen batek, gure Artxiboko langaien bidez horrelakorik erakutsi nahi balu, bere askatasun eta abildadeen gain egin beharko luke frogantza hori. Proiektu honetako gure proposamenetan, lekuko mintzatuena baliagarritasun zientifikoa, agiritegi idatziarena bezalatsu, iturri historiko guztien testuinguru osoan lekutzen dugu.

Esparru bakoitzaren garapena, jarriko ditugun lehentasun eta baliabideen arabera izango da, noski. Eta ez derrigorrez bata bestearen parekoa. Oraingoan, esan beharra dago, AHk zailtasun tekniko eta pertsonal bereziak ditu. Adibidez, Euskal Herrian errazagoa da, zalantzarik gabe, artxibo idatzietarako teknikariak aurkitzea, AHrako jende trebatua topatzea baino. Edo alderantziz: samurragoa izango litzateke, bere unean, bildutako langai mintzatuentzako gordelekuak prestatzea, lauhun edo bostehun armairu paperentzat biltegia atontzea baino. Beraz, zailtasun, lehentasun eta baliabideen arabera sustatuko da esparru bakoitzaren garapena.

#### — AH eta idazkien bilketa

Idazkien bilketa-lana eta lekuko mintzatuena bi molde guztiz ezberdinetakoak ditugu. Bilatu, aurkitu, jaso, sailkatu, gorde eta administratu egin behar dira idazkiak; hau da, bilatzaileak eta artxibariak aurrean egin eta mamituta idorotzen du agiri idatzia: errespetatu egin behar du idazkia bere horretantxe, eta zaindu. Ez du beste ahalmenik lekuko idatzi horren gain.

Besterik da, ordea, lekuko mintzatuarekin. Hasteko, agiri mintzaturik, egon, ez dago gehienetan. Egon liteke, baina horretarako sortu egin behar da. Euskal Herriko Ikastolan jende anitz dago, noski, albiste jakingarririk eman dezakeenik. Dakitena esaten, eta gerorako ordena erabilgarri batean esaten, lantalde biltzaileak lagundu behar die. Ikus daitekeenez, eskierki, AHk *sortu* egin behar izaten ditu, lehenik, bere iturriak, lekuko oroimena eztenkatuz eta gogoratutakoak diskurtsu mintzatu batean ematera erakarrit.

Baina zer eskatzen du horrek, ordea? Agiri mintzatuaren sorkuntza hau —ederra izanik ere— baldintza metodologiko gero eta zehatzago eta finagotan ontzea.

AHko baliozko artxibo bat eraikitzeko premiazkoa da, bederen, prozedurazko bi baldintza nagusi zaintzea: alde batetik, agiri mintzatuen sorkuntzan parte hartuko duten bilketarien (*elkarrizketatzaileen*) gaitasuna landu behar da, eta bestetik, lanerako dokumentuek eta lanabesek (galde-sortek edo tresneria teknikoak, esate baterako) egokiak izan behar dute. Baldintza horiek beterik eta ondoko baliabide sozio-ekonomikoez lagunduta (aurrekontu egokiak, interes soziala...), posible izan liteke, azkenik, agiri-ondare mintzatu aberatsa artxiboan izatea.

— Ahots-artxiboa eta ondoko ikerkizunak

Agiri edo lekukotasun mintzatuak ahots-artxibo batean bil ditzakegu (*archivo oral*). Horixe da, hain zuzen, EHIHk Ahozko Historiaren esparru honetan duen asmoa. Eta *oraingo eta proposamen honetan* horixe da bakarrik gure Proiektuaren xedea. Mugapen hau dagoeneko onartuta dago EHIHren Proiektu orokorrean, eta berau idatzi eta onartu zenetik honainoko irakurketa, aholku eta lanek ez dute birretsi baizik egin orduan esandakoa (1989).

Esandakoari eutsiz, hemengo AHren bilketa-lanak artxiboa sortzea du xedetzat. Badakigu, gero, edo agian aldi berean, iker-proiektuak ere jaioko direla biltzaileen eskuetan, eta asmo berri horiekiko politika bere garaian aztertu ere egin beharko dela; baina gure Proiektuaren oraingo indar ekonomiko eta sozialak eta planteamendu metodologikoak (zailtasun hipotetiko guztiekin ere) artxiboa, edo lekukoen bilduma, sortzera zuzenduko dira. Arrunt beharrezkoa iruditzen zaigu hau argi azpimarratuta uztea, Proiektuaren kudeakuntzan eta erabaki metodologikoetan alferrikako gatazkarik izan ez dezagun.

Baina, hori esan ondoren eta harago ere begiratu, bigarren epe baterako egoki izango da, ikerlanen proiektuetara irekita egotea. Eta hau bi arrazoiengatik, gutxienez: Artxiboek berez duten zeregina ikerleku izatea delako, lehenik, eta bigarren, kanpotik finantzatuko diren indar sozialak (ikertzaileak, bekak...) batez ere ikerbideetatik hurbilduko zaizkigulako. Dena den, hau dena nahikoa urrun dago oraindik, bilketa-helburuetarako orain bertatik premiazkoa gerta litekeen kasurako ez bada behinpehin.

— Gerorako, aztertzeke geratzen zaizkigunak

Erabaki horrek (oraingo, artxiboa egiteari bakarrik ekiteak, alegia),

ondoko lan handietatik arintzen gaitu (transkribapenak?, azterketak, idazketak...), eta AHko lehenengo produkzio-uneetara biltzen: Galde-sorten prestakuntza, elkarrizketa-teknikak eta artxiboko arazo teknikoetara, adibidez. Baina hauek ere, ondoko gure proposamenen arabera eta azalduko diren arrazoiengatik, ez dira liburu honetan aztergai izango.

- *Galde-sortak.*

Sakoneko elkarrizketetan galde-sorta hauek, ikertzaile gehienentzat, funtsezko lanabesak izan ohi dira. Zehaztasun guztiarekin alde aurretik lantzen dituzte, eta talde-lanean hobetu, gainera. Oinarri teoriko bati jarraiki, eta errealtatearekin etengabe elkarrizketan prestatzen dira galde-sortak. Esperientzia handiko biltzaileak bakarrik jardun litezke alde aurretik galde-sorta prestatu gabe lanean (Fraser-ek egin du horrelako zerbait). Gurean pentsa ezina da horrelakorik egitea.

Baina galde-sorten lantzeak, aztertzeke den errealtatea eta berorren testuingurua ongi ezagutzea eskatzen du. Ez dago, ezagumendu egokirik gabe itxumustuan galde-sortak prestatzen hasterik. Lan honetarako metodologiaz eta prozedura praktikoaz bere garaian egingo dugu lan-txosten bat. Hemen aipatuta bakarrik geratzen da zeregin hau.

- *Elkarrizketak.*

Galde-sorta landuen ondoko elkarrizketei buruz ari gara. Elkarrizketetara pasa aurretik, elkarrizketatzekoen hautespena egin behar da, behar diren parametro soziologiko eta pertsonalak gogoan ditugula. Guzti honek zera eskatzen du: elkarrizketa aurrekoak ongi prestatzea (irakurketak, jakitunen aholkuak; topaketa bakoitzaren xedeen definizioa; solaskideagainainoko erraztasunak...), eta, zer esanik ere ez, elkarrizketaren beraren tekniken jabe izan eta hartarako gaitasun pertsonala izatea.

Elkarrizketetarako lanabes idatzi eta teknikoei buruz, eta elkarrizketa-tzaileen trebakuntzaz beste txosten bat egin beharko da lehenbaitlehen, esango den lan-prozedurari jarraiki. Oraingo honetan aipatuta geratzen da arazoa.

- *Transkribapena*

Zinta grabatuen transkribapen idatziak arazo metodologiko eta ekonomiko larriak ditu berarekin. AHren produkzio-katean, bilketaren eta ikerkuntzaren arteko bisagra hementxe dago. Bestalde, AHren teorikarien



artean ez da ikusten adostasunik, transkribapena noiz, nork eta nola egin beharko lukeenaz. Nabaria da honetaz dagoen eztabaida: zer egin, beraz?

Gure Proiektua Artxiboa eratzea denez, eta teorikarien laguntza tartean dela, oraingoz esekita geratzen da transkribapenaren arazoa. Egiten dugun proposamenean, hurrengo une baterako laga dezakeguna da honi irtenbidea bilatzea. Bienbitartean izango dugu betarik, arazoa hobeki pentsatzeko, aholkuak eskatzeko, irtenbide praktikoak eta metodologikoki eramangarriak bilatzeko. Bego, ba, hau ere hurrengo txosten baterako.

• *Artxiboaren arazo teknikoak.*

Ahots-Artxiboek arazo bereziak izan ohi dituzte; baina, zorionez, dagoeneko esperientzia onak daude munduan, eta baita Euskal Herrian ere (Bergarako Irargi, HABE, Eresbil, Euskaltzaindia etab.). Behar diren teknikariekin kontaktuz (artxibari eta tresna-industria eta laborategiekin), laster eskuratu ahal izango ditugu premiazko argibideak. Hemen ez dugu deus esango orain.

(Ahots-Artxiboaren Proiektu teknikoa moldatu beharko da egunen batean (liburu hone-tan ez dago horrelakorik), eta eginkizun horri heltzeko, lehen argibideak ondoko idazlan hauetan bil litezke: ALBERCH, Ramón (1990): "Arxius, documents sonors i història oral", in: HyFO, 4. zenb., 151-156. — BOLLOW, Franke (1990): "El taller de Historia de Berlín «Archivo para entrevistas de historia biográfica y local»", in: HyFO, 4. zenb., 157-163. — CONDOMINES, M.; SOLER, M.; UBEDA, LL. (1989): "El Archivo de Historia Oral del Institut Municipal d'Història de Barcelona", in: HyFO, 1. zenb., 161-176. — Ikus, gainera, liburu honen eranskinetako bibliografian J.C. JIMENEZ de ABERASTURIren lanak).

#### 4.2.2. Lan-proposamenaren egitaraua

Aztartzeko uzten ditugun horien ondoan, ikus dezagun orain zein den gure lanerako proposatzen dugun egitaraua. Baina lehenik gogora dezagun Proiektuaren helmuga orokorra zein den.

AHko Proiektuaren egitekoa, Ikastolaren albiste objektibo ez idatziak biltzea da, noski; baina bilketa honek eman dezake zerbait gehiago ere. Ikastolagintzan "subjektibotasun" objektiboak izan duen lekua definitzen lagundu behar du, hau da, Ikastolaren historia jendeak nola eragin eta bizi izan duen ere jakin genezake elkarrizketen bidez. Horrekin, mentalitate eta historia pertsonaletara sartuko gara bete-betean. AHk, paperetan askoz


ezkutuanago geratu izan den zerbait ekarriko digu argitara: Ikastolagintzan bizirik izan diren mentalitate eta diskurtsu sozialen historia sozio-kulturale-rako langaiak biltzea espero dugu egingo ditugun grabaketan bidez.

— Lehenatasunak: Hautatu diren lan-eremuak

Lanerako egitarau ezberdinak proposa zitezkeen, hain zabala den Ahozko Historiaren barnean, beti ere Ikastolaren historia lantzeko Ahots-Artxiboa sortzeko asmoz. Lau kapitulu nagusitara biltzen dugu Ahozko Historian Artxibo Nagusirako egin nahi dugun lana. Hona, proposatzen duguna zer den:

- 1) Hurbilpen-lanak.
- 2) Lantaldearen eta lanabesen prestakuntza.
- 3) Elkarrizketa monografiko formalak.
- 4) Elkarrizketa biografikoak.

Lehenengo pausoa, geroko bilakizunen nondik norakoak eta lehen aztarnak aurkitzeko da, hau da, errealitatea libreki ikusteko, gure aurriritzie-tatik aparte alegia. Bigarren pausoa, berriz, benetako bilketa-lanari ekiteko tresna metodologikoak egokitzea izango da, nahi dugun emaitzaren kalita-tea segurtatuz. Hirugarren eta laugarren kapituluetan bilduko dira Artxibo Nagusira pasako diren material grabatuak.



• *Hurbilpen-lanak.*

Ikastolaren errealitate sozio-historikotik bertatik nasi nahi dugu lanean. Hau da, ez dugu galde-sorta teoriko orokorretatik ekin nahi, beste lekuetan emaitza onak eman dituztelako. Eredu metodologiko orokorretatik bakarrik ez genuke begiratu nahi gure Ikastolaren errealitatea. Horregatik, aldez aurretik, hurbilpen bidez, errealitatearekin topo egin nahi dugu, geure galderekin jaso ditzakegun erantzunak baldintzatu gabe. Hurbilpen-lanak, beraz, modu librean egingo dira, elkarrizketa formaletarako galde-sorta eta metodoak landu aurretik.

Hurbilpen libre hau gisa ezberdinetan egin dezakegu: talde-elkarrizketak eratuz, solaskideek gaia beren kabuz eztabaida dezaten; lan idatzi libreak ere eska litezke, lekuko idazleak nahi duen moldetan erantzun dezan; bakarkako elkarrizketaren bat edo beste ere bai, etab. Dena den, ikastoletako dokumentazio idatziak ere hainbat elkarrizketa-gai iradoki dezake.

Idatzi gabe daukagun eta bizi izan dugun *historiaren azalpen mintzatu tematiko orokorra* eskaini beharko liguke hurbilpen-elkarrizketa bidezko bilketa honek.

Zertarako balio lezake lehenengo hurbilpen-lanak? Labur esanda, puntu hauetara bilduko dugu asmoa:

- a) Planteamentu metodologiko teorikoak gure errealitatearen menpe jartzeko (eta ez da gutxi esaten horrekin),
- b) Beraz, metodologian gidatu behar gaituztenei errealitatearen datuak hasieratik bertatik mahai gainean jartzeko,
- c) Elkarrizketatzaile izan litezkeenei Ikastolaren idatzi gabeko historiak oinarritzko lehen argibideak eskaintzeko,
- d) Prestakuntz mintegietarako material aztergarria eskura izateko (argibide teorikoaren ondoan, beronen bidez lortu ahal izango bait dugu lankideen gaitasun praktikoa errealistagoa).

Uste dugunez, helburu hauek ongi erakusten dute proposatutako hurbilpen-lanen arrazoizkotasuna, eta premia. Eta ildo berean dator hurrengo lana.

• *Lantaldearen eta lanabesen prestakuntza.*

Funtsezko bi alor nagusitan jarrita daukagu gure ardurarik handiena, beti ere AHren Proiektu hau egikaritu nahi dugun unean:

- Lantalde tekniko on bat sortzean, eta
- Proiektu eta metodologia ongi zehaztean.

AHk gure artean duen arazorik larrienetakoa jende adituaren eskasia da, edo falta. Horregatik, lantaldearen sorkuntzarako (ez ahanztz, mesedez, artxibo-lanaz ari garela, eta ez geroagoko ikerkuntzaz), irizpide batzuk markatzen has gaitezke:

- AHko eta hurbileko zientzietako teknikariekin disziplinar-teko lantalde gidaria eratuko da, erbesteko teknikarien laguntzak ere eskatuz. Beraz, Euskal Herrian bertoko jendea izango da talde ardatza.
- Elkarrizketatzaile eta transkribatzaile (halakorik behar balitz), nahiz eginkizun mugatu-etako teknikarien prestakuntza nola lor, kasu ba-koitzean erabakiko da: mintegiak, bekak, ikastaroak, iharduerak, etab.

Lanabesen prestakuntzan, egitekorik orokorrenak zuzendaritza eta lantalde gidariaren ardurapean egongo dira; hala nola:

- Proiektu orokorra: helburuak, lehentasunak, etab.,
- Lan-plangintza egingarria,
- Lankideen prestakuntza eta hautespena,
- Egingo diren lanen segimendua.
- Lanabes idatzien eztabaida-materialak: galde-sorten zirriborroak, etab.

Bilketari elkarrizketatzaileek alde z aurretik ongi ez baidatu eta erabakita izan beharko dituzte beren egitekoaren xede eta mugak. Hau dena erabaki politikoa eta metodologikoa izango da —dena batera—. Jendearen presta-kuntzarako eta lanaren zentzu ona zaintzeko, *lanabes idatziak* eta *material mintzatuak*, eta elkarrizketatzaileen arteko *topaketak* premia-zkoak ikusten ditugu. Saiatuko gara beroriek bultzatzen. Hurrengo pausoan, benetako lana zuzen egiteko ezinbestekoa izango da lantaldearen eta lanabesen prestakuntza.

• *Elkarrizketa monografikoak.*

Ikastola-munduan berriemaile asko dago, albiste interesgarriak eman ditzakeena: gertakari, egoera, garai eta gorabehera anitzen notiziak jaso litezke holakoengandik. Egitarau ongi programatu batekin egiten bada, azkenean mosaiko ederra bilduko da, artxibo idatzietan gordeta ditugunak osatu, argitu eta zuzentzeko. Soziologiaren azterketa sozio-estatistikoetara hurbiltzen den lana izango litzateke hau, solaskideen hautapena ongi egin ondoren.

Artxibo idatziarena osatzeko guztiz premiazkoztat daukagu elkarrizketa monografiko hauen ekarria. Dagoeneko sumatu ahal izan dugunaren arabera ("Etxepare" deitu dugun lan aitzindarian, alegia), Ikastolari buruzko hainbat berri (benetan funtsezkoak ere bai) elkarrizketa monografiko hauen bidez bildu beharko dira.

Ahots-Artxiboaren altxor nagusia (nagusiena, tamainaz bederen) monografia hauen bidez bilduko da, batez ere. Beraz, eginez joango den bilketari segimendu zorrotz bat egin beharko litzaioke, elkarrizketa hauen kalitatea hobetuz joateko eta bilduma osoaren elkar-osagarritasuna zaintzeko. Bestalde, nahitaezkoa izango da elkarrizketaren teknikak ongi eza-gutu eta, teoriarik eta praxiarik, arreta osoz erabiltzen erakustea, edo elkarrengandik ikastea.

Elkarrizketatzeko hautespena eta kopurua erabakitzeke daude oraindik. Berorien aukera egiteko, aldakin mugatzaile hauen antzekoak erabiliko genituzke:

<i>Espazio-denborak</i>	<i>Ekin-esparruak</i>	<i>Protagonistak</i>
Herrialdeak	Eraikuntza	Pertsonaiak
Eskualdeak	Ekonomia	Taldeak
Herriak	Kudeakuntza	Erakundeak
Urteak	Irakaskuntza	Elkarteak
Belaunaldiak	Txukunketa	.....

(Elkarrizketatuen hizkuntza, adina, maila soziala, etab. ere aintzakotzat hartzekoak dira. Dena den programak diseinatuko du egitekoen eremu xehatua).

Elkarrizketa monografikoek batez ere errelitate sozial “objektiboaz” hitz egingo digute; horixe da hain zuzen berorietan bilatzen duguna. Pertsonen esperientzia urrunxko geratuko da, beraz, batez ere gai-eremuak aztertu nahi dituzten topaketa tematiko hauetan. Hutsune hori betetzeko proposatzen ditugu ondoko biografiak.

• *Elkarrizketa biografikoak.*

Ikastolaren historian hamaikatzok parte hartu du sorkuntzan, eraikuntzan, gidaritzan, ohizko lanetan. Eginkizun horietan ari izan direnen biografiak premiazkoak edo argigarriak izango dira, lankideok urte luzetan eta leialtasun jarraitu batekin ihardun direnetan. Kasu bakoitzean biografia horiek nola eratuko ditugun erabakitzeko geratzen da orain:

- autobiografia idatziak,
- bizi-historia mintzatuak,
- biografia fokalizatuak, etab.

Gure lanean, oraingoz ez dago bilketa-lana baizik egiteko asmorik, baina agian komeniko da (edo beharrezkoa izango) gerora ikertzaile eta idazle izan litezkeen lankideekin kontaktzea. Hemen, bego, beste gabe, elkarrizketa biografikoak ere egiteko erabaki-proposamena.

Esan dezagun zerbait gehiago bizi-historiez. Bizi-historietan (*historias de vida/histoires de vie*) sartuko den biltzaileak, trebakuntza teknikoez gain, gaitasun pertsonalagoak behar ditu. Lan-modu hau, hain zuzen, arrunt urrun dago soziologoaren ikerkuntza koantitatibo-estatistikoetatik, eta ikermodu guztiz koalitatiboetan sartzen gara. Elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen arteko harremanek garrantzirik behinena dute bizi-historietan. Afektibitate-harremanek, adiskidetasunak, enpatiak eta “konplizitateak” zeregin nabaria dute lan-modu honetan, paradoxaz baita “objektibotasuna” bera lortzeko ere.

Bizi-historietan elkarrizketatuaren protagonismoa guztizkoa da: berak du hitza, osorik, eta ikertzailearen azterketak, muntaiak edo idazketak berek ere (AHko hemengo Proiektu honen barruan oraindik gure bizkar hartzen ez ditugun lanak, gainera), esandakoak egituratu eta irakurgarri egitea dute xedetzat. Elkarrizketa hauek oso luzeak izan ohi dira, batzuetan hilabetetakoak, eta elkarrizketa “etnografiko trinko” bezala definitu izan dira, aipatu ditugun “sozio-estatistiko zabalekin” kontrajarriz.

Azaldutako arrazoi honengatik, patxadaz egin beharrekoak dira, elkarriketatua ongi hautatu ondoren; esku adiskideak eramanda, eta beharrezko isil-baldintzak eta sekretuak, ongi zainduz. Kopuruzko ugaritasunari begira asko egiteari baino, jatoritasun sakonari, elkarriketatuaren nortasunean eta bizipeneten barnera sartzeari begiratu behar zaie bizi-historietan. Honelako dozenaren bat bizi-kontakizun barnekor biltzerik izango bagenu, pozik izango ginatke: pauso handia emanda izango luke gure artxiboak.

Bizi-historiei buruzko hau bukatu aurretik komeniko da beroriekiko funtsezko ohar bat egitea. Proposamen hau esekita uzten dugu, harik eta arazo teoriko orokor bat argitu arte: Posible al da, edo metodologia jator batean jasangarria al da bizi-historia bat artxiborako, beste gabe (iker-proiektu baten barnean ez dela, alegia) landu nahi izatea? Erantzuna ezezko garbi bat balitz, bizi-historien bilketa-esparru honena beste bideren batetik eraman beharko genuke. Argibide berrien zain geratzen da, ba, bizi-historien hau.

(Hemen, Proiektuaren lehentasunetatik kanpo uzten dugu alor jakingarri bat: enkarguz edo sariketen bidez bildu ohi diren autobiografia idatziena. J. SZCZEPANSKIren artikuluan ikus liteke nolako arrakasta sozial eta historiografikoa izan duten plangintza eratu baten barnean egin erazitako autobiografia hauek: "El método biográfico", in *Papers*, 10, 1978, 231-259. Kasuren bat edo bestetan gogoan hartzeko lanbidea izan liteke autobiografiaren hau EHIHn ere, eta ez dugu ahalbidea erabat baztertuta lagako).

#### — Egindako hautapenen arrazoiak

Atal honetan ematen diren oharrak batez ere ikertzaile eta lankide-gaientzat dira, aurkezten ditugun proposamenen lehentasunen oinarri teorikoak eta arrazoi praktikoak non ikusten ditugun erakusteko. Barka haragoko sakontasun larritan ez sartzea, baina balioko al dute hobetsitako lan-hautapenen esplikabide bezala. Hori nahiko genuke, bederen.

Ahozko Historiak, besteak beste, bi bilketa-bide emankor ditu, aipatu ditugun Elkarrizketa tematikoena (gai-monografia mintzatuak) eta bizi-historiena. Teorian gure lana horietxek biltzera muga genezakeen, eta kito. Baina, lehendik martxan dagoen hezkuntz antolamenduei buruzko AHko beste proiekturik ez ezagutzear, eta landu behar dugun gure euskal gizartea eta Proiektu jakin honen baldintza errealak ikustean, geure buruari galdera berri eta, nolabait esateko, "originalak" egin behar izan dizkiogu.

Erantzun berrien bila gentozela, proposamena *beste bi sarrera-lanekin* osatu behar izan dugu: hurbilpen-elkarrizketak lantzeko programarekin, eta lantalde eta lanabesak geuk sortzeko erabakiarekin.

Zergatik, ordea, Proiektuaren birmoldatze hau? Bi motatako arrazoiak izan ditugu hurbilpen-elkarrizketak egitea proposatzeko, teoriko orokorrak batzuk (zenbait ikertzailek, ezinbesteko lan-baldintzengatik edo, ahanzten dituenak), eta gure EHIHren AHri zuzenago dagozkionak, besteak.

• *Arrazoi metodologiko orokorrak*

Goazen, lehenik, *hurbilpen-lanei* buruzkoak aipatzera. AHren metodologia ongi landuetan —hau da, nazioartean elkarrizketen teknikei buruz ihardun diren ikertzaileen argitalpenetan: Fraser, Bertaux, etab.— bi elkarrizketa-molde aurkezten dira. Fraser-ek, adibidez, zera dio:

"La primera entrevista (o entrevistas, si se dispone de tiempo) debería ir dedicada a la narración libre y no dirigida del informante; la segunda sesión (o subsiguientes) dedicada al interrogatorio directo acerca de lo que se ha dicho o (aparentemente) dejado de decir. Los motivos para la primera, creo yo [*gurean ditugun arrazoi bereziak gehituko ditugu gero*], quedan claros por lo que ya he dicho sobre la forma narrativa del informante y su necesidad de irle cogiendo confianza al entrevistador; la segunda es necesaria para poner a prueba la coherencia interna de lo que se ha dicho, que por supuesto puede incluir un análisis estructural y lingüístico" (*HyFO* 3, 141-142).

Bertaux soziologoa beste ikuspide batetik ondorio beretsuetara iritsi da, erabaki metodologiko honen arrazoiak ematean:

"Recoger algunas historias de vida (*gure hurbilpen-lanak batez ere taldeko nahiz bakarkako elkarrizketa tematiko bezala izendatu baditugu ere, oharrak berdin balio du hauetarako ere*) sin buscar que sean completas, constituye un buen medio de 'entrar' en un campo nuevo y de empezar a hacer aflorar en él procesos esenciales, los rasgos estructurales más relevantes, los ejes centrales. Se hace entonces del relato una utilización extensiva, es decir se busca cubrir el máximo posible de aspectos de la vida social, ya que no se sabe aún los que van a revelarse como determinantes" (*HyFO* 1, 90).

Heuristika baten bide epistemologiko emankor gisa egingo da, beraz, hurbilpen-topaketa hauetako lana. Izan ere, AHLariek dioten bezala, azken bilketa formalari heldu aurretik premiazkoa gertatzen da, guztiz, elkarrizketa monografiko eta bizi-historia helduetarako alde aurretik bilketa-eremuaren albiste ahalik zehatzenak izatea. Derrigorrezkoa jazotzen da, gaiaz



lehendik argitara emanda dagoena irakurtzea, hemerrotekak bisitatzea eta artxiboetaraino hurbiltzea. Ahal dela, geroago elkarrizketatuko denak jakin dakiena —edo bapatean gogora dezakeena— baino gehiago jakiteak on egingo dio elkarrizketatzaileari. Ez, noski, elkarrizketa formal eta gidatura iristean, solaskidearen aurrean jaurtitzeko, elkarrizketatuari ongi eta “intentzios” galdetzeko baizik eta, beharrezkoetan, laguntza eskaintzeko ere. (Ik.Fraser: “tenía que leer todo y cualquier cosa que pudiera iluminar en alguna medida aquella vida”. *HyFO* 3, 135, eta 142). Hurbilpen-topaketari betekizun informatibo hori aitortzen diogu, beraz. Ez dago, bigarren topaketa landuagoan, zergatik dena dakigunaren itxurarik egin, baina ahal dugun gehiena jakin beharko genuke hizketakizun izango dugunaz (*HyFO* 3, 141, eta 146-147).

Ondorio garbi batera iristen gara, ba, esandako horiekin: aztergaien eta bizipenen sakoneraino heldu nahi duen metodologia zuzen batek alde zuzenetik gai-esparruaren lantze arretatsua eskatzen du, lehen baldintza bezala:

“se hace necesario e imprescindible el estudio previo de los elementos hipotéticamente significantes, de la estructura global de la situación que enmarca la entrevista por parte del entrevistador”. Mercadé, in: *Rev.Int.de Soc.*, 44 (3), 1986, 307, eta 310).

Argi geratzen da, ba, hurbilpen-elkarrizketen balio epistemologiko eta metodologikoa. Berehala ikusiko dugu, Euskal Herriko egoeratik, EHIHn lan-modu honek eskaini lezakeen ekarri didaktikoa ere; baina aipa dezagun *lantalde eta lanabesen prestakuntzarekin* zein zerikusit izan lezakeen hurbilpen-topaketen ekarriak.

Prestakuntz Mintegiak aipatu ditugu arestian. Lehenengo hurbilpen-lanen bilketak Mintegietarako langaiak bilduko ditu: hau da, lankidegaiei alde zuzenetik pasa beharko diegun ezagumendu baten jabe egingo gaitu. Hau, beste gabe, oinarrizko datu metodologikoa da, zinez. *A priori* batean teknikariek erbestean landutako analisi-ereduak errealitate berri batera —gurera, alegia— hurbilerazteko aparteko egokiera izango da Mintegi haue-  
na, lankideen gaitasun teknikoak hobetuz eta ondoko lanetarako (elkar-

rizketa monografikoak, elkarrizketa biografikoak) lanabes idatziak prestatuz (galde-sortak...). Horrela, ba, zuzenetsita geratzen da proposamenen bigarren pausoa, "Lantaldearen eta lanabesen prestakuntza".

Agian, gogoeta hauek ez dute txosten honen zenbait irakurlerentzat garrantzi handirik izango; baina, Proiektuaren lerroak definitu behar izan ditugunontzat (eta lankidegaientzat), benetan bidegurutze erabakior batean hautapena seriozki egiten lagundu(ko) diguten arrazoiak dakartzate hona, eta argigarria iruditu zaigu berauek EHIH Proiektuan aurkezturik uztea.

Eta arrazoi metodologiko orokorrak osotzeko, eta EHIHra etorritz, esan dezagun zerbait egiten diren proposamenen alde Proiektuak berak bere baitan dituen arrazoi bereziez.

#### • *EHIHrekiko arrazoi bereziak*

AHren irakaskizun teorikoetatik Euskal Herrian bete beharko dugun bilketa-programara etortzean, aipatutako arrazoiak indar berri bat dute, aurkezten dugun lan-proposamenen egitaraua argitzeko. Teorikarien arrazoi orokor batetik ekin diezaiokegu puntu honi:

"Naturalmente, la elaboración del modelo [*teórico general, aplicable a cada caso*] no puede hacerse jamás como un paso anterior y precedente de la investigación, sino que la experiencia demuestra con claridad que es imposible la confección de dicho modelo [*correctamente aplicable a la realidad que se examine*] sin tener presente la realidad estudiada" (Bonal, in: *Rev.Int.de Soc.*,44 (3), 1986, 371).

Uste dugunez, baiezta-pen honek bide onean jartzen gaitu: Kanpoko teknikari onak behar ditugu, baina geureekin batera landu beharko dituzte eskainiko dizkiguten hipotesi-eredu orokorrak, harik eta —Ikastolaren beraren errealitate historikoaren aurrez aurre— gure Proiektuan ere benetan baliozko eredu ager daitezzen arte. Bide honetatik AHko Mintegiak (informazio teoriko orokorrak emánez eta geuk hurbilpen-topaketetan bildutako langaien bidez) teknikarien, ikaslegaien eta Proiektuaren arduradunen arteko elkar-leku izango dira.

Bestalde, nabaria da gurean lanerako teknikari berrien premia: Ez gara ari hemen Proiektua aurrera eramateko eskola bat sortu behar denik adierazten; baina, bai, lankidegai izan litezkeenak oraindik ere prestatu gabe dauzkagula esaten, eta behar diren aurrera-pausoak emateko teknikari adituen eta lankidegaien arteko Mintegien topaleku hau hagitz premiazkoa ikusten dugula baieztatzen.

Adituen artean —ikusitako dugu— behin eta berriz gogoratzen da elkarrizketa formalen aurreko prestakuntza informatiboaren beharra. Eta ikerlan onenek ongi frogatuta daukate hori.

Liburu eta aldizkarietatik, lehendik idatzitako historietatik, okerrean artxiboetatik, jakin ohi dira lehen albisteak. Baina zer egin horrelako argitalpenik apenas dagoenean, edo biltzea bera ikerlan handi bat bilakatzeko denean? Hauxe da, hain zuzen, gure kasua: ez dugula Ikastolaren historia orokorrik eginda. Beraz, lehen informazioak lankidegaien eskuetan jartzeko biderik laburrena hurbilpen-topaketak egitea irudituko zaigu, horietan grabatutakoak teknikariei eta lankidegaiei aztergai eta eztabaidagai bezala eskaintzeko (prestakuntza tekniko pertsonala) eta analisi-eredu orokorrek gure errealitatearen gain aplikagarri izan daitezkeen.

Proposamen hauetan esandakoak honela laburbilduko lirateke, lau lerrotan: Hurbilpen-elkarrizketak eta prestakuntz Mintegiak izango dira, "elkarrizketa monografikoak" eta "elkarrizketa biografikoak" kalitate on batekin eta ahalik ekonomikoen biltzeko lehen urrats biderakusleak. Azken horietatik datozkeen grabaketek osatuko dute *EHIHko Ahots-Artxibo Historikoa*.

#### 4.3. Ondoriobidezko proposamenak

Arau eta proposamen hauek ikusi ondoren, ongi etorriko da, gure asmoak laburbildurik eta denak batean punturik puntu jasotzea.

- 1) AHN eginkizun ditugunei ekitean, ez da ahantzi behar idazkien bilketalanak aldi berean burutu beharko direla, EHIHko bi bilaketa-eremuon artean, ditugun baliabideak oreka batekin banatuz.
- 2) AHren lehen pauso bezala hurbilpen-elkarrizketetarako lan-*planning* bat egingo da, eta berau bertan behera egikaritzeari emango zaio lehentasun osoa AHN.

- 3) Aldi berean, erbesteko ikertzaile eta teknikariekin elkarrizketan hasiko gara, lantaldearen eta lanabesen prestakuntzarako Mintegietan parte har dezaten.
- 4) Euskal Herrian AHN dihardutenei gure asmoen berri emango diegu. Harreman honek batez ere bilketarako lantalde egokia prestatzea izango du xedetzat.
- 5) Hurbilpen-lanak, eta prestakuntza tekniko burutu aurretik ez diogu elkarrizketa monografikoen eta biografikoen lanari ekingo.
- 6) Lanaren arazo metodologiko eta teknikoetan, edota lan osoaren kalitate-kontrolako erantzukizunetarako teknikari arduradun egokiak bilatu edo prestatuko dira Euskal Herrian eta erbestean, eta lantaldeak alde aurretik onartuko.
- 7) Lantaldeko teknikari eta arduradunen proposamenak, EHHren Proiektu osoaren Zuzendaritzari aurkeztuko zaizkio:
  - Beronek dituen ekonomi eta kudeakuntz betekizunen artean, deritzen lekua eman diezaien.
  - Hala nahi balu, bere ohizko aholku-emaile teknikoekin edo kasu bakoitzean hobets ditzakeen teknikariekin hitz egin dezan.
  - Eta, bere erantzukizunen arabera, Proiektu osoaren ekonomi eta kudeakuntz lehenetasunen araberako lekurik eman diezaien.
- 8) Ahozko Historian aurrera egin ahala, arazo metodologiko ardatzetarako egoki diren txostenak prestatuko dira, Zuzendaritzan bertan, lantaldean edo erbesteko nahiz Euskal Herriko teknikariekin.
- 9) Geure lantaldeak bere gaitasun eta prestutasuna lortu ahala, Proiektuaren erantzukizunak berorri pasako zaizkio, epe edo une bakoitzean kanpoko teknikari ezagutuak ere deituz.
- 10) Ahrako tresneriaren erosketa eta gordelekuen prestakuntza Ahozko Historiaren alor honi heldu orduko bertan behera egin beharrekoak dira.
- 11) Ahozko Historiaren bilketa-lanak berez dituen eta ondotik dakartzan arazo etiko-juridikoetarako erabat premiazkoa da, eta presarik handie-

na du, arautegi bat prestatzeak, denontzat (elkarrizketatzaile/elkarrizketatu/artxibari/Proiektu arduradun, eta abarrentzat) legezko balio osoa izango duena. Arazo hau idazkien bilketan ere badugunez, dena batera aztertu beharko litzateke.

# BIGARREN PARTEA

## EHIH PROIEKTURAKO LAN-IDAZKIAK

*Esan bezala, lanerako edo lanetik sortutako dokumentu lagungarriak bildu ditugu bigarren parte honetan. Parte hau, lanean aurrera egin ahala, oratuz eta zabalduz joan da, eta berez da garapen berrietara irekita dagoen zerbait.*

*Beraz, irakurtzeko baino kontsulta-tresna gisara balioko dute dokumentu hauek. Batzuetan, gainera, lanean egitekoak gogorarazteko ere ongi etorriko zaizkio ikertzaileari. Itxaropen horrekin sortu ditugu, behintzat.*

*Lau idazlan bildu ditugu, orain arteko gure lanetan erabiliak edo interesgarrien bezala ikusi ditugunak:*

- Lehenengo biak idazki-bilketari dagozkionak dira: bata, idazkien bilakatalogo orokorra, eta bestea, idazki-bilketarako egitarau praktiko mugatuagoa (orokor hartatik hautaturiko eremu jakin batzuetarako prestatua);*
- Hirugarrena, Ahozko Historiarako jaso dugun araubide sozio-metodologikoa da (Estatu Batuetako ahozko historilarienetik egokituta eman dena);*
- Laugarrena, berriz, Eskola-Erakustoki baterako erakusgaien biltzeaz ari da (Barcelona-ko IMErenetik gureratua).*

# I.

## IDAZKIEN BILKETA-GIDOI OROKORRA



## 1. Lehen oharra

Idazkien bilaketa eta bilketari heldu nahi izan diogunean, berehala topo egin dugu gisa honetako galderekin: Zer da bilatu behar duguna? Non bilatu beharko genuke? Eta abar. Itan hauek behin eta berriz entzun ditugunean ohartu gara, galdera orokor horri erantzun orokor bat prestatzea premiazkoa zela. Xede horrekin prestatu da, beraz, ondorengo "Idazkien bilketa-gidoi orokorra".

Hala ere, aitortu behar da, gidoi orokor hau zabalkiago gidoi berezietan hedatu ahal izango dela ondoren (hemen, hurrengo kapituluan, "Leizarraga" Programarako egingo dugunaren antzera).

### 1.1. Gidoi orokorra eta gidoi bereziak

Ondoko orrialdeotan lehenik ikusiko duguna gidoi orokorra da; hau da, deus kanpoan ahantzita utzi gabe, bilgarria izan litekeen dena xehetasun guztiekin zerrendatu nahi duen gidoia. Osotasunaren asmoa du, eta irakurle eta lankideek lagundu beharko gaituzte falta dena osatzen.

Gidoi horrek, ordea, hutsune posibleez gain beste arriskurik ere badu: Bat edo batentzat handitxoa ere izan litekeela, eta norbaiti atzera eragin ere egin diezaikeela. Hala ere, "idazkien bilketa-gidoi" hau *orokorra* da, lankideek osorik irakurtzekoa (baina ez dena batera egitekoa), eta norberaren bilketa-eremua bereziagoari ekitean ere, alde aurretik idazkien bilketa-alor dena bere osoan ezagutuz ekiteko lehen dokumentu irakurgarria.

Gidoi orokorrak, ba, osotasunaren abantaila du, baina ez ditu, adibidez, lehentasunak markatzen, ezta lan-egutegirik ematen, edota baliabide nahiz larritasun praktikoaren aldeak begiratzen. Arrazoi guzti hauengatik, gidoi bereziak ere behar dira, honen ondoren, lanari heldu ahal izateko.

Gidoi berezi hauei buruz ez dugu orain deus esango. Liburu honetan bertan aurkituko du irakurleak hauetako txosten bat: "Leizarraga Programa (1991)" deituarena, alegia. Programa mugatu praktiko hori ezezik baita lankideen artean banatutako lanerako fitxak ere. Eskuaratean darabilgun egiteko praktikoaren adibide argigarriak izan litezke berauek, hemen dioguna errazkiago ulertzeko.

Geroago, gidoi honek berak ondoko beste kezka hau argituko duen arren, txostenaren atari honetan ere ez dugu gogoratu gabe utzi nahi harremanekiko arazoa.

### *1.2. Harremanak, norekin?*

Idazkien bilaketa-bilketak nahitaez jendearekiko harremana dakar lehen pauso bezala. Eta lan-gidoi bereziek beti eduki beharko dute hori kontutan, eginkizun bakoitzaren lan-prozedura soziala marraztean.

Baina, garaian garaiko premiazko oharkizunak aparte, hemen, sarrera-koan, irizpide orokorrenak azpimarratzea komenigarria izan liteke. Hona ba, puntuz puntu.

1. Arruntki, lehenik ikastolan bertako Artxiboarekiko harremanak hasiko dira, beronen egoera ezagutu, beronekin zer egin eta nola joka erabakitzea bait da lehenengo egitekoa.
2. Ondoren, Ikastola-inguruan ibilitako sustatzaile eta arduradun historikoekin izango dira harremanak:
  - a) Haiengandik, etxean edo beste nonbait eduki dezaketen dokumentazioaren berri jakiteko, eta guztiarekin zer egin litekeen elkarrekin ikusteko.
  - b) Idazkiak edozein tokitan egonik ere (beste euskaltzaleen baitan, beste Erakundetan), ezagutzen edo susmatzen dituzten iturri-lekuen berri eman dezaten.
  - c) Arduradun historiko haiengandik bilaketa honetan eman ditzaketen nolanhiko baliozko laguntzak jasotzeko.
3. Hirugarren, ikastolaren bizitzan lekurik izan duten herrian bertako Erakunde eta Elkarrekin hitz egingo da: Udaletxea, Eliza, Kultur Elkarrekin, talde pedagogiko bereziak (halakorik izan denetan), beti ere alde zuzenetik ezagutzen diren jakineko puntu bilagarri zehatzen albis-

teak eskatuz (eraikuntz baimenak, hasierako jabetasunak, babes instituzionalak, eztabaida-une larrienak, etab.).

4. Oro har, Erakunde Publikoetakoak oraingo lehentasunetatik kanpo uzten ditugu (Udaletxeakoak salbuespena izan baldin badaitezke ere), baina izan beharko dute haiek ere beren tenorea. Hala ere, ik. kapitulu honetan 2.0. eta 3.1.5. pasarteetan esango direnak.
5. Eginez goazen lanen egunkari idatzi bat eramatea komeni da lehenengo eginkizun hauetan, tokian tokiko arazo praktiko eta teorikoen berri EHHren arduradunei eman, edo, behar direnetan, laguntza eskatzeko.

Hemen, orain, ez da deus gehiagorik emango, baina xehetasunik izango du arduratuak ondoko orrialdeetan ere. Hiru atalburutan banatu ditugu txosten honetan esatekoak:

- 1) *Zer* da bilatzen duguna?
- 2) *Non* aurki daiteke bilatzen duguna?
- 3) *Zertarako* eta nola egingo da agiri-bilketa?

Ondoko orrialdeetako testua, bere gisa horretan, ez da batere literarioa, eta gehiago da katalogo-zerrenda bat. Guztiz praktikoa izan behar zuela iruditu zaigu, eta horretarakoxe idatzi da hori horrela. Bilakizun ditugunen zerrenda soil bat aurkezten dugu, bestelako iruzkin osagarririk gabea.

## 2. Zer da bilatzen duguna

### 2.0. Erakunde orokorrak

Ikastolaren ikastetxeak testuinguru sozio-instituzional jakin batek inguratuta sortu eta eratu ziren. Beraz, halabeharrez gizarte-inguruak premiazko babes sozialak eman zizkion (Federakundeak, etab.), legeak eta egoera politikoak nahitaez ezarriko zizkieten baldintzei (MEC, Ikuskaritza, etab.) aurre egiteko ere bai.

#### 2.0.1. Erakunde orokor propioak

Ondoko zerrenda honetan bereziki ikastola-ikastetxeari begiratzen zaio; baina nabaria da Ikastola ez dela ikastetxe bakarrik izan eta beste erakunde orokorragoz baliatu izan dela, eta anitzetan, gainera, jaio ere, erakunde babesgarri horiei esker jaio dela: batzuetan, eta hasieran batipat, eskualdeko bilerak edo bulegoak edo koordinazioak ziren (halakotzat aitortuak edo aitortugabeak, baina beti ere praktikoak); geroxeago, herrialde mailako biltzar, idazkaritza nahiz elkarteak. Geroago, Euskal Herri osokoak izan zitezkeen erakunde edo zerbitzu orokor haiek.

- Erakunde iraunkorren artxibo-material denak dira interesgarriak, eta interesgarriak baita bilaketa-gidoi orokor honetan iradokitzen diren alor guztietarako ere.
- Erakunde ez-iraunkorrak, edo desagertutakoak: EHHk arretaz egin beharko du hauen zerrenda bat, eta bakoitzari zegozkion zereginak ezagutu ondoren, bilaketa-gidoi bereziak prestatu.

## **2.0.2. Erakunde edo talde lagungarriak**

Gaineko edo ondoko antolamendu edo talde ofizial edo ofizioso lagungarriak gogoan hartu beharra dago. Idazmaterialen sorkuntzarako lantaldeek, edota zerbitzu pedagogikoeak, nahiz argialetxe gisara ikastolari begira eratutako enpresek une batzuetan benetako protagonismoa izan dute. Ezin dira ahantzi, esate baterako, Edili, Gordailu, Iker edo Saioka Taldea, eta are gutxiago Irakasle-Elkartearen antzekoak, ezta txikiagoak edo bitzitza laburragoak izan direnak ere. Honelakoetan, zeregin teknikoen ondoan batzutan betekizun sozio-ideologikorik, profesionalak edo sindikalak ere bildu dira. Erakunde edo talde formalen ondoan, gogoan izatekoak ditugu baita unean uneko arazoetarako bildu ohi ziren aholkari-talde edo banako adituak ere (euskara batuaren eztabaida-uneetako haiek, adibidez).

- Talde eta erakunde hauen artxibo-arduradunekin hitz egin behar da. Agian, historikoren bati bere "oroitzapenak" eskatu, eta agiri-bilketa-rako gidoi egokituak egin.
- Talde hauek ikastolarako edo euskal eskolagintzarako sorturiko lan-materialak bildu egin behar dira: testuak, edozein motatako argitalpenak, eskola-langaiak, etab.
- Talde-barnekoen heziketaren edo interesen onetan egindako argitalpen eta aldizkariak ere izan dira: bildu beharra dago.
- Egonda baita dendarik ere, ikastolaren didaktika hobetzeko asmoz, materialak bilatu eta eskaini duenik: hor ere historia bat dago, eta ez komertziala bakarrik.
- Euskal testugintzaz arduratu diren argialetxeek esperientzia historiko jakingarria metatu dute: sorkuntzarako talde-finantzaketa, erbesteko argialetxeekin akordioak, etxearteko lehia, zabalkunde-sareak... Etxe hauen artxiboak aztertzeakoak dira, eta biltzeakoak.

Inguru hurbileko lagunarte hauek garrantzizkoak izan dira, eta badirudi liburu honetan eman zaien baino arreta zabalagoko arduraz aztertu behar ditugula. Beude, oraingoz, apunte labor hauek, eta bere garaian arlo honetaz xehekiago iharduteko asmoaren promesa.

### 2.0.3. Estatuaren Erakunde ofizialak

Ikastolak legeria baten barruan, saihetsean edo aurka jaino ziren, baina beti ere legeen itzalak azpian zituela. Estatuak, gainera, irakas-sistema definituta zeukan, eta Administrazioak bazuen zer esan eta zer eginik euskal eskola guzti hauen gain. Hortaz, egoera hartan, ezinbestean, ikastolak buruhauste bat ziren sortzaileentzat ezezik, askotan babestu zituen Elizarentzat eta legearen arabera gobernatu behar zituen MECrentzat. Harremanak, ba, lehentxeago edo geroxeago bazterrezinak gertatu ziren. Eta ondorioz, hamarkada luzetako dokumentaziorik franko Estatuaren (nahiz Elizaren) artxiboetan dago. Madrileko Ministraritzari buruz diogunak are argiago balio du, Nafarroako Gobernuarentzat eta '80. hamarkadan Jaurlaritzako Hezkuntz Sailarentzat eta Herrialde-Ordezkaritza guztientzat.

- Hasteko, frankismoaren garaiko eta ondoko hezkuntz legeria eta ideologia ezagutu eta bildu beharra dago.
- Ministerio de Educación y Ciencia-ren (MEC) artxibategiak (hiriburu-ruetakoak, Alcalá-koa...) ikastolarekiko Estatuaren politika ezagutze-ko iturri ezin-hobea dira: txostenak, espedienteak, dirulaguntza-agiriak...
- Azpimarratu beharra dago, ikastolen estatistikak, urtetakoak gainera, ezingo direla egin MECen eskuetan daudekeen datuak bazterreratu izan direla (datu-bankua...).
- Euskal Herriko hiriburu-ruetako hezkuntzako Estatu-Ordezkaritzen artxiboetan mota guztietako harremanen lekukoak daude: politikoak, ekonomikoak, didaktiko-pedagogikoak... Espediente bereziak.

Ikastola bera ez diren Erakundeetako idazki-altzorrak ez dute gure lan honetan —artxibogintzarekin ari garen neurrian, eta ez bereziki ikerkuntzan— oraingoz lehentasunik, uste bait dugu Erakundeek berek zainduko dituztela beren fondo horiek, eta noiznahi heldu ahal izango zaiola haietakoak bateratze-lanari. Baina garbi ikusten dugu ez dela ikerlan historiko orohartzailerik egingo mundu ofizial hauetako informazioak jaso gabe.

### 2.1. Ikastolaren barneko agiriak

Edukin eta arlo ezberdinetako idazkiak izan daitezke, kasu honetan ikastola-barneko artxiboan topa ditzakegunak.

#### 2.1.1. Eraikuntza eta ondoko eraikin-garapenak:

- Eraikuntzaren irizpide eta arauak.
- Eraikuntz planoak: eztabaida eta onarpenak.
- Eraikuntzaren mantenimendua.
- Eraikinen erreforma, berrikuntza eta hedakuntzak.

Guztietarako gogoan izan ondoko iturrietan sor litezkeen idazkiak.

- a) Harreman profesionalak, kolegioak...
- b) Harreman teknikoak: arkitekto, aparejadore, eraikile...
- c) Harreman ekonomikoak: Bankuak, Kutxak...
- d) Harreman administratiboak: Udala...

### **2.1.2. Oinarrizko antolamendua:**

- Idearium-dokumentuak: idazki ideologiko-programatikoak.
- Barne-gobernuko organigramak: Juntak, Lehendakaritza, Zuzendaritza, Irakaslegoa....
- Plan urteanitzak.
- Urteko plangintzak eta aurrekontuak.
- Ikastetxearen arautegi orokorrak.

Une guzti horietan eskuartean erabilitako zirriborro, apunte eta oharrek ere interesgarriak dira, ez azken dokumentu onartuak bakarrik.

### **2.1.3. Ikastolaren ekonomia eta administrazioa.**

#### **2.1.3.1. Ikastolako ekonomiaren epealdiak gogoan har:**

- Eraikuntz urteak: norbanakoen ekarriak (agiriak), banketxeetarako abalak, kredituak, dohaintzak (lurrak, etxeak), auzolanak, doaneko lan profesionalak, subentzioak...
- Garapen-urteak: eraikin berrietarako laguntzat (jaialdiak, tabernak, kredituak, zozketa-txartelak, etab.).
- Finkapen-urteak: gestio ekonomiko arrunteko arazo, baliabide eta abar.

#### **2.1.3.2. Ikastolako irizpide ekonomikoen agiri eta idazkiak:**

- Legezko irizpide behartuak: Legeak eta Administrazio-erabakiak. Eske eta erantzunen agiriak.
- Irizpide sozial libreak: Ikastolaren sustatzaileen eta sostengatzaileen irizpide ekonomikoak (eztabaida-paperak, erabaki-agiriak, etab.).
- Erakunde laguntzaileen jarrera eta jokabide ekonomikoak: elkarriketetan erabilitako paperak.
- Planketa ekonomikoen oinarrizko irizpide ekonomikoak.

### 2.1.3.3. Ikastolako sarrera ekonomikoen agiriak:

- Kredituak/abalak.
- Hiritarren interesgabeko diru-laguntzak.
- Subentzioak.
- Aseguru-polizen komisioak.
- Kuotak.
- Zozketak-txartelak.
- Eske-jaialdietako sarrerak.
- Herri-jaietako lanak (taberna, txozna...).
- Jaialdi bereziak: "Nafarroa Oinez", "Araba Euskaraz", etab.
- Dohaintzak: lurrak, etxeak, materialak.
- Doaneko lankidetzak...

### 2.1.3.4. Ekonomiaren administrazioa:

- Kontu-liburuak.
- Kobrantza-paperak: matrikulak, kuotak...
- Ordainketa-paperak: fakturak, nominak...
- Aurrekontu eta memoria ekonomikoak.
- Ekonomi kontrolak eta kontuemateak: Juntari, auditoreei...

## 2.1.4. Ikastolaren lan-egiturak:

### 2.1.4.1. Ikastetxearen lan-antolamendurako sorturiko paperak:

- Lan-eginkizunen organigrama: agintea eta lan-banakuntza organikoa.
- Barne-zerbitzuen arautegiak: biblioteka, gela-aretoak, tresneria, garraio-zerbitzua, jantokia, etab.
- Lan-kontrolak, ikuskaritza.
- Egutegiak eta ordutegiak.
- Irakaslearteko lan-banakuntza.

### 2.1.4.2. Irakasleen lan-baldintzak:

- Aurrebaldintzak: titulu, lehiaketa, oposizio, etab.
- Lan-kontratuak, hitzarmenak, konbenioak...

- Soldata-agiriak, nominak.
- Irakaslanak, oporrak.
- Bekak, laguntza bereziak, hobekuntz ikastaroak...

## 2.1.5. Ikastolakideen arteko harremanak:

### 2.1.5.1. Artekarien (Junta, zuzendaritza, etab.) eta irakasleen arteko harremanak:

- Harreman arrunten agiriak: aktak, akordioak, ohar-gutunak, etab.
- Harreman berezien agiriak: negoziazio-aktak, gatazka-uneetako dokumentu idatziak, kanpaina-orriak, prentsa-testuak, isilpeko dokumentuak, dossier-ak.

### 2.1.5.2. Herrian ikastolaz arduratuen arteko harremanak:

- Erakunde eta Elkartee-kikoak: eskutizketa, agiriak, komuni-kazioak, etab.
- Gurasoen eta ikastolaren arteko harremanak: deiak, eskeak, berriemateak, bilera-erabakiak, ordain-agiriak, hauteskunde-agiriak, etab.
- Laguntzaile eta lankideekikoak: idem.

### 2.1.5.3. Zuzendaritza/Irakaslegoaren eta ikaslegoaren arteko harremanak:

- Ikasle-agiriak: matrikulak, era guztietako ikasle-agiri arrunt nahiz bereziak.
- Kasu bereziekiko dossier-ak: gertakariak, egoerak (ikasle bereziak...).
- Irakasleek beren lan-bileratan erabili eta sortutako agiriak: aztergaien zerrendak, aktak, eztabaida-oharrak, etab.

### 2.1.5.4. Ikastolako pertsonal ez-irakaslea:

- Egoera laboralari buruzko paperak: ordutegiak, soldatak...
- Arazo bereziren batekiko idazkiak.

## 2.1.6. Ikastolako pedagogia eta didaktika:

### 2.1.6.1. Irakasleen prestakuntza didaktiko-pedagogikoa:

- Irakaslegaien prestakuntzarako erakundeak: berauetako material idatziak (arautegia, lanak...).
- Irakasle-ikasketetako programak, ikasliburuak, lanak.



- Ikastaro berezietako apunteak, programak, lanak.
- Irakaslegaien praktikak (ikasturteetakoak): apunteak, lanak.
- Irakasle titulu edo langileen trebakuntza (irakasle helduen maisu-  
goa): arau teorikoak eta lan praktikoak (koadernoak, apunteak...).
- Tituluak, diplomak, ikastaro-deiak, matrikulak, beka-agiriak, hezike-  
ta-bidaia (txartelak), irakurkizunak...

#### 2.1.6.2. Irakas-material idatzien sorkuntza:

- Apunte, liburuska eta testu-liburu argitaragabeak.
- Ikasleei banatutako irakas-idazkiak.
- Ikasleek jasotako testuak.
- Irakasleek argitara emandako material testualak.
- Irakas-material idatzien sorkuntzarako proiektuak eta lanak.
- Irakas-testugintzarako taldeen eraketa: lan-taldeon material ida-  
tziak.
- Testuliburuaren argitalpen eta zabalkunde arazoak: teknikoak, ekono-  
mikoak, editorialak, administratiboak.

#### 2.1.6.3. Ikasteremuen hautapen-banakuntzak: Zer irakatsi beharko luke ikastolak?

- Legezko hautapen ofizial ezarriak: lege eta dekretuak.
- Programa ezarriaren edukinen ikastola-ulerpena.
- Ikastolaren ikaskizun-eremuen hautapen berriak.
- Ikastolak zuzenki berrukitutako edukin-eremuak: Historia, Geogra-  
fia, Hizkuntza, Gizarte Zientziak...
- Zeharbidez edo arrazoi didaktikoengatik, berraztertutako eremuak:  
Erljioa, Matematika, etab.

Lan-paperak, eztabaida-materialak, bilera-paperak, urteko-programak, egutegiak, ordutegiak, ikuskarien oharra, etab. izan litezke honeki-  
ko berria jakiteko bideak.

#### 2.1.6.4. Ikasteremuak eta berauen didaktika bereziak:

- Hautapen teorikoak: erabilitako autore, obra, artikulua eta nolana-  
hiko lan teorikoak. Ikastolako eta irakasleen biblioteka teorikoaren kata-  
logoa.
- Edukinen birdefinizio didaktikoak: ikastoletako irakaslegoaren sor-

men-adierazgarriak: paperak, artikuluak, gidoiak, lanak...

- Ikasteremu bakoitzari dagokiona: Hizkuntza, Gizarte-Zientziak, Natur Zientziak, Matematikak, Erlijioa, Musika, Kirolak, Gimnasia, etab. Didaktika berezi hauen azalpen idatziak.
- Ikasleekin buruturiko lanak.

#### 2.1.6.5. Ikastolako antolamendu didaktiko-pedagogikoa:

- Ikastolaren idearium edo arautegi pedagogikoak azaltzen dituzten agiri idatziak.
- Ikasgelen barne-antolamendua: barne-espazioa, irakas-tresnak, gelen argazkiak, koadro, poster, etab.
- Zerbitzu didaktiko orokorrak: kabinete psiko-pedagogikoa, laborategia, liburutegia, gimnasi aretoa, behategia, natur museoak, eskulanten lantegia, etab.
- Irtenaldi didaktikoak: egindako bilaketak.
- Ikasgelako, ikasteremuko nahiz ikastolako egunkari didaktikoak, programak, etab.

### 2.1.7. Ikas-eginkizun libreak, ospakizunak, aisia:

#### 2.1.7.1. Ikaskizun libreak edo osagarriak

- Ikastolan bertan emanak: kirola, musika, eskulanak; matrikulak, agiriak, argazkiak.
- Ikastolatik, kanpoan gidatuak: musika, eskulanak, hizkuntzak.
- Ikasle berezientzako irtenbideak: atzeratuak, dohain-apartekodunak.

#### 2.1.7.2. Ospakizun arrunt eta bereziak:

- Ohizko ospakuntzak, ikastola-barnekoak nahiz kanpokoak (bilera-agiak, deiak, iragarkiak, programak, argazkiak, bideoak, etab.): urterokoak (gabon-jaiak, ihauteriak, ikasturte-bukaerak, zaindari-jaiak, kirol-lehiaketak...), aldian aldikoak (elizkizunak, urtebetetzeak...).
- Ospakuntza bereziak: ikastetxearen ezteiak, eraikin berrien lehen harria edo irekiera, herrian ospatutako "Ibilaldia" edo Ikastolaren aldeko jaiak, etab. (antolamendu-idazkiak: baimenak, bilera-aktak, deiak, iragarkiak, argazkiak). Herriko jaietan ikastolak egindako ekintza bereziak.

### 2.1.7.3. Aisiazko ekintzak:

- Ohizko kirol-ihardunketak: programatuak, edo programatu gabeak. Ikastolako kirol-ohiturak: arautegiak, instalazioak, etab. (Idazki eta argazkiak).
- Ohizko arte-ihardunketak: eskulan libreak, antzertia, zinema, etab.
- Noizbehinkako ekintzak: mendi-egunak, asteburu bereziak, kirol-txapelketak, bidaiak.
- Oporrak eta udalekuak. Antolamenduzko, ihardunezko arazoan paperak: deiak, ordain-txartelak, hitzarmenak, argazkiak. Udalekuen honek arreta bereziagoa ere merezi du, mundu zabal, aberats eta nahikoa originala gertatu delako ere.

## 2.2. Ikastolarekiko kanpoko idazkiak

Ikastolako artxibotik kanpo geratu edo galdu diren idazkiak dira, nahiz ikastolari buruz kanpoan sortutako idazkiak. Toki ezberdinetan topa ditzakegu hauek:

- Ikastolan, beroriekin edo beronentzako lan egin duten norbanakoen etxeetan egon litezke: sortzaile, zuzendari, laguntzaile, juntakide, langile edo lankideenetan.
- Ikastolarekin zerikusiren bat izan duten erakunde edo elkarte ez-ofizialetan, berorien paperen artean edo artxiboetan: Elizakoak, Alderdi, Sindikatu, Kaxa, Banketxe, Guraso-Elkarte, Irakasle-Elkarte, Enpresa, talde profesionalenetan (mediku, arkitekto, etab.), beste eskola eta abarren egoitzetan.
- Erakunde publiko orokorretan: Udaletxe, Gobernu Zibil, Diputazio, Hazienda, etab.
- Hezkuntzarekiko Erakunde publikoetan: Hezkuntz Ministraritza, Hezkuntz Ordezkaritza, Osasun-Ordezkaritza, etab.

### 2.2.1. Norbanakoen eskuetakoak

Ikastolak izan zituen legeztapen-arazoengatik, eta askotan gordeleku hobeen faltaz, ikastolari zegozkion gestio-paperak (batez ere lehen hamarkada haietan) haren sustatzaile izandakoen eskuetan geratu ziren. Artxiboa osatu ahal izateko guztiz premiazkoa da sakabanatutako hori dena bilatu eta biltzea. Horretarakoxe aurreratzen dugu lan-gidoi hau. Ez da ahantzi behar, bildutakoaren ondoan, paperak non, noiz, norengandik eta zein baldintzatan jaso diren aditzera ematea.

Bilketarako, ikastolan bertakoaren ondoren hauetxena izango da errazena, gero aipatuko ditugun Erakundeetara pasa aurretik.

### 2.2.1.1. Legeztapen-aurrekoak:

Honela labur esanda ere, mota guztietako agiriak topa ahal izango dira sustatzaile edo lankide izan direnen eskuetan:

- Udaletxe, Administrazio eta abarretatik jasotako paperak.
- Juntetako deialdiak, erabakiak, aktak... Alderdienak...
- Ikastola-barruko gobernuari zegozkionak: fakturak, kontu-paperak, obra-proiektuak, etab.
- Ikastolarekiko eztabaidetako paperak, dokumentuak...
- Ikastolaren aldeko kanpainetako materialak.

Oro har: Edozein aldetatik ere ikastolarekin zerikusiren bat izandako idazki guztiak dira Artxiborako interesgarriak: gogoan har, legeztapen-aurreko urteetan gehienetan ez zela ikastolan artxibategi zaindu bat eramaten; ondorioz, urte haietako paper anitz geratu da norbanakoen ardurapean, eta orduko artxiiboak horrelakoen eskuetatik bilduta sortu beharko dira.

### 2.2.1.2. Legeztapen-ondokoak.

Urte hauetakoak gehienetan ikastolako artxibategian egongo dira, baina ez beti, eta ez dena: falta direnak, ikastolaren inguruetako herritarrengandik bildu beharko dira:

- Ikastolaren aldeko ekintza herritarretakoak.
- Herriak parte hartutako eztabaidetakoak.
- Han edo hemen norbaitek eramandako gestioen batekoak.
- Lanen bat burutzeko ikastolatik jaso eta itzuligabeak.
- Ikastolarako sortutako proiektuak, etab.

Oro har: Gogoan har bi puntu: 1) Ikastolaren inguruan ibili diren euskaltzale iraunkorrenak (komeniko da bilketa-mota hau hastean, saiatuenean zerrenda espreski osatzea, eta zerrendakoak banan-banan ikustatzea). 2) Inoiz suerta daiteke, horietako norbait paper-bilketari fina izatea: horrelakoek, alfer-lan asko aurrera liezaioke gure bilketariari.

### 2.2.1.3. Ikastolaren aurkakoak

Ez dira ahantzi behar. Horiek ere agian eduki dezakete agiririk: berenak edo inorenak.

- Herriko agintari-ohi batzuk.
- Goardia Zibilaren artxiiboak.

- Falange nahiz Mogimendukoak.
- Bereziki nabarmendu zenen batenak.

#### 2.2.1.4. Gutuneria

Jendearen arteko ikastolari buruzko gutuneria nonbait aipatu behar eta hemen gogoratu nahi dugu. Zalantzarik gabe, Ikastolaren sorkuntzan eta garapenean parte hartu duten ehundaka lagunek gutunetan, eskutitzetan, utzi digute unean uneko eta arazo jakin askori buruzko lekukotasun pertsonala. Bereziki, eztabaida eta gatazka-garaietakoak ezagutzeko aintzakotzat hartu beharra dago hau dena.

#### 2.2.2. Erakunde eta Elkarte ez-ofizialetakoak

Erakunde eta Elkarteetara joan aurretik, konfidantza irabaziz hurbiltzeko, komeniko da haiengananoko tartekari on bat izatea, eta berdin, Erakunde-artxibategia ongi ezagutzen duelako "Zuenean ikastolaz zer dago?" galderari kasik bapatean erantzun ahal izango dionen bat. Horrelakorik ezean, beharrezkoa izango da falta zaigun aurkitu nahi dena izendatuki bilatzea. Bestela, bilaketariak ezinezko lana hartuko luke sarritan bere gain, eta hobe izango da horrelakoak ondoko ikertzaileari uztea.

##### 2.2.2.1. Jaioturteak.

Ez da ahanzi behar, batez ere legeztapen osoa eta beregaina lortu arte, ikastolak beste elkarte edo erakunderenak izan zirela, eta logikoa da, ba, paperak beste erakunde haien eskuetan geratu izatea. Gerora, ikastolako Artxibo eratuan eta zainduan aurki litezkeen edozein motatako agiriak bila litezke jaioturteetan beste haien artxibategietan ere.

- Baimenak eta laguntzak, egoitza lortu edo eskubideak mugatzeko egindako idazkiak, parrokiako, komentu edo beste elkarteren bateko artxibategian egon litezke.
- Obra-baimenak, edo erosketa-fakturak eta erreziboak. Hasierako arautegi-ordekoak, eskutizketa, era bateko edo besteko eske-gutunak...
- Erakunde edo elkarteen erantzun-agiriak, edo horretarako egindako bileren aktak eta eztabaida-paperak.
- Eraikuntzen partaide izandako enpresaren paperak, edo profesionalen kolegioetakoak. Lanean ibilitako arkitekto, aparejadore edo eraikileen bidez segi behar zaio bilaketari, dagokion haria.

##### 2.2.2.2. Garapen-urteak.

Urte hauetarako ez du, agian, gisa bereko garrantzia izango kanpoko elkarteon artxibategiak, baina kasu bakoitzaren historiaren arabera ikusi beharko da hori.

### 2.2.3. Erakunde ofizialetakoak

Ikastolek beren legeztapena eskuratzean, Administrazio Publikoarekiko harremanak zaindu beharrekoak izan dira, legezko guztiak bete ahal izateko. Horrek agiri eta gutun-multzotzat utzi izan du artxibategi ofizialetan. Baina horren aurretik ere, Erakunde ofizialek egin zieten segimenduren bat jaiotzen ari ziren ikastolei: nolabaiteko historiaurre ofizios horrek ere utzi ditu aztarnak agiritegi publikoetan. Langai hauek denak bilatzea lan luzea eta malkartsua izango da, eta itxuraz gehiago izan beharko du ikertzaileena, hemen gogoan ditugun bilaketariena baino.

### 2.3. Eranskina: Bilaketa-oroigarria

*Aurreko orrialdeetan luze-zabal esandakoak hemen lerro labur batzuetara dakartzagu, bilaketariak bilakizunen gidoi erosoago bat izan dezan; baina, beti ere, ez ahantz aurreko orrialdeetan esandakoen artean azpimarraketa nagusi orokor batzuk emateko bakarrik balio duela ondorengo bilaketa-oroigarri honek.*

#### 2.3.1. Bila-eremuak

Bilakizunen zerrenda osatzeko gogoan hartu behar dira zerak:

- Ikastolaren historiako urte guztiak.
- Irakas-sistemaren mailak: Haurtzaindegia, Eskolaurrea, OHO, BBB, UBI, LH, edo unean uneko sistema osoa.
- Ikaskizun izan diren eremuak: Natur Zientziak, Hizkuntza...
- Ikastolak bere baitan sortutako idazkiak eta kanpotik sortutako ikastolarekikoak.

#### 2.3.2. Ikastola-barnetikoak (Adibideak)

Besteak beste, hona ikastolako Artxiboan aurkitu beharko genituzkeen agiri-motak:

1. Akta-liburuak. Akordioak.
2. Arautegiak. Barne-erregimeneko arautegia.
3. Barne-txosten eta oharrak.
4. Inbentarioak.
5. Aurrekontuak eta memoria orokor eta ekonomikoak: kontu-garbitaketak, fakturak, erreziiboak...
6. Auditoriak.

7. Eskutizketa: erakunde eta norbanakoekin.
8. Eguneko bilera-azterkizunak.
9. Irakasleen izendapen, hitzarmen, kargu, dimisioak.
10. Ez-irakasleen gorabeherak: sukaldari, etxezain, garbitzaile, liburuzain, bulegari, etab.
11. Barne-antolamendua: Sailak, ekinkizunak...
12. Matrikulazioa: sarrera-fitxak, ikasle-zerrendak, asistentzia.
13. Kartilak. Tituluak. Notak.
14. Ikasleekiko txostenak. Espediente arrunt eta bereziak.
15. Aldian aldiko eskola-berrikuspenak: mediku-berrikuspenak, ikuskaritzakoak.
17. Informazio- eta sentierazpen-kanpainak.
18. Edozein motatako inprimakiak, handi eta txikiak.
19. Sariak: kanpotik jasoak eta barruan banatuak.
20. Hezkuntzaz eta Eskolaz ardura izan duten edo duten Erakunde ofizial guztiak, Madrilekoak nahiz Euskal Herrikoak.
21. Besterik.

### **2.3.3. Erakunde publikoetatikoak (Adibideak)**

*Mota eta zeregin ezberdinetarako sortu izan ditu Administrazio Publikoak ikastolarekiko agiriak. Hezkuntz sistema osoaren arduraduna izan denez, esku hurbila izan du hark ikastoletan, berauek lagundu, oztopatu edo gobernatzeko. Orokorki zegokien legeria eta administrazio-sarmenarekin batera, ikastolaren xede, ekimen sozial eta antolamenduengatik ere, Administrazioa behin eta berriz hurbildu zen ikastoletara. Legeztapenaren ondoren, gainera, harremanak araututa geratu ziren; horren ondorioz, Ikastolarekin zerikusia duen paperketa ugaritu baizik ez da egin Erakunde Publikoetan. Hona, esate baterako, berauen artxibategietan bila daitezkeenak:*

1. Eskola edo Ikastolarekiko lege, dekretu, ordena, arau edo zirkularrak.
2. Gobernu-Ordezkaritza nahiz Diputazio ezberdinetako akordio edo mandatuak: Baimenak, debekuak, laguntzak, kontueskatzeak...
3. Udaletxeetako akordioak: Hazienda, Kultura (ekintza lagunga-

rriak), Hirigintza (lur-uzte edo eraikuntz baimenak)...

4. Irakaskuntzaren erreforma- eta programaketa-dokumentazioa. Material didaktikoen onarpenak.
5. Hezkuntz Ikuskaritza ezberdinetako kontu-hartzeak. Arazo berezien espedienteak.
6. Sariketa eta beka.
7. Ikastaroak.
9. Besterik.

### 3. Non aurki daitezke bilatzen ditugunak

Ondoko oharkizun hauek gidoi-balio soila dute. Lanean hastean, galdera honi erantzuten saiatzeko: *Non topa bilatzen ditugun idazkiak?* Zer bilatu nahi dugunari aurreko kapituluaren erantzun diogu. Dena den, hemen iradokitzen ditugunak, "Leizarraga" Programan egin ditugun oharren argitan begiratu behar dira.

#### 3.1. Irakas-erakundeetan

Tokian tokiko ikastetxearen antolamendua ezezik, Ikastolak izan ditu beste zabala-goa ere: bailarako, eskualdeko, herrialdeko edo Euskal Herri osoko Erakunderik, alegia. Eta baita halabeharrez gainetik legeak ezarritako Erakunde ofizialik ere. Denak hartu beharko ditugu —berehala ez bada ere— aintzakotzat; baina ez, noski, denak hein berean, zeren eta, lanaren tamainagatik eta lehentasunengatik, orain berehala tokiko ikastola-ikastetxeko artxibategiari helduko zaio lehenik.

##### 3.1.1. Ikastetxeetako artxiboak

Idazkien lehenengo bilaketa sistematikoa hemen hasiko da: Ikastolaren ikastetxeetan bertan artxibatuta dagoena ezagutu behar da ongi. Haundi-maundian sailkatu beharko dira bildurik daudenak, edo ikastolan bertan sakabanatutakoak.

##### 3.1.2. Eskualdeko ikastola-artxiboa

Inoiz edo bestetan, baliteke garai batean ikastola txikien bilgune bezala eskualdearen herriburua izatea. Horren ondorioz, baita urte batzutan herri horretako ikastola handiagoan bildu izatea lehen garaiko paperak. Horien berri jakitea komeni zaigu, noski.

##### 3.1.3. Herrialdeko Ikastolen Elkarte

Une batetik aurrera Federazioen eskuetara pasa ziren zeregin amankomun batzuk. Horrek paperetan joan-etorriarik franko sortu du. Zorionez, bilketariak ez dute Elkarte horietan leudekeenak biltzen hasi beharrik: hori EHIHren arduradunen bizkar geratzen da, baina interesgarria da ikastola jakin baten argibide propioak dituzten



agiri idatziak Elkartera pasata direnean, arduradun haiei horren berri ematea.

### 3.1.4. Euskal Herriko Ikastolen Elkartea

Aurreko puntuan esandakoak balio du honako ere. Ikus, gainera, kapitulu honetako 2.0.1. pasartea.

### 3.1.5. Bestelako Erakundeetan

Ikus honetaz arestian esandakoak, kapitulu honetako 2.0. pasartean

## 3.2. Norbanako laguntzaileen artean

Nahitaezkoa izango da, lan-prozeduran lehenik norbanako laguntzaile historiko horien zerrendak egitea (sortzaileak, juntakideak, zuzendariak, irakasleak, laguntzaileak, etab.). Ondoren, zerrendakoen artean lehentasunak jarri beharko dira, beraiengana ordena jakin batean joateko. Lehentasunak ezartzeko, alde asko begiratu beharko dira:

- a) Dokumentaziodunaren historikotasuna (lankidetzaz luzeagatik, edo izandako garrantziagatik, etab.).
- b) Berorren altxorren usteko balioa.
- c) Dokumentu-jabearen eskuzabaltasuna;
- d) Bilaketariak laguntzaile lekuko horrenganako duen sarbide erraza.
- e) Idazki jakin batzuek, gainerakoen argibideak osatzeko izan dezaketen osagarritasuna, etab.

Ez ahantzi sekula, gaur egun edo azken urteetan protagonismo handirik izan ez duen askok lehenago batean zeresan nabaria izan duela ikastolaren bizitzan. Orobat, posible dela, gainera, protagonismorik izan gabeko batek edo bestek guretzat interesik baliagarriena izatea, hain zuzen paper-biltzaile ona izan delako, adibidez

Norbanako laguntzaileen zerrenda egiteko gogoan har ditzakegunak honelako hauek izan litezke:

- Herriko euskaltzale ezagunak.
- Alderdi abertzaleetako eragileak.
- Eliz gizonak: erretoreak, apaizak.
- Herriko kulturtzaleak.
- Ikastolaren sortzaileak.
- Ikastolaren lehendakariak.
- Ikastolaren zuzendariak.

- Ikastolako bulegariak.
- Juntakideak.
- Batzorde berezietakoak.
- Irakasleak (direnak eta izandakoak).
- Elkarre kulturzaleetako gidariak.
- Ikastola-laguntzaile apal, baina saiatuak.
- Eta abar...

Ikastola bakoitzak, herri egoitzaren arabera, mosaiko sozial ezberdina izango du, eta herriko gorabehera eta joanetorrien berri duenak proposatu beharko digu langidoi zehatza bilaketaren fase honetarako. EHIHren arduradunek lagundu beharko genioke lehentasunak ahalik egokien definitzen. Gurekin hitz egin aurretik komeriko da, oraindik lehentasunik markatzen ez duen lehenengo zerrenda-zirriborroko lagun bakoitzari fitxa bana betetzea, ondoko datuok bilatuz:

Izena: .....	Zein ikastolatan parte hartu du?: .....
Deiturak: .....	Ardura-mota .....
Ogibidea: .....	Zenbat urtetan .....
Urteak: .....	Lankidetzak-moldeak .....
Egoera zibila: .....	.....
Ikastola-gurasoa (bai ala ez): .....	.....
Zenbat haur izan ditu ikastolan?: .....	.....
Helbidea: .....	.....

Izan ditzakeen materialak:

.....  
.....

Izan badituen materialak: .....

.....  
Prest ote legoke materialak Artxibo Nagusira pasatzeko?:  
.....

Baldintzaren bat jartzen al du? Zein?:  
.....

### 3.3. Erakunde eta elkarte sozialetan

Erakundeak edo Elkarteak eratuak izan dira sarritan, sorrera-urteetan batez ere, ikastolaren asmoari oinarritzko babesa eman ziezaioten, proiektu zazpikiari errespetagarritasun soziala emateko eta, une larrietan, behin-behineko legezkotasuna segurtatzeko. Edo baliabide ekonomikoak biltzeko. Bilketariarentzat abantailaren bat ere izan dezakete agian Erakunde eta Elkarteek: hauek beren artxibategiak, eta, nork daki, beharbada ikastolarekiko paperak gorde izan dituzte urteetan zehar. Berezi-bereziki, ikastolaren titularitate ofiziala izan duenik balego (Parrokia, adibidez), horixe da interesgarriena. Agiri originalak biltzerik ez balego ere, baliozkoak izango dira materialok, denon artean formula egokiren bat lortzen badugu bederen. Hauekiko elkarriketa EHHren arduradunekin batera eramango du bilketarik, horretarako egokiera eta baldintzak ongi mugatu ondoren.

Adibide gisan ematen dugu hemen agiri-altxorren bat izan dezaketen Elkarte eta Erakundeen zerrenda iradokior bat:

#### 3.3.1. Kultur Elkarteak:

- Herriko kultur lagunarteak: "Lizardi", "Círculo San Ignacio", Ate-neoak...
- Kirol elkarteak: Mendizale-taldeak, ehiztariak...
- Folklore-lagunarteak: Txistulari, dantzari...

#### 3.3.2. Erakunde ekonomikoak:

- Lantegiak: Kooperatibak, S.A., S.L....
- Merkatal etxeak: Supermerkatuak, dendak, jatetxeak...
- Merkatal Ganbarak...
- Kutxak, Lankide Aurrezkia, Banketxeak...
- Etxe finantzariak, aseguru-etxeak...
- Ugazaba-elkarteak...

#### 3.3.3. Eliz Erakundeak.

- Parrokiak., elizak, kaperak...
- Erlijioso-etxeak : monastegiak, komentuak, mojaetxeak...
- Ikastetxe erlijiosoak
- Kristau herritarren elkarteak:
  - OARGUI
  - Ekintza Katolikoa
  - Baserri gaztedia
  - Hirugarren Ordenak
  - Luistarrak
  - Langile-Elkarteak (JOC, HOAC).

### 3.3.4. Elkarte sozialak:

- Udal Erakundeak: Fundazioak, Patronatuak...
- Ikastetxe pribatuak.
- Guraso-Elkarteak.
- Sindikatuak.
- Elkarte profesionalak: abogatuak, medikuak...

### 3.3.5. Elkarte politikoak:

- Alderdi politikoak.
- Alderdietako taldeak.
- Uneko talde politikoak.
- Zirkulu politikoak.

## 3.4. Erakunde publikoetan

Oraingoz zeregin gutxi izango dute bilaketariak Erakunde Publikoetan. Bere garaian, ikertzaileen lana izango da batipat Erakunde hauetakoa; baina, hala ere, hona bi ohar: 1) Erakunde Publikoetan egon litezkeen agiriatarako pizarrik ikusiko balitz, komeniko da horren berri emanez EHIHren arduradunei oharkizun idatzia pasatzea. 2) Inoiz edo bestetan, herriko Udaletxean zerbait eskatzeko erosotasunik balego, denok ere hori bederen aurreratuta izango genuke. Oro har, ez ahantz Erakunde Publikoekiko lanak agiri-bilketan ez duela lehenengo honetan inolako lehentasunik, eta batez ere ditugun erosotasunen arabera jokatu dugula bereziki.

Orain hemen ez gara Erakunde Publikoei dagozkien bilaketa-xehetasunetara pasako. Zertaz ari garen ikusteko, "Idazkien bilketa-gidoi orokorra" honetan lehen-dik iradoki ditugunak begiratzea aski da (ik. 1.2.ean 3. puntua).

Ikastolak, Administrazioarekin era askotako zerikusiak izan ditu:

- Hezkuntz Administrazioarekin.
- Kultur Ministraritzarekin.
- Turismo- eta Prentsa-Administrazioarekin.
- Hirigintz Administrazioarekin.
- Gobernazio-Ministraritzarekin: Gobernu Zibilak.
- Osasun-Administrazioarekin.
- Lan-Ministraritzarekin.
- Garraio-Ministraritzarekin.
- Udaletxe eta Diputazioekin.

Segun noiz eta zertaz, guztion artxibategietan aurki liteke ikastolari buruzko dossier-ik; baina horietarako sarbidea zaila izan liteke, edo urrun egon (Alcalá de Henares-en, adibidez). Oraingoaz, ba, bego horretan hori dena, arestian egindako oharrak gogoan izanez.

#### 4. Zertarako eta nola egingo da agiri-bilketa?

Bilatzen duguna *zer* den eta aurkitu nahi duguna *non* egon litekeen ikusi ondoren, eta hurrengo lanari ekin aurretik, gure solaskide eta agiridunetik harremanak nola eraman ditzakegunaz zertxobait esatea ere ongi etorriko da. — Harremanen lehen kapitulua, EHIHren Proiektua aurkeztu eta berorren baitan agiri-bilketak duen lekua erakustea da: Idazki-bilketa *zergatik*, *zertarako* eta *nola* egingo den azalduko zaio agiridun solaskideari, lehen harremanak lotzean.

##### 4.1. Zer eta zertarako da bilketa hau, EHIH Proiektuan?

"Idazkien bilketa-gidoi orokorra" honek bere lekua EHIHaren Proiektuaren barnean du, honen parte bat da alegia. Horregatik, ongi etorriko zaigu Proiektu zabalago horren zentzua eta xedeak zeintzuk diren gogoratzea.

##### 4.1.1. Idazki-bilketaren lekua, EHIHren barnean

Idazki-bilketari dagokion lan-gida hau eskuetan duenak, lanean jarri aurretik, bilketari EHIH Proiektuan, eta preseskiago idazki-bilketari, hor eman nahi zaion lekua ezingo du ahantzi, beti ere ikupegi zabal batekin lan egin nahi bada batipat. Barkatuko du irakurleak —lankidegaiei eman nahi dizkiogun argibideen onetan— liburuan zehar zenbait gauza errepikatzea, batez ere bigarren parte honetako kapituluak lanerako aparte erabiliko diren gida-tresnak direla jakinik. Gogora dezagun, lehenik, kapitulu honetako gidoi orokor hau liburuko beste ondokoekin loturik dagoela:

- Beti ere "Idazkien bilketa-gidoi orokorra" berehala datorren "Leizarraga" Programarekin loturik dago, hau da: hain zuzen gidoi orokor hura praktikara eramango duen gure lehenengo lan-programarekin. Eta gero "Leizarraga"ren antzeko ondoko Programetan segida emateko asmoz (oraindik liburu honetan ez dauden Programa berri osagarriak, noski). Hau dena idazkien bilketaren barneko lana da.
- Baina Ahozko Historiarako ere grabaketak egin beharra dago: Horretarako, liburu honetan bi atal dituzu: bata, teorikoa, eta bestea, gida-lagun praktikoa dena:
  - Lehenengo parteko 4. kapitulua: "Ahozko Historiaren zeregin eta baliabidea".
  - Bigarren parte honetako 3. kapitulua: "Ahozko Historiarako lanbide-arauak".

— *Gauzak* ere bildu behar dira, idazki eta grabaketekin batera, eta horretan laguntzeko, ikus liburu honetan:

- Lehen parteko "1.4. Eskolaren Erakustokia" pasartea, eta
- Bigarren parteko 4. kapituluari: "Erakusgaien bilketa-gidoi orokorra".

Hiru zeregin nagusi horietara bilduta dago, dakigunez, EHIH Proiektu osoa, eta, noski, bilketaren gidoi orokor honek testuinguru zabalago horretan du bere leku jatorra. Testuinguru oso horrek, ordea, bere azken xedeak ditu, eta horiek ere gogoan izan behar dira.

#### 4.1.2. Idazki-bilketa EHIHko xedeen barnean

EHIHren xedeak (eta, beraz, baita idazki-bilketarenak ere) honelatsu deskriba daitezke, dena laburbilduz:

- EHIHren helmuga nagusia zera da: Euskal Herrian Ikastola sortzeko eta garatzeko egin diren ahalegin eta lan guztien historia idatzi ahal izateko *langaiak bilatu, bildu, sailkatu, zaindu eta ikertzaileen eskue-taratzea*.
- Horretarako, Euskal Herri *osoko* ikastola *guztien* iraganaz arduratu-ko da, ikastoletako zereginetan parte hartu dutenen lankidetzara eska-tuz.
- Bilaketa eta bilketaren ondorioz, *idazkien eta lekukotasun mintza-tuen Artxibo Nagusia* sortuko da, eta *erakusgaien Erakustegia*.
- Bilaketa-bilketa hauek, *ikastola bakoitzaren ondare dokumentala bildu, segurtatu, zaindu eta ikertzeko* baldintza egokiak sortu nahi dituzte, alde batetik, eta bestetik, ikergai guzti horiek Euskal Herriko gainerako testuinguru osoan lekukurik eskaini.
- Ikastolen idazki eta agiriek jasan dituzten sakabanaketa, galera edo hondamen arriskuei gaina hartu nahi zaie.
- Ikastolari buruzko ikerlanak sustatu nahi dira, *ikerkuntza horri lan-programa* bat iradokiz eta ikertzaile prestatuei erraztasunak eskainiz.
- Hau dena, uste dugunez, premiazkoa da, batez ere azken mende-erdian Ikastolak ekarri duen hezkuntz "iraultza euskaldunaren" histo-ria idazteko eta gertakari historiko horren sustatzaile izandako euskal gizartearen historia kulturala egiteko.

#### 4.2. Zer eta nola egingo da idazki-bilketa?

Idazki-bilketa izango da EHIHren barnean bilketa dokumentalik handien eta fun-

tsezkoena. Proiektu osoaren ardatza da berau. Beraz, oso ongi azaldu beharrekoa, alde batetik, eta oso arreta onez gidatu eta gauzatu beharrekoa, bestetik. "Idazkien bilketa-gidoi orokorra"ri hemen eman diogun lehen kapituluak ("1. Zer da bilatzen duguna?") aski zabalki azaldu du *zer* izan litekeen idazki-bilketa, baina hangoak laburbilduz emango da hemen oharkizunen bat. — Idazki-bilketa, *nola* egingo denak, ordea, arazo berriak dakartza hona (hau da, txosten-gidoi honetan oraindik aurkeztu gabeak).

#### 4.2.1. Idazki-bilketan *zer* jaso?

Jaso nahi dena *zer den* jakiteko aski da, oro har, ikastetxe, eskola edo ikastola batean eta irakas-mundu osoan idatzita edo inprimatuta eman ohi den guztia gogoratzea:

- Irakasle-ikasleek idatzitakoak: apunteak, koadernoak...
- Bulegariak eta Zuzendaritzak idatzi ohi dutena.
- Laguntzaileek ikastolan bertan edo kanpoko kanpainetan idatzita edo inprimaturik zabalitzen dutena.
- Ikastetxe barnean edo berorri begira kanpoan, harreman-molde guztietan sortutako testu idatziak: bileretan, kanpainetan, etab.
- Kanpoko Erakundeekin izandako idazki-trukaketakoak.
- Idazki-bilketa honetan gauzen eta idazkien artean, muga, ongi definitu gabe geratzen zaizkigunak ere gogoan hartzekoak izan litezke:

- Liburuak
- Testu grabatuak
- Pegatinak
- Eta abar
- Iragarkiak

Erakunde ofizialetan —Jaurlaritzan nahiz, lehenago, beste estataletan— bilatze-koaz, ik. zer esan den gorago kapitulu honetako 2.0.3 pasartean.

#### 4.2.2. Idazki-bilketa *nola* egin ?

Bilketak arazo praktiko nabariak ditu, jendarteko harreman pertsonalekin eta instituzionalekin lotuta doan zerbait delako. Dena den, hona ohar gidari batzu:

- Artxiborako bilketak ahal dela, dena eskuratu nahiko luke; beraz, bilaketa bakoitzean horixe da azken xedea, baina ez derrigorrez lehenengo kolpean lortu behar dena.
- Idazkidun guztiekin (norbanako, talde edo erakunde izan), beti *malgutasun osoarekin jokatu* behar da; beti ere agiri-jabearen jarrera

ongi ezagutu beharko dugu, batez ere dokumentazioa ukatzeko/gordetzeko/uzteko/emateko/ edo dena delakorako jarrera jakin bat baduela iduri denean.

- Solaskideak izan ditzakeen iritzi eta susmoak beti dira aintzakotzat hartzekoak, eta solaskide bakoitzaren edo dokumentu bakoitzaren arazoak aztertu egin behar dira, agiridunarekin lehenik eta EHIHren arduradunekin gero.
- Lehen ekinaldietako harremanek lagundu behar diete Proiektu-arduradunei bilaketarien lanerako harreman-irizpideak finkatu eta kasuak tipifikatzen, guztiekin Artxibo Nagusirako bilketa ahalik emankorrena eskura dezagun.
- Agiri edo idazki-bilketan bi puntu zail edo minberagoak topa ditzakegu:
  - Agiriaren geroko jabetasunarena (eman/utzi).
  - Agiriaren erabilerarena (nola gorde; ikerkuntzarako nori eta noiz utzi...).

Hori dena arautu egin beharko da, bilketarien esperientzia ezagutu ondoren (agiri-jabeen jarrera ezagututa, alegia) eta Artxibo Nagusiaren ondoko iker-governabidea alde zuzenetik ezinezkoa bihurtu gabe (horregatik aipatu dira arestian irizpide-beharra eta kasuak tipifikatzea).

- Solaskideengan ongi bereizi beharko lirатеke,
  - Alde batetik, nagikeriaz ala benetan nahi ez duelako atzeratzen den norbaiten erantzuna edo bilaketa.
  - Bestetik, atzerapena borondatezkoa balitz, oztopoa, noiz, nola eta nork gaindi dezakeen.

Horretarako, komeniko da lehen aipatutako malgutasun hura gogoan izatea: a) Formula ezberdinetako jasotze-moduak definituz, b) Ondoko erabilerarako baldintza-erak tipifikatuz, eta c) Artxiboan gordetzeko moduak mugatuz (emaileen izenekin, etab.).

- Artxibora ekarri aurretik, idazkiak fisikoki ere nola bildu behar diren erabakita eduki beharko da, kaxak, sobreak, emaitza-agiriak, izendatak, etab. gogoan hartuz. Modu estandar bat emango zaio bilketari alde honetatik ere.
- Gorde eta erabilpen-baimenak eta eskubideak garbiki mugatuta geratu behar dute, idazkiak emaile edo uztailearen eskuetatik jasotzean. Horretarako, inprimaki bat prestatuko da emaile/uztaileak eta EHIHren zuzendariak sinatzeko.



Oro har, bilketan izandako joan-etorri, elkarrizketa eta hitz-emate nagusien albistea bilketariak jaso egin beharko luke EHIHko arduradunei pasatzeko, ahal dela idatzita, eta, gutxienez, hitzez.

## **II. IDAZKIEN BILKETA:**

### **1. "LEIZARRAGA" PROGRAMA (1991)**



## 1. “Leizarraga” Programaren unea

Liburu honetan egin ditugun lan-aurkezpenen eta eskaintzen diren lan-idazkien artean “Leizarraga”-ren hau da zinez dagoeneko idazkia biltzeko xede hurbila duena. Hau da, arauak eman ezezik, jada agiri eta paperak biltzen ari den bakarra. Horregatik, duen garrantzi praktikoagatik, esan dezagun zerbait egitarau honen helburuez.

## 2. Programaren helburuak

Programaren helburuak mugatzea, berorren testuingurua eman eta zein bilketa-eremu hartu nahi duen azaltzea da batez ere. Horren ondotik datoz lan-irizpide eta antolamendua deskribatzea. Ikus dezagun, ba, Programaren testuingurua.

### 2.1. “Leizarraga”, EHIHren testuinguruan

1989an egindako Inkestaren ondoren (ik. liburu honetako 1. partean 2.1. pasartea) eta “Etxepare” Programaren bidez ezagututakoaren ondotik (ik. leku berean 2.2. pasartea), “Leizarraga Programa”-rekin eman nahi diogu hasiera (ik. ibidem, 2.3. pasartea), EHIHren barnean, idazkien bilketaren lanari. Azken Programa hau —esan dugu— “Idazkien bilketa-gidoi orokorra”-ren aplikazio bat da, hau da, eremu jakin mugatu batean egiten den aplikazioa.

Bestalde, EHIHk martxan jarri nahi duen lehenengo bilaketa- eta bilketa-egitaraua da “Leizarraga” Programa. Horregatik, badu garrantzirik, EHIHren geroko lan-prozedura sozialak definitzeko:

- Programa honen bidez aztertu beharko ditugu, lehenengoz, bilketalanak dituen oztopo eta arazo praktikoak.
- Bilketariaren lehenengo taldea Programa honekin eratuko da, eta beronekin egingo ditugu lehenengo saio errealak.
- “Leizarraga”rekin ezagutu ahal izango dira gure Artxibo Nagusirako ahaleginen zinezko mugak, egitekoaren segidako une ezberdinetan:
  - Bai iturriak ditugun lekuetan,
  - Berdin, IANren biltegietan,
  - Orobat, materialen administrazioan.

“Leizarraga”, bere zabalean ere, mikroprograma bat da, eta berori burutzean, EHIH osoan aurki litezkeen arazo nagusi gehienak (bilketa-mailan, bederen) tartean izango ditugu, eta Proiektu osoaren saioaldi orokor bat gerta liteke guztiontzat.

## *2.2. Programaren bila-eremuak*

Programa honetan, hasteko, helburu edo eremu jakin batzuk aukeratu ditugu, Ikastolaren historian sortu izan diren idazkien bilketa ekiteko. Lehentasunak hautatzean egin ditugun aukerak hiru irizpide edo ikuspuntu nagusi hauetan oinarritu dira:

- 1) Funtsezko informazio orokorra duen materiala.
- 2) Galtzeko zorian aurki litezkeen paperak.
- 3) Berehala biltegi handirik eskatuko ez duen materiala batipat.

Irizpide horien arabera, “Leizarraga” Programan bestelako edo inguruko material idatziak guztiz ahantzi gabe ere, gure ahaleginak ondoko puntu hauetara zuzenduko dira, ordena honek adierazten dituen lehentasunak gogoan hartuz:

- a) Dagoeneko galtzori berezian dauden agiri idatziak.
- b) Biltzar Nagusi, Batzorde Zuzendari edo Junten aktak.
- c) Ikastolen arduradun izandakoen edo direnen eskuetan dauden agiriak.
- d) Tokiko Erakundeetan gordetako agiriak (Udala, Parrokia, Gurasoen Elkarteak, beste Erakunde edo Elkarteetan).

Goazen, ba, hautatutako bila-eremu hauei buruz zenbait ohar egitera, bakoitzaren asmo eta betekizunen berri jakiteko.

### 2.2.1. Galtzori berezian daudenak

Honelaxe, modu orokorrean eta inolako xehapenik gabe, aipatzen ditugu puntu honetako agiri idatziak: "galtzorian daudenak". Hain zuzen, ezin da esan alde zuzenetik egoera txar horretan zer-nolako paperak egon litezkeen, dokumentazioaren egoera erreala erakutsiko bait digu hori. Hastapenez, dena da interesgarria: nahikoa da, berriz ere, "Idazkien bilketa-gidoi orokorra" begiratzea. Txosten horretan adierazitakoetatik zernahi aurki liteke arriskutan.

#### 2.2.1.1. Arrisku-motak

Horrelako egoera txar baten arrazoiak mila modutakoak izan litezke. Hona hemen adibide batzuk:

- Gordeleku desegokiak: hezetasunak, lokal ireki utziak, kontsulta leku txarra, etab.
- Egoitzaz aldatu beharra: aldakuntza hauetan dokumentazio-galera eta hondamendiak handiak izan ohi dira.
- Arduradunik eza, eta horrek ondorioz dakartzanak: inguruko ez axolakeria, edo agirien estimurik eza, nahiz aurrera-begira minak ekar lezakeen iragan-denboretako gutxiespena.
- Paperen sakabanaketa: gordeleku edo biltegi egoki baten faltaz hain hementen, kontrolik gabe, egon edo dabilzalako.
- Nornahik —horretarako mandatu edo baimenik gabe— eraman edo jaso ditzakeelako, horrela agirien aztarna galduz.
- Eta antzeko beste hainbat inguruabar.

#### 2.2.1.2. Galtzorikoen lehentasuna

Apenas dagoen esan beharrik, lehenengo lan-eremu hau zergatik aukeratu dugun: baliozko agiririk ez dugu galtzen utzi nahi, eta arrisku-egoeran legokeenari heldu egin behar zaio.

Galtzorian leudekeen dokumentuak hainbat gisatakoak izan litezke (ofizialak, talde eragileren baten lan-paperak, hitzarmenak, fakturak, etab.), baina ez gara orain hementen xehetasunetan sartzen hasiko.

Gal-arriskuan edozein lekutan egon litezke paperak: lokal zaharretan, adiskideren baten etxean, elizako sakristi zokoren batean, hilberri den norbaitenean, lanerako utzitako karpeta batean, etab.

Guk ez diogu begiratuko, kasu honetan, eskuartean duguna zer den

edo non dagoenari, nola eta zein arriskutan dagoenari baizik, eta galtzorian dagoen oro jasoko dugu, lehenik.

## 2.2.2. Biltzar, Junta eta Batzordeen aktak

Aurreko puntuan aipatutakoen ondoren, urteko Biltzar, Junta-bilera eta Batzorde Zuzendarien aktei "Leizarraga" Programarekin ardura arretasuz begiratu nahi diegu. Aktei, gure lehenengo bilketa-programa honetan leku hau emateak baditu bere arrazoiak.

### 2.2.2.1. Akten lehentasunaren arrazoiak

Erakundeen artxibategietan aktak bereziki zainduak izan dira beti, eta Erakunde horien historilari ikertzaileak bere lanaren hasieratik bertatik bilatu ohi ditu agiri ofizial horiek. Begira,ba, zergatik uste dugun akta hauek jasotzeak halako lehentasuna merezi duen:

- Erakundeen aktek, kasu honetan Ikastolarenek, panoramika osoa biltzeko egokiera eskaintzen digute, Erakunde-barneko alde guztiak ukitzen bait dira honelako agirietan:
  - Auzo, herri, eskualde nahiz herrialdekoak.
  - Ikastola bakoitzarenak, eta azkenik guztienak.
  - Alde ezberdinenak: ekonomia, pedagogia...
  - Alde sozialak: sustatzaile, gidari, lankide, ikasle, laguntzaile eta abarrekikoak.
- Aktekin, mota instituzional eta maila jakin bateko agiritegi dena jasota izango genuke Euskal Herri osoan, aktak osorik (edo ahalik osoenik bederen) biltzerik izango bagenu.
- Ondoko ikerlanetarako, eta ikerkuntza guztien lehen pauso bezala, aktak biltzearekin eraturik izango genuke kontsulta-leku ezinbaztertu bat, historilariarentzat nahitaezko ikertegia.
- Artxibo Nagusiaren eraikuntzak biltegi-arazoak izango dituen (eta berehala ezin konponduak, agian), akten bilketaren tamainako lana mugatua eta gobernagarria gerta dakiguke, ur handiagotan sartu aurretik.

### 2.2.2.2. Akta-bilketa osoaren zailtasuna

Horiek horrela, ezin liteke pentsa, ordea, Ikastola-munduan aktak bileraz bilera leialtasun osoz idatzi eta gorde direnik. Erakunde jaiogabe

edo legez kontrako batean, bilerak egin bai, baina sarritan berorien albiste edo aztarnarik ez da utzi nahi edo ahal izan: isilpean ibili beharrak akta anitz utzi zuen idatzi gabe.

Idatzi izan direnetarako, maiz aski, gordetzaila falta izan da, eta han-hemen barreiatutakoetatik osatu beharko da akta-zerrenda, halakorik ahal denetan.

Ez da pentsatu behar, "Sesamo, irek hadi!" batean dena eginda izango denik. Izan ere, jada ikusita daukagu, urte batzuetatik honako aktak gorde izan direla, baina aurreko urteetako aztarnak begiratu egin beharko dira arreta guztiz.

Eta gure IAN osatzeko, egoera horrek dakartzan ondorioak ez dira txantxetakoak, izan ere akten artxibo-kontzeptua bera ukitzen bait du, hasieratik bertatik: dokumentazioaren serietasuna da etenda ageri zaiguna, egoera sakabanatu eta zatizko horretan. Beraz, lanak emango ditu, eta ez makalak, akten denborazko segidatasuna bere katebegi guztiekin osatzeak (ik. O.GALLEGO DOMINGUEZ/P. LOPEZ GOMEZ: *Artxibistikan sarrera*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1989. 23).

Akten bilduma seriatu osoa lortzea ez da berehalakoa izango. Herri edo lkastola gehienetan, uste dugunez, dena osorik eskuartean izan aurretik denbora joango da, lankide saiatuenak ditugunetan ere, baina falta diren akten pertsegizio saiatu hori aurrera eraman beharra egongo da, behin baino gehiagotan han nahiz hemen jauzi egin lezakeen erbiari erne egonez.

Baina, osakuntza dokumental hori luze joango zaigunez, ondoko egitekoek ez dute planto geratu behar, aurreko hauek noiz konponduko. Aktei dagokien lehen ekinaren ondoren —eta serietasun dokumentalaren osakuntzaren ardura galdu gabe—, idazkien beste bilaketa eta bilketei helduko diegu, horrela "Leizarraga" Programa azken bururaino eraman arte.

### 2.2.3. Norbanakoen eskuetan dauden agiriak.

IAN eraikitzean, hasieratik bertatik izango dugun arazo nagusi bati erantzuten hasi nahi da bilaketa-eremu honekin. Izan ere, ikastoletako artxibategiek bi aje larri dituzte:

- Urte askotan, ikastolek ez dute artxiborik izan, edo oso-oso zatizkoak izan dira bertako materialak.
- Artxiboa eratu eta zaindu denean ere ez da batere ez-ohizkoa gertatzen paperak partikularren baten eskutan geratzea.

### 2.2.3.1. Informazioa: arrisku eta grina

Bi jokabide horien ondorioz, eduki beharko genukeena ez daukagu edo parte bat bakarrik jaso izan da. Hau da, neurriren batean artxiboa benetan egin, egin behar da, materialak artxiboetatik jasotzeaz gain.

Egoera horren arrazoiak aipatu ditugu. Ikastolan, talde-ihardunean egiten zirenen berri idatziz ematea egoera sozio-politikoak eragozten zuen. Paper idatzia, salakizun politiko bihur zitekeelako, lanean erabilitako agiriak desegin egiten ziren, askotan, edo normaltasunetik kanpo ezkutatu.

Hala ere, egon da bestelako jokabiderik izan duenik: egiten zenaren balio historikoaz jabetuta zegoelako, edo norberaren bizitzaren atala zenaren oroigarriren bat izateagatik, nahiz beste edozein arrazoiengatik, pape-  
rak gorde dituenik ere izan da. Honelako lagunek orain eskain dezaketen agiri-altxorra estimagarria eta begiramenez biltzekoa izango da.

Ikastolaren lagunen etxeetara joaten hasi beharra daukagu. Sustatzaile-mota guztiak izan ditu Ikastolak: euskaltzaleak, kulturtzaleak, herrietako politikariak, elizgizonak, gurasoak, agintariak, herritar xumeak, etab. Honelako guztien eskuetan egon litezke dokumentuak, eta harremanetarako bereziki gai denen batek horiekiko hurbiltasunak landu beharko ditu, herrietan, eskualdeetan...

### 2.2.3.2. Lehentasun honen arrazoiak

EHIHren arduradun garen edo inguruan gabiltzan lankideok norbanakoen, partikularren dokumentu-ondare honi berehala heldu beharko diogu. Arrazoi denen bila ekin gabe ere, batzuk bederen argiak direla esan liteke:

- Norbanakoen etxeetan daudekeenak dira sarritan —hola uste dugu, hipotesi gisa— espreski artxiboetatik kanpo gelditu ziren paperak. Beraz, artxiboetan dauzkagunen osagarri zuzenak dira hauek, eta IANren osotasunari begira, gerora gabe bildu beharra dago etxe partikularretakoa, gaur eguneko jabeen borondate onarekin eta berorien lankidetzaren bidez, noski.
- Hain sakabanatuta dauden agiri idatziak, beren egoera horrengatik, gal-arriskutan daude nahitaez, eta hobe izango da lehenbaitlehen biltzen hastea.
- Jendearen etxeetan gordetako dokumentazio-bilaketa sustatzeak beste balio bat ere izan dezake: jendearen baitan geure Historiareki-



ko eta azken belaunaldian egindakoekiko estimu eta oroimena pizten lagun dezake, EHIHrako lankidegoa zabalduz.

- Seguraski, etxeetan bilduko dena ez da izango paper-kopuru handiegia, nahiz eta oso interesgarria gertatu Artxiborako. Gure Proiektuaren oraingo unean, eremu hau fisikoki bilgarriagoa gertatuko zaigu, ba.

Arrazoi hauek eraginda egiten diogu leku, beraz, “Leizarraga” Programan lan-eremu honi ere.

#### 2.2.4. Tokiko Erakundeetan dauden agiriak

Ikastolen jaiotzan eta ondoko urteetan, banakako hiritarrek ezezik, zerikusi zuzenik edo zeharkakorik izan dute askotan herriko edo eskualdeko Erakunde batzuek ere. Legezko babesak nahiz itzal soziala horrelakoen-gandik jaso izan zituen behin baino gehiagotan ikastolak. Lankidetzaren horren fruitu bezala, Erakundeon artxiboetan bada agiri interesgarriak.

Bilketa-eremu hau proposatzean, ez dugu artxiboak goitik behera miatzen hasi nahi. Zerbait apalagoren atzetik goaz lehen pauso hauetan. Begira zer egin beharko den: Ikastola sortzean edo ondoko bizitzan, aipatutako Erakundeen (Udalaren, Elizaren, Guraso-Elkartearen eta abarren) partaidetzarik izan dela dakigunetan, lankidetzaren horren kronologia bat moldatu beharko da, eta data jakin batzuen gain eta gertakari zehatzen bila joan beharko dugu Erakunde horien artxiboetara. Inoiz baliteke, gainera, ikastolaren dokumentazioarekin kaxa edo karpetaen bat egotea; horrelakorik balitz, askoz hobe.

Bestalde, jakina da, artxiboen arduradunek ez digute dokumentaziorik guretzat emango; horregatik, garrantzizkoena zera da: agiriak non dauden zehazki jakitea (halako apala edo karpetaen, etab.), ahal dela fotokopiaren bat egitea, eta mikrofilmatzeko erraztasunik izan dezakegun galdetzea. Ondoko pausoak, EHIHren arduradunekin mintzatu ondoren emango dira.

### 3. Lan-antolamendua

“Leizarraga” Programa egikaritzeko, beharrezkoa izango dugu, oso, lan-antolamendua bereziki zaintzea, izan ere beronen bidez Euskal Herri osoko ikastola guztien historia ukitu nahi bait da, eta asmo hau EHIHren Zuzendaritzak ezingo du, bere kabuz eta gisara, dena bere esku-buruekin egin: erabat ezinbestekoa izango da lankidego zabal batekin kontatuz lan

egitea. Lankidego horrek, ordea, etekin onak emango baditu, koordinazio eta gidaritza bateratuak beharko dira, lankideekin elkarriketan beti, baina baita guztientzat erizpide eta lan-prozedura berak proposatuz ere. IANri, aldez aurretik, batasun eta osotasun logikoak eman nahi dizkiogu, eta horretarako, hona hemen zuen aurrean jartzen ditugun jokabide-arau batzuk. Dena den, ez ahantz elkarren arteko azterketarako pentsatuta datozela, erizpide guztiz finkatu bezala baino areago.

### 3.1. Epeak eta datak

Lanaren antolamendua mugatzeko, eman ditzagun lehenik gure egitekoaren epeak eta datak, orain aldez aurretik ikusten dugunaren arabera. 1991ko urteari hiru epealdi emango dizkiogu, Programaren une ezberdinak osatuz:

- a) Urte hasieratik Bazkoa artekoa.
- b) Bazkoetatik udako oporrak artekoa, eta
- c) Uda-udazkenak hartuko dituen hirugarren epe bat.

#### 3.1.1. Erregeenetatik Bazkoetara.

Epe hau batez ere bilatuko dugun dokumentazioarekin lehenengo topaketa izateko da. Tokian tokiko paperak lokalizatu eta bildu behar dira. Horrela, saioaldi jarraitu batean bilduko da aipatutako lau eremuetan bilatzen dena. Ekinaldi hau aste jakin batzuetan burutuko da, gehiago luzatu gabe (ik. 3.2.1. pasarte).

#### 3.1.2. Bazkoetatik uda artekoa

Lehenengo bilaketa horrek ez du errazkien bil litezkeenak batzeko asmoa baizik; bigarren une honi dagokio, ostera, han-hemen galduta eta sakabanaturik daudela ikusitakoak IANra bideratzea. Bilketa handiena baino xehetasunen unea izango da hau.

#### 3.1.3. Uda-udazkenak

Lehenengo bi epealdiak eskualdeetako lankideen zereginak beteko dituzte, eta hirugarren hau batez ere EHIHren zuzendarien gain joango da. Hau izango da aurreko hilabeteetako materialak artxiboratu eta egokitze unea (fotokopiak, mikrofilmaketa, sailkapenak, etab.).

### 3.2. Lanaren erritmoak

Lau eremu ezberdinetako lanaren erritmoak, esandakoarekin mugatuta

gelditzen zaizkigu: bildu — begiratu — bil-osotu — baloratu — gorde, horixe izango da urtean zehar egingo duguna.

[Adi, mesedez, 3.2. honetan esango direnei buruz zera: Geure buruari ezarri genizkion hiru epe eta zeregin haiek dagoeneko (1991ko azaroan idazten dira lerro hauek) erantzun sozialarekin batera lan egiteko berrantolatu egin dira, "Leizarraga" Programaren azken albisteak ematean esango den gisan. Bestalde, bilketa-proposamenetatik, informazio-bilketa proposamenetara eraman behar izan dugu lana, hau da, lan-fitxak sortu behar izan ditugu, argibide zehatzak eta osoak biltzeko eta bilaketa zabalegitan inor gal ez zedin. Ik. kapitulu honetako "5. Lan-fitxak" pasarte].

Azpimarratu ditugun bost pauso horiek honela proposatu izan dizkiegu gure lankideei:

### 3.2.1. Lehen bilaketa jarraitua.

Hau da "Leizarraga" Programako lehenengo epealdiari dagokion lana, Bazkoak arte burutuko dena (ik., arestian, 3.1.1. pasarte). Bilaketa jarraitu honek, lanari deliberatuki eta gogoz heltzea eskatuko du. Lau bila-eremuak (ikus arestian 2.2. pasarte) hartuko ditu lehen hilabete hauetako lanak, eta, dena biltzeari baino areago, eremu horietan errazkien bil litekeenari begiratuko dio.

Adibidez, ezaguna den dokumentazioari begiratuko zaio, ez paperak banan-banan aztertuz, multzotan metatuz baizik, eta bereziki galtzorian legokeena lehenbaitlehen ezagutzeko parada hartuz; akta guztiak biltzea xede ezinbaztertua izan arren, lehen bilaketa honetan bapatean edo berehala bil litekeenari begiratuko zaio (gainerakoak aurrerago baterako utzita); herritar norbanakoen eskuetan daudenen berri ere jakin behar da, baina grosso modo, besterik ez, materiala utzi edo emateko prest leudekeen galdetuz, eta, berri jakitearekin batera, ahal dena jasoz (hemen ere bestelakoak geroago bil litezke). Beste hainbeste esan genezake, gainera, tokian tokiko Erakundeetan bila litekeenaz.

Komeni da Bazkoa arteko hau bi fasetan banatzea:

- 1) Agiridun guztiekin mintzatu: zer daukaten eta nola daukaten jakiteko (ahal dela materialak ikusiz); emateko edo uzteko prest dauden galdetzeko, eta zein baldintzatan egingo luketen jakiteko. Bildutako albiste hauen berri emango dio bilaketariak Zuzendaritzari, bigarren faserako irizpideak lan ditzan.
- 2) Errealitate sozio-dokumentala ezagutu ondoren egingo da bilketa bera, bila-eremuetan aipatu dena jasoz, eta jasotako dokumentazio-multzo bakoitzaren administrazio-baldintzak ongi mugatuta utziz (emailearen eta bilketariaren artean mugatuta, alegia).

### 3.2.2. Zuzendaritzari berriematea.

Lankideek, egindako gestioez eta bildutako materialez Zuzendaritza orokorrari berrieman behar diote, eta zenbait kasutan edo aldetatik beharrezkoa izango da, idatziz egitea. Saiatuko gara Zuzendaritzatik formulario batzuk ere eskaintzen. Izan ere, materialen egoeraz (osotasunaz, kalitateaz, sorlekuaz, erabil-baldintzaz, etab.) nahitaezkoa da Zuzendaritzak ezagumendurik osoena izatea. Lehen epealdiko lanaren emaitzak erakutsiko digu, bestalde, hurrengoari nondik ekin eta berori nola gida. Jasotako materialen jabetasunaz ere gauzak zehaztu egin beharko dira. Lankideekin batera ikusiko da, bidea eginez alegia, gauzen jasoera nola egin.

Programako harremanen eta berriemateon bidez gidatuko da batasun batean Euskal Herri osoko dokumentu-bilketa. Lankideei formalki eskatzen diegun berriematearen aurretik ere, EHIHren Zuzendaritza saiatuko da, modu batera nahiz bestera, lankideekin harremanak mantentzen, eta berauei ere gauza beretsua eskatzen diegu: erreparorik gabe dei egin dezatela Zuzendaritzara, bilketan sortuko diren zalantzak argitzeko. Teoriak teoria, errealitateak emango dizkigu aholkurik praktikoenak, eta hori ezagutzeko premiazkoa dugu lankideen hurbiltasuna.

Lehenengo epealdian, zabarkeriarik gabe, baina haundi-maundika bakarrik bilduko da dokumentazioa. Eta bide batez, ikusiko ditu biltzaileak han-hemen material sakabanatuak. Holakoetan, ahal duenetan bederen, apuntatu egin beharko luke erreferentzia bat, pista edo aztarnaren bat, hau da, gerora lana burutuz joateko edozein lagungarri praktikoa. Denboraren mugagatik, edota zailtasun bereziengatik, eta abarrengatik, hondar apur asko geratuko da lehen epealdian ukitu eta jaso gabe. Horrelakoetarako bigarren epealdi bat eratu nahi dugu, hein batean iturriak osa ditzagun.

### 3.2.3. Apur galduen bilketa.

Aldi honetako lanak esku finagoa ere eska lezake: Ikastoletako idazkarien borondate ona zirikatzeke, dokumentudunen irekitasuna lortzeke, bilaketan lagungarri izan litezkeen albiste eta aitorpenak eskuratzeko, adibidez.

Bigarren une honetan zeri heldu behar diogun jakiteko, lankidearentzako iradokizunik onenak, betidanik ikastolaren inguruan ibilitakoan argibideak dirateke, eta aurreko unean jasotako dokumentazioa bera ere bai (ik. 3.2.1.), berririo irakur litekeen "Idazkien bilketa-gidoi orokorra" aiantzi gabe. Lan handiak baino arreta eta ardura—eta iraupen nekazezina, gainera— beharko ditu kapitulu honetan lankideak.

### 3.2.4. Azken balantzea eta berriematea.

Lankidegoarekin burututako "Leizarraga" Programaren balorazio orokor bat egin beharra dago, bai lankideen aldetik, eta bai Zuzendaritzaren aldetik ere. Eskuratutako emaitzak ezagutu eta berauen mugak begiratu behar ditugu elkarrekin. Gure lan-prozedurak, indarrak eta ahalbideak zenbaterainokoak izan ditugun aztertzeke balioko du balantze honek: kostu ekonomikoak, giza ahalbideak, hurrengo lanetarako itxarokizunak, etab.

Bestalde, balorazio honek erakutsiko digu Programa honen ondokoek zeintzuk eta nolakoak izan behar duten. Alde horretatik ere badu balantze honek bere garrantzia. Ez da ahortzi behar, berriro diot, "Leizarraga" Programa izango dugula gure zinezko lehenengo dokumentu-bilketa, eta, beraz, lehenengo eskarmentu praktikoa emango diguna. Lankide artean elkarrizketa egoki bat izateko aukera eskaintzen du Programaren une honek. IANn artxibogintza eder bat burutzeko premiazkoa da lankide-talde teoriko eta praktikoa heldu bat antolatzea: "Leizarraga"k aukera emango digu —proposatutako lanak egiteaz gain— idazkien bilketarako lantaldea eratuz joateko.

*Azken balantzearen xedeak*, ba, hiruzpalau izan litezke:

- a) Egindako lanaren azken berri osoak eman (emaitzak, zailtasunak, oztopoak, etab.).
- b) Ondoko Programetarako proposamenak jaso (lankidetzak, xede jakinak, azterkizunak, lehenetsunak, etab.).
- c) Lankidegoari elkartasun eta heldutasun hobeak eman (lan-prozedurak, elkarren laguntza eta osagarritasunak, hutsuneak, prestakuntza, etab.).
- d) Zuzendaritzaren eta lankideen artean hurbiltasun eraginkor bat sortu.

### 3.2.5. Artxibaketa: prozedurak eta lana.

Uztailetik aurrera (1991) hasiko dira materialen artxibaketa-egingizunez arduratuko den Programaren hirugarren epealdia. Herrietatik bildu ahal izango diren paperen gordeketak baldintza egoki zehatzez burutu behar dira, bilketak bere fruitu onak ematekotan. Eta hau lanaren bi aldeetatik, dokumentazio-emailearen aldetik eta artxiboaren administratzaileen aldetik:

- Lehenik, agiri-emailearen aldetik: eman edo uzten duen dokumentuaren kopiazeaz, gordetzeaz, jabetasunaz eta erabileraz hitz egin behar da emaile eta biltzailearekin.
- Bigarren, artxibo-administratzaileek ere badute zeresanik, bai mate-

rialak aurkitu, jaso eta gordetzean, eta baita egunen batean ikertzaile eta erabiltzaileei beren lanerako ezarriko zaizkien baldintza tekniko-juridikoen egokitasunean (izan ere, bi muturretatik ihes egin beharra bait dago artxiboen zerbitzu-eskaintzan: agiriak biltzean inolako baldintzagabeko irekitasun zabar eta arduragabetik, eta, baldintzatan, estutasun hertsia eta antzutik).

Agiri-emaileari begira, hautabide alternatibo asko izango dugu materialen artxiborako bidean:

- IANri agiriak eman ala utzi.
- Agiriak fotokopiatu ala mikrofilmatu.
- Fondo erreserbatuan ala irekian gorde.
- Zein baldintzatan eskaini ikertzaileei.
- Eta abar.

Artxibo-arduradunek, agiri-emailearen borondatea gorde beharra daukate (beharbada, tarteko agiri sinaturen baten bidez, gainera), baina ezin dute ahanzi IAN, beste edozein Artxibo bezala, ikerlanetarako tresna instituzional bat dela, hain zuzen egunen batean Ikastolaren Historia orokorra egiteko moduan izan gaitezen. Beraz, oro har, langaiak jasotzeko une honetan gogoan izan behar ditugu ikerkuntzak berez dakartzan lan-eskakizunak ere, alde aurretiko bilketa-baldintza haiek geroko ikerlan hau hasieratik bertatik ito ez dezaten.

“Leizarraga” Programaren barruan bildutako materialen artxibaketaren bide teknikoak beren momentuan definituko ditugu, izan ere beharrezkoa ikusten bait da lehenengo agiri-jabeen (ikastolen eta abarren) iritziak eta jarrerak ezagutzea, eta horien balorazio orokor bat egin eta bide praktikoenak nondik nora joan litezkeen ikustea.

Dena den, uda-udazkenetako artxibaketa-lana, agiri-emaileari emandako hitza gordez egingo da beti ere, eta zalantzarik izan litekeenetan, egingo dira premiazko kontsultak edo akordioak.

### 3.3. Lankideen profilak

“Leizarraga” Programa honen lankide izango ditugunen profil orokor bat aurkez liteke hemen, hurbilpen gidari bezala, lantaldea horren arabera osotuz joateko asmoz:

- Harreman oneko eta ahalik zabalenekoa izan dadila lankidegaia, bai herritarrekin, bai Erakundeekin.

- Herriko nahiz eskualdeko ikastolen inguru sozialaren ezagutzaile ona ere bai.
- Ardurapean izango dituen ikastolen eraikuntzaren eta garapenaren historia ere bizi izandakoa izan dadila, ahal bada.
- Negoziaketarako malgutasunik izan dezala, jabetasuna, eskubi-deak, erabilera, eta abarri buruz hitz egiteko.
- EHIHK duen garrantzi sozio-historikoaz jabetuta, bilketa-lan honetarako prestasunik izan dezala, prestasuna eta borondatea.
- Eta borondatearekin batera, lan egiteko denbora eta egokierarik ere izan dezala, gutxieneko erosotasun batekin behintzat.
- Azkenik, lan-mota honetarako gaitasun teknikorik balu, hobe oraindik.

Dena den, une honetan ditugun irizpideen barruan, ez dugu prestakuntza espezializaturik eskatzen Programa honetako aipatu lankideengan. Bestalde, ikastetxeen historia edo inguru soziala ongi ezagutzea ere ez da nahitaezko baldintza agiri-bilatzaile eta bilketari ona izateko.

Gaingiroki, horiek izango lirateke profil orokorraren traza nagusienak. Eta azal ditzagun, berehala, bila-eremu bakoitzak berezikiago eska ditzakeen gaitasunak, nahiz eta lau eremuekikoa bilaketari bat berak egin:

### 3.3.1. Galtzorian daudenen bilaketariak

Sail honi heltzeko berezko sena beharko luke bilaketariak, bi puntutan bederen: a) Agiri edo paper baten balioa ulertzeko, eta b) Dokumentua zinez arriskutan non dagoen usnatzeko (etxe partikularretan, ikastola-artxibo desegoki batean, etab.).

Bila-eremu hau oso irekia eta gutxi mugatua denez, alde guztietara begiratzen jakin beharko du, eta inor mindu gabe, arriskuan dagoena seinalatzen, edo jasotzen, asmatu.

Sail honetako bilketa, gainera, ez da Programa honekin bukatuko inola ere; aitzitik, iraupen arretatsua eta segida luzea eskatuko ditu. Kolpeka ez, baina begia erne eta arazoaz interesatuta ibilirik emango ditu fruitu onenak sail honek.

### 3.3.2. Akten biltzaileak

Bilketari honek lehenengo lana erraza izango du, ikastola guztiei egingo zaien deiaren ondoren: Ikastolako arduradunek erraztuko diote lehenengo

bilketaren lan handiena. Bigarren une batean, edozein lekutan bildu ahal izango ditu falta zaizkion aktak.

Lehen urtetakoak izango dira bilatzen zailenak. Ikastolako kaxa zaharretan, familietako paperen artean, euskaltzaleen etxeko karpitetan, bilatu beharko ditu. Beraz, zenbait jenderen konfidantza irabazi beharra dago, eta ezin liteke joan inorengana modu txarreko eskakizunekin. Jendearen borondate ona irabazten ez bada, ez dugu lan onik egingo. Ondokoarentzat esango dugunak bigarren pauso honetarako ere balio du, sarritan jabe bereetara joan beharko bait dute bi sailetan dabiltzanak ere.

### 3.3.3. Norbanakoen etxeetako bilaketariak

Bilaketari honek are gehiago beharko du oraindik jendearen eta euskaltzaleen konfidantza. Banakako herritarren etxe-barruetara eta paperetara iristeko premiazkoa da hori. Ikastolen alde jardun zutenak ezezik, kontra egon zirenak ere tartean izan litezke. Edozein kasu berezitan bitartekari lagungarriren bat ere bila dezakegu.

Lanean hastean, tokian tokiko plangintzatxoa egin ondoren, argitu beharreko zalantzarik balego, Zuzendaritzara dei dezake bilaketariak. Inoiz edo bestetan, banako batzuekiko gestioa Zuzendaritzaren esku utz liteke. Bilaketari honek, beste bila-eremuetakoek baino areago, jendearen iritzio-na eta interesa irabazi eta sustatzen jakin behar du.

### 3.3.4. Erakundeekiko harreman-arduradunak

Lehen-lehenik zein dokumenturi buruz galdetu nahi duen jakin behar du, ahal dela, aurkitu nahi den data, gertakari edo dena delako bilakizunaren zertzelada zehatzenak ezagututa. Ezin liteke joan inongo Erakundetara "ikastolari buruzko zuen artxiboko agiriak nahi ditut" esanez, zehaztasunik gabeko horrelako galderekin.

Beraz, Erakunde edo Elkartetara, agiri jakinen bila joan behar da : sortegunaren, eraikuntz baimenaren, eta horrelakoen bila. Gainerako bilaketa zabalagoak ikertzaileen lanak izan litezke, baina ez inondik ere Programa honetako harreman-arduradunarenak.

Gure arduradun honek Erakundeetako artxibariekin harreman onak izan beharko lituzke, hau da, elkarte horietan sarrera erraza izan, edo atear irekitzeko abila bederen.

Hemen profilei buruz esandakoak, lan-organigrama deskribatzean gehituko direnekin osatzen dira (ik. hemen berehala 3.4.1.; 3.4.2.; 3.4.3.).



### 3.4. Lan-eskualdeak eta lankidego-sarea

Programaren azterkizunak hautatu eta lankidegaien nortasuna definitu ondoren, iritsi da lana sozialki nola antolatu nahi dugun agertzeko unea.

Programaren helburuak harreman-sare elkarlotu baten bidez lortu behar dira. Ez dago beste modu posibleirik. Euskal Herri osoari begiratzen dio "Leizarraga" Programak, baina Zuzendaritza orokor bakarra du, ikastolak urtetan eta herrialdetan ehundaka izan arren.

Geografikoki hain zabala den lan horri aurre egiteko, harreman-sare bat eratu beharra dago, ikastolaren errealitate sozio-historiko osoa besarkatuko duena. Hori gabe ezingo genuke IAN bide praktikoa batetik sakatu. Horra, ba, gure antolamendu-hautapenaren zergatia.

EHIH Proiektuaren barneko egitura-antolamenduari jarraiki, "Leizarraga" Programan hiru mailatan banatuko ditugu ardura eta lankideak:

Zuzendaritza / Idazkaritza	Donostian
Eskualde-arduradunak	Eskualdetan
Herri-arduradunak	Herrietan

#### 3.4.1. Zuzendaritza-Idazkaritzak

Euskal Herri osorako EHIH Proiektuak dituen Zuzendaritza-Idazkaritzak dira hauek, eta Donostian dute beren lantegia. "Leizarraga" Programan egotzi zaizkien betekizunak hauetxek izango dira bereziki:

- EHIHren barnean, Programa honen irizpide orokorrak finkatu eta zaintzea, bere gestio propioan ezezik, baita lankide arduradun guztien artean ere.
- Ikastola-mundua ezagutzen dutenek EHIHri proposatutako lankidegaien artean, lankide arduradunak hautatzea eskualde-arduradunak batez ere.
- Eskualde-arduradunak lanerako berezikiago prestatzea, horretarako Programa ongi mugatuz eta baliabide sozial, ekonomiko eta teknikoak eskainiz.
- Lan-praktikoaren koordinazio orokorra eramatea, lanaren erritmoa zainduz, zalantzak argituz, harreman osagarri eta argigarriak izanez, bilerak antolatuz, etab.

—Aldez aurretik Programan ikusitako zeregin, erritmo eta prozeduren lan-egitarauetan unean uneko premiazko aldakuntzak proposatu eta egitea.

—Eta, azkenik, guztien onetan, idazkari-zerbitzuak eskaintzea.

### 3.4.2. Eskualde-arduradunak

Eskualdeen ardura eraman beharko dutenen bizkar jarri nahi dugu Programa honen pisurik handiena. Esango ditugun arrazoi praktiko askorengatik, eskualde-arduradunak dira Programaren ardatza.

Zergatik diogun hau? Zuzendaritzarentzat ezinezkoa gertatuko da —alferrikako *staff* handiegi bat sortu nahi ez bada, bederen— ikastola nahiz herri bakoitzeko arduradun guztiekin harreman zuzena izatea, ez bait da ahantzi behar 200 eta gehiago direla aztertzeko ikastetxeak. Guztietako lanaren segimendua eskualde-arduradunen gain utziko da. Zuzendaritzak, noski, noiznahi izan dezake harreman zuzenik, eta beharko du horrelakorik, baina beti ere lanaren unean uneko eskakizun jakin batzuei erantzuteko izango da.

Eskualdeko arduradunen egitekoak hauek izango liriateke:

—Zuzendaritzarengandik Programaren irizpide, arau eta albisteak zuzenean ezagutzea (bilera, elkarrizketa, dei nahiz paper idatzien bidez), eta, horretarako, Zuzendaritza-Idazkaritzekin beharrezko lan-harremanak zaintzea.

—Herri eta ikastoletarako Programa-arduradungaiak proposatzea, eta haietatik eskualdeko arduradun-taldea Zuzendaritzarekin batera hautatzea.

—Herri-arduradunak sustatu, gidatu eta laguntzea, eginkizunak, seinalatutako epeen barruan buru daitezen.

—Herri-arduradunekin batera, tokian tokiko dokumentazioa jaso, gorde eta IANra eramatea, jabe direnekin akordio edo hitzarmen baterako baldintzak mugatu ondoren.

—Programaren epeak amaitzean, Zuzendaritzari eskualdeko lanaren egoeraren albisteak hitzez eta/edo, halakorik erabaki denetan, idatziz ere ematea, lortu denaren, lortzekoaren, erraztasunen, oztopoen eta eskualdeko lantaldearen berri emanez.

—Jaso eta gordetako agiri-multzoaz arduratzea, harik eta IANek (beti ere, jabearekin hitzartutako akordioaren barnean), bildutakoa eska eta beregana dezan arte.

- Ondoko pausoetan, Zuzendaritzarekin batera jardutea, IANk, eman-dako hitza bete dezan (itzultzeko materialak itzuliz, gordetzekoak behar bezala zainduz, administrazio-baldintzak gordez).
- EHIHren ondoko Programetarako antolamendu berriak sortzeko Zuzendaritzari beren aholkuak ematea, ditugun ahalbide sozialei etekinik onena atera diezaiegun.

Lanean hasterakoan aurrikus litezkeen kasu berezietarako aparteko egitaraurik ere lan genezake Zuzendaritzaren eta eskualde-arduradunen artean, horrela denok irizpide berdinez joka dezagun. Halanola, agian behar da honelakorik norbanakoekin harremanetan jarri aurretik edo berehala. Ibilian ikusiko dugu zer komeni den.

### 3.4.3. Herri-arduradunak, Ikastola-arduradunak.

Herriko ikastolen edo ikastola jakin baten dokumentazioaz arduratuko dira hauek. Beren lana eskualde-arduradunarekin harreman hertsian eramango dute, eta behar dezaketenetan Zuzendaritzara ere jo dezakete.

Bi irizpide nagusi izan behar dituzte burutan: 1) Tokian tokiko ondare dokumentala zaintzeko grina, eta 2) Bildutakoaren bidez Euskal Herri osoari berri emateko ahalegina. Bi xede horietarako tresna egokientzat aukeratu da IAN, eta beronen Zuzendaritzari dagokio Artxibo horren barnean herri eta ikastola bakoitzaren nortasun dokumentala bere batasun osoan gordetzea.

Herri-arduradunaren egitekoak ondoko puntu hauetara bilduko genituzke:

- Batez ere, herriko ikastola-artxiboetan Programa honi dagozkionak bilatzea, horretarako beharrezko baimenak eta ikastola-barruko lankidetzak eskatuz (Zuzendaritzak eta eskualde-arduradunek ere lagunduko dute horretan, lehen gestioetan).
- Eskualde-arduradunaren tokiko lehenengo lankidea da herri- edo ikastola-arduraduna: beronek eskaini ahal izango dizkio bilaketa berrien arrasto eta nondik norakoak eskualde-arduradunari, eta kasu berezietan Zuzendaritzari ere.
- Lekuan lekuko hainbat gestio herri-arduradunaren esku egongo da: bertako Erakundeetako eginkizunak, norbanako herritarrekiko harreman eta gestio puntualak, etab.

### 3.4.4. Programa honetarako eskualdekatzea

Lankidegoaren sare hau, gaur egun Ikastolak duen eskualdekatze praktikoari erantzunez eratuko da, hasteko behintzat irtenbiderik erosoena dugula uste izanik. Beraz, lankideez esandakoen eta irizpide geografiko honen arabera, hauek izango lirateke gure lan-eskualdeak eta lankide-sarea:

#### ARABA

<b>Aiara</b>	<b>Bastida</b>	<b>Gasteiz</b>
Alpitxu(Areta)(F)	ASSA(Labarka)	Abetxuko(G)
Aresketa(Amurrio)	Bastida	A.Umandi(G)(F)
Arteniaga(Artziniega)(F)	Eskuernaga(Uriona)	Ariznabarra(G)(F)
Etxaurren(Aiara)	Ibernalo(Kanpezu)	Aialako A.(Dulantzi )(F)
Laudio	Lantziego	Langraitz (F)
	Mainueta(Baños de E.)	Legutiano
	San Bizente(Oion)	L. de Larrea(Agurain)
	Zieko(Eltziego)(F)	Toki Eder(G)
		Umandi(G)

F= Herriko eskolarekin fusionatuta, bertan gela federatuak dituztenak dira. — Federatu gabeko ikastolak hauek dira Araban: Olabide, Arantzabela, Barrutia, Odon Apraiz, Abendaño, Alde Zaharra eta Adurtza Gasteizen, eta Ikasbidea Duranan.

#### BIZKAIA

<b>Bilbo</b>	<b>Ezkerraldea</b>	<b>Uribe Kosta</b>
Deustu	Alkartu(Barakaldo)	Altzaga(Erandio)
Intxixu	Astileku(Portugalete)	Altzaga(Leioa)
Karmelo	Bihotz Gaztea(Santurtzi)	Ander D.(Sopela)
Kirikiño	Elai Alai(Portugalete)	Geroa(Getxo)
Lauro	Etorkizuna(Abanto-Zierbena)	S.Nikolas (Algorta)
Urretxindorra	Itxaropena(Trapaga)	Gobela (Leioa)
	KarmengoAma(Sodupe)	
	Lorabari (Portugalete)	
	Muskiz	<b>Busturia-Mungia</b>
	Repelega (Portugalete)	Eleizalde (Bermeo)
	Zorrotza	Etxeita (Mundaka)
	Zubi Zahar(Balmaseda)	Larramendi(Mungia)
		San Fidel (Gernika)
		S.Altube(Gernika)

<b>Durango-Arratia</b>	<b>Hego Uribe</b>	<b>Lea-Artibai</b>
Anaitasuna(Ermua)	Abusu(Arrigorriaga)	Bolibar Andra
Mari(Zornotza)	Ariz(Basauri)	Azkue(Lekeitio)
Arratia(Artea)	Eguzki Begi(Galdakao)	Urregarai(Aulesti)
Elorrio	J.A.Uriarte(Arrigorriaga)	Zubi Zahar(Ondarroa)
Jose Deuna(Igorre)	Ugao(Miraballes)	
Kurutziaga(Durango)	J.R.Azpiri(Zaratamo)	

Federatu gabeko ikastolak hauek dira Bizkaian: Artxandape (Bilbo), Begoñazpi (Bilbo), Karmengo Ama (Bilbo), Txomin Agirre (Ondarroa), Vera Cruz (Markina), Iturrizar (Berriz), Lauaxeta (Euba), San Felizisimo (Ortuella).

## GIPUZKOA

<b>Deba Garaia</b>	<b>Deba Beherea</b>	<b>Donostia</b>
Almen(Eskoriatza)	Goizeko Izarra(Mutriku)	Aitor
Aranzadi(Bergara)	Itziaroko Ama(Deba)	Amosarrain
Haur Hezi(Antzuola)	J.A.Mogel(Eibar)	Arantzazuko A.
Iturbe(Elgeta)(F)	San Bartolome(Elgoibar)	Axular
J.Arana(Eskoriatza)	San Jose(Mendaro)	Barandiaran
Loramendi(Aretxabaleta)	Soraluzeko Ametsa	Herri Ametsa
Mariaren Lagundia(Bergara)		Ibai
S.Frantzisko X.(Arras.)	<b>Kostaldea</b>	Ikasbide
San Viator(Arrasate)	Herri Ikastola(Orio)	Intxaurreondo
Txantxiku(Oñati)	S.Mitxelana(Zarautz)	Jakintza
Ume-zaintza(Arras.)	Zumea(Zumaia)	Miren Bihotza
		Orixo
<b>Goierri</b>	<b>Urola</b>	Sto.Tomas
Alkartasuna(Beasain)	K.Etxegarai(Azpeitia)	Zurriola
Jakintza(Ordizia)	X.Munibe(Azkoitia)	
San Benito(Lazkao)	Zestoako Ikastola	Oria-Urumea
San Migel(Legorreta)		Egape(Urnieta)
		Ereñozu(Hernani)
	<b>Oiartzun</b>	Landaberri(Lasarte)
	Hautzarro(Oiartzun)	Langile(Hernani)
<b>Tolosa</b>	Hondarribiko Ikastola	Larramendi(Andoain)
Anoetako Ikastola	Langaitz(Errenteria)	Udarregi(Usurbil)
Belauntzako Ikastola		

Irurako Ikastola	Orereta(Erreterria)	Urumea Elizatxo
Jesusenen Bihotza(Billab.)	Pasai Lizeoa	Urumea-Elkano
Kukute(Asteasu)	Txingudi(Irun)	
Lizartzako Ikastola		<b>Urretxu</b>
Poxpolin(Tolosa)		Garaialde(U)
Usabalgo Laskorain		Haztegi(L)
Uzturpe(Ibarra)		Lurdesko A.(U)

Federatu gabeko ikastolak hauek dira (1991): Ekintza eta Miren Bihotza Donostian, eta Poxpolin Tolosan. — Herri-eskoletan federatutako gelak: Idiazabal, Legorreta, Segura, Zegama,

### IPARRALDEA

<b>Lapudi</b>	<b>Nafarroa Beherea</b>	<b>Zuberoa</b>
Azkaineko Ikastola	Amikuzeko Ikastola	Atharratzeko Ikastola
Arrangoitzeko Ikastola	Garaziko Ikastola	Mauleko Ikastola
Baiona Oihana Ikastola	Orzaizeko Ama Ikastola	
Baiona Poloko Ikastola	Bunuzeko Ikastola	
Donibane-Lohizuneko Ikast.	Donapaleuko Ikastola	
Hazparneko Ikastola		
Hendaiako Ikastola		
Kanboko Ama (bi ik.)		
Miarritzeko Ama		
Senpereko Ikastola		
Uztaritzeko Ikastola		

### NAFARROA

<b>Baztan-Bidasoa</b>	<b>Larraun</b>	<b>ErronkariZaraitz</b>
Labiaga(Bera)	Larraun(Lekunb.)(F)	Muskildako Ama(F)
Tantirumairu(Lesaka)	Larraun(Lekunb.)(F)	(Otsagi)
Bide Ona(Etxalar)(F)		Lizarra
Igantzi(F)		Lizarra
San Migel(Leitza)(F)		Deikaztelu
Baztango Udal Ik.(Elizondo)	<b>Pirinioaldea</b>	

Goizuetako Udal Ik.(F)	Auritz (F)	<b>Erribera</b>
Doneztebeko Udal Ik.(F)	Landakoa(Aurizperri)(F)	Argia Ik. (Tutera)
Sunbillako Udal Ik.(F)	Agoitz	Erantzun(Biana)
Jaunsaras(Yaben)(F)		Lodosako Ikastola
<b>Sakana</b>	<b>Iruñea</b>	<b>Tafalla</b>
Olaztiko Ikastola	San Fermin(Zizur Tx.)	Garzes(T)
I.Aritza(Altsasu)	Ziganda(Billaba)	Rincón(Zangoza)
Aitziber(Urdiain)	Udal Ikastolak:	Arangoiti(Irunberri)
Bakaikuko Ikastola	Hegoalde,Axular,Amaiur	
Andra M.(Etxarri-Aranatz)	Frantzisko Jaso	
Arbizuko Ikastola		
Lakuntzako Ikastola		
San Migel(Uharte-Arakil)		
Ardanzeta(Irurtzun)(F)		

F = Herriko eskolarekin fusionatuak.

### 3.5. Lankideak eta Programaren Zuzendaritza.

Programa honetako lankide bilaketariak ez dira izango espezialistak, baina, gidaritza tekniko egoki batekin, taldeak fruiturik onenak eman ote ditzakeen gaude. Lantaldeen antolamendu-mota hau ikusten dugu, gainera, lankidego ekonomikoki eramangarri bakarra eta, seguraski, bizkorrena. Hala ere, borondatezko lanak gure gizartean izan duten beheraldia ezagututa, eskarmenduak erakutsiko du bidea nolakoa den. Azken buruan, arrazoi hau erabakiorra gertatuko zaigu.

Inoiz edo bestetan horrelakorik egin dugu lehendik ere, eta lankide adeitsu horrek barka biezagu oharrak errepikatuz ihardutea:

- a) Ez da lanean bakarrik ari: gidaritza tekniko baten laguntza badu, eta bera bezalaxe beste zenbait ere jardunean ari da, aldi berean, Euskal Herri osoan: Ikastola bakoitzak, EHIHan aurki dezake bere historiaren oroimena segurtatzeko aukera, bestalde, tokian egindakoa gure Herri osora zabalduz. Ez da hau egokiera txarra, denontzat eta bakoitzarentzat.
- b) Horregatik, bakoitzaren lana arretaz lagundu nahi da, EHIH Proiektuaren bidez eta, horren barnean, une honetan "Leizarraga" Programaren bitartez. Denok ere, elkarrengandik argibideak eta oharrak jaso ahal izango ditugu, gure lan amankomuna hobetzeko, eta guztiona, elkargarri egiteko. Azkenean, urte batzuetan, Ikastolaren Artxibo Nagusia (IAN) eraikitzeko.

Garrantzizkoa da gure lan eta Programa osorako, egitera goazen hau, euskalgintzarako eta ondoren etor litezkeen ikerlanetarako ere benetan baliozkoa izango dela ikustea. Komentzimendu hori gabe ez da samurra izango lantalde eta talde-lana aurrera ateratzea.

### *3.6. Bildutakoarekiko erantzukizunak.*

Paperak bildu, utzi edo eman ahala, ondare baten jabe edo arduradun egingo gara EHIHn gabiltzan guztiok. Baina jabetasun edo ardura hori ezin liteke pertsonala bakarrik izan. Hori dela eta, EHIHn berehala goaz altxor horrentzat babes juridiko egokia sortzera, ondare dokumental horrekiko erantzukizunak, pertsonalak ez baizik instituzionalak izan daitezten.

Baina, kezka berari jarraiki eta artxiboko jabego eta erantzukizunen aurretik, gure bilketa-lanean bertan, lanean ari garela alegia, normala izango da dokumentuen jabe direnek beren eskuzabaltasun edo erreparaok aditzera ematea ere. Jabetasuna eskuz aldatzeko, edo aldi baterako agiriekiko ardura uzteko, edo IANrako kopilanak egiteko, iritzi eta irizpide jakin batzuk izan ditzake agiri-jabe den norbaitek edo erakunderen batek.

Lehenengo harreman-itzuli batean ikusiko da hori. Eta ikusitakoaren gain joan gaitezke, dokumentu-bilketarako prozedurarik onenak lantzen. Lankideek, ahalik albisterik xehenak eman beharko lizkigukete, guztien berriekin, Zuzendaritzak irtenbideak landu eta proposa ditzan, materialak jasotzen hasi aurretik. Hau da, saiatuko gara laster bilketa-arautegi praktiko llaburra idatzita jartzen, bilketariak lan-gida bezala eskuetan izan dezan.

## **4. Azken oharrak**

“Leizarraga” Programaren proposamen honetan albora geratu da zenbait alor edo arazo, eta komeniko da hemen, bukatu aurretik, azterkizun horietaz zerbait esatea. Eta proposamena burutu baino lehen ongi etorriko da, gainera, EHIHren hurrengo pausoak gogoratzea.

### *4.1. Elkartekoak ez diren ikastolak*

Jakina denez, EHI Eren partaide izan gabe, baina Ikastolaren tradizio eta arrastoan datozen ikastetxe batzuk baditugu gure artean, eta ez batere txikiak batzutan. Denon historiaren parte on bat etxe horietan ere badago, eta EHIHk ezin ditu ahanzi, bere Proiektuan leku egoki bat eskaini gabe.



Bestalde, gogoan dugu EHHren Proiektua Ikastolen Elkartearen erabakia dela, beraz beste inori ezin ezar diezaioketuna. Eta gure artxibo-asmoak bezain onak edo hobekak izan litezke Elkartera bildu gabeko ikastetxe horien asmoak ere. Esan beharrik ez dago, baina badaezpada esan egiten dut.

Arrazoi guzti horiengatik hona zer proposatzen dugun: oro har, oraingoz ikastola elkarteratuekin bakarrik hasiko gara lanean. Gure IAN finkatu eta heldutasun-puntu batera eramango dugunean izango da egokiera hobea denon artean elkarriketa hasteko. Geure lanean, ordurako ikusita izango ditugu Proiektuaren ahalbide eta zailtasunak, eta probetxuzko zerbait eskaintzeko egon gaitzkeela espero dugu.

#### *4.2. Programaren irizpide ekonomikoak*

Aurreko lerroetan deskribatu dugun lan-antolamenduak, arrazoi metodologiko-praktikoak ezezik, ekonomikoak ere baditu. Hau da, lan-antolara hori (bilketa, herritarrekin kontatuz hastea, alegia), eta ez besterik, aukeratu badugu, arrazoi ekonomikoengatik ere izan da. Eta ez dugu uste, gainera, erabakiak lanaren alde metodologikoari nahitaez kalterik egingo dionik.

“Leizarraga” Programak, bere bila-eremuetan, ahalik agiri-iturri gehienetara iritsi nahi du, nahiz eta bilaketa bapatean agortzeko asmorik eta modurik ez izan. Bilaketa zabal eta jarraitu hori, ordea, lankidego ireki eta ongi gidatu batekin bakarrik lor liteke, eta hau da, hain zuzen, guk posible dugun lan-antolamendua, orain Programa honetarako eta, hau ongi joango balitz, baita hurrengo Programetarako ere.

Gure zereginetan lanak eta lankidetzak mota ezberdinetakoak izango dira, eta denak ere harremanen mundukoak batipat. Doaneko lanik franko eskatu beharko da, batez ere herrietako bilaketa egiteko. Herri-mailako lankidetzak, ba, guztion zerbitzu onean datorren auzolana izango da, eta ez dugu ordainduko, orain —Programa hau iradokitzean— aurrikusigabeko gasturen batzuk agertzen ez badira behintzat.

Herri eta ikastolarteko koordinazioa, eskualde-mailan antolatzen duguna, besterik da. Lankide hauei, alde batetik, erantzukizun handiagoa ezarriko zaie, ordu gehiago, joan-etorriak, etab. Eskualde-arduradunekikoa ekonomikoki ere aztertu egin beharko da, bere osoan. Programaren kosturik handiena hortxe joango zaigu, eskualde-arduradunak ordaintzen. Programaren kostuetako bat hau da, eskualde-arduradunena.

#### 4.3. Memoriak eta aldizkariak

Hauxe da, azkenik, gure lankideen egitekoen artean aipatu nahi duguna. Agirien bilketa azpimarratu dugu arestian (ikus "Programaren bila-eremuak", kapitulu honetan, 2.2.eko pasarteetan); baina badago besterik ere, eta seguraski lan handirik gabe bil litekeena. Begira.

*Memoriak.* Ikastola askotan urteroko "Memoriak" edo antzeko berriemateak idatzi izan dira; Memoria/urtekari ekonomikoak bezala pedagogikoak, kirolekikoak, eta bestelako berriemateak baliozkoak dira guretzat. Batzutan gordeta daude ikastetxeko artxibo edo liburutegian; bestetan, berriz, hor nonbait dabilta, agian paper solteetan eman zirelako ere bai. Urtez urteko Memoria hauek denak bildu behar ditugu, ahal bada beren originaletan, eta besterik ezean, fotokopiatan edo fotokopiatzeko. Gure arduradunen eskuetan uzten dugu asmo hau.

*Aldizkariak.* Mota anitzetako aldizkariak ezagutu dira ikastoletan: urtekari gisakoak, ospakizunen baten ingurukoak, aldizkako berriemaileak, ikasle-irakasleen argitalpenak... Denak dira guretzat interesgarriak. Mese-de bat eskatuko genieke gure lankideei: begira dezatela ikastola bakoi-tzean, edo herrian, zer egon den ikastolarekin zerikusirik duen horrelakorik, eta eman diezagutela guztiaren berri. Baliozko bilketa izan liteke hau ere.

#### 5. Lan-fitxak

Kapitulu honetan azaldu dugun "Leizarraga" Programa gure lankidegai herritarren artean banatzean, laster ikusi ahal izan genuen, hitzeko azalpen orokorrako haiek zerbait zehatzagoz osatu beharra zegoela. Albiste-bilketarako tresna zehatzagoak eskatzen zitzaizkigun. Somatzen genuen hutsune hura betetzeko sortu dira, ba, ondoren datozen lan-fitxa hauek. Programaren bigarren eta hirugarren epeetan (ik. kapituluko 3.1. eta 3.2. pasarteak), gure lanbidean lanabes erabilienak izan direlako emango dira hemen argitara, ikertzaile eta kritikariak ezagut ditzan.

Behar izan diren guztietan oharrez hornituta aurkeztuko genizkien hauek gure lankideei, eta oharrekin batera, adibide gisa, fitxa eredu bat bete ere egin genuen, lankideei ahalik argibiderik osoenak ematearren.

Fitxetako bat ("Eskualde-kronograma") ez da lankideek betetzeko, EHIHren idazkaritzan baizik, baina lankideei pasa egin zitzaizen hau ere, "Kronograma historikoa"k zein azken helmuga duen erakusten bait zuen fitxa hark.

Jakina denez, honelako fitxa-egituren atzetik, normalean, beti egon ohi da errealtateari buruzko gogoetaren bat. Gure kasuan, errealtate hausnar-tuak bi aurpegi izan ditu, gainera: bata, bilkizun ziren agiri eta paperei zegokiena, eta bestea, bilketaren gure lan-antolamendu sozialari (herritarrak eta hedapen handikoa izanik) premiazkoa zuen erosotasuna sortu beharra. Programa burutzearan ikusiko da zein etekin praktiko ateratu zaien fitxei.

Fitxa hauek ez ziren asmatu “Leizarraga” Programaren hastapenean, lanean hasi eta lankidegoaren ezinak eta erraz-nahiak eskatuta baizik. Lanabes soil honek ongi lagundu du ondoko lana, lankidegoaren halabeharrezko nagitasuna erabat baztertzera iritsi ez bada ere.

Baina Programa hau gauzatzean, fitxazko lanbide honek, Programa bera birbideratu egin du (zenbateraino desbideratu duen esatea zailagoa izango litzateke, egitekoa oraindik bukatzeke dagoenez). Hasieran, *idazkien bilketa* azpimarratu genuen; azken hilabeteetako fitxa-lanak, ostera, *idazkien berriematea* gehiago azpimarratu du “Leizarraga” Programa honen barruan.

Hala ere, bilketa —hori uste dugu— ez da ahantzi. Alderantziz, berriemateko, aurretik fitxa-lanbide honek paperak *non* eta *zenbat* ditugun jakitera behartu ditu lankideak. Honek, batez ere aktei buruzko lanaz balio du, eta ez hoinbeste Programa honetako beste bila-eremuetarako (ik.kapitulu honetako 2.2. pasartea).

Eta lanaren balio dokumentatuaz esan dezagun zerbait. Bildutako berri bakoitzak, dagokion bere albiste-iturriaren notizia eta dokumentu-agiria beharko litzateke izan ondoan. Albisteekiko frogak bilduma hori aipatu izan badugu ere, ez gara ausartu lankidegoari dena osorik eskatzen. Gerorako hutsunea edo eginkizun geratuko dena, zabala eta handia izango da, beraz, lehen albiste-bilketaren ondoren. Ezinbestean horrelaxe egongo da, ba, lana, fitxaketa amaitzean.

### 5.1. Ikastola bakoitzeko albiste-arduraduna

Fitxa honen bidez ikastetxe bakoitzeko albiste-biltzailearen nortasuna mugatu nahi da, beti ere bere albiste-esparruaren ezagugarriak ere eskainiz. Horretarako ikastolarekiko xehetasunak eskatu ditugu lehenik, eta ondoren bi eremutan banatu ditugu arduradunarekiko berriak.

Alde batetik, arduradunak berak beteko ditu bere nortasun-zertzeladak, eta bestetik, Programaren barruan gure lankideari zeregin hauetarako ikusten dizkiogun profila eta gaitasunak azpimarratuko dira.

Lehen fitxa honen bidez gure lan-antolamenduaren sareko lankidegoaren fitxategi eraginkor bat eratu nahiko litzateke.

### **Fitxa 5.1**

Ikus orrialde

#### 5.2. Ikastola bakoitzeko informatzaileen fitxa

Herriko ikastolaren inguruko berriemate historikoak ez du bere jatorrizko albiste-iturria bereziki aurreko fitxan aipatu den albiste-arduradun edo bil-tzailearengan. Tokian tokiko berrien jatorburua berriemaileen eskuetan dago, eta berauek dira albiste-arduradunari albisteak pasako dizkietenak.

Fitxa honen bidez, hortaz, ikastetxe bakoitzaren albiste-harrobia da zaindu nahi duguna, ikastola bakoitzak izan ditzakeen berriemaile onen eta hautatuenak gure fitxategira bilduz.

Albiste-arduradunari dagokio, behar direnekin hitz egin ondoren, informatzaileen zerrenda hau egitea. Ez da ahantzi behar, gainera, zerrenda luzeak baino zerrenda ongi aukeratuak eta mugatuak direla behar ditugunak. Izan ere, ugaritasuna ez da hemen laguntzarik onena; egin kontu ikastola bakoitzeko bost-hamar izen eman orduko, milaka lagunetan gabil-tzala berehala.

### **Fitxa 5.2.**

Ikus orrialde

Fitxarekin batera ondorengo testu hau bidali zitzaien gure lankideei, berori betetzeko argibideak emanez:

#### **Informatzaileen fitxa: Fitxa betetzeko oharrak**

*Fitxa hau EHIH Proiektuko "Leizarraga" Programaren barruko fitxa bat da, ikastola bakoitzari buruzko argibide- eta informazio-emaileen albisteak jasotzeko hain zuzen. "Ikastola bakoitza" esatean zera esan nahi da: aurtengo urte honetan (1990-1991) izen zehatz bat eta nortasun juridiko jakina dituen ikastola bakoitzari dagokion fitxa (dena dela, aurtun izen jakin hori daraman ikastolak, lehenagoko beste zenbait ikastolaren historia ere izan dezake aurreko urteetan, eta informatzai-*

Euskal Herriko ikastolaren Historia (EHIH)  
LEIZARRAGA Programa



Ikastola bakoitzeko  
**ALBISTE-ARDURADUNA**

**A** Ikastolaren xehetasunak

Ikastola-izena (1990-1991)	Herria
Helbidea/Telefonoa/Fax-a	Besterik

**B** Albiste-arduradunaren berriak

Izen-deiturak	Herria (bizilekua)/Posta-kodea
Etxeko helbidea/Telefonoa/Fax-a	Lantegiko helbidea/Telefonoa/Fax-a

**C** Albiste-arduradunaren profila\*

\* Albiste-biltzaile edo emaile bezala begiratzuz, ikastola bakoitzari dagokion albiste-arduradunaren profila zein den adieraz liteke hemen, eta informatzaileekiko harremanetarako dituen gaitasun berri eman bertan.

**D**

Fitxa-egileak	Fitxa-data	Herria
---------------	------------	--------

1991-05-14

Euskal Herriko ikastolaren Historia (EHIH)  
LEIZARRAGA Programa



**Ikastola bakoitzeko  
INFORMATZAILEEN FITXA**

**A** (1) Ikastola-izena (2) Herria

--	--

**B** (3) Izen-deiturak (4) Helbide-telefonoak (5) Oharra


**C** (6) Fitxa-egilea (7) Fitxa-data (8) Herria

--	--	--

OHARRA: Orri bakoitzean bost informatzailearen albisteak bakarrik eman litezke: gehiagorik denean, ondo-ko orrietan eman. Orri bakoitzari goian zenbakia eman. -Ikus beste orrian epigrafe bakoitza betetzeko oharrak.

1991-05-04

*leak aukeratzean, lehenagoko beste haiek ere gogoan izan behar dira).*

**A**

(1) IKASTOLA-IZENA: Gaur egun (1990-1991) bizirik dagoen ikastola-ren izena(k): Batez ere izen ofiziala, eta agian, horrelakorik balego, izen herritarra ere bai.

(2) HERRI: Ikastolak egoitza ofiziala duen herriaren izen ofiziala (eta Euskaltzaindiaren euskarazkoa).

**B**

(3) IZEN-DEITURAK: Informatzaile hautatuen izenak eta deiturak. Informatzaileak aukeratzeko, paper idatziak izan ditzaketenak, eta/edo zer konta aberatsa dutenak, behar ditugu.

(4) HELBIDE-TELEFONOAK: Informatzaileen helbidea (etxekoa), eta urrutizkina (etxekoa, lantegikoa nahiz biak).

(5) OHARRA: Informatzaile bakoitza interesgarri, zergatik eta zein informaziotarako izan litekeen adieraziko da.

**C**

Atal hau orrialde bakoitzean beteko da, nahiz eta ikastola bakoitzaren informaziorako orri bat baino gehiago erabili izan.

(6) FITXA-EGILEA: Fitxa hau nork bete duen esango da laukitxo honetan.

(7) FITXA-DATA: Azken datuak eman diren egunaren data.

(8) HERRIA: Fitxa-egilearen egoitza-herria. 1991-05-04

**Fitxa 5.2. (eskuz beteta)**

*5.3. Ikastola bakoitzaren kronograma historikoa*

Gaztea da ikastola, baina baditu sarritan 30 edo 25 urte ere. Hamarkada horietan, izan du gorabehera eta aldarterik. Jaiotako batzuk hil egin ziren, besteak hazi eta hedatu. Zenbait, bitan eta hirutan banatu; inoiz, bata bestearekin elkartu, edo ondoko ikastola nahiz eskolaren batean aurkitu bere segida samurrago bat...

Denboraren harian egindako bidearen albiste kronologikoa biltzeari lehenatasuna emango zaio Programa honetan, fitxa honen bidea. Izan ere, albistegi kronologiko xehatu bat eraikiko den unetik, gertakarian ongi leku-tuak izango bait dira ikertzaile eta historilarientzat, eta posible gertatuko da

orduan begiratu batean zernahi aztertu nahi dela ere, edozein jazoera bere testuinguruan ikustea.

Eta hau egia izango da, ikastola bakoitzari buruz, baina zailagoa den beste zerbait ere eskuetan izango dugu: Euskal Herri osoko ikastola guztiak lehen kronologia nahiko landu batean biltzea. Osotasun honek dituen zailtasunak gogoan hartuta, ikastunek, hola uste dugu, estimatuko dute, beren lanetarako, gure zerbitzu apal baina lagungarri hau.

“Kronograma historikoa”-ren zeregina denboraren hari horretan arbola generalogikoak osatzea da, ikastolak beren historiaren arabera multzoka aurkeztuta eta elkarrekin lotuta aurkeztu ahal izateko.

Beste era batera esanda: Kronograma historikoek, Proiektuaren Zuzendaritza “Eskualde-kronogramak” osatzera eraman behar dute. Oraingoz, hona beste fitxa hau, lankideen artean banatu genuen bezalaxe:

### **Fitxa 5.3.**

Ikus orrialde

#### **Kronograma historikoa: Fitxa betetzeko oharrak**

*Fitxa honek ikastola bakoitzaren gertakari historiko nagusienak bildu nahi ditu: sorrera, legezko aitortpena, eraikuntza berria, besteren batekin bateratzea, barruko eten garrantzizkoren bat, erabaki larriren bat, etab. Ondoren datorren laukian urtea, gertakariaren albiste laburra, etab. emango dira: gertakari edo albiste bakoitza horizontalean osatuko da, ondoko oharretan adierazi den bezala.*

#### **A**

(1) IKASTOLA-IZENA (1990-1991): Ikastolaren gaur egungo izen eta nortasun juridikotik hasiko gara argibideak ematen. Baina, izen legala eta herritarra ezberdinak baldin badira, biak idatziko dira hemen.

(2) HERRIA: Izendatutako ikastolaren egoitza ofizialaren lekua adierazi behar da.

#### **B**

(3) URTEA(K): Gertakariaren edo informazioaren urtea emango da; data zehatza ematerik balego, hobe oraindik. Batzuetan, ikasturtearen bi mugak eman beharko dira, honela, adibidez: 1964-1965. Data bakar



batekin doazen albisteak asko direlako, lauki-lerro bakarra nahikoa ez balitz, hurrengoaz ere balia liteke.

(4) GERTAKARIA: Ikastola bakoitzak izan ditzake gertakari bereziak, baina gehienetan, ikastola guztietan dauden oinarrizko gertakariak izango dira gogoan hartzekoak: sorrera, lekuz aldatzeak, egoitza berria, debekuak, legezko aitorten ofiziala, beste erakunderen batek bere babesa uztea, izen-aldakuntzak, etab.

(5) EGOITZA-LEKUA(K): Ikastola bat berak hainbat gela-leku eta lantoki izan ditu. Leku ezberdinen albistea jaso beharra dago, ikastolaren garapen-arazoak ispliatzen bait dituzte haiek. Puntu horretan, ba, egoitza nagusiaren helbidearekin batera, gela, jolastoki eta abar sakanatuen albistea ere jasoko da.

(6) IKASTOLA-IZENA: 1991ko ikastola gaur deneraino iritsi aurretik egon da behin baino gehiagotan, urteak zehar, izen-aldakuntzarik: Unean uneko izen horiek ere (orain beharbada desagertuta daudenak) jaso beharko dira hemen.

(7) ALBISTE-EMAILEA: Argibide puntual bakoitzaren emailearen izena jasotzea komeni da, batez ere argibide hori dokumentu idatzi batekin ez datorrenean, eta informatzaileak albistea hitzez bakarrik eman digunean.

(8) OHARRA: Aurreko puntuetako albisteei zerbait gehitu nahi zaizkion erabil daiteke txoko hau. Berau nahikoa ez balitz, ohar bat eman zenbakiz, eta ondoko beste paper batean idatz ohar zabalagoa, gero dena fitxari lotuz.

## C

(9) FITXA-EGILEA: Fitxa bakoitzaren informazio-arduradunaren izen-deiturak emango dira hemen. Osorik bere kontura betea izan liteke fitxa, edo 7. puntuan aipatu dituen albiste-emaileen laguntzarekin, baina informazio guztiaren erantzule denaren izena emango da 9. laukitxo honetan.

(10) FITXA-DATA: Fitxa erabat bete den egunaren data emango da.

(11) HERRIA: Fitxa-egilearen gaur eguneko bizilekua.

### *Fitxa 5.3.(eskuz beteta)*

#### 5.4. Ikastolen eskualde-kronograma

Aurkeztera goazen fitxa hau ez da —adierazi dugu lehenago ere— gure lankide edo eskualde-arduradunek betetzeko. Nolabait ere, aurreko fitxaren (5.3. fitxarena, alegia) argigarria da bai gure lankideentzat eta baita irakurlearentzat ere.

Hain zuzen, fitxa honek erakusten digu eskualde bateko "Kronograma historiko" guztiak bildu ondoren zein modutako sintesi historiko batera iritsi nahi dugun eskualde bakoitzeko argibideekin.

Fitxa hau EHIHko Idazkaritzak beteko ditu bere garaian, eta premiazko iruzkinekin argitaragarriak izan litezke egunen batean, ikastolen historiaren gida-sintesi kronologiko bezala. Oraingo, bego, lankideen artean zabaldutako lan-material bezala.

#### **Fitxa 5.4**

Ikus orrialde

#### **Eskualde-kronograma: oharrak**

*Honela deitu dugun hau, "Kronograma historikoa" deituriko fitxetatik eta beste datu osagarriekin egingo da. Hemen hau zuei, lankideoi, bidaltzean ez dizuegu zuek ere beste honelakorik eskatzen, baina egunen batean honelakoak osatzeko Idazkaritzari laguntzeko eskatuko dizuegu eskualde-arduradunei. — Lauki honetan eman den adibidea (Nafarroa-ko Sakanakoa) gure asmazioa da, eta errealitatearekin ez du zerikusirik; hala ere, balio lezake adierazi nahi duguna erakustera emateko. — Eskualde-kronograma horretan hiru alde nagusi topa litezke:*

- a) Alde geografikoa: *Eskualde geografiko bat hartuko dugu, ikastolen historian nortasun berezia izan duen eskualderen bat, eta ikastolaren prozesu eta gertakari nagusiak bertan lekututa begiratuko ditu kronograma honek, herri eta ikastola bakoitzaren presentzia erakutsiz.*
- b) Alde kronologikoa: *Denboran zehar gertatutakoak bildu nahi ditu fitxa honek, urtez urte, historian bazterrezina den informazio hau ere jasoz.*
- c) Alde sozio-instituzionala: *Ikastola-munduan egon diren eta beronek gainerako irakas-sistemarekin izan dituen une nagusienak azpimarratu nahi ditu grafikoak (ikastolen arteko laguntza eta gatazkak, bateratze eta etenak eta denen arteko zerikusi instituzionalak).*

Euskal Herriko ikastolaren Historia (EHIH)  
LEIZARRAGA Programa



Ikastola bakoitzaren  
**KRONOGRAMA HISTORIKOA**

**A**

(1) Ikastola-izena (1990-1991)	(2) Herria
--------------------------------	------------

**B**

(8) Oharra				
(7) Albiste-emailea				
(6) Ikastola-izena				
(5) Egoitza-lekua(k)				
(4) Gertakaria				
(3) Urtea(k)				

**C**

(9) Fitxa-egilea	(10) Fitxa-data	(11) Herria
------------------	-----------------	-------------


Euskal Herriko ikastolaren Historia (EHIH)  
LEIZARRAGA Programa

Ikastolen (1)

## ESKUALDE KRONOGRAMA

(2) ESKUALDEA .....

(3) Egilea	(4) Data
------------	----------



*Horiek gogoan ditugula, hona laukitxo bakoitzari ohar labur bat.*

(1) **ESKUALDE-KRONOGRAMA:** Kasu bakoitzean eskualde logikoena mugatzea ez da batere erraza izango, gogoan har urteetan zehar aldakorrak izan direla ikastolarteko harremanak eta, agian, lotura instituzionalak ere, eta garairen batean “eskualde” batekoa zena, gerora beste “eskualde”-ren batera pasa dela. Salbuespen hauek ere aditzera emango dira, baina oro har eskualde hautatuaren nortasuna zainduz (nahiz eta albisteez erakutsiko digutenaren arabera beharbada aldatzekoa izan aurrerago).

(2) **ESKUALDEA:** Informazio-bilketa egiteko aukeratu dugun eskualdea da hau. Ez du esan nahi horrek, gero bere mugak aldatu beharko ez dizkiogunik, baina lan informazio-bilketa horretarako bide-errazgarri izango delakoan hautatutako eskualdea da hemengo hau.

(3) **EGILEA:** Eskualdean laukia burutu duenaren izena eman behar da hemen.

(4) **DATA:** Laukia eginda utzi den egunaren data.

(5) *Lauki kronologikoa:* Urteak eta datak ongi zehaztu behar dira, eta berdin ikastolarteko loturak. Komeniko da, aparteko orri batean, premiazko ohar argigarriak eginez joatea. Dena den, “Kronograma historikoa” deituriko fitxan esandakoak dira, berez, lauki kronologiko hau argituko dutenak.

(6) *Herriak:* Eskualdeko ikastolagintzan nortasun nabaria izan duten herri eta auzoak hartuko dira gogoan, ikastola bakoitza dagokion tokian lekutuz.

### 5.5. Akta-albisteen fitxa

“Leizarraga” Programaren barnean, bildu behar direnetatik lekurik nagusiena aktei eman diegu. Hemen, lan-fitxategi honetan ere, akten albistek arduraz bereziz jaso nahi ditugu. Horregatik prestatu da fitxa bikoitz hau.

Mota guztietako biltzar eta bileretako aktak hartu nahi dira aintzakotzat: Batzar Nagusi, Batzorde Zuzendariaren bilera eta zernahi Batzorderen bilkuren aktak, alegia.

Fitxaren asmoa akten inbentario ahalik osoena biltzea da, horrela ikastolen historiari bizkarrezurrik sendoena emanaz. Ikus dezagun, hori lortzeko, lankideei eskatu zaiena:

**Fitxa 5.5. (lehenorrialdea)**

Ikus orrialde

**Fitxa 5.5. (bigarrenorrialdea)**

Ikus orrialde

**Akta-albisteen fitxa: Fitxa betetzeko oharrak**

*Fitxa hau EHH Proiektuko "Leizarraga" Programaren barruko lan-fitxetako bat da, eta ikastola bakoitzeko Akten albistek jaso nahi ditu. Horretarako bi orri prestatu dira: Lehenengoa, "Akta-albisteen fitxa" besterik gabe dioena, eta bigarren bat, titulu berarekin baina "bis" batekin eman dena (bis hauetatik behar adina har daiteke, beti ere eskuineko goiko zirkuluan korrelatiboki zenbakizatuz). Hona, ba, orriok betetzeko zenbait ohar:*

**A**

(1) AKTA-ALBISTEEN FITXA. Bizpahiru ohar behar du honek.

a) Lehenengo oharra, "Akta" hitzari dagokio: Zer da Akta bat? Ez dugu kontzeptua gehiegi zehaztu nahi; ez daukagu zehazterik ere, bilaketarako komeni ez delako. Esan dezagun zera: Bileraren baten albistek emango dizkigun paper idatzi "ofiziala" da, edo behintzat bileraren testigu izandakoren baten eskutik datorkiguna (erabilitako gaiak, partaideen zerrenda, non eta nola egin zen, etab. jakiten lagun dezakeena). Adiera zabal hauxe mantendu nahi dugu, bildu nahi ditugun paperetara iritsi ahal izateko. Batez ere, honela zabalki begiratzea praktikoagoa da ikastolaren lehenen urteetarako.

b) *Noren* edo *zeren* Aktak? Bileramota asko egin izan da ikastoletan, talde edo erakunde ezberdinen bilerak. Aktak ere, hortaz, protagonista ezberdinenak izan litezke. Gure lehenengo ardura, Biltzar edo Batzar Nagusien Aktak edo Batzorde Zuzendari Nagusiaren (Juntaren) Aktak jasotzea da. Lan handiegitarra pasa gabe, bestelako Aktarik biltzerik balego, ondo legoke hori ere; baina, eskatu, batez ere bi talde zuzendari

Euskal Herriko ikastolaren Historia (EHHH)  
LEIZARRAGA Programa



**AKTA-ALBISTEEN FITXA** <sup>(1)</sup>

**A**

(2) Ikastola-Izena (1990-1991)	(3) Herria
--------------------------------	------------

**B / a**

(4) Batzar Nagusien Aktak

(5) Daudenak: datak	(6) Ez daudenak: datak	(7) Oharrak

**B / b**

(8) Batzorde Zuzendari Nagusiaren Aktak

(5) Daudenak: datak	(6) Ez daudenak: datak	(7) Oharrak

**B / c**

(9) .....-ren Aktak

(5) Daudenak: datak	(6) Ez daudenak: datak	(7) Oharrak

**C**

(10) Fitxa-egileak	(11) Fitxa-data	(12) Herria
--------------------	-----------------	-------------

OHARRA: Orri gehiagorik behar balitz, "Akta-Albisteen Fitxa/bis" erabil liteke.

1991-05-10

Euskal Herriko ikastolaren Historia (EHIH)  
LEIZARRAGA Programa



(1) bis

**AKTA-ALBISTEEN FITXA**

**A**

(2) Ikastola-izena (1990-1991)	(3) Herria
--------------------------------	------------

**B /**

.....-ren Aktak

(5) Daudenak: datak	(6) Ez daudenak: datak	(7) Oharrak

**B /**

.....-ren Aktak

(5) Daudenak: datak	(6) Ez daudenak: datak	(7) Oharrak

**B /**

.....-ren Aktak

(5) Daudenak: datak	(6) Ez daudenak: datak	(7) Oharrak

**C**

(10) Fitxa-egileak	(11) Fitxa-data	(12) Herria
--------------------	-----------------	-------------

OHARRA: Orri gehiagorik behar balitz, "Akta-Albisteen Fitxa/bis" erabil liteke.

1991-05-10



horien Aktak eskatzen ditugu "Leizarraga" Programan: Batzar Nagusia-renak eta Batzorde Zuzendariarenak.

(2) IKASTOLA-IZENA (1990-1991). Egun, adierazitako ikasturte horretan alegia, bizirik dagoen ikastolaren izena(k). Batez ere izen ofiziala, eta agian, horrelakorik balego, beste izen herritarra ere bai.

(3) HERRIA. Ikastolak egoitza ofiziala duen herriaren izen ofiziala (eta Euskaltzaindiaren euskarazkoa ere bai).

## B

*Sail honetan Akten datak bilduko dira: aurkitu ahal izan direnenak ezezik, baita, aurkitu gabe ere, badaudela dakigunen Aktak edo akta-ordekoak ere. Batzar Nagusien eta Batzorde Zuzendariaren aipua espreski egin dugu hemen; gainerako talde eta erakundeena, berriz, libre uzten da, albiste-biltzaileak edo eskualdeko arduradunek beren ahalbideen arabera joka dezaten. "Leizarraga" Programak, oraingoz, bi haienak bilatuko ditu bereziki.*

(4) BATZAR NAGUSIEN AKTAK. Ikastoletan, urtean behin edo arazo larrienetarako inoiz egin izan diren bilera zabalak deitzen ditugu "Batzar Nagusia". Urteak zehar, "Batzar" horrek modu ezberdinetan antolatutako bileratan gauzatu da, agian; baina, edozein erataria ere, une bakoitzean ikastolak izan duen erakunde organiko garaiena da "Batzar Nagusi" hori.

(5) DAUDENAK: DATAK. Aurkitu diren Akten aipua, bakoitzak duen dataren bidez egingo da. Datarik gabe balego, harkatzez emango zaio ustezko data bat, zalantzazkoa denetan parentesi artean aditzera emanez: (?).

(6) EZ DAUDENAK; DATAK. Aurkitu ez direnetarako, bilatzeko aztar-narik balego, adierazi egingo da hori ere; eta izan omen diren Akten data-erreferentziarik balego (bilerak noiz egin ziren badakigulako edo), hori ere bai.

(7) OHARRAK. Zernahi adieraz liteke hemen, laukian bertan nahiz bertatik beste orri garbi batera paseaz. Aktak non eta nola dauden (ikastolan, partikularren etxean, etab.), biltzeko erraztasun nahiz eragozpenak, etab. Guk alde zuzenetik asma ez ditzakegun xehetasun guztiek hementxe dute beren lekua.

(8) BATZORDE ZUZENDARI NAGUSIAREN AKTAK. Batzar Nagusietan hautaturik, nahiz "gestora" gisa edo, urtean zehar ikastolaren

gobernuaz arduratu ohi den talde iraunkorra dela esango dugu Batzar Zuzendaria. Ikastolaren une historiko ezberdinetan ez da beti errazki definitu, baina "Junta" edo deitu izan dena da Batzorde Zuzendaria, fitxa honetako lanean.

(9) .....-REN AKTAK. Batzar Nagusi eta Batzorde Zuzendari-  
riez gain, egon da ikastolan besterik ere. Azpibatzerdeak, adibidez,  
ugari izan dira: Batzorde Ekonomikoa, Pedagogikoa, Irakasleen Tal-  
dea, Ikastetxeko Klaustroa, etab. Gure oraingo bilaketan ez ditugu  
hauen Aktak bereziki bilatuko, baina, eskuetara baletozkigu, komeniko  
da horien berri ere jasotzea. Hemen eta ondoko orri bis-etan egin liteke  
hori..

### C

*Atal hau orri guztietan beteko da, nahiz eta ikastola bakoitzaren infor-  
mazioarako orri bat baino gehiago erabili.*

(10) FITXA-EGILEA. Fitxa hau nork bete duen esango da laukitxo  
honetan.

(11) FITXA-DATA. Azken datuak eman diren egunaren data.

(12) HERRIA. Fitxa-egilearen egoitza-herria.

### **Fitxa 5.5. (eskuz beteta)**

(bi orriak)

#### **5.6. Ikastola bakoitzarekiko argitalpenen fitxa**

"Leizarraga" Programarako azken fitxa honetan Memoria eta argital-  
pen-mota guztien berriematea jaso nahiko genuke (ik. kapitulu honetan 4.3.  
pasarte).

Argitalpenak ez dute, nahitaez, inprimatuak izan beharrik; aski da  
gutxieneko formaltasunen batekin datorren liburu, liburuska edo aldizkaria.  
Baita hauetako artikulua solteak ere. Gogoan izan ditugun multzo ezberdinak  
aipatuta daude fitxako sail-buruetan.

Euskal Herriko ikastolaren Historia (EHIH)  
LEIZARRAGA Programa



## Ikastola bakoitzarekiko ARGITALPEN FITXA

### A Ikastolaren xehetasunak

Ikastola-izena (1990-1991)	Herria
----------------------------	--------

### B argitalpen-mota ezberdinak

Arautegi Orokorra(k). Arautegi bereziak.	(Urteak)	Oharra

Memoriak. Aurrekontuak	(Urteak)	Oharra

Barne-argitalpenak (barne-aldizkariak...)	(Urteak)	Oharra

Kanpoko argitalpenak (aldizkari, liburu, artikulua...)	(Urteak)	Oharra

### C

Fitxa-egilea	Fitxa-data	Herria
--------------	------------	--------

1991-05-14

### III.

## AHOZKO HISTORIARAKO LANBIDE-ARAUAK

Atalburu hau hiru parte nagusitan banatu dugu: lehenengoan iker-programen araubideak bildu ditugu; bigarrenean, oster, gure EHIHren lan-proposamenak aurkeztuko dira, eta hirugarrenean, azkenik, gogoeta honen ondorioak datoz.

## **1. AHko iker-programen araubideak**

Edozein zientzia edo bide metodologiko berrik bezala, Ahozko Historiak ere, aurrera egin ahal izateko, lanbideak beren jatortasun zientifikoan definitu egin behar izaten ditu. Ahozko Historia —Historiografiaren barnean— ez da horretan salbuespen bat.

### *1.1. Orientabide orokorrak*

Dagoeneko AHZ azaldu diren albiste “sozialen” ondoren (ik. 1. partean, 4. atala), egoki izango da, pauso berri bat emanez, Ahozko Historiaren lanerako nazioartean ikertzaileek, balio berezia aitortuz, onartu ohi duten lan-kodea hona ekartzea.

Ahozko Historiako argitalpenak —beste disziplina hurbil batean, Soziologian alegia, gertatutakoaren antzera— arazo metodologikoez behar eta berriz kezkatuta ageri dira, zalantzarik gabe inguruko eztabaidek zirikatuta eta beren zientzi eremuaren status-a ongi finkatu nahiz edo. Hori dela eta, ahozko historilarien Elkartek ere ahalegindu dira, agiri landu propioen bidez, bazkideei irtenbide metodologikoak iradoki eta metodoen aldetik iker-baldintzak zer-nolakoak izan beharko luketen deskribatzen.

Ahozko historilarien Elkarteetatik Estatu Batuetako bereziki arduratu da, agiri berezietan, laguntza metodologiko hauek landu eta ikertzaile gazteei eskaintzen. Hala nola, 1968an aditzera eman zituen Elkarteak bere lanetan zaindu nahi zituen AHko xede eta norabide orokorrak. Agiri hau, bazkideen artean landutako dokumentua zen, berauen artean ohorezko kode zientifikotzat onartua eta lehenik bazkideei zuzendua zen. Adituen artean errespetagarritasunik nahi zuenak kode hori onartu eta gorde beharra zuen bere ikerlanetan. "Komunitate zientifikoaren" benetako jator-tasun-arauegia izan nahi zuen agiria.

Hitzez hitz zera zioen dokumentu hark:

[1] *Elkarrizketatuak AHren helburu eta prozeduren jakinaren gainean egon beharko du, eta orobat eskuartean den proiektuaz. Iragana ulertu ahal izateko AHk duen garrantziaz jabetuta, eta nahitaez ezartzen dituen ahalegin eta gastuak gogoan izanik, elkarrizketatuak balio iraungarriko informazio fidagarria eskaintzen saiatu behar du. AHk bere baitan dituen elkarrekiko eskubideak ezagutu egin behar ditu solaskideak, halanola, argitalpen-zereginetako eskubideak eta agiriaren konfidantzazko balioa, eskubide literarioak, erabilpen aurreratua, harreman fiduziaroak, erregaliak eta dokumentuaren era guztietako xedapen-zehaztapena eta berorren hedapen- eta erabilera-mugapena. AHren prozeduretan elkarrizketatuak nahiago dituen lehentasunek agindu behar dute, eta alde zuzenetik onartu diren akordioek, eta lehenespenean eta akordio horiek arretaz idatzi behar dira jasotako agiriaren xedeetarako*

[2] *Elkarrizketatzaileek, arreta guztia jarri beharko dute elkarrizketatuei etor dakiekeen kalte sozialen arriskueta edo berorien ustiapenaren aurka, eta elkarrizketetan giza duintasunari dagokion begirunea erakutsi beharko dute. Balio iraungarriko informazioa eskainiko duenaren uste frogatuaren gain egingo da elkarrizketatuaren hautapena. Galdera zoli eta sarkorren bidez sustatu beharko du elkarrizketatzaileek elkarrizketa informatiboa; horretarako, elkarrizketatuaren esperientziaz eta aurrekoek jakinaren gainean egon behar du, eta, ahal delarik, elkarrizketa izan aurretik aztertuta izan behar ditu elkarrizketatuarekiko iturriak. Elkarrizketatzaileek berehalako premieta-tik harago doazen galderak ere egin beharko dituzte, elkarrizketa bakoitza, beste ikertzaileen faboretan, ahalik osoena izan dadin; eta, ahal denetan, materiala ikerlan orokorretarako eskueran izango den biltegi batean gordeko da. Elkarrizketatzaileak, AHko lana egiteko zein bide hartu den azalduko dio elkarrizketatuari, eta, lanbide*

horretan bi aldeek izan ditzaketen eskubideekiko itxarokizunak agertuko dizkio, argitalpen-zereginetako eskubideak eta agiriaren konfidantzazko balioa, eskubide literarioak, erabilpen aurreratua, harreman fiduziarioak, erregaliak eta dokumentuaren era guztietako xedapen-zehaztapena eta berorren hedapen- eta erabilera-mugapena. Elkarrizketak objektibotasun-izpirituz egingo dira, eta bi partaideen artean, elkarren artean, hitz emandako baldintza eta xede amankomun eta akordioen arabera honeski eta zintzotasunez. Elkarrizketatuak konfidentziazkotzat jo duen informazioa babestu egingo du elkarrizketatzaileak, eta ez ditu ezaguteraziko, eta arau hau berdin gordeko du bai elkarrizketako informazio zintaz grabatuekin, bai aparte emandakoekin.

[3] Erakunde babestaileek (edo biltzaile berezituak), agiriak errazki era-biltzeko moduan gorde behar dituzte, beti ere elkarrizketatuek ezarritako baldintzen barnean; orobat, elkarrizketa bakoitzaren sorkuntza-  
ren eta trataeraren erregistro arretatsu bat eraman behar dute; elkarrizketa guztiak identifikatu, aurkibidetu eta katalogatu; eta, ikerkuntzarako prest dagoenean, berorren egoeraz berri eman. Trebetasun profesionalaren eta elkarrizketatzeko gaitasunaren arabera aukeratuko dira elkarrizketatzaileak. Elkarrizketatzaileak eta elkarrizketatuak bikote harmoniatsu bat egin behar dute. AHko elkarrizketatu-elkarrizketatzaileek iturrien sorkuntza eta erabilera egokietarako aipaturiko norabideen garrantzia ezagut dezaten arduratuko dira erakundeak.

Xede eta norabide orokor hauetan, AHko lanetan ager daitezkeen arazorik nagusienak azpimarratzen dira, batez ere erantzukizun sozialak; baina orokortasun horietatik pauso berri bat emanez, ageri zabalago eta xehatuago bat onartu zuen "Oral History Association" Elkarte berak 1979an. Orain gutxi izan da berritua berau (1990ean argitara emana). Itzulpen-ukitu gutzi batzurekin aurkezten dugu hemen, guk ere EHIHn guttiz beharrezkoa izango dugulakoan.

Asmo bakoitzarekin dakargu hau hona (ik. 1.2. pasarte osoa): Lehenik, erantzukizunak zein baldintzatan hartu beharko genituzkeen erakusteko eskaintzen dugu, eta bigarren, EHIHren erakunde babestaile eta etor litezkeen ikertzaileei, bideari ekitean, geroko lanaren ezaugarriak deskribatzen dizkiegu, agiri horren bitartez. Puntuz puntu irakurri eta aintzakotzat hartzekoa dela uste dugu, gerora alferrikako arazo kaltegarririk izan ez dezagun, beherago agiri honen aplikagarritasunaz esango direnak ere gogotan ditugula (ik. 3.2.8.).

## 1.2. Ahozko Historia ebaluatzeko araubideak

Zazpi puntu nagusitan banatu dute ondoren datorren iker-gida instituzional hau.: Programaren plangintzari buruzko arauak, ikertzailearen burubide legal eta etikoak, zinta grabatuen trataera, elkarrizketa-gaiei buruzkoak, elkarrizketatzeko arauak, erakunde profesionalekoak ez diren iker-tzaileekiko harremanak, ikasle eta irakasleentzako kodea. Puntu horiek dira ondoren ukituko direnak.

### 1.2.1. PROGRAMAREN/PROIEKTUAREN ARAUBIDEAK

#### **Xedeak eta Helburuak**

- a. Xedeak garbi jarrita al daude? Zenbateraino dira errealistak?
- b. Zeintzu faktorek bultzatzen dute proiektu honen behar nabaria?
- c. Zein da ikerkuntzaren diseinua? Zenbateraino da argia eta errealista?
- d. Finantzaketaren muga, baldintza eta xedeak garbiki ezagutzera eman al dira, finantzaketa horrek Proiektuaren jatoritasun akademikoaren gain izan ditzakeen ondorioak epaitu ahal izateko? Proiektuaren helburuak betetzeko, fondoan asignazio hori nahikoa al da?
- e. Erakundeen arteko harremanek zer-nolako eragina dute proiektuaren xede eta helburuetan.

#### **Elkarrizketatzaile eta elkarrizketatuen hautespena**

- a. Nahi diren xede eta helburuak lortzeko, elkarrizketatzaileak eta elkarrizketatuak zein eratan dira egokiak (edo desegokiak)?
- b. Zeintzuk dira omisio esanguratsuak, eta zergatik egin dira omisio horiek?

#### **Grabaketak eta beren jatorria**

- a. Egindako elkarrizketen grabaketa originalak gordetzeko, zeintzuk dira ezarritako politikak eta xedapenak? Egokiak al dira? Politika eta xedapen hauek hobetzeko, zer egin daiteke?
- b. Nola ematen zaie elkarrizketatzaileei, elkarrizketatuei, pertsonalari eta erabiltzaileei grabaketan, politiken eta prozeduren berri?
- c. Grabaketa-sistemak, zein eratan areagotzen du elkarrizketen erabilgarritasuna eta zein gisatan babesten ditu interesatuen eskubideak?

#### **Langaien eskuragarritasuna**

- a. Elkarrizketen dibulgazioa zenbateraino da zehatza eta espresua?



- b. Elkarrizketei buruzko informazioa nola eman dakieke erabiltzaile posiblei?
- c. Nola erabil litezke elkarrizketak?

#### **Materiala bilatzeko bitartekoak**

- a. Zein da gordelekuan materiala bilatzeko bitartekoen diseinu orokorra?
- b. Materiala non dagoen jakiteko bitartekoak aproposak eta egokiak al dira?
- c. Langaia bilatzeko, zein puntutaraino daude eskura bitartekoak?

#### **Gestioa, betebeharrak eta trebakuntza**

- a. Zenbateraino da eraginkorra programaren/proiektuaren gestioa?
- b. Zein xedapen ezarri dira gestioa miatzeko eta pertsonala begiratzeko?
- c. Zeintzuk dira lanpostuak betetzeko ezarritako betebeharrak?
- d. Zeintzuk dira trebakuntza sistematiko eta erangikorra lortzeko ezarritako xedapenak?

#### **Nola hobe liteke programaren/proiektuaren gestioa?**

##### 1.2.2. ARAUBIDE ETIKOAK/LEGALAK

#### **Zein prozedurari jarraituko zaio elkarrizketatzaileek/programek elkarrizketatuari bere erantzukizuna ezagutu eta aitortzen diotela aditzera emateko? Zehatzago esateko, zein prozedura erabiliko da puntu hauek ziurtatzeko?**

- a. Elkarrizketatua ahozko historiaren programaren/proiektuaren helburu eta xedeez zinez jakinaren gainean al dago?
- b. Elkarrizketatuak programaren/proiektuaren etapa desberdinak zeintzuk diren eta etapa bakoitzean bere partehartzea zein den ongi ezagutzen al du?
- c. Elkarrizketatuari galderak ahalik askatasunik zabalenaekin erantzuteko egokiera emango zaiola, eta arraza, etnia, jenero, klase edo beste edozein ezaugarri sozialen/kulturalen baieztapen estereotipatuak ez dugula ezarriko aditzera eman al diogu?
- d. Elkarrizketatuari, zenbait gairi buruz hitzik ez egiteko eskubidea duela eta zenbait zati mozteko edo (oso zirkunstantzia berezitan) izenik gabe azaltzeko aukera ere bai, esan al diogu?
- e. Elkarrizketatuari, materialak izan ditzakeen erabilera posibleak ezagu-

tzera ematen al dizkiogu?: elkarrizketak gordailu-biltegian uztea; liburu, artikulu, egunkari edo aldizkaritan argitaratzea; eta era guztietako programazio publikotan aurkeztea ere barne.

- f. Elkarrizketatuari argi eta garbi azalduko zaizkio legezko bere eskubideak, ikus edo entzunezko zinta eta transkribapenen gaineko eskubide, titulu eta partaidetzak erakunde edo gizabanako administrariaren bati uzteko hitzarmena edo dohaintza-eskritura sinatzeko eskatu aurretik; eta posible den guztietan materialaren ondorengo erabilera guztiei buruz elkarrizketatuarekin kontsultatu beharra.
- g. Elkarrizketatuarekin aldeztu aurretik egindako akordioak betetzeko baldintzatan al gaude?
- h. Elkarrizketatua ongi informatu al dugu, berari egindako elkarrizketen erabilpenetik (jendaurreko ekintza guztiak barne) meta litezkeen royalty-en ahalbideez eta baliagarritasunaz?
- i. Elkarrizketa eta beste edozein material, elkarrizketatuak erabiltzeko utzi arte, konfidentziala izango dela onartu al da?
- j. Elkarrizketarekin zerikusia duen material guztia kontu handiz argitaratuko dela agindu al da?

**Zein prozedurari jarraituko zaio, elkarrizketatzaileek/programek profesioarekiko beren erantzukizunetan aitortpena eta ohorea segurtatuz izan ditzaten? Zehatzago esateko, zein prozedura erabiliko da puntu hauek ziurtatzeko?**

- a. Elkarrizketatzaileak kontutan hartzen al ditu elkarrizketak publiko egiteko eta ikerketarako erabiltzeko ahalbide posibleak, eta elkarrizketatuei kalterik ez egiten edo probetxu gaiztorik ez ateratzen saiaturik dela agintzen al du?
- b. Elkarrizketatzailea ongi trebatuta al dago eta elkarrizketa profesionaltasunez burutzeko prestatu al da?
- c. Elkarrizketatzailea ongi eskolatuta al dago ukituko diren gaien historiaurreaz.
- d. Elkarrizketa, galderak izpiritu kritikoz eginez egingo ote da eta era berean ahalik eta informazio historiko osatuenarekin?
- e. Elkarrizketatzekoak, eskura dagoen gaiari buruz duten esperientziaren garrantzia kontutan hartuz hautatuko al dira, eta edozein proiektu jakinerako berorien zeharkako sekzio (=cross-section) egokia eginez hautatuko al dira?

- f. Elkarrizketarako erabilitako materialak (zintak, transkribapenak, akordioak eta elkarrizketako prozesuaren dokumentazioa barne) elkarrizketatuarekin egindako akordioen arabera arrazoizko denboraldi baten ondoren gordailuan ezarriko dira; eta, haien erabilera, materialaren erabilpen-akordioen arabera administratzeko moduan izango al da gordailuzaina?
- g. Programaren/proiektuaren metodologiak, xedeak eta helburuak ebaluatu ahal izateko gisan ezagutzera emanda al daude?
- h. Elkarrizketako materialak ongi sailkatuko al dira, elkarrizketatzailearekiko eskerron eta izenona zaintzeko gisan, eta horrek ikerketarako duen erabilgarritasuna ezaguteraziko al da?

**Zein prozedurari jarraituko zaio, elkarrizketatzaileak eta programak, bata bestearikiko dituzten betebeharrak eta erantzukizunez kontziente direla ziurtatzeko? Zehatzago esateko, zein prozedura erabiliko da puntu hauek ziurtatzeko?**

- a. Elkarrizketatzailea programaren helburuez jakinaren gainean jartzea eta betebeharrak legal eta etikoz ongi informatzea egin al da?
- b. Elkarrizketatzailea, Ahozko Historiaren proiektu batean berak burutzea espero diren eginbeharrak zeintzuk direnari buruz ongi informatuta al dago?
- c. Elkarrizketatzailea Ahozko Historiaren programarekiko/erakunde babestua erabiliz dituzten betebeharrak jakinaren gainean jarri al dira, programa/proiektu batean eduki ditzaketan interes pertsonalak kontutan hartu gabe?
- d. Programak eta erakunde babesleak, elkarrizketatzaileak berdintzatzea, konpentsazio egokia ematea eta beren lanetik ondoriozta ditzaketen produktu guztiak beraiei aitortzeko ere prest al daude? Eta, elkarrizketa-partaideen artean auzirik denean ere, landa-lan ihardunerako ohizko profesional-bideen araberrako laguntza emateko?
- e. Elkarrizketatzaileak, elkarrizketatuarekiko eta erakunde babeslearekiko dauzkaten eskubideak eta erantzukizunez ongi informatuta al daude?

**Zein prozedurari jarraituko zaio, elkarrizketatzaileek eta programek publikoarekiko/komunitatearekiko duten erantzukizuna ziurtatzeko? Zehatzago esateko, zein prozedura erabiliko da ondorengo puntu hauek ziurtatzeko?**

- a. Ahozko Historiari dagozkion materialak eta berorietatik sortutako lan guztiak, proiektuan parte hartuko duen komunitatearentzat eskuragarri eta erabiltzeko moduan egongo al dira?
- b. Kanpoko fondoan eta babesaren iturriak ondo zehaztu al dira elkarrizketa edo proiektu bakoitzean?
- c. Elkarrizketatzaileak eta proiektugileak, aztertzen ari den komunitatean beren baloreak inposatzen ote dituzte?
- d. Nola lortuko da zintak eta transkribapenak etikaren aurka ez erabiltzea?

### 1.2.3. ZINTEI/TRANSKRIBAPENEI DAGOZKIEN ARAUBIDEAK

#### **Partehartzaileei buruzko informazioa**

- a. Elkarrizketatzaile eta elkarrizketatuaren izenak garbi adierazita al daude zintan/laburpenean/transkribapenean eta katalogoko materialetan?
- b. Elkarrizketatzaile eta elkarrizketatuari buruz ba al dago informazio biografiko egokirik? Non aurki daiteke informazio hori?

#### **Elkarrizketari buruzko informazioa**

- a. Zintak, transkribapenak, denbora-aurkibideak, laburpenak eta erabile-rarako aurkeztutako beste materiala, zein proiekturen/programaren parte diren adierazita al dago?
- b. Elkarrizketaren data eta lekua adierazita al daude zintan, transkribapenean, denbora-aurkibidean, laburpenean eta katalogoko materialean?
- c. Elkarrizketaren zirkunstantzia edo prestaketari buruz ba al dago elkarrizketatzailearen adierazpenik? Non? Normalean ikertzaileentzat eskura al daude? Nola babesten dira elkarrizketatuaren eskubideak adierazpen horien erabilpen okerraren aurka?
- d. Programaren eta elkarrizketatuaren arteko kontratuei buruzko dokumenturik ba al dago? Zenbaterainoko xehetasunak dituzte? Ikertzaileentzat eskura al daude? Horrela bada, eskubide indibidualak eta pribatutasuna defendatzeko zein garantiarekin?

#### **Elkarrizketaren zintari buruzko informazioa**

- a. Zinta original osoa jasota al dago? Kopia bat ala gehiago?
- b. Zinta originala edo edozein kopia, argitaratua, berrordenatua, moztua edo erantsia izan bada, ba al dago ekintza hori agertzen denekoa agiriren bat, nork, noiz eta zein helbururekin burutu duen adieraziz?

- c. Zintaren etiketan eta katalogoko materialetan agerian azaltzen al da, grabaketaren abiadura, elkarrizketaren maila eta iraupena? Bideoan grabatuta badago, zintaren etiketak eta honi dagokion katalogoko informazioak, formatoa (adib. U-Matic, VHS, 8mm etab.), zein sisteman eskaneatuta dagoen eta entzunezko eta denborazko kodea zein bandatan grabatu den garbi adierazten al ditu?
- d. Transkribapenik ezean, ba al dago bitarteko egokirik erabiltzaileek zintako informazioa aurki dezaten laguntzeko? Zein eratakoa da? Informazioa aurkitzeko bitarteko hauek norik prestatzen dituen jakiteko ba al dago dokumenturen bat?
- e. Ikertzaileek zintak entzun edo ikus al ditzakete? Ba al dago zinten erabilpenari buruzko mugapenik?

### **Elkarrizketaren transkribapenari buruzko informazioa**

- a. Transkribapena zintaren kopia zehatza al da? Transkribapenaren fase bakoitza kontutan hartu al da (testua transkribatzea, gainbegiratzea, mekanografiatzea, editatzea eta azkeneko proben transkribapena irakurtzea barne)?
- b. Erabiltzaileari jakin erazi al zaio zinta originalaren transkribapenean zer-nolako aldaketak eta zenbat sartu diren?
- c. Zein bitarteko-mota prestatu da transkribapena egiteko? Komenigarria eta egokia al da? Nola hobe daiteke?
- d. Transkribapenak non dauden jakiteko edota erabiltzeko ba al dago baldintza-mugapenik? Argi eta garbi adierazita al dago hori?
- e. Elkarrizketarako ba al dago material fotografikorik edo beste dokumentu lagungaririk? Testua hobetzen eta osatzen al dute?
- f. Bideoan grabatuta badago, transkribapenak ba al dauka iraupenari dagokion erreferentziarik eta bestelako ikusizko ezaugarriei dagokien aipamenik?

### **1.2.4. ELKARRIZKETAREN EDUKINARI BURUZKO ARAUAK**

#### **Elkarrizketa bakoitzaren edukinak eta bilduma osoaren edukin meta-tuak laguntzen al dute proiektuaren/programaren helburuak lortzen?**

- a. Zein alderditan lortzen du bere xedea, edo porrot egiten, elkarrizketa bakoitzak, edota bilduma osoak?

- b. Bildumako ikusizko eta entzunezko zintak bata bestearen osagarri al dira elkarrizketaren edukin eta gaiarekiko, alferrikako errepikapenak ebitatuz?

**Zein eratako ekarria dakarkio programa/proiektu honek ulerkuntza historikoari?**

- a. Zein alderditan lortzen du arrakastarik, edo porrot egiten, ekarpen horretan elkarrizketa bakoitzak, edota bilduma osoak?
- b. Materialak zenbateraino ematen du informazio berria, zenbateraino dokumentuaren hutsuneak betetzen, edo/eta ikuspegi eta perspektiba berriz dokumentua hornitzen?
- c. Zenbateraino da informazio fidagarria eta baliozkoa? Ikusizko testigantza da, ala entzundakoa soilik? Informazio horrek zein eratan eta zein neurritan gainditzen ditu barruko eta kanpoko korroborazio- eta koherentzi probak, eta kontraesanen azalpenei buruzkoak?
- d. Nola erlazionatzen da elkarrizketako informazioa jadanik dauden dokumentuekin eta historiografiarekin?
- e. Elkarrizketaren egiturak zein eratan ematen dizkio xehetasunak dokumentu historikoari, eta nola aberasten eta erakargarri bihurtzen du dokumentu historiko hori?
- f. Zein da emandako informazioaren oinarritzko izaera? Zer dira: gertae-rak, pertzepzioak, interpretazioak, iritziak edo jarrerak? Eta hauetako bakoitzak nolako ekarria dakarkio ulerkuntzari?
- g. Esparrua, bolumena eta (bidezkoa denean) populazio elkarrizketatua-ren ordezkartasuna egokia eta nahikoa al dira nahi den helburua lortzeko? Balioa gutxitzeraino iritsi gabe, ba al dago frogak balidatzeko lain testigantza? Kantitatea egokitzen al da estudioaren xedeetara? Elkarrizketan isladaturik al dago populazioaren lagin erre-presentakor on bat?
- h. Elkarrizketen formak eta egiturak nola laguntzen dute edukinaren infor-mazioa ulerterraz bihurtzen?
- i. Elkarrizketa bideoan grabatuta badago, "ikusizko informazioa" soilik ematen al du?
- j. Ikusizko argibide bereziek ahozko informazioa osatu, edo/eta zerbait eransten al diote ahozkoari? Elkarrizketak ikusizko ingurunea, proze-suak, objektuak edo talde-interakzioa jasotzen al ditu?

## 1.2.5. ELKARRIZKETA EGITEKO ARAUBIDEAK

### Bestelako iturrien erabilpena

- Ahozko Historiaren teknika al da, kasu honetan, biderik onena informazioa lortzeko? Horrela ez bada, bestelako zein iturri daude? Elkarrizketatzaileak erabili al ditu iturri horiek, eta, beharrezko kasuetan, saiatu al da beroriek ongi zaintzen?
- Ahalegin guztiak egin al ditu elkarrizketatzaileak dagozkion beste ahozko historiak kontsultatzeko?
- Elkarrizketaren teknika baliozkoa al da jadanik dauden iturriak osatzeko?
- Bidean grabatutako elkarrizketak bertako isiluneak edo ikusizko irudi mugikorak osatzen al ditu (bikoizturik gertatu gabe)?

### Ekarpen historikoa

- Elkarrizketatzaileak bere ikerlana jatortasun historikoz burutzen al du?
- Elkarrizketatzailearen beste helburuek kalitatea aberastu edota pobretu egiten dute?
- Nolako ekarria dakarkio elkarrizketak testuinguru zabalagoko ezagutza eta ulerkuntza historikoari?

### Elkarrizketatzailearen prestakuntza

- Elkarrizketatzailea ongi informatuta al dago aztertuko diren gaietaz buruz?
- Elkarrizketa prestatzean erabiliko diren lehen mailako eta bigarren mailako iturriak egokiak al dira?

### Elkarrizketatuaren hautespena eta orientabidea

- Aztertuko diren gaietarako elkarrizketatua egokia al da?
- Elkarrizketatuak ulertzen al du zeintzuk diren elkarrizketaren xedeak, eta egokitzen al da berorietara?
- Elkarrizketatua prestatuta al dago elkarrizketarako, eta egiteko honetan laguntzarik jaso al du?
- Elkarrizketa talde bati egiten bazaio, kontutan hartu al da, partaideak aukeratzean, taldea nortzuk osatuko duten, eta taldearen dinamika?

### Elkarrizketatzaile/elkarrizketatuen arteko harremanak

- Elkarrizketatzaileak eta elkarrizketatuak, batak bestea sustatzen al dute elkarrizketaren helburuak lortzeko?

- b. Elkarrizketa egitean, ba al dago orekarik enpatia eta ikuspegi analitikoaren artean?
- c. Bideoan grabatuko balitz, elkarrizketatzaile-elkarrizketatuen arteko harremana mantenduko al litzateke nahiz eta teknikarien aurrean egon? Teknikariek ulertzen al dute Ahozko Historiako elkarrizketa bateko bideo grabatuaren izaera, berau produkzio idatziari kontrajarrita dagoen heinean?

### **Egokitze-gaitasunak**

- a. Zein eratan jartzen du begibistan elkarrizketak elkarrizketatzaileak ondoko egoera hauetarako tresna egokiak erabili dituen ala ez:
  - elkarrizketatuaren egoerarekikoak (osasuna, memoria, arreta, komunikatzeko gaitasuna, ordutegia, etab.).
  - elkarrizketako jardunarekikoak (aldaketak eta etenaldiak, ekipoaren arazoak, partehartzaile arraroak, etab.).

### **Teknika**

- a. Zein datu daude ondorengoa frogatzeko?
  - elkarrizketatzaileak elkarrizketari dagozkion irizpideak zehatz-mehatz aztertu ditu.
  - azterna esanguratsuei jarraitu zaie.
  - informazio-iturriak identifikatzen saiatu da.
  - beharrezko kasuetan galdera kritikoak erabili ditu.
  - bideoan grabatua izan bada, ikusizko inguruneak eskaintzen dituen ezaugarri potentzialak zehazki aztertu ditu.
- b. Programak/proiektuak erabili dituen zinta eta grabaketa-ekipamendua egokiak al dira lanaren xedeetarako eta materialaren erabilpenerako? Grabaketak kalitate onekoak al dira? Nola hobe zitezkeen?
- c. Bideoan grabatuta badaude, argia, konposizioa, kamera-lanak eta soinua kalitate onekoak al dira?
- d. Edukinaren eta kalitate teknikoaren arteko orekan, elkarrizketaren jarduna desegoki azpiratzera iritsi gabe kalitate teknikoa ona al da?

### **Perspektiba**

- a. Elkarrizketatzailearen joerek elkarrizketatuaren erantzunak alboratzen (=sesgar/to bias) al dituzte, edo baldintzatzen?



- b. Zein informazio dago eskura, elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatzailearen arteko aparteko edo aurrez izandako harremanaz, erabiltzaileak berorren jakinaren gainean jartzeko?

#### 1.2.6. IKERTZAILE INDEPENDENTE/EZ-AFILIATUEN ARAUAK

##### **Elkarrizketak sortzea eta erabiltzea**

- a. Ikertzaile independenteak/ez-afiliatuak Erakunde profesional eta ofizialekoa ez denak, alegia iradokitako arauak segitu al ditu elkarrizketak lortzeko?
- b. Lanaren erabiltzaileei, zein elkarrizketa egin diren eta langaiak non dauden kokatuta jakin erazteko, burututako lanetan (liburu, artikulu, ikus-entzunezko produkzio edo bestelako edozein aurkezpen publikotan) aipamen eta dokumentazio egokirik eskaintzen al zaie?
- c. Burututako lan horiek ba al dute elkarrizketaren proiektuari buruzko (argitalpen-prozedurei buruzkoak barne) inolako azalpenik?
- d. Burututako lanak jasotzeko ba al du ikertzaile independenteak/ez-afiliatuak gordailu egokirik?

##### **Elkarrizketak artxibategian jasotzea**

- a. Ikertzaile independenteak/ez-afiliatuak artxibategiko arduradunaren adostasuna lortu al du elkarrizketak bertan artxibatuzko?
- b. Artxibategian jasotzeko erabakia bat al dator elkarrizketatzailearen akordio edo iritziekin? Elkarrizketatuarengandik akordio legalak lortu al dira?
- c. Ikertzaileak artxibategian utzi al ditu elkarrizketaren eta proiektuaren inguruko deskribapen egokiak?
- d. Grabatutako elkarrizketek nolako kalitate teknikoa dute? Elkarrizketak transkribatuta, laburtuta eta sailkatuta al daude, eta, hala bada, nolako kalitatea dute?

#### 1.2.7. IRAKASLE ETA IRAKASLEARENTZAKO ARAUBIDEAK

##### **Irakaslea**

- a. Irakasleak ezagutzen al ditu hemen bildu ditugun arauok, eta ikasleari transmititzen al dio araubide horien edukina?

- b. Ahozko Historian jende artera elkarrizketak egitera joan aurretik behar bezala prestatu al dago ikaslea, irakaslearen iritziz?
- c. Irakasleak Ahozko Historiari buruzko literatura, teknikak eta prozedurak ongi ezagutzen al ditu, horrela ikasleari trebakuntzarik onena eman ahal izateko?
- d. Irakasleak beste profesionalekin eta erakundeekin lanik egin al du, ikasleari Ahozko Historiari buruzko esperientziarik onena eman ahal izateko?
- e. Proiektuko langaiek agian gordetzeko lain balio lezaketela kontutan hartu al du irakasleak, eta beste profesionalekin eta artxibategiekin lanik egin al du bildutako materialak zaintzeko eta hedatzeko?
- f. Irakasleak agertu al du borondaterik bere trebetasuna beste irakasle, erakunde eta lagunartekin elkarren artean banatzeko?

### **Ikaslea**

- a. Trebatu al da Ahozko Historiaren elkarrizketetako teknika eta prozedurekin, eta Ahozko Historiaren elkarrizketak erabiltzen dituen iker-garabideekin?
- b. Elkarrizketatuari elkarrizketaren xedea eta elkarrizketa nola erabili beharko den azaldu al dizkio?
- c. Elkarrizketatua errespetuz tratatu al du?
- d. Elkarrizketatuak utzitako materialaz sinatu al du biltzaileak ordainagirik, eta itzuli al dio material guztia?
- e. Elkarrizketarako legezko baimen sinatua lortu al du?
- f. Elkarrizketatuei ahoz edo idatziz egindako promesak bete al ditu?
- g. Eman al du, ahozko testigantza erabil daitekeenerako, eta material erabilgarria bere testuinguruan lekutua izan dadin, hitzezko edo idatzizko sinestagiri egokirik?

## **2. Gurearekiko aplikagarritasuna**

Ahozko historilari amerikarren arau-modu hauen irakurketa amaitzean, bizpahiru ohar egin beharra dago. Amerikarren arautegia, zalantzarik gabe, historilari-elkarte baten lorpen onen eta eskarmentu txar askoren aitopene eta bububide arautu bezala jaio zen, eta, horregatik, gainerako historilariontzat jarraibide ona eta oso premiazkoa izan liteke.

Inoren esperientziatik ikastea, ona eta merkeagoa izanik ere, guztiok dakigu zein zaila den; jakintza heldua, gehienetan, handik eta norberarenetik ikasiz lortu ohi da Fraser-ek idatzitakoa aintzakotzat hartzea ongi etorriko zaigu: Teoriak gorabehera, elkarrizketatzaile ona izaten, lanaren poderioz ikasten dela, alegia.

Esperientziaren ekarria, ordea, ihardunean ibili arren, baliteke zenbait ikertzaile berrik ez eskuratzea ere (berez izan behar Billabonakoa...). Ikasi, eskarmentutik ikasi, ez bait da nolanahe egiten bizitzan, eta ezta Ahozko Histori lanetan ere. Are gutxiago, dabilena ikaslea bada (pasadizoko ikaslea, esa nahi da). Bestalde, esperientzia ulertu eta geureganatzeko laguntza ona da, hain zuzen, amerikarren agiri hau, bere baitan dituen ohar eta formulazioengatik.

Arautegian ispiatzen diren oharkizun horiek jakite teoriko eta praktikoa handia metatu dute beren baitan. Ikasleak edota irakasle etorri-berriak nahitaezkoa du berori ongi ezagutzea, nahiz eta ondoren, behar den moduan erlatibizatu. Eta ongi etorriko da erlatibizazio horretaz zerbait esatea. Arautegi aberats honek gizarte jakin bat ispiatzen du: iparramerikarra. Ohitura sozio-kultural definituak dituena (eta, dudarik gabe, lan zientifikoetan heldutasun-maila miresgarria lortu duena): legezkotasunari eta araei balio handia ematen diena da, bai jarrera sozialetan eta baita jokabide metodologikoetan ere.

Gurea, berriz, ez da horrelakoa; gure jendeak, sarritan, legea babes baino mehatxu bezala sentitu izan du. Sentiera honek —aldatzekoa izanik ere— bere ondorio enbarazagarriak ditu biltzailearentzat. Wouters-ek Galiziaz idatzitakoa datorkigu burura:

...aceptamos por supuesto la necesidad de aplicar la legislación vigente [...]. Pero conocemos bien el ambiente en que trabajamos, y sabemos que perderíamos una gran parte de las entrevistas [...]. El papeleo está mal visto en ciertos sectores de la sociedad gallega, que tiene al respecto una desconfianza adquirida por experiencia histórica, y el uso de términos legales asusta aún más.

Elkarrizketatuekiko legezkotasunaz esaten den honek, mutatis mutandis, balio lezake ikertzaileen munduan lan berriei errealismoz ekiteko ere: sortu beharko dugun iker-taldeak ezingo ditu lehenengo egunetik agiri horretako arau guztiak beharko litzatekeen tamainan bete, nahiz eta hasieratik bertatik beroriek aintzakotzat hartuta ekin lanari.

Horrela, ba, arautegia, erlatibizatuz irakurri behar da, gurera nola aplikatu daitekeen begiraturaz. Hori, bai: ikertzaileen prestakuntzari dagozkionetan utzikeriaren kontrako dei bat dela ahortzi gabe, eta elkarrizketatuekin

errespeto osoz (paperekin edo paperik gabe) jokatu behar dela gogoan izanik.

Bukatzeko, esan dezagun, AHren baliagarritasun praktikoak ezberdinak izan litezkeela gertakarien denborazko hurbiltasunaren eta idazkien egoeraren arabera (ik. gorago Arrien-ek iradokitakoa: ik. 1. parteko 4. kapituluan 4.2.1. pasartea).

# IV. ERAKUSGAIEN BILAKETA-GIDOI OROKORRA

Bigarren parte honetako beste dokumentuak bezala, hau ere lan-idazkia da. Hau da, helburu jakin batera iritsi ahal izateko (kasu honetan, Eskolaren Erakustokia erakusgaiez hornitzeko) aurkezten dugun bilketa-gidoia, alegia.

Artxibategia egiteko berorri dagozkion agiri idatziak inguratu behar izaten dira. Era berean Ahozko Historiarako ere langai-bilduma osatu behar izaten da, ikusentzunezko grabaketak eginez. Azkenik, Erakustokia egin nahi badugu, erakusgarriak bilatu eta bildu beharko ditugu. Honetarakoxe pentsatu dugu bilketa-gidoi hau.

Gidoia, gehienbat, Barcelonako Institut Municipal d' Educacio deritzan erakundeak bere erakusgaiak biltzeko erabili izan duen gidoiaren gain eratu dugu

Bilaketa honekin jakin nahi duguna zera da:

1. Zer den dagoena, lan, tresna, altzari, etab. zaharretan.
2. Nola dagoen aurkitu duguna.
3. Non eta noren eskutan dagoen.
4. Behar diren baldintzetan, EHIH/Erakustokirako eman edo utziko luketen.
5. Galtzeko edo hondatzeko arriskurik baduen.
6. Beste edozein xehetasun jakingarri.

Bilatzen ditugun erakusgaiok, ikastolan bertan, partikularren etxeetan eta, inoiz, Elizan (Parrokia edo konbentu...) edo Erakunderen batean aurki litezke.

Bilketari ekin aurretik, material jakingarrienen katalogoa osatu beharko

da, aurkitutakoen balioa ezagutu. Komeni da aparteko arrazoirik gabe material bikoizturik ez biltzea. Bere garaian, elkarrekin ikusiko dugu gainera, aurkituak tokian tokiko Ikastolan ala Erakustoki Nagusi batean gorde beharko lirатеkeen.

Gidoi-zerrenda aurkeztu aurretik probetxuzkoa izango da, gogoan hartu beharko lirатеkeen *alor orokorrak* aipatzea, bakoitzeko xehetasunetan galdu baino lehen ikuspegi orokor baten alor nagusien guztiak aintzatzat hartu ditugula jakiteko. Eta, alor orokorrekin batera, bilketarako *erizpide batzuk* bederen mahai-gainean jarriko ditugu, denok ere bide beretik ibil gaitezen. Dena den, alor orokorrekikoak nahiz irizpideei dagozkienak irakurlearen eta batez ere lankideen kritikapean utziko ditugu, honelako lan-egitarau batean iharduera praktikoak asko irakas dezakeelako batipat.

## 1. Bilketa-alor orokorrak

Liburu eta paperetan ezezik, gauzatan ere mundu oso bat da eskola. Gizartearen ohitura eta jokamoldeak bete-betean iritsi ohi dira, gainera, etxe barru horretara. Hemen, xehetasunetan sartu aurretik, erakusgaien alor nagusiak gogoratuko dira. Zein motatako materialak nahi ditugu?

1. Interes historiko-pedagogikoa duten 1985aren aurreko eskola-materialak.
2. Ikasgelako barne fisikoa bete edo egiten duten materialak (mahaiak, ikas-mahaiak, harbela...).
3. Ikasgelako material osagarriak (laminak, sinboloak, etab.).
4. Natur Zientzietako, Kimika nahiz Fisikako materialak (laborategiko tresneria, froga zientifikoetarako aparailuak, etab.).
5. Irakasleek nahiz ikasleek sortu edo egindako materiala (eskolalanak, ikasgelako eguneroko marrazkiak, etab.).
6. Eskola-erakundeen liburuak, dominak, iragarkiak.
7. Aldian aldiko jaietarako ospakizun berezietako lanak, argazkiak, etab.
8. Edozein ikuspegitatik ere balio edo esanahiren bat izan dezaketen gauza, tresna edo lanak.

## 2. Bilketa-irizpideak

Bilketa ondoko bilketa hasiko dugunean —beraz, ez orain, hurrengo

ekinaldian baizik— gogoan izango ditugun bilketa-irizpideak hauek izango dira. Bilaketa-une honetan ere argigarri izan litezkeelako aurreratzen ditugu hemen.

Museorako jasoko diren gauzak ezin litezke edozein gauza izan, ezta aurkituko guztia ere: unerren batean hautatu egin beharko da, idorotakoaren artean Museoaren arduradunek aukeratu egin beharko dute, han-hemen sakabanatuta eta, agian, errepikaturik dauden gauzen artean; baina irizpide jakin batzuekin, Museoaren lehentasun eta xedeak aintzakotzat hartuz, egin beharko da aukera.

Adibidez, ondoko puntuak gogoan ditugula egin liteke erakusgaien hautapena:

1. Museoaren gidoi orokorrari jarraitu, material-bikoiztasunik ez sortzeko, bestetarako arrazoi garbirik ez badago bederen.
2. Gauzaren garrantzi historikoa, berez duena edota bildumaren bat osatzeko izan dezakeena.
3. Bildutakoaren egoera hobea.
4. Materialaren jatorriaren ezagumendua, edo gauza edo tresna pedagogikoen erabilera nahiz funtzionamenduaren ezagumendua.
5. Bildutakoarentzat erakus-leku egokia izatea.

Gauzaren batzuk tokian tokiko ikastolak berak gordetzea nahiago balu, saiatu egin beharko luke berori ongi zaintzen, eta ikusle edo interesatuentzat toki egokiren batean aurkezten.

### 3. Bilketa-gidoia

Ikastolaren izena .....

(Zerbait aurkitu duzuen kasuetan, adieraz gurutze batekin: X).

#### A) AZPIEGITURA\*

##### 1. Eraikinak

- Planoak
- Maketa
- Arkitektur memoria
- Eraikuntz argazkiak

##### 2. Altzariak

- Mahaia



- Eserlekua
- Besaulkia
- Ikas-mahaia
- Armairua
- Kaxoitegia
- Janzki-esekailua
- Harbela

3. *Altzari lagungarriak*

- Berogailua (estufa).
- Haizegailua
- Argia
- Pantaila

4. *Altzari apaingarriak*

- Eskultura
- Margazkia
- Marrazkia
- Erretratua
- Zeramika
- Erliebea
- Erreprodukzioa

B) IRAKAS-MATERIALAK

5. *Tresneria (ik. 14)*

- Ikusentzunezko tresneria
- Laborategi tresneria
- Ordenadoreak
- Bestelako aparailuak

6. *Bildumak*

- Mineral-bildumak
- Landare-bildumak
- Abere-bildumak
- Bestelakoak: seiluak, kromoak...

7. *Espresabide grafikoak*

- Laminak
- Mapak

- Lur-esfera
- Eraztun-esfera

8. *Musika-tresneria*

- Ohizko euskal tresnak
- Bestelakoak

9. *Soinketa-tresneria*

- Gimnasia
- Beste kirolak

10. *Pedagogoen arabeko materialak*

- E. Herriaren Adiskideak
- Montessori
- Decroly
- Freinet
- Freire
- Landeta
- Zipitria
- Muñoa
- Beste

C) **ESKULANETARAKOAK**

11. *Etxe-heziketarakoa*

- Jostun-tresnak (orratzak, titareak...)
- Josteko makina
- Danborra
- Kuxinak
- Ehungailuak
- Sukalde-errezetak

12. *Arte plastikoak*

- Astokoa
- Labea
- Pintura
- Pintzela
- Tinta

13. *Arte grafikoak*

- Moldiztegia

- Gilotina
- Prentsa

D) MATERIAL OSAGARRIAK

14. *Ikasgelakoak (ik. 5)*

- Pantailak
- Proiektoreak
- Mapa "biziak"

15. *Norberarenak*

- Koadernoak
- Harkatzak
- Boligrafo eta lumak
- Sekante, goma, etab.
- Erregla, lupa, marrazketa-tresnak...
- Albumak...
- Eskola-janzkiak

16. *Bizitza arruntekoak*

- Garaiko haurren janzkiak, jostailuak...
- Garaiko etxeko haur-ontziak: edontziak, platerak...
- Herriko jai berezietako ohiturazkoak: lehen jaunartzekoak, San Mikolas, etab.
- Oro har, garaiko haur-mundukoak.

E) AISIA eta JOLAS-JOKOAK

17. *Zentzumenekikoak*

18. *Esku-jokoak*

19. *Mugimenduzkoak*

20. *Imitazio eta sinbolizazioa*

21. *Abildade eta eraikuntza*

22. *Norma-sarbidezkoak*

23. *Espresabide eta komunikazioa*

Edo nahiago balitz, beste sailkapen honekin:

17. *Hizkuntz arloarekin zerikusia dutenak.*

18. *Gorputz-motrizitatearekikoak.*

19. Musikarekikoak.
20. Plastikarekikoak.
21. Matematikarekikoak: logika, aritmetika...
22. Esperientzi arloarekikoak.
23. Afektibitatearekikoak.
- 23'. Beste aisia eta jolas-jokoak: irtenaldietakoak, zotz egitekoak, denborapasakoak.

## F) ESKOLA-LANA

### 24. Irakaslegoarenak

- Memoria
- Hezkuntz proiektua
- Proiektu bereziak

### 25. Irakaslearenak

- Irakastorduen prestakuntza.
- Prentsa-hautakinak
- Ikasgelako egunkaria
- Programaketa

### 26. Ikaslearenak

#### Sail ezberdinetan:

- Natur Zientziak
- Gizarte Zientziak
- Matematikak
- Hizkuntza
- Erljioa
- Musika
- Plastika
- Gimnastika

#### Lan-moldeak:

- Marrazketa
- Ariketa
- Problema
- Mapa
- Testua
- Zeramika
- Zuminzketa

AZKEN OHARRA: Bestelako material, gauza, interesgarriak aurkituko balitz, gogoan hartu behar da hori ere. Zerrenda hau ez da, izan ere, erabat agogarrria. Lehen bilaketa honetatik bilketara pasa aurreko zuen oharrak guretzat laguntza ederrak izango dira.

## **AZKEN HITZAK**

### **Oroimena, iraganaren betekizun denean**

## 1. Historia: oraingo geroaren iraganak

Iragana, oraina, geroa... denboraren kate berean datoz, etenik gabe. Eta inoiz bizi izandakoak, bere iragan bukatuan ere, oroimenean du segida guregan.

Instantezko orain-une honetan lan egiten, edo etorkizunari bere iparra ematen, gizon-emakumeok ezingo genuke asmatu, iraganaren oroimen hura guztiz galdua bagenu.

Joanot Martorell-en *Tirant lo Blanc*-eko (1490) Sant Jordi markesak zioen bezala, "iragana ahanzten duenak bere burua ahanzten du". Norberak bakarka, edo gizartean, bizi izandako iragan oroigarriak ere erakusten digu oraina eta geroa nola pentsa, nola mami.

Gizakia —genetikan ezezik bere gogoan ere — iraganetik bizi da etorkizuna sormenaren askatasunean asmatzeko. Eta norbere geroa autogestionatu nahi duenak bere historiaren oroimena ere gestionatu behar du. Auto-ulerpen bizi eta aske baten baldintza da hori.

Bidea nortasun propioan egiteko, komeni da eman zaigun edo egin dugun Historiaren barruko "bidaro" propioa ezagutzea, ezagumendu hori gero kanpoko kritikaren eguzkitara aterako bada ere. Bizi-berri ditugun Euskal Herriko gertakarien kronikari-lan jator batek ez ote du —arrisku guztien artean ere— gure orain-geroekiko balio epistemologiko ukaezina?

Triste da, kasu batzuetan geure albisterik aberatsenak edo bakarrak

atzeritarrengandik jaso ahal izatea, orain bi mila urteko Estrabon edo P. Mela-rekin edo A. Picaud erdiarotarrarekin gertatzen zaigun bezala. Edota ditugun albiste-apur edo ugarietan jakin dezakeguna batez ere kanpotarrek landutakoetatik ezagutu ahal izatea, erbestetik eman zaizkigun zerbitzuak batzuetan estimagarriak eta estimatuak izan arren. Geure Historiaren jabetasuna galtzeko ez da hori biderik txarrena.

Ikastolagintzaren Historiarekin bederen, EHIHren Proiektuaren bidez, Historiaren egile ezezik, berorren kontatzaile, gordetzaile eta aztertzaile ere guk geuk —euskal herritarrok, alegia— izan nahi genuke. Gure kultur bizitzari egin diezaiokegun zerbitzu on bat dela uste dugu, zinez.

Hala ere, geureak geure, iraganari begiratzeko arrazoi orokorragorik ere bada. Historia, “bizitzaren maistra” zela esan zitzaigunetik, ulerpen historikoaren balioa gisa aniztetan azpimarratu da.

Filosofian, esate baterako, iraganaren ulerpena eta Historiako azken utopiak elkarrekin ongi tratatuta aurkezten zaizkigu batzutan, San Agustingen bezala Marx-engan. Bestetan, Historia jarraitasun itzulezina bezala ulertu duten munduko erlijio handiek iragan jakin eta aitortu bat eman diete oinarritzat sinestunei, beren etorkizuna haren argitan salba dezaten. Moisek bezala Jesusek edo Mahomak. Iragana, beraz, gorpuzturik datorkigun errealitate-ondarea ezezik, geroaren ulerpide eta argigarri ere izan da.

Baina, urrunxko geratzen zaizkigun gogoeta filosofiko-erlijioso horietatik gurera zerbait hurbilduz, komeni da arazoaren alde sozio-politikoa ere aipatzea: Iragana nola erabili herriek nahiz boteredunek, etorkizuna baldintzatzeko? Erret dinastia zahar eta berriek eurrez erabili izan dituzte iraganaz ziharduten mitoak eta literatur sorkariak. Botereak bere historiaurrea gogoratu edo asmatu beharra izan du, beti ere bere zuzenbidezko jatortasuna eta politikaren garbitasuna frogatutzat emateko. Erroman *Eneida* idatzi zen, herri erromatarraren noblezia frogatu eta, ondorioz, Inperioaren arrazoizkotasuna erakusteko. Iragandako mundu homerotar urrunean zituen Erromak bere erroak, eta jatorburu hartatik zetorkiokeen noblezia oro.

Horrela jarri zuten iragana beren alde Erromako agintedunek, proiektu interesatu bati bere garapena errazteko. “Iragana etorkizunaren probetxutan bahitzeko keinua” ez da txantxa bat izan, zinezko politika eraginkorra baizik, eta inoiz edo bestetan herrien ameskaitza, iragana lapurtzean, geroa ere ohostu egiten bait zitzaien haiei.

Sorburu mitiko-literarioetatik, gizartearen erabili diren egitasmo kultural-

politikoa etorri, gogora dezagun, iraganean ezagutu diren herri politikoki egituratuena, Inperio eta Erreinuaren, ofizialki historiografia nola zaindu den: batean *Analeak* ziren, bestean *Kronikak*. Txinako historiografiarik zaharrenek hasi eta Erdi Aroko Erreinu kristauek zehar jarraituz, Frantziako edo Sobiet Batasuneko Iraultzen historilarienganaino nahiz Golko Pertsiarreko kazetaritza maneiatuaino hel gaitzke bide horretan... Ez dugu gure herriarentzat beste hainbeste nahi, noski.

Euskal Historiografian ere ez da falta izan etorkizunaren zerbitzuan jasotako iraganaren oroitzeak: nahikoa duzu Mañarikuaren obra ederrari begiratu bat ematea zer esan nahi duan jakiteko. XVIII-XIX. mendeetan, etorkizuna segurtatu (Bizkaiko Jaurreriak), edo bestelako norabide jakin batean bultzatu nahi zuenak (Godoy-k) obra historikoak idaztea finantziazten zuen: Fontecha-ren *Escudo* (1762) eta Llorente-ren *Noticias Históricas* (1806-1808) izan ziren horrelako enkarguen fruituak.

Hemen azpimarratu nahi dena zera da: Iraganaren jabetasunak etorkizuna bideratzeko izan dezakeen indarraren kontzientzia zein bizia izan den, baita gure artean ere. Aipatutako kasuan, Historia birlanduz erakunde zaharrak samurrago antzalda zitezkeelakoan ziharduen Monarkiaren Ministrariak, eta Jaurreria, berriz, aldeko iragan frogatu batek betikoan segitzeko eskubidea zuzenets eta ziurta zezakeelakoan ari zen (MAÑARICUA, A. (1971): *Historiografía de Vizcaya*. Bilbo 207-226 285-300).

Bestalde, Historiografia eztabaida horietara eramanez ere, Euskal Herriak ezagutu ditu historilari ofizialak: Nafarroako Erreinuak Kronikari ofizial bat izatea erabaki zuen (1654), eta hurrengo urtean hartu zuen ofizialki bere gain eginkizun hori Aita Moret-ek.

Probintzia eta Udal handietan bizirik irauten duen ohitura da gertakarien oroitzeak idatzia ondokoei uzteko arduradunen bat izendatzea. Ohitura baliotsua, baina arriskugarria ere bai, noski, zeren eta, eskierki, ordaintzen duenak ez bait du nahi inor soldatadunik berean etxekalte izan dadin, ezta historilariaren eskutik letorkiokeen auskaloko baina, seguru, aurkako egia dakarkion historia omen denaren zerbitzutan ere.

Hala ere, etxe-barneko arriskuak arrisku, kanpokoak geure etxeakoz bere hitza esan edo ezarri aurretik, komeni zaigu gu geure iraganaz arduratzea, gure buruaren ulerpen libre eta kritikoaren faboretan. Norberak ez zuzen ez oker idatzi ez duena bestek alderantziz idatz ez dezan, edo gutxienik geurea bestek bakarrik idatz ez dezan, komeni da etorkizuneko iragan-oromenari langaiak metatzea, beti ere ahalik iturri ezberdin eta zabalenetatik bilduz.



## 2. Ikastolak ere historia bat

Alor jakin eta mugatu batean, baina erabakiz eta asmoz, horixe da *Euskal Herriko Ikastolaren Historia* Proiektuak sustatu nahiko lukeena, premiazkoa dugun oroimen historikoari laguntzeko.

Balio sinboliko nabari hori ezezik, talde-eraikuntza sozial baten pisua izan du Ikastolak azken hamarkadetan Euskal Herriko Irakaskuntzan. Gure gizartearen ahalbide ekonomikoen gain, ongi zailduta zetozen mentalitate abertzaleen indarrez, hainbat eskarmentu politikoren kontrakarrean eta geure buruaren ulerpen etno-historikotik egin da ikastolagintza, eta oro har, euskal eskolagintza berria.

Ahalegin horretan, horrelako egiturazko zutabeak izan ditu euskarritzat, baina, horiek ezezik, talde sozial zabal baten unean uneko borondatea ere bai. Eta hainbat ikastolak bere zilarrezko ezteiak ospatzen dituen urte hauetan, eskolagintza hori aztergai historiko bilakatzeraz doa, laster izango bait dugu, joan badoan denborari esker, distantzia egokitik begiratzerik.

Azterketa horren parada datorren bitartean, gogora dezagun gure iraganaren indarra ez datorrela errealtate historiko biluz eta gorritik soilik, baizik eta baita Historia hartaz ondokook ditugun kontzientzia eta ezagumenduetatik ere. Bestalde, burutapen hau ez da batere originala, Mendebaldeko historiografiak eta eskoletako histori irakas-programek ongi erakutsi dute —aitortu gabe, noski, gehienetan— ezagupide historikoaren zeregin sozio-kulturala, eta politikoa.

Ikastolagintzaz ari garela, *izandakoa jakiteak* izankizun duguna segurtatu eta hobetzeko bidean jar gaitzake, nahiz eta Historia historia izan, eta ez, jakite prospektibo. Iraganarekiko leialtasuna eta geroarekiko sormena hobeki gorde eta eragin litezke ezjakinean baino informazio eguneratu baten gain.

Funtsezko egia horren komentzimenduarekin bultzatu nahi da *Euskal Herriko Ikastolaren Historia*. Handikeriatan galdu gabe, baina lankidetzazabal batean bil litekeen talde-oroimen emankorrari muzin egiteke. Idatzi-berri den bezala, "banaezinak dira gizarteaz dugun irudikapena, errepresentazioa, eta berorren errealtatea" (Guiomar 1990 191). Beste nolabait esateko, izana eta jakina, elkar baldintzatzen ari dira, iraganak gure baitan duen eraginean.

Geure errealtatearen jabe izan nahi dugu (beste edozein herri edo gizarte bezain jabe, esan nahi da), baina, ahal bada, baita errealtate horri dagokion irudikapenaren jabe ere. Bestela, Historiaren gure jabetasuna

maingua izango bait da, eskumotza.

EHIHren Proiektuaren erronka, hain zuzen, hori da: Milaka lagunen eginahalak piztutako, milioika txanpon bildutako eta hamaika buruhauste emandako eraikuntza ez dadila izan, bere izanean, histori gartzela itxi bat, ondokoengan ere loratuko den errealitate/oroimen herritarra baizik.

Bestela, guretzat ere balioko luke inoiz idatzitako hark: "Zer gisatako Historia ote da, gero, inortxok ezagutu ez duen historia hura!". Horrelakorik (jakingabekorik, eta ukatutakorik ere) izan da munduan, eta ez genuke nahi beste hainbeste geurea dugun herriarentzat.

**ERANSKINAK**  
**Harreman-helbideak eta bibliografia**

# 1.

## HARREMAN HELBIDEAK

Aurreko orrialdeetan ikusi dugunez, AH ez da Euskal Herrian ezerezetik hasten; baina badago metodologia eta praxian ikastekorik franko. Kanpoko eta barneko harremanek asko lagun gaitzakete bide berri hauek urratzen. Horregatik dakartzagu hona helbide eta izendegi hauek. Geratzen zaigun puntutik aurrera hobetuz eramango bagenu, AHko lanetarako lehen gida-liburu ere bilaka litekeen txosten honetan, harremanen kapitulu hau ez dago lekuz kanpo. Hola uste dugu, behinipehin. Izan ere, ikertzaile-munduan, A. ERKOREKAre (1988) Euskal antropologoak, etnologoak eta etnografoak gaur (Donostia: Kriselu) bezalako liburuetan luzatzen diren gisako argibideak iker-sustagarri direla uste bait dugu, nahiz eta hemen (esan beharrik bai ote dago, gero?) lehen harreman-datu soiletan geratu.

## **1.1. Nazioarteko harremanak**

Ondoko lerroetan irakurleak aurkituko duenak ez du inolako handi usterik: gure lehenengo bilaketetan topatu ditugun datutxoak dira, geuk eta inguruko interesatuek euskal AHren onetan osatu ahal izango ditugunak. Orain-oraingoz dituzten hutsune eta akats zuzengarri guztiekin ematen dira hemen, alor honetan genuen erabateko ezjakintasunetik irteten geure buruari laguntzeko, lehenik, eta agian inori ere lan puska bat aurrera diezaiokegulakoan.

### *1.1.1. Nazioarteko erakundeak*

Erakunde hauek bi sailetan banatzen ditugu: Erakunde finkoak eta

aldizka eratu ohi diren ekintzak. Haiek balio instituzional eta profesional berezia dute; besteok, ostera, beti ere gaurkotasunaren haize biziagoak ekar ditzakete.

#### 1.1.1.1. Erakunde finkoak

Erakundeen zerrenda honek betekizun bat baino gehiago du hemen. Horietarik behinenak hauek izan litezke:

1) Proiektuaren atari honetan, nazioarteko lehen harremanak hautatzeko balio du. 2) Geroagoko harremanetarako lehen irtenbideak eta helbideak biltzen dira. 3) Zer daukagun eta zer falta zaigun jakinik, adituei argibide osagarriak eskatzeko balio du.

Hemen bertan ageri diren ondoko datuekin batera ulertu behar da dena. Bistan dago, bestalde, zerrenda honek eta aldizkarienak elkar osatzen dutela.

### **Espainia**

- Fonoteca de la Universidad. Complutense. Madrid. Zuzendaria: Fátima Miranda Regojo.
- Fundación José Barreiro. Oviedo. (Frankismoaren garaietako oposizio politiko asturiarraz agiri idatzi, grabatu eta grafikoak).
- Seminario de Fuentes Orales. Universidad Complutense. Facultad de Geografía e Historia Madrid. Zuzendaria: M<sup>a</sup> Carmen García Nieto.
- "Harreman pribatuak eta aldakuntza soziala" Proiektua. Universidad Autónoma de Madrid. Arduradunak: María Teresa Gallego eta Pilar Folguera (Ik., gainera, honen tesia: *Vida cotidiana en el Madrid de la postguerra*).
- "Biografia eta Gizartea" Iker-Batzordea. Nazioarteko Soziologi Elkarte (ISA). (C. Colpin. ISA-RC 38 Biographie et Société CEMS. 54 bd. Raspail, 75006 Paris. Espainian: Francesc Hernández/Francesc Mercadé, "Gabinete de Investigación Sociológica y Económica", Clos de Sant Francesc 11. 08034-Barcelona).
- Laboratorio de Fuentes Orales "Historga". Facultad de Historia y Geografía. Universidad de Santiago de Compostela (Harremanetarako: Marc Wouters eta Isaura Varela).

### **Frantzia**

- Aix-en-Provence-ko Unibertsitateko Ahozko Historiako Taldea. Zuzendaria: Philippe Joutard.

- Archives Orales sur la Guerre d'Algérie. Fondation Nationale de Sciences Politiques. Rue Saint Guillaume / Centre National de la Recherche Scientifique. Paris / Centre d'Histoire du XXe. 17, rue de la Sorbonne. Esc. C, 3e etage. Harremanetarako: Mlle. Champagne.
- Institut d'Histoire du Temps Présent. 75014-Paris. 44, rue de l'Amiral Mouchez. Zuzendaria: François Bédarida. Harremanetarako: Mlle. D. Voldman.
- Lyon-go Unibertsitateko Ahozko Historiako taldea.
- Service Historique de l'Armée de Terre (SHAT). Archives de l'Armée de Terre. Château de Vincennes. Paris.
- Service Historique de l'Armée de l'Air (1974). Zuzendaria: Christienne jenerala.

### **Gales**

- Welsh Folk Museum of St. Fagans. (Iorwth Cyfeiliog Peate-ren material grabatuak).

### **Italia**

- Museo de la Civilización Campesina. (1973). Bologna (Italia). (Ahozko historiako Ikastaroak).

### **Irlanda**

- Irish Folklore Institute. Dublingo Unibertsitateko Folklore Departamentuan bilduta dago haren materiala.

### **Kanada**

- Canadian Oral History Association. 1974. [Oral History Association aldizkaria argitaratzen du, Archives of Canada-k (Ottawa, Ontario) argitaratara emana].

### **Katalunia**

- Departament de Llengua Catalana. Facultat de Filosofia i Lletres. Universitat de Palma de Mallorca. Zuzendaria: Joan Miralles (*Coloquio sobre fuentes orales*, 1984).
- Institut Municipal d'Història: Secció d'Historia Oral (1983). Sailaren arduraduna: Lluís Úbeda. Sta. Llúcia, 1. 08002-Barcelona. [Historia y Fuente Oral aldizkaria ematen du argitarara].
- Seminario de Historia Oral. Departamento de Historia Contemporánea

de la Universidad de Barcelona. Zuzendaria: Mercé Vilanova. Lankideak: Cristina Borderias, C. Vega, A. Monjó.

### **Mexiko**

- Programa Nacional de Historia Oral de Méjico. 1974. Zuzendaria (izana): Dr. José M. Luis Mora. Plaza Valentín Gómez Farias 12. Mixcoac, 03910, México, D.F.

### **Britainia Haundia**

- History Workshop. Oxford University, Ruskin College (1966). Zuzendaria: Raphael Samuel.
- Oral History Society / History Workshop (1969). Sociology Department. Essex University. Zuzendaria: P. Thompson.

### **Estatu Batuak**

- Oral History Association. University of North Texas. (EEBBetako ehun bat Artxiboren materialak).
- Oral History Association / Oral History Research Office (1967). Columbia University. New York. Zuzendaria: Mr Nevin.

#### 1.1.1.2. Aldizkako bilerak: Kongresuak, Topaketak.

Alor honetan apenas egin dugun deus, bilaketa-lanean: Nazioarteko Kongresuak hartu ditugu gogotan (batez ere bibliografia osatzean aintzartat izan ditzagun); hurbileko bileraren bat edo beste aipatzen da, eta berehalako bizpahiru Biltzar. Besterik ez.

- Nazioarteko AHko I. Biltzarra. Bologna, 1976. Italia.
- Nazioarteko AHko II. Biltzarra. Colchester (Essex), 1979. Erresuma Batua.
- Nazioarteko AHko III. Biltzarra. Amsterdam, 1980. Herbehereak.
- Nazioarteko AHko IV. Biltzarra. Aix-en-Provence, 1982. Okzitania.
- Nazioarteko AHko V. Biltzarra. Barcelona, 1985. Katalunia. "Boterea gizartean"
- Nazioarteko AHko VI. Biltzarra. Oxford, 1987. Erresuma Batua. "Mitoa eta Historia".
- Nazioarteko AHko VII. Biltzarra. Essen, 1990. Alemania. "Oroimena eta aldakuntza soziala".



- Nazioarteko AHko VIII. Biltzarra. Siena/Lucca, 1993. Italia. "Oroimena eta kulturantzitasuna".
- Ahozko iturriei buruzko I. Elkarrizketak. Palma de Mallorca, 1984. Departament de Llengua Catalana. Universitat de Ciutat de Mallorca.
- Seminario de Historia y Fuentes Orales. Madril, 1988. Facultad de Geografía e Historia. Universidad Complutense. "Ahozko Historiako Proiektuen Diseinua". [Margarita Vázquez de Parga-k gidatu zuen "Proyectos y Equipos de Historia Oral"].
- Jornadas de Estudio sobre el Movimiento Guerrillero de los años cuarenta. Madrid, 1988: Fundación de Investigaciones Marxistas (Archivo Histórico del CC del PCE).
- "Biografia eta Gizartea" 38. Batzordearen Nazioarteko Biltzarra. Mar-seila, 1988. Nazioarteko Soziologi Elkarte. (Finlandiako soldatadunen hezkuntz eske sozialaz hitzaldi bat eman zuen Marja Jarvela-k, Tempé-ré-ko Unibertsitatea).
- "Biografia eta Gizartea" 38. Batzordearen Nazioarteko Biltzarra. Madril, 1990. Nazioarteko Soziologi Elkarte (ISA) eta Centre National de la Recherche Scientifique (CNRS).
- Latin Amerikako eta Espainiako Ahozko Historilarien I. Topaketak. México, 1988. "Historia herritarraz". Instituto Dr. José Maria Luis Mora. (Hezkuntza herritarri buruzko proposamen bat egin zen).
- Latin Amerikako Ahozko Historilarien II. Topaketak. Puerto Rico, 1990.

### 1.1.2. Nazioarteko aldizkariak

Bi motatako aldizkariak gogoratzen ditugu: AHN berezituak eta historiazko aldizkari orokorrak. Lehenengoen dute hemen zeresanik aberatse-na, baina besteok ere gogoan izatekoak dira, ofizioaren artean histori sail haren balioaren aitortpena dakartelako batipat.

#### 1.1.2.1. Ahozko historian berezituak

Gure ezagumenduen eguneratzea etengabe zaintzeko (alde teoriko eta metodologikoetan bereziki) erabat premiazkotzat daukagu aldizkari berezi-tuon bilaketa bat egin eta gure lankideen eskumenean jartzea. Zerrenda, oso atariko da, noski, baina lehen pausoetarako egoki etor liteke. Bego, oraingoz, bere labor horretan.

### **Brasil**

- Estudos Históricos. Associação de Pesquisa e Documentação Históri-

ca. Zuzendariak (ed.): Angela de Castro Gomes.- Gerson Moura.- Lúcia Lippi Oliveira. Helbidea: Edições Vértice. Rua Conde do Pinhal. São Paulo, SP.

### **Britainia Haundia**

- *Bulletin of the Society for the Study of Labour History*. (BSSLH). Ingalaterra.
- *History Workshop*. Oxford University, Ruskin College. Zuzendaria: Raphael Samuel. Ingalaterra.
- *International Journal of Oral History*. Meckler Ltd., Westport CT (USA) / London. Zuzendaria: Charles T. Morrissey (Editor-in-Chief) (1989). Helbidea: Editor, IJOH. Meckler Corp., 11 Ferry Lane West, Westport, CT 06880 (USA).
- *Oral History*. (OH) .The Journal of the Oral History Society, 1971. (P. Thompson-ek sortua). Zuzendaria: Brenda Corti (Review Ed.) (1989). Helbidea: Oral History Society. Sociology Department. University of Essex. Wivenhoe Park. Colchester. C04 35Q. Essex. Ingalaterra.

### **Estatu Batuak**

- *Newsletter*. Oral History Association. Zuzendaria: Jaclyn Jeffrey (Ed.) (1989). Helbidea: Baylor University, BU BOX 7271. Waco. TX 76798. (USA).
- *News Letter*. Oral History Association / Oral History Office. Columbia University. N.Y. (Nevin-ek sortua).
- *The Oral History Review*. Oral History Association. USA. Zuzendaria: Michael Frisch (1988). Helbidea: SUNY - Buffalo.
- *The Oral History Review* (OHR). (1973). Oral History Association. Ipar Texas-ko Unibertsitatea (USA).

### **Frantzia**

- *Institut d'Histoire du Temps Présent*. Bulletin trimestriel. Centre National de la Recherche Scientifique. Zuzendaria: François Bédarida (1989). Helbidea: 44, rue de l'Amiral Mouchez. 75014 Paris.
- *Les Cahiers de l'IHTP* [= Inst. d'Hist. du Temps Présent]. Centre National de la Recherche Scientifique. Zuzendaria: François Bédarida. (1989). Helbidea: 44, rue de l'Amiral Mouchez. 75014 Paris.
- *Life stories / Récits de vie*. Association Internationale de Sociologie /

Maison des Sciences de l'Homme (Paris). Comité de Recherche "Biographie et Société". Publié par l'Association "Développement de l'Approche Biographique". / International Sociological Association / Maison des Sciences de l'Homme (Paris). "Biography and Society" Research Committee. Published by the Association "Développement de l'Approche Biographique". Zuzendaria: Daniel Bertaux. (1988). Centre d'Etude des Mouvements Sociaux. Paris. *Frantsesez*: Daniel Bertaux. CEMS. 54 bd Raspail. 75006 Paris. *Ingelesez*: "Life Stories" (P. Thompson). Department of Sociology. University of Essex. Colchester CD4 3SQ. England.

- *Sonorités*. Bulletin de l'Association Française des Détenteurs d'Archives Audiovisuelles et Sonores. Helbidea: 2, rue du Louvre. 75002 Paris.

### **Italia**

- *Fonti Orali. Studi e Ricerche*. Bollettino nazionale d'informazione. A cura dell'Istituto Piemontese di Scienze Economiche e Sociali "Antonio Gramsci". Zuzendaria: Mario Giovana (1987). Helbidea: Istituto "A. Gramsci". 3 bis, via Vanchiglia. 10124-Torino.
- *I viaggi di Erodoto*. Quattrimestrale di storia e ricerca didattica. Edizioni Scolastiche Bruno Mondadori. Zuzendaria: Alberto De Bernardi (1989). Helbidea: 23, via Archimede. 20129-Milano, Italia.
- *Memoria*. Rivista di storia delle donne. Rosenberg and Sellier, Editori in Torino. Idazkaria: Angela Barberi (1989). Helbideak: Eskutizketa, etab.: "Memoria". Fondazione Basso. 5, via della Dogana Vecchia. 00182-Roma. Harreman komertzialak: Rosenberg and Sellier. 14, via Andrea Doria. 10123 -Torino.

### **Kanada**

- *Journal*. Canadian Oral History Association / Société Canadienne d'Histoire Orale. Helbidea: Canadian Oral History Association, P.O. Box 2064, Station "D", Ottawa, Ontario K1P 5W3. Canada.
- *The Journal of the Canadian Oral History Association* (OHA). Archives of Canada, Ottawa, Ontario.

### **Katalunia**

- *Historia y Fuente Oral*. Institut Municipal d'Història. Barcelona. Zuzendaria: M. Vilanova. Harremanetarako: Mercé Soler. Helbidea: Sta. Lúcia, 1. 08002-Barcelona. Tel. (93)3178327).

### 1.1.2.2. Historiografia orokorrekoak

Soziologiaz edo historiaz orokorki ari diren aldizkarietan hainbat lan topa liteke AHko gure alor honetaz. Ezingo dira ahantzi honelakoak. Gureaz argibideak ematen dituzten zenbaki batzuk gogoan hartzeko dakargu hona ondorengo hau.

*Annales*. E.S.C. (1974 / 1979). N<sup>o</sup> 4. (Dossier sur l'histoire orale). Parise.

*Annales*. E.S.C. (1980). Janvier-Février, 1980. Parise.

*Annales*. E.S.C. (1988). N<sup>o</sup> 4. (Dossier "Oral-Écrit"). Parise.

*Debats*. N<sup>o</sup> 10. Maig, 1985. Barcelona.

*El Correu*. Octubre 1979. (19-25 or.). Barcelona.

*Historia-Geografía*. Cuadernos de Sección. Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos. N<sup>o</sup> 6 eta 7.

*L'Avenç* Edita l'Avenç S.A. Barcelona.

*Papers*. (1979). 10. zenb. Universitat. Autònoma de Barcelona. Bellaterra.

*Quaderni Storici* (1977): "Oral History: fra antropologia e storia", N<sup>o</sup> especial. 35.

*Revista Internacional de Sociología* (1986): "La autobiografía ("historias de vida") y su valor metodológico". XLIV. liburukia 1986, 3. faszikulua.

## 1.2. Euskal Herriko harremanak

Alor hau, osatuz joango garen atala da. Oraingoz, hasteko, hona albiste batzuk, erakundeei nahiz banakako ikertzaileei dagozkienak.

### 1.2.1. Erakundeak

— *Antropologi Departamentua*. (EHU). Zorroaga. 20011-Donostia.

— *EHko Bertsolarien Elkarte*. Elkartearen idazkaria: Koldo Tapia. Bertso-laritzaren Artxibo-proiektuaren arduraduna: Arantxa Mariscal. Igeldoko Pasealekua, 25. 20008-Donostia.

— *EITB*. • ETBren Artxiboa. Iurreta (Bizkaia) Bideoteka, Fonoteka eta Hemerotekaren arduraduna: Tere Agirreazaldegí. • Euskadi Irratiaren Ahots-artxiboa, Fonoteka eta Hemerotekaren arduraduna Iñigo Zeberio. Donostia.

— *Eresbil*. Martin Etxeberria, 15. 20100-Errearteria. Artxibozaina: Jose Luis Ansorena. Idazkari teknikoa: Jon Bagües.

- *Etniker*. Herralde bakoitzean egoitza arduradun bat. — *Etniker Araba*: Seminario Alavés de Etnografía. — *Etniker Bizkaia*: Instituto Labayru. Gurutzi Arregi. Aretxabaleta, 1-1<sup>a</sup>. Bilbo. — *Etniker Gipuzkoa*: Seminario de Etnología de la Sociedad de Ciencias Aranzadi. — *Etniker Nafarroa*: Seminario de Arqueología de la Universidad de Navarra.
- *Euskaltzaindia*. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Zuzendari teknikoak: Gotzon Aurrekoetxea/Xarles Videgain. Artxibategi dialektologikoa. Erakundearen liburu- eta artxibozaina: J.A. Arana Martija.
- *Eusko Folklore*. *Anuario de Eusko Folklore*. San Telmo. Donostia. Idazkaria: Gurutzi Arregi.
- *Eusko Ikaskuntza*. 20004-Donostia. Legazpi, 10-1<sup>a</sup>. Tel. 943-425111. a) Hezkuntz Saila: Gregorio Arrien b) Antropologi Saila: Gurutzi Arregi . c) Musika Saila: Jose Luis Ansorena .d) EHko Historia Garaikidearen Agiritegia: J.C. Jiménez de Aberasturi. e) Paleontologi Datu-Bankua (Kutzaren Kalkulu-Zentrua): Jesus Altuna.
- *HABE*. Zerbitzu didaktikoa. Foruen Pasealekua, 1. 20005-Donostia. Grabaketa-tresneria eta artxibategia: Iñaki Aranberri (zuz.). Prim, 7 Ba. 20006-Donostia.

### 1.2.2. Euskal ikertzaileak

- Aginagalde, Borja. Irargi, Centro de Patrimonio Documental de Euskadi. Errekalde Jauregia, P.K. 220. 20570-Bergara.
- Agirreazkuenaga, Joseba. Historia Garaikideko Departamentua. EHU. 48940- Leioa (Bizkaia).
- Apalategi, Joxemartin. Pedagogi Fakultatea. Zorroaga. 20011-Donostia.
- Arana Martija, J.A.. Euskaltzaindia. Plaza Barria, 15 48005-Bilbo.
- Arregi, Gurutzi. Instituto Labayru. Aretxabaleta, 1-1<sup>a</sup>. 48010-Bilbo.
- Arrien, Gregorio. Pasiotarrak. 48290-Euba.
- Azurmendi, Joxe. Arriola, 50, esk. 20009-Donostia.
- Bagues, Jon. Eresbil. Martin Etxeberria, 15. 20100-Errenteria.
- Blasco Olaetxea, Carlos. Peña y Goñi, 2. 20013-Donostia.
- Bujan, Karmele. Irakasle-Eskola. 20009-Donostia.
- Dávila, Paulí. Pedagogi Fakultatea. Zorroaga. 20011-Donostia.

- Estévez, Xosé. EUTG. Mundaiz. 20012-Donostia.
- Iztueta, Paulo. Ategorrieta Hirib., 3-4. 20013-Donostia.
- Jiménez de Aberasturi, J.C. Centro de Documentación de Hª Contemporánea del País Vasco Ramery Etxea. 20280-Hondarribia.
- Jose L. Ansorena. Eresbil. Martin Etxeberria, 15. 20100-Errenteria.
- Otaegi, Marga. Antso Jakituna, 2-9. 20010-Donostia.
- Ruiz de Olabuenaga, J.I.. Deustuko Unibertsitatea. P.K. 1. 48014-Bilbo.
- Ugalde, Martin. Almirante Alonso. Villa Carolina, A-4. esk. 20280-Hondarribia.
- Valle, Teresa del. Pedagogi Fakultatea. Zorroaga. 20011-Donostia.
- Villatorta, José Luis. Simón Bolívar, 4-4ª. 48010-Bilbo.

## 2.

# LEHEN BIBLIOGRAFIA LAGUNGARRIA

Zerrenda, hiru sailetan banatzen dugu: Erbestekoak alde batetik —bi azpisailetan: aldizkariak eta liburu-artikuluak— eta hirugarren azpisailean Euskal Herriko bertoko argitalpenak. Nolanahi ere, zerrenda hauek nahi adina luza litezke, baina ez dugu uste izan horrek hemen laguntza handiagorik ekar zezakeenik, eta agian bai nahasmendurik. Horregatik, eskaintzen dugun honetaraxe laburtu nahi izan dugu.

## 2.1. Erbesteko argitalpenak

Bi sailetan banatzen ditugu argitalpen hauek: aldizkakoak eta banakako lanak, artikulu nahiz liburu. Beude lehen orientabide gisa. Argibide bibliografiko zabal eta ugariak nahi dituenak, aski du Parisera joan-etorria moldatu eta han "Institut d'Histoire du Temps Présent"-ek duen liburutegiari ikustaldi bat egitea (44, rue de l'Amiral Mouchez. 7501-Parise).

### 2.1.1. Aldizkariak

Aldizkariak dira beti ere zientzia baten barnean jakitatearen "egunero-ko" gorabehera eta planteamolde berriak hobeki ispliatzen dituztenak. Eskuartean erabili dugun bibliografian aintzakotzat hartuenak ikusi ditugun aldizkariak bakarrik aipatuko ditugu hemen, gehiago gabe. Hori bera ere sobera izango da, hasteko behintzat. Hona zerrenda oroigarria.

*Bulletin. de l'IHTP.* 44, rue de l'Amiral Mouchez. 75014-Parise

*Cahier de l'IHTP.* 44, rue de l'Amiral Mouchez. 75014-Parise.



- Estudos Históricos*. Associação de Pesquisa e Documentação Histórica. Edições Vértice. Rua Conde do Pinhal. São Paulo, SP. Brasil.
- Fonti Orali*. Studi e Ricerche. Instituto "Antonio Gramsci". 3 bis, Via Vanchiglia. 10124-Torino, Italia.
- Historia y Fuente Oral*. IMH. Santa LLúcia, 1. 08014-Barcelona.
- History and Memory*. Tel Aviv University. Israel.
- I viaggi di Erodoto*. 23, via Archimede. 20129-Milano, Italia.
- International Journal of Oral History*. Meckler Corp. 11, Ferry Lane West. Westport. CT 06880 (USA)
- Journal*. Canadian Oral History Association. P.O. Box 2064, Station "D". Ottawa. Ontario K1P 5W3. Canada.
- Life stories / Récits de vie*. CEMS. 54, bd Raspail. 75006-Parise.
- Memoria*. 5, via della Dogana Vecchia. 00182-Erroma.
- Newsletter*. Oral History Association. Baylor University. BU BOX 7271. Waco. TX 76798. (USA).
- Oral History*. Sociology Department. University of Essex. Wivenhoe Park. Colchester. C04 35 Q. Essex. Ingalaterra.
- Sonorités*. AFDAAS. 2, rue du Louvre. 75002-Parise.
- The Oral History Review*. Oral History Association. SUNY - Buffalo. (USA).
- 2.1.2. *Liburu-artikuluak*

Lehen ekinaldi baterako ongien etor litezkeen liburu eta artikulu batzuk aipatzen dira bakarrik. Edozein liburu teorikotako zerrenda bibliografikok zabal eta osa lezake hau. Bego, oraingoz, lehen iradokizun sobera subjektibo bezala. Ez ditugu hemen aipatzen, baina nahitaezkoak dira, noski, AHko Nazioarteko Biltzarretako lanen argitalpenak.

- BERTAUX, D. (1976): *Histoire de vies ou Récits de pratiques? Méthodologies de l'approche biographique en sociologie*. Rapport Cordes, multigraphie. Paris.
- BURGUIERE, A. (1986): *Dictionnaire des sciences historiques*. Paris: PUF.
- CONSEIL INTERNATIONAL DES ARCHIVES (1984): *Dictionnaire de terminologie archivistique*. Munchen-New York-London-Paris: K.G. Saur.
- FRASER, RONALD (1979): *Recuérdalo tú y recuérdalo a otros. Historia oral de la Guerra Civil española*. Barcelona: Ed. Crítica, Grijalbo. [(1979): *Blood in Spain. The experience of Civil War, 1936-1939*].

- FRASER, RONALD (1982): "Reflexiones sobre la historia oral y su metodología en relación con la guerra civil española", in: *Metodología histórica de la guerra y revolución españolas*. Barcelona: Fontarama, 1982.
- GAGNON, N.; HAMELIN, H. (1978): *L'Histoire orale*. Saint-Hyacinthe (Québec): Edisem.
- GOY, JOSEPH (1978): "Orale (Histoire)", in: LE GOFF, J. (dir.) (1978): *La nouvelle Histoire*. Paris: Retz-CEPL.
- I Colloqui sobre "Les fonts orals"*. Ciutat de Mallorca, de 12-abril-1984 a 14-abril-1984. Director Joan Miralles. Departament de Llengua Catalana. Universitat de Palma.
- LEJEUNE, P. (1975): *Le Pacte autobiographique*. Paris: Seuil.
- LEWIS, OSCAR (1963): *Los hijos de Sánchez: Autobiografía de una familia mejicana*. México: F.C.E.
- MIRALLES i MONTSERRAT, JOAN (1985): *La història oral. Qüestionari i guia didàctica*. Palma de Mallorca: Ed. Moll.
- MOSS, WILLIAMS W.; MAZAKINA, PETER C. (1986): *Archives, histoire orale et tradition orale: une étude du RAMP*. Paris: UNESCO.
- PLUMMER, K. (1989): *Los documentos personales. Introducción a los problemas y la bibliografía del método humanista*. Madrid: Siglo XXI.
- PONS PRADES, EDUARDO (1977): *Guerrillas españolas. 1936-1960*. Barcelona: Editorial Planeta.
- SCHNAPPER, D.A.; HANET, D. (1980): "D'Herodote au magnétophone: Sources orales et Archives orales", in: *Annales*, Janvier-Février. 1980.
- SUTHERLANA (1988): *Ladrones profesiones*. Madrid: La Piqueta.
- SZCZEPANSKI, J. (1979): "El método biográfico". *Papers. Revista de Sociología*. n. 10, 1978, 229-259 or.
- TAYLOR, S.J.; BOGDAM, R. (1986): *Introducción a los métodos cualitativos de investigación*. Buenos Aires: Paidós Studios.
- THÉVENOT, JEAN (1967): "Les machines parlantes" eta "Temoignages sonores enregistrés", in: SAMARAN, CH. (1967): *L'Histoire et ses méthodes*. Paris: Gallimard. 802-819, 1411-1417.
- THOMPSON, P. (1968): *The Making of the English Working Class*. London: Ed. Penguin. [Historilari britainiar marxisten testuingurukoa, eta herri xumearen bizitza material eta kulturalaz diharduena].

THOMPSON, P. (1978): *The Voice of the Past*. Oral History. Oxford Univ. Press. 19842.

THOMPSON, P. (1984): "La història oral avui", in: *I Colloqui sobre fonts orals*. Palma de Mallorca.

THOMPSON, P. (1985): "La historia oral y el historiador", in: *Debats*, València, nº 10, mayo, 1985.

VANSINA, JAN (1961): *De la Tradition Orale. Essai de méthode historique*. Gaztelaniaz (1967): La tradición oral. Barcelona, Ed. Labor. [P. Thompson: "AHko lehen ikaslan serioza"].

VILANOVA, MERCE (1984): "La història oral: qüestions metodològiques", in: *I Colloqui sobre fonts orals*. Palma de Mallorca.

## 2.2. Euskal Herriko bibliografia (AH)

Eusko Ikaskuntzaren "Tokiko Historiaz Ikastaroa"-n (1987) banatutako bibliografiatik jaso ditugu ondoko aipu hauetako gehienak. Eskerrak zerrendaren berri eman digun M. Otaegi-ri. Geure aldetik beste tituluren bat edo gehitu diogu.

Bestalde, lan honen kritikarien artean J. Agirreazkuenagak euskarazko hainbat lanen aipurik eza gogoratu dit. Euskarazko argitalpenetan badago, noski, AHra hurbiltzen denik. "Auspoa"-ren bilduma ugaria gogoratu behar-ko genuke, lehenik, eta gero, Aita. A. Zavala berak hasitako bertsolarien oroitzapen-bilduma handia ere bai (Uztapide, Xalbador, Lasarte, Xalbador, etab.). Eta egon da hortik aparte lan solterik ere: B. Enbeitaren Bizitzaren joanean bezalakoak, adibidez (1986. Donostia: Elkar).

Ahozko herri-literaturaren ildotik urrun joan liteke historiaren harian. Berrikitan Zavala-k ("Auspoa"-n gomutatu izan diren beste Gerra sonatu batzuk bezala: Kuba, Afrika) XVIII. mendearen azkenetako gertakariak eman dizkigu bertso-sorta ederrean: Frantziako Iraultza eta Konbentzioko Gerra bertsotan (Etor Argitaletxea, Auspoa 202). Zinezko perla historiografikoak dira horrelakoak.

### 2.2.1. Aldizkariak

Euskal Herrian Ahozko Histori lan zabal bati ekitean, hemen bertoko zenbait talde eta aldizkari gogoan hartu beharra dago. Hauetako batzuk, Histori aldizkariak izangabe ere, gure metodoekin zerikusi zuzena izan dute beren lanbidean erabili dituzten lan-moldeengatik, eta behin baino gehiago-

tan horrelakoetan ibili direnak ongi trebatu dira bilketa-lanetan ere. Euskal aldzkari batzuen altxorra gogoratuko dugu, ba.

*Antropología y Etnografía*. (1982...). Eusko Ikaskuntza "Cuadernos de Sección." Donostia.

*Anuario de Eusko Folklore* (1921...) J.M. Barandiaran Fundazioa. Donostia.  
*Cuadernos Adarra*. (1979...). Bilbo.

*Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*. (1969...). Institución "Príncipe de Viana". Iruñea.

*Cuadernos de Toponimia Alavesa*. (1985...). Gasteiz.

*Educación*. (1985...). Eusko Ikaskuntza "Cuadernos de Sección". Donostia.

*Eskola*. (1983...). Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.

*Ixilik*. (1982...). Irakasleen Elkarte. Donostia.

*Kimu*. (1982). Bilbo.

*Ohitura*. Araba. Gasteiz.

*Tantak*. Irakasle Eskola. EHU. Donostia.

### 2.2.2. Liburu-artikuluak

AGIRREAZKUENAGA, J. (1986): "XIX. mendeko bandolerismoaz: Manuel Antonio Madariaga "Patakon", gaizkile onaren adierazpena", in: *RIEV*, 1986, 587-608. or.

AGIRREAZKUENAGA, J. (1987): "Armada frankistaren sarreran, errepre-sioa eta heriotzak Busturialdean", in: *VARII* (1987): *La guerra civil en el País Vasco. 50 años después*. Bilbo: EHU. 329-345. or.

APALATEGI, F. (1961): *Euskal mutillak armetan*. Tolosa: Auspoa (3).

APALATEGI, J. (1987): *Introducción a la historia oral. Kontzaharrak (cuentos vascos)*. Barcelona: Anthropos.

BELTRAN (1979): *Basque Sheepman of the American West, by Beltran Paris as told to William Douglass*. Reno, Nevada: University of Nevada Press.

BLASCO, C. (1982): *Conversaciones. Jesús M<sup>a</sup> Leizaola*. Bilbao: Idatz-Ekintza.

BLASCO, C. (1983): *Diálogos de guerra*. San Sebastián.

GRANJA SAINZ, J.L. (1986): *Nacionalismo y II República en el País Vasco*:

- Estatutos de Autonomía y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca, 1930-1936.* Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas/ Siglo XXI.
- IBARZABAL, E. (1977): *Manuel de Irujo*. San Sebastián: Erein.
- IBARZABAL, E. (1978): *Cincuenta años de nacionalismo vasco (1928-1978)*. San Sebastián: Ediciones Vascas.
- IBARZABAL, E. (1979): *Koldo Mitxelena*. San Sebastián: Erein.
- JIMENEZ DE ABERASTURI, J.C. (1984): "Documentos. Luis Ibarra 'Itar-ko'", in: *Muga*, nº 32. mayo, 1984.
- JIMENEZ DE ABERASTURI, J.C. (1985): "Protagonistas de la historia vasca: Sebastián Zapiain", in: *Cuadernos de Sección Historia-Geografía*, nº 6. San Sebastián: Eusko-Ikaskuntza.
- JIMENEZ DE ABERASTURI, J.C. (1989): "La historia oral sobre el Nacionalismo Vasco", in: *Historia y Fuente Oral*, nº 2, 157-169.
- JIMENEZ DE ABERASTURI, J.C. y L.M<sup>a</sup> (1978): *La guerra en Euskadi*. Barcelona: Plaza y Janés.
- JIMENEZ DE ABERASTURI, J.C.; OTAEGI, M. (1987): "Historia oral y Archivística oral: Un método para el estudio de la historia local", in: AGIRREAZKUENAGA, J. (Ed. ard.) (1987): *Tokiko historiak ikerketak / Estudios de historia local*. Bilbao: Eusko Ikaskuntza. 79-101.
- JIMENEZ DE ABERASTURI, L.M<sup>a</sup>. (1985): *Casilda Miliciana. Historia de un sentimiento*. San Sebastián: Txertoa.
- OTAEGUI, M.; ESTEVEZ, X. (1985): "Protagonistas de la historia vasca (1923-1950)", in: *Cuaderno de Sección Historia-Geografía*, nº 7. Sociedad de Estudios Vascos.
- UGALDE, M. (1990): *Lezo Urreiztieta (1907-1981)*. Biografía. Donostia: Elkar.
- UGALDE, M. de (1974): *Hablando con los vascos*. Esplugues de Llobregat: Edit. Ariel.
- UGALDE, M. de (1975): *Hablando con Chillida, escultor vasco*. San Sebastián: Editorial Txertoa.
- VARII (1990): *Atlas Etnográfico de Vasconia. La alimentación doméstica en Vasconia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jauriaritza / Bilbo: Etniker Euskalerria.